

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

**EUSKAL IRAKASKUNTZA
AUTONOMI AROAN
(1983-94)**



Egilea: Paulo Iztueta Armendariz

Utriusque Vasconiae

Lehen argitalpena: 2000

ISBN: 84 - 931632 - 0 - 1

Lege-gordailua: BU 361 - 2000

Diseinua eta maketazioa: Leticia Aristi Oria

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

**EUSKAL IRAKASKUNTZA
AUTONOMI AROAN
(1983-94)**



AURKIBIDEA

TAULEN AURKIBIDEA	9
DOKUMENTU-ERANSKINEN AURKIBIDEA	11
ONTSA IRAKURTZEKO	13
1. Tempus rememorandi: Atzokoak gaurkotuz	13
2. Tempus monendi: Ikastolak eta hezkuntza elebiduna (1983)	17
3. Tempus agendi: Euskal Eskola Publikoaren Legea (1993)	26
I. IKASTOLAK AUZITAN HEZKUNTZA ELEBIDUNEAN	33
1. Ikastolak arazo: zertan garen eta nora goazen	33
2. Elebitasuna zertarako?	37
3. Elebitasuna, demokraziaren ondorio	39
4. Ereduen eraso	42
5. Elebazarreko ikastola auzitan	44
6. Euskara eskoletan: noizko eta nola?	47
7. Federazioak, bai? Zertarako?	51
II. EUSKARA IRAKASKUNTZA EZ-UNIBERTSITARIOAN ETA IRA- KASLE-ESKOLETAN: EGOERAREN AZTERKETA ETA IRTENBIDE POSIBLEAK	55
1. Euskara irakaskuntza ez-unibertsitarioan	56
2. Euskararen egoera Irakasle-Eskoletan	74
3. Euskal eskolaren funtsezko helburuak	83
4. Hezkuntza elebidunaren mugak	87
5. Plangintza eraginkor baterako lehen zirriborroa	93
6. Botere politiko gehiagoren beharra	102
III. HEZKUNTZA, DEMOGRAFIA ETA LANPOSTUA	103
1. Euskal Herriaren bilakaera demografikoa	103
2. Matrikulazioaren beherakada	107
3. Jaiotzeak eta matrikulazioak jaistearen ondorioak	108

IV. EUSKAL ESKOLAREN BILA	111
1. Abiapuntu historikoaren garrantzia	111
2. Hizkuntz ereduak hezkuntzan	124
3. Irtenbideak	136
V. MAIATZAREN 25A: ZIKLO BERRI BATEN HASIERA	144
1. Antzeko ikasle-kopurua	145
2. Bi alternatiba	145
3. Ideia baliagarriak	146
VI. EUSKAL ESKOLA NAZIONALA EGINKIZUN	148
1. Oztopo politiko-juridikoak	149
2. Arazo soziolinguistikoak	153
3. Irtenbideak urratzen	156
BIBLIOGRAFIA	199

TAULEN AURKIBIDEA

1. Ikasleriaren eboluzioa ikastetxeen arabera (1976-82)	57
2. Ikastetxe-moten banaketa herrialdeen arabera (1981-82)	57
3. Hizkuntz ereduak ikastetxe eta ikasmilen arabera (1982-83)	59
4. Irakasleriaren eboluzioa EAEn (1978-82)	61
5. Irakasleak herrialdeen eta ikastetxe-moten arabera (1981-82).....	62
6. Irakasleak eta ikasleak ikasmilen arabera (1981-82)	63
7. Irakasle euskaldunen kopurua ikastetxe publikoetako EA eta OHOn (1976-77)	65
8. Euskararen ezagutza ikastetxe publikoetan (1982-83 eta 1983-84)	66
9. Ikastolen kopuru-eboluzioa herrialdeka (1960-61 eta 1981-82)	67
10. Ikastoletako ikasle-kopuruaren eboluzioa	69
11. Ikastolen eta bertako ikasleen kokalekua euskara dakiten eta ez dakiten herrien arabera	71
12. Euskara dakiten gurasoen kopurua portzentaian (1976-77)	72
13. Ikasle eta irakasleen kopuru-eboluzioa (1979-83)	75
14. Ikasle eta irakasleen kopurua Irakasle-Eskoletan (1982-83)	76
15. Euskararen egoera Donostiako Irakasle-Eskola publikoan (1982-83) ...	77
16. Donostiako elizbarrutiko Irakasle-Eskola pribatua (1982-83)	78
17. Eskoriatzako Irakasle-Eskola pribatua (1982-83)	78
18. Deustuko Irakasle-Eskola publikoa (1982-83)	80
19. Gasteizko Irakasle-Eskola publikoa (1982-83)	80
20. Iruñeko Irakasle-Eskola publikoa (1982-83)	81
21. Hizkuntz ereduaren eboluzioa EA eta OHoko ikasmilen arabera (1982-83)	90
22. Zuzenbidezko biztanleriaren eboluzioa Euskal Herrian (1960-91)	104
23. Euskal demografiaren eboluzioa Hego eta Ipar Euskal Herrian (1960-91)	105
24. Hego Euskal Herriaren populazio-mugimendua (1975-1991)	106
25. Matrikulazioaren eboluzioa EAn (1977-1991)	107
26. EAEko ikasle eta irakasleen banaketa ikastetxe-moten arabera (1990-91)	109
27. Ikastoletan matrikulatutako ikasleriaren eboluzioa herrialdeen arabera (1964-82)	115

28. Ikasle-matrikulazioaren eboluzioa ereduaren arabera (1982-90)	126
29. Hizkuntz ereduak ikasmailen arabera (1982-90)	127
30. Hizkuntz ereduak ikastetxeen arabera (1982-1990)	129
31. Hizkuntz ereduak herrialdeen arabera (1982-1990)	130
32. Irakasleria herrialde eta ikastetxeen arabera (1986-87)	132
33. EGA tituludunen portzentaiak EA, OHO, BBB-UBI eta LHko irakasleen artean (1986-87)	133
34. Ikasle-kopuruaren eboluzioa EAko Irakasle-Eskoletan (1979-87)	134
35. Ikasle euskaldunak Irakasle-Eskoletan (1986-87)	135
36. Ikastetxe-motak portzentaiatan (1988-93)	153
37. Hizkuntz ereduak ikastetxe-moten arabera (1989-90)	155

DOKUMENTU-ERANSKINEN AURKIBIDEA

1. Documento Base de EEPA (Euskal Eskola Publikoaren Alde)	161
2. Irakasle Elkartea. Euskal Irakaskuntzarako morroi isila. Irakasle Elkartearen aldakuntza	163
3. Ikastolaren etorkizunari buruz eztabaidan ikuspegi “desberdin” bat	169
4. Sortzen. Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko mugimendua	179
5. Ikastolen ElkarTEak ikastolei proposamena. ArmentiakO Agiria	185
6. Sortzen-IkasbatuazEn Hezkuntza Sistema Propioa. Euskal Eskola Publiko Berria eraikitzeko proposamena	189

ONTSA IRAKURTZEKO

Eskaintza sotil batekin natorkizu, irakurle, eta eskuetan daukazun hau bere sotiltasun horretantxe hartzea nahi nuke. Hemen dakardana ez da erabat berria. Zati bat bai, beste bat ez. Lehen atala EKBren siglapean argitaratu zen, hurrengo biak bere garaian argitaratzeke gelditu ziren eta azkeneko hirurek, berriz, argitalpen desberdinetan ezagutu zuten argia. Bere garaian idatzi eta argitaratu bezala doaz guztiak, ortografiaren aldetik zerbait gainbegiratuta, baina edukia batere aldatu gabe, zeren, orduko hezkuntza-errealitateari buruzko interpretazioan asmatu ala ez, horrela ematen baitute zintzoenik beren garaiko lekukotasuna.

Pasarte batzuetan punturen bat edo beste errepikatzen dela ikusten baduzu, erraza daukazu erremedioa: bistaz salta eta jo aurrera. Diskurtsoaren haria ez eteteko utzi ditut bere horretan.

Azkeneko zatian, atal desberdinetan hariltzen den diskurtsoaren ulerpenerako, eranskinen atala ezarri dut, oinarrizkoenak eta adierazgarrienak iruditu zaizkidanekin osatuak.

Bibliografiaren atalean, orduko iturriez gain, gai honi hurbilen zaizkion e-karpen batzuk aipatzen saiatu naiz, baina, batez ere, ikuspegi soziologiko, historiko eta pedagogikotik egindakoak, nahiz eta lan horiek geroztik egindakoak izan.

Tempus rememorandi: Atzokoak gaurkotuz

Honezkero, beharbada, galdetu duzu ea zergatik ote natorren ia duela hogeitau urteko kontu zaharrak berritzera. Nire gogoan ez zen sortuko argitalpen honen asmoa baldin azkenaldiotan gai honetaz irakurri ditudan lan batzuen irakurketak hartaratu ez banindu. Badirudi euskal irakaskuntzaren inguruan esatekoak jadanik esanda daudela. Egia da, nola ukatu, ikerketa-ildo batzuk irekiak daudela eus-

kal hezkuntzako zenbait sailetan, —bereziki historiko eta pedagogikoan—, eta lehen baino gehiago dakigula bai Euskal Herrian gauzatu izan den hezkuntza-politikaz, bai euskal nazionalismo historikoak euskal irakaskuntzaz izan duen nazio-ikuspegiak, bai ikastolen bilakaera historikoaz, bai autonomi aroan garatu den hezkuntza elebidunaz, baita irakaskuntza publikoaren gainean egon zen eztabaidaz ere. Zorionez, Euskal Herriko unibertsitate-ikertzaileak ez daude lo eta, ikerlan guztiak maila berekoak ez badira ere, orokorrean esan dezakegu guztiak direla interesgarri eta argigarriak eta, ekarpen berrien mezulari diren heinean, jakingarriak. Ugarituz eta iker-ildo berrietan desberdinduz doan bibliografia hau fideltasunez jaso beharrean gaude, batzuen aupaetzen eta besteena ignoratzen ibili gabe, langintza honetan sobera dagoenik inortxo ez da eta.

Ez bakarrik aurreratu da euskal gaien buruzko ikerketa-lanetan, baita ikerketa horietan erabiltzen den hizkuntzan ere. Gure aurrekoek, gutxi batzuek salbu, ez zuten uste gai akademikoak euskaraz jorra zitezkeenik. Ez da harritzekoa, bada, ordukoek gai serioetarako, hitzez nahiz idatziz, erdarara jotzea. Izan ere, uste orokortua zen euskara literaturgintza eta kazetaritzan erabiltzekoa zela, sail horietan, batik bat, eta euskarari, inondik etortzekotan, hortik etorriko zitzaiola zegokion ospea. Egun ere, euskal produkzio idatziaren barruan prosa tekniko-zientifikoaren aldeko erabilera indartuz doan arren, ohiko iritzi horrek oraindik ere eragin handia izanez segitzen du hainbat euskaltzaleren panteoian. Hauentzat euskal idazle, izan, literatoa da, batez ere. Bera da sortzailea. Diogun honetaz ohartzeko komunikabideek dakartena ikusi besterik ez dago. Baina, —berriro diot, zorionez—, euskaraz prosa akademikoan asko aurreratu du eta, merezi duen neurriko aitorten sozialik egiten ez zaion arren, nabarmenki aberastuz doa bere altxorra. Ugalduz doan andana da altxorgintza horretan diharduena eta noizbait hurbilduko zaizkio bilatzaileak.

Badugu, beraz, bizibidez edo afizioz diziplina espezializatuetako gaiak euskaraz lantzen ditugunok zergatik poztu eta zergatik zoriondu geure buruak. Baina inguruan intsentsu-usaina zabaldu gabe. Eta hementxe hasten dira, hain zuen, lehen aipatutako kezkak. Egia bada ere aurrerapauso handiak eman direla euskal hezkuntzari buruzko ikerketa-jardunetan, aitortu beharra dago oraindik hasieran bakarrik gaudela eta hurbilekoen zaizkigun gizarte-egitateak, besterik uste arren, ez ditugula behar bezala ezagutzen. Ezagutzen dugu, agian, haien azala —eguneroko prentsak jasotzen duena—, ez hainbeste haien muina —eguneroko prentsak ezkututzen duena, hain zuzen—. Eta gizarte-zientziek horrelaxe egiten dute aurrera: ezkutuan dagoena bistaratzuz eta ikerketa partzialak osatzen joanez.

Partzialtasun horren barruan kokatzen dituzte garai hartan liburu baten argitalpenean pentsatu gabe burutu nituen lan solte hauek. Badute, halere, batasun organiko hertsia bat gaiaren zein kronologiaren aldetik begiratuta. Ezin da ulertu azken atala lehenengoa gabe, ezta alderantziz ere. Hamar urteko hezkuntza-egitate nagusien kronologia (1983-94) dator hor emana, urte-ardatzak 1983 eta

1993koa direlarik. Lehenengoak hezkuntza elebidunaren inguruan planteatutako arazoak islatzen ditu eta bigarrenak, berriz, Euskal Eskola Publikoaren Legeak sortutakoak. Gasteizko botere autonomikoak Hezkuntza-Sailetik ezarritako politikaren kontra erreakzionatuz eta hari erantzunez sortutako gogoetak dira lantxo horiek, ikuspegi oso pertsonala erakusten dutenak eta orduan erdi-apunte gisa formulatu nituenak. Agian, gaurko mandiotik begiratuta, gehiago dute berotik hotzetik baino. Eta lan horietako batzuei kultur militantismoari atxikiriko salakuntza-usain nabaria badarrie, beude bere horretantxe, udaberriro bere usaina berritzen, zeren, soziologia kualitatiboak irakatsi didanez, zientziak ez baitu objektibotasunean irabazten ikertzailearenean alde subjektiboa eta objektiboa bereiziz, biak ezagutzaren prozesu berean inplikaturik baizik. Ezagutza neutrorik ez da. Politikagintzan fictio juris ematen den bezala, zientzigintzan ere fictio scientiae eman daiteke eta, gertatzez, ematen da. Zeren ordezkari dira, asko eta askotan, botere-zerbitzura dauden zientzilari eta intelektuaren interbentzio publikoak, ez bada arbitrariedade eta manipulazio garbiarenak?

Hezkuntzaren Soziologian, beti ere pedagogia kritikoaren barrutik arrazoi-tuz, “erresistentziaren teoria” deitzen zaionak bere bidea egin du Estatu Batuetako Paul Willis eta Henry A. Giroux egile ezkeriarrek 1970eko hamarkada bukaeran formulatu zuten geroztik. Guk geroxeago izan genuen horien berri, handik hamar urtera edo, hona itzulpenen bidez iritsi zirenean. Baina orduko, —iparramerikarra ez bezalako beste testuinguru batean, noski—, erresistentziaren filosofia jadanik aplikatua zen ezker abertzalearen praxi politiko eta kulturallean. Frankismo-garaian iraultzaren kontzeptua zen bezala erreferente nagusia, autonomi aroko ezker abertzalearen lexikoan baliteke erresistentziarena izatea maiztasunik gehien erakusten duena haren antzeko esanahia adierazteko. Gatazka-zelaien instituzionalistak eta besteak gurutzatzen ziren eta orduko planteamenduek, —neurri batean, beharbada maila pluralistago batean—, egun ere zutik diraude, dauzkagun arazoak ere ordukoen antzekoak baitira.

Liburu honen mezua ezingo da ulertu erresistentziaren paradigmatik begiraturata ez bada. Eta erresistentziaren barruan, jakina, ez da dena uniforme. Ezkerrek ere badaki bere adierazpen intelektualean pluriformea izaten, desobediencia geroan desobediente izaten. Jokabide honi anarkista deitu izan zaio, esanahi gaiztoa erantsiz, baina guztiz desegoki, zeren pentsamendu anitzak, berez, ez baitu zerikusirik anarkismoarekin.

Sigla politiko-sindikalen ahotsa, makrotalde antolatua baten ahots organikoaren aldetik, normalean monokordea izan ohi da, diziplinatua, ideologia jakin bati atxikia. Hemen bezala mundu zabalean. Eta nola aparatu horiek ezarritako botereari kontraboterearen alternatibarekin erantzuteko sortuak diren, lan horretarako beren intelektual organikoak dituzte, beren kultur plataformak, alde aurretik finkatutako plangintza bati erantzuten diotenak. Eta seguru asko politikagintza eta sindikalgintzan eraginkortasunez jokatzeko ez da beste bide egokiagorik asmatu.

Honekin esan nahi dudana da, botereak bere intelektual organikoak izaten dituen bezala, kontrabotereak ere badituela bereak, eta horien ahotsa ez dela soilki indibiduala, ematen dituen arrazoi hutsetan oinarritua, alegia, baita berak ordezkatzen duen kolektibo oso batena ere. R. Collinsek¹ ederki asko esplikatzan duen bezala, taldekide edo erakundekide izatetik datorkio autoritatea. Sektore desberdinetako profesionalek, nola politikoez hala bestelakoek, korporatibismoan dute beren izateko arrazoia eta, batez ere, indarra.

Baina badira beste ahots batzuk, herri-mailako beste kultur mugimenduetan oinarritzen direnak, edo, baita ere, pentsamenduaren jorraketan bere alor akademikora mugatuta dihardutenak. Hauek ere herri-arazoetan murgilduta bizi dira, baina beren egitekoa botere- zein kontrabotere-erakundeen zerbitzura egon gabe egiten dute. Erakunde antolatuen itzala falta zaie, baina izpiritu-askatasunean irabazten dute. Intelektual-sektore honen lan-estiloari batzuetan “kulturalista” eta bestetan “foklorista” deitu izan zaio gurean, baina, —berriro diogu—, desegoki, zeren horien kultur gintza ere sakon-sakonean politikoa baita. Bestela esanda, hauen lana inola ere ez da indiferentea ikergai den gizarte-fenomeno jakin bati buruzko azalpenean.

Arestian esandakoetatik ateratzen dugun ondorioa da, gurera etorrira, ezker abertzalearen esparruan garatu den eta garatuz datorren kultur gintzaren azalpenean ez duela mimetismoak funtzionatzen, kultur produkzioan zein erreproduktzioan parte hartzen duten gizarte-egileak, esan bezala, mota askotakoak baitira, ez bakarrik erakunde politiko-sindikalekoak, baita ezein botere-sostengurik ez dutenak ere. Askotan, gaurko gizarte-sisteman eraginik gehien dutenak erakunde politiko-sindikalak direlako, horko buruzagien testuak hartzen dira azterketarako abiapuntutzat, osoki ez bada ere, bai nagusiki. Hezkuntzaren sailean egin diren ikerketa batzuk ikuspegi sinplistegi horrek baldintzatu dituelakoan nago. Erabakigarriak gertatu diren euskal irakaskuntzari buruzko eztabaida sutuak azaltzerakoan, ideologia politikoaren arabera sailkatutako siglen jarrerak azalduz arrazoitzen da, ikuspegi kontrajarriak sistematizatuz. Baina honelakoetan, ezbaian dagoen hezkuntza-egitatearen prozesua bera azaldu baino gehiago, prozesuaren bukaera eskaintzen zaio irakurleari: hots, emaitzen menua. Bestalde, hertsiki politikoak ez diren beste kultur plataformen ekarpenak edo ikuspuntuak, —zenbait kasutan aski landuak—, ez dira aipatzen ere, edo ezagutzen ez direlako, edo garrantzirik ematen ez zailako. Arriskua hor dago eta ez nuke esango horrelako zerbait gertatu ez zaigunik 1983-94 epealdi horretan zehar hezkuntzaren esparruan gertatuak aztertzeari ekin izan zaionean. Egia esan, ohartuki ahalegindu naiz arrisku horretatik edo antzekoetatik aldentzen, baina asmo hori zein neurritan lortu dudan, hori irakurleak juzgatuko du.

¹ *La sociedad. credencialista. Sociología histórica de la educación y la estratificación*, Akal, Madrid, 1989

Sei atal dira guztira hemen eskaintzen ditudanak, kronologiaren arabera sailkatuta datozenak. Maila batean bederen, erabakigarriak gertatzen diren bi dataren inguruan mamituak dira lan hauek: lehen bi atalek 10/1982ko Arauzkotzeko Oinarrizko Legea eta 15/1983ko uztailaren 27ko EIKE Legea dituzte erreferentzi data funtsezkoenak, horien inguruan harrotzen baitira eztabaidak eta, halaber, epealdi horretan gizarteratzen euskal irakaskuntzari buruzko alternatibak. Esan beharra dago, halere, Eusko Legebiltzarrak onartu eta abuztuaren 6an aldarrikatutako Lege honen bidez, batetik, derogatu egiten da 1980ko urtarrilaren 24ko Ikastolen Titularitate Ofizialeko Arautegia eta, bestetik, Ikastolen Estatutu Juridikoa onartzen da, haiek Hezkuntza-Sailera adskribatutako erakunde autonomo gisa hartuz, baina indarrean sartu gabe gelditzen da, Auzitegi Konstituzionalak horko zenbait artikuluko inpuñatu egin zituelako. Horregatik, praktikan, Ikastolek Titularitate Ofizialeko Arautegiaren arabera funtzionatuko dute, nahiz eta tartean, Arautegian aurrikusita datorren bezala², Hezkuntza-Sailak eta Ikastolek hitzarmen batzuk izenpetuko dituzten.

Tempus monendi: Ikastolak eta hezkuntza elebiduna (1983)

Euskal irakaskuntza ez-unibertsitarioaren inguruan garai honetan gertatzen denak bere kronika du eta, orobat, bere testuinguru berezia, oso hurbiletik ezagutu beharrekoa, zeren euskal politikaren barruan egiten diren analisiak eta proposatzen diren alternatibak ez baitira, arestian esan bezala, batere homogeneousak ez ezkerren ez eskuinaren nazionalismoan eta, ondorioz, alde batean zein bestean gorpuzten diren jarrera kolektiboak alde —zenbait puntutan, alegia— onartuak baitira eskola-komunitatearen aldetik, eta alde ez. Erabateko zuri-beltzik ez da ematen, nahiz handik hamar urtera orduko jokabideak asko argituko diren.

Pertsona-irizpidean oinarritutako elebitasunari buruzko legearen ezarpena dela eta, Euskal Herriko hezkuntza-sistema nazionala euskarazko irakaskuntzaren ikuspegitik gogoematen duenari planteatzen zaizkion galdera nagusi eta larriena, hiru hauek dira: bat, gehienbat erdalduna den irakaskuntza nola euskaldundu pedagogi bide eraginkorrenez, oinarritzat lurraldetasuna hartuz eta, aldi berean, herritarren borondatea errespetatuz; bi, egoera berri honetan, zeinetan hezkuntza elebidunari ematen baitzaio hasiera, hirugarren sare gisa funtzionatuz datozen ikastolek etorkizunean zein egiteko bete behar duten erabakitzea; hiru, Gasteizko gobernu autonomikoak, bere hezkuntza-sistema propioa eraiki ahal izateko, zein

² Ikastolen Titularitate Ofizialeko Arautegi hau 1979ko Elebitasun-Dekretuan oinarritzen da, zeinetan, 3.2. artikuluaen arabera, Hezkuntzako Ministerioari Eusko Kontseilu Nagusiarekin zein beste edozein Erakunde Publikorekin hitzarmenak egiteko ahalmena aitortzen baitzaio. Honela, Eusko Kontseilu Nagusiak, Hezkuntzako Ministerioarekin hitzartuz gero, Ikastolei laguntza ekonomikoa eta berme juridikoa ematea lortzen du, baina, beti ere, hauen titularitatea bere gain hartuz. Honela, Ikastolak, Eusko Kontseilu Nagusipekoak izanda, titularitate ofizialekoak izatera pasatzen dira.

neurritako ahalmen juridikoak dituen. Arazo nagusi hauen ingurumari formula-tzen dira, hain zuzen, ezker abertzaleak euskal irakaskuntzari egotzen dizkion ezaugarriak: publikotasunean euskalduna eta doakoa izatea, kudeaketan autono-moa eta demokratikoa, —eskola-komunitatea osatzen dutenen eskubideak erres-petatuko dituen, alegia—, eta abar.

Goian planteatutako hezkuntza-arazo horien aurrean jarraiko bi altematiba hauek gizarteratu ziren talde gisa egituratuta: batetik, Gasteizko Gobernu auton-omikoak bideratutako EIKERena (Euskal Ikastolen Erakundea), PNVren eta Ikastolen Federazioen ezkutuko lankidetzarekin kontaktzen duena, eta, bestetik, EEPAREna (Euskal Eskola Publikoaren Alde), sostengua euskal ezkerrek ematen diona.

Gobernu autonomikoak ikastolen kudeaketa administratiboa bereganatzeko lehen urratsak 1982ko maiatzaren 24ko datarekin eztabaidarako zabaldutako txosten batekin ematen ditu³, zeinetan, 26 orrialdetan eta 11 azpiataletan zehar, azaltzen baita zein izango den ikastola publikoaren egitura eta funtzionamendua, zeintzuk honen ondasunen trataera ekonomikoa eta funtzionari-gorputzaren ezaug-arrriak. Handik bi hilabetera, 1982ko uztailaren 30ean, Zurriola ikastolako Gu-raso-Batzordeak bidalita, EIKERen Legc-Proiektua jaso genuen irailaren 9an egin-go zen Batzar Nagusirako testua alde zurretik aztertuta ekar genezan⁴.

Azken batean, testu bietan proposatzen dena da, ikastolak pribatizatzea, baina publikotasunaren izenean. Honela, ikastolen sarea Gasteizko Administrazio auto-nomikoak kudeatuko zuen, beste biek, publikoak zein pribatuak, ordurarte bezala Madriliko Administraziopekoak izanez segituko zuten bitartean. Hala dakar 1. artikulua: “Se crea ‘Euskal Ikastolen Erakundea’ como Entidad de Derecho Pú-blico, con personalidad Jurídica y patrimonio propios e independientemente de los de la Administración Civil de la Comunidad Autónoma, que actuará con plena capacidad para el cumplimiento de sus fines y estará adscrito al Departamento de Educación”⁵.

Eusko Jaurlaritzak ikastolen ondare historikoa bereganatzearen arrazoia da, haren ahalmenak hezkuntza-mailan mugatuak direla eta, zehazki, sare publikoko pertsonalari dagozkionak Gobernu zentralaren esku daudenez gero, legez pribatu gisa funtzionatzen duten ikastolei izaera publikoa ematen diela. Ikastolen etorki-zuna arautzeko prozedura juridiko honi Gobernu autonomikoak publikatzea dei-tuko dio eta euskal ezkerrek, aldiz, pribatizatzea. Ez da hitz-joku hutsala hor plan-teatzen dena, eduki sakoneko errealitatea islatzen da baizik, zeren lehen zentzuan

³ Izenik gabeko txosten informatizatua da. Nik daukadana gaztelaniaz idatzia da, data hau dara-mana: Vitoria-Gasteiz a 24 de Mayo de 1982.

⁴ “Os rogamos lo estudiéis con atención e interés, para que en la próxima Asamblea General de Padres que se celebrará el próximo Nueve de Septiembre de 1982, y cuyo Orden del Día, se os enviará oportunamente, podáis opinar sobre el mismo con conocimiento de causa” (Junta de Padres, Ikastola Zurriola, Villa Sacramento-Ategorrieta, Donostia, 30-07-82).

⁵ “Proyecto de Ley por el que se crea “Euskal Ikastolen Erakundea” (Instituto Vasco de Ikastolas) y se aprueba el Estatuto Jurídico de las Ikastolas”. Testu informatizatutik jasotako aipua.

ulertuta, legez pribatua denari izaera publikoa —autonomikoa, noski— ematen zaion bezala, bigarren zentzuan ulertuta, ageri da bere izaera sozialez publikoa dena pribatizatu besterik ez dela egiten, herri-mugimendu oso baten ondare historikoa den zerbait alderdi baten monopolio bihurtuz.

Maila pertsonalean esan dezaket Zurriola ikastolan⁶, adibidez, eztabaidarako deialdi-egunean han bildu ginenon artean iritzi aski kritikoak agertu zirela EIKERI buruz eta testua sakontasunez aztertua izan zela. Baina ikastoletan lege-proiektu horri buruz zegoen jarreraz judizio orokorra egin ahal izateko, datuak falta dira. Beste hainbat gauza puntualetan bezala, ez dakigu, —eta hemen ere balegoke beste ikerketa-ildo bati ekiteko heldulekurik—, EIKERen lege-proiektu hau zein neurritan zabaldu, hausnartu eta ezбайдату zen ikastoletan eta zein onarpen-maila izan zuen bertako partaideen artean. Eta hau jakiteak baluke bere garrantzia, zeren ikastolen mundu konplexuan oso argi bereizi beharreko mailak baitira, batetik, Ikastolen Federazien kudeaketa orokorra eta honek Administrazio autonomikoa-ekin dituen harreman organikoak eta, bestetik, ikastola bakoitzaren barne-funtzionamendua eta honek Ikastolen Federazioekin dituenak. Eta azkenik, horiek guztiak herri-mugimenduekin dituzten harremanak. Armiarmarena baino sare korapilatsuagoa da guruzatzen dena egitura, izaera eta dinamika desberdineko gizar-te-harreman horietan guztietan.

Herri-mugimenduarren aldetik, irakaskuntzaren esparruan, EEPak Euskal Eskola Publikoaren aldatutako kontrajartzen dio EIKERI, ikastolak zein eskola estatalak sare bakarrera biltzeko proposamena eginez. Mugimendu hau 1992ko lehen hilabeteetan hasten da ezagutzera ematen eta indartzen. Honela, martxoaren 27an, Bizkaiko 20 ikastolatako ordezkariak gehi Tolosa eta Laudioakoak elkartzen dira, erakundearen gizarteratzeaz gutxienezko egitaraua gauzatuz batera, Eusko Jaur-laritzak aurkeztutako Ikastolen Estatutuari buruz zein jarrera hartu erabakitzeko xedearekin⁷. Ondoko hilabeteetan eta, bereziki, maiatzean, Ikastolen Estatutuaren kontrako kanpaina hasten da prentsan, esanez, daukaten informazioaren arabera⁸, proposatu nahi dutena “sasi-irtenbidea” dela. Sasi-irtenbidea da, “izugarritzko atzerakada”, zeren proiektu horrek eskola estatalekin bat egiteko bideari ateak ixten baitizkio⁹. Beste salaketa bat ere egiten da, aski garratza, eta da delako Estatutu hori egiten Eusko Jaur-laritzak eta Ikastolen Federazioek osatutako batzorde misto

⁶ Xehetasunak nahi izanez gero, eguneko aktetan jasota egongo dira han esandakoak.

⁷ *Egin*, 1982-03-3.

⁸ “Aspaldidanik espero dugun ‘estatuto de ikastolas’ famatua zer nolakoa izanen dugun zehazki jakitea ez da erreza. Hala ere, gobernuaren ordezkariekin, zenbait ikastolak izandako elkarriketen ondoren, aurreratu dezakeguna zera da: Euskal Jaur-laritzak, euskal eskola publiko bakarra eraikitzeko bere kompetentzi eza aitakia hartuaz, beste bide batzuk urratzera jo duela. Eta pentsatuz, pentsatuz... baita asmatu ere! ‘Inbento berria’, jaso ditugun informazioek diotenez, hontan konkretatutako litzateke: ikastola eta bertako langilegoa bereganatzeko helburuaz. Gobernuari loturik edo babespean legokien Erakunde Publikoa eratu” (Erkizia, Tasio, “‘Estatuto de ikastolas, sasi-irtenbidea”, *Egin*, 1983-03-30, 14).

⁹ “Hainbestetan aipaturiko ‘estatuto de ikastolas’ delakoak proposatutako digun proiektuak ez digu aterik zabaltzen, ixten baizik” (Ibid.).

batek hartu duela parte¹⁰. Bestela esanda, ikastoletako goi-burokrazia prozesu horretan buru-belarri inplikatur dagoela. Eusko Jaurlaritzari Ikastolen Estatutuaren aurreproiektua eskatuz, STEE-EILASek eta EEPAk deituta, hiru herrialdeetako ikastola batzuek greba egiten dute maiatzaren 25ean, deitzaileek emandako datuen arabera, langileriaren % 50 inguruk parte hartzen duelarik¹¹. Hurrengo urtean Irakasleen Koordinakundeak, oraingo honetan STEE-EILAS, HB, EE, EKI, EMK eta Niren partaidetzarekin sendotuta¹², EEPAREN Oinarrizko Agiria plazaratzen du 1983ko apirilaren 15ean, zeinetan zehazten baita zein baldintza bete beharko liritekeen ikastolak sare publikora pasatzeko (ikus 1. erans.), eta, bidenabar, maiatzean berriro kanpaina berri bati ekiten diote, EIKERen aurka eta Euskal Eskola Publikoaren alde, batetik, komunikabideetara joz eta, bestetik, ekintza puntual batzuk eginez, itxialdiak maiatzaren 13an eta greba-eguna 19an hiru herrialdeetan¹³. Ikastolak irtenbiderik gabe aurkitzen direla eta, EEPAk mobilizatzen eta borrokan aurrera egiteko deia eginez segituko du urte osoan zehar¹⁴. Azaroan, Durangon antolatutako Jardunaldietan, 200en bat lagun bilduko da, ikastoletatik, eskola transferituetatik eta pribatuetatik joanda, ikastoletan zein eskola estataletan, "bietan dauden gauza onak hartu eta eskola berri bat" sortzeko asmoarekin¹⁵.

EEPARen gurdia gidatzen duen HBk ere argitzen du bere jarrera udan argitaratutako txosten baten bidez¹⁶, zeinetan, EIKERen alternatibari berea kontrajarriz, ikastolen etorkizuna EAEn zein Nafarroan nola ikusten duen azaltzen baita. Guztietan irtenbide berbera proposatzen da: Ikastolak sare publikoan sartzea, alegia. Horretarako, jakina, gutxienezko lau baldintza hauek bete beharko dira: hots, Administrazioak bere gain har ditzala ikastolen ondasunak zein zorrak eta, orobat, baita horko pertsonala ere bere osotasunean, horren egoera administratiboa elkarrekin negoziatuz; azkeneko biak, hots, kudeaketa demokratikoaren arloan lortutako autogestio-maila eta, halaber, ikastola bakoitzeko hizkuntza ereduak errespetatuak izan daitezela. Helburua, hala esango du Tasio Erkiziak elkarriketa bate-

¹⁰ "Asamblea general extraordinaria de Bizkaiko Ikastolen Elkarteak" delakoaren igorritako eskutitza dela eta, Ikastolako irakasle-talde batek galdera hauek egiten dizkio hango Federazioko Txetxu "Garaikoetxea"ni: "Geroxeago, Gobernuak ikastoletara bialdu duen zirkularrekin ez zagozela bat diozue, baina nork egin du zirkularra? Gobernuak berak bakarrik ala delako batzorde mixtoak (zeinetan zuek ere parte hartzen baituzue)? Ez jezaiguzue esan zuok egindako zirkularra ez duzuela onartzen. Larregi da eta. (...) Eta gainera krisi horiek ezabatzeko "la puesta en vigor de un estatuto de ikastolas públicas" eskatzen duzue. Barkatu, nork egina? Nola egina? Nork jarria? Nork ezarria? Eta guk, zer? Guk ez dugu hitzik, ala? Ikastolen estatutoa bai, baina denon artean egina, eta ikastolen publikotasuna pobilitatzen badu" (*Egin*, 1982-05-28).

¹¹ *Egin*, 1983-05-26.

¹² *Egin*, 1983-04-15, 22.

¹³ "EEPARekin solasean kanpaina berri baten aurrean", *Egin*, 1983-05-8, 32.

¹⁴ "EEPAk aurrera jarraituko du bere erreibindikapenekin eta hainbat ikastolatak guraso eta bai iraskaleei bere pasibitatek irten eta ekintzaile izateko dei bat egiten die orain arte altxatutakoarekin beste aurrerapauso bat eman dezagun" (EEPA, "Ikastolak irtenbiderik gabe?", *Egin*, 1983-11-22).

¹⁵ Arlatz: "Euskal eskola publiko nazionalaren lehen urratsak martxan. EEPA-ren ihardunaldiak Durangon", *Argia*, 992-993, azaroa-13, 1983, 30.

¹⁶ "Ikastolaren etorkizuna dela eta. Sobre el futuro de las Ikastolas", 1-14, 1983-07-5.

an¹⁷, “eskola estatal eta ikastolen arteko konbergentzia” bultzatzea da, baina eskola transferituan osoki ikastola gisa funtzionatzeko baldintzarekin.

Euskal Eskola Publikoaren aldeko mugimenduak bere erresistentzi kronika duen bezalaxe, badiu bere protagonista jakinak ere. Mugimendua bera hainbat ikastolara hedatzen bada ere, Bizkaian Santutxuko Karmelo ikastola eta Gipuzkoan Hernaniko Langile ikastola izango dira haren ildo ideologikoak markatuko dituztenak eta ikastola gisa publikatzeko konpromezua hartuko dutenak. Karmelo ikastolak garbi adierazi zuen bere asmoa jadanik 1982ko apirilean¹⁸, baita Langile ikastolak ere urte bereko urrian, hain eztabaidatua izan zen “Kilometroak-82” egun berean (1982-10-3) egindako aldarrikapen publikoan¹⁹. Ikastola hauek beren bidea egingo dute eskola transferituen egoera administratibora pasatuz, baina EEPA mugimenduak, atzetik beste ikastolen sostengu kolektiborik ez duenez gero, ez du bultzada berririk eza gutuko, nahiz eta eskola publikoaren filosofiak, etorkizuneko eskola-eredu gisa, bizirik segituko duen euskal ezker jadanik aski desberdinu eta zatituan.

Euskal eskola publikoaren arazoa puri-purian dagoen uanean, ez da pentsatu behar guztiak irizkide direnik ezker abertzalearen barruan. Hasieran aurreratu dudanez, alderdi hauxe da garai honetako arazo honi buruz diharduten ikerketek jasotzen ez dutena. Orduko hemeroteca eta astekariak irakurtzea aski da ohartzeko ikuspegi kritikoagoa agertzen duten artikulua, maila pertsonalean zein kolektiboan egindakoak, bat baino gehiago direla. Horien artean, bere jatorria Urretxuko ikastolan duen “Maixu” izenordez sinatuta kale-ratzen den kolektiboaren alternatiba iruditzen zait aipatu beharrekoa, zeinaren idazkia, duen garrantziagatik, 3. eranskinean osorik sartu baitut. Zalantzarik

¹⁷ Bastida, L.: Tasio Erkiziarekin elkarrizketa. “EIKEk, Euskal Herrian ‘bi komunitateen’ bidea zabaltzen du”, *Argia*, 988, urria-9, 1983, 28.

¹⁸ “Nuestra apuesta por conseguir una Escuela Pública Vasca, abierta, creativa, euskaldun (esa utopia que está por hacer) pasa por una lucha en común con los centros realmente populares de nuestro entorno, los Centros Públicos. Pensamos que, el hecho de ser accesibles a todos los ciudadanos, es la premisa inicial y ‘sine qua non’ de ese caminar hacia el objetivo propuesto en una sociedad pluralista” (Karmelo Ikastola, “¿Tienen las ikastolas futuro?”, *Egin*, 1982-04-6).

¹⁹ “Kilometroak-82” egun eztabaidatua izan zela diogu, zeren Gipuzkoako Foru-Diputazioak, PNVko Etxepare jaunaren proposamenez eta LAIA, EE eta PSOeren abstentzioz, diru-laguntza Hernaniko bi ikastolen -Langile eta Urumearen- artean banatzeko erabakia hartu baituzten: milioi eta erdi pta. Langilerentzat eta milioi bat pta. Urumearentzat. Gipuzkoako Ikastolen Federazioko lehenkadari Antonio Kanpos lehendakariak, bildutako dirua Kilometroak antolatzen zituen ikastolarentzat izanen zela jakinarazi zuen, Langilerentzat, alegia (Deia, 1982-09-28). Kontua da Langile ikastolak eskola publikoaren aldeko bere parioa egina zuela eta, nolabait esateko, hura begitartean hartua zeukatela EIKEren aldeko instituzionalistek. Ikastolak bere aldetik garbi esanda utzi zuen “Kilometroak-82” kanpaina behin-behinekotasunez onartzen zuela, publikatzeko bidean diru-beharretan zegoelako, alegia: “Y para Ikastola Langile es un momento decisivo sobre todo por la situación de provisionalidad a la que estamos sometidos y es por ello que vamos a trabajar con fuerza en la organización de Kilometroak-82 pero siempre con la idea clara de que la futura Ikastola Pública no necesitará de este tipo de soluciones por lo que desde ahora abogamos por la superación definitiva que en su aspecto económico conlleva la organización de Kilometroak” (Comisión Pro Escuela Pública Vasca de Ikastola Langile, “Langile ikastola eta eskola publikoa”, *Egin*, 1982-10-3, 2)-

ez da, idazki horren egileetako bat, agian bakarra, Iñaki Etxezarreta dela, ezker abertzalekoa. Idazki honetan, “Maixu” taldeak, EIKE zein EEPAREN alternatibek dituzten aldeko eta kontrako arrazoiak pisatu eta kontrapisatu ondoren, ateratzen duen ondorioa da, euskal irakaskuntzaren azken xedea Euskal Eskola Nazionala eraikitzea izanik, euskal gizarteak horretarako ez duela aski botererik oraingoz eta, beraz, ikastolak oro sare publikoan sartzekak euskal irakaskuntzaren oraina eta geroa erabat hipotekatuta utziko lukeela. Taldeak uste du, Euskal Eskola Nazionala eraikitzekotan, amets hori ikastolen beraien baitako hazkundearen bidez bakarrik lor daitekeela, ez bestela. Bistakoa da planteamendu honetan zein den alternatiba bakarra. Ikastolen garapena barrutik ekinez indartzea, kalitatea sustatuz, batez ere. Orduan hautatzen du Gipuzkoako Ikastolen Federazioko lankide izatea eta hortik, goimailatik, ikastolen hazkunderari eragitea.

Ez noa hemen ikuspegi horri buruz deus esatera, bere garaian, 2. atalean datorren bezala, azaldu bainuen. Gaur, orduan bezalatsu, pensatzen jarraitzen dut, aldarrikatutako helburuak ezin zuzenagoak izan aren, —egun ere orduko euskal eskola nazionala errebindikatzen baita—, bitartekoak ez zirela lehen martxan zeudenak baino hobek, zeren Federazioen bideak, azken batean, zuzen-zuzen ikastolen pribatizaziora baitzeraman. Iñaki Etxezarretaren ahotsak, politika-mailan Federazioaren baitan ikastolen eta politika instituzionalaren artean zubi-lanak egiten denbora batez jardun eta gero, azkenean, Antonio Kanposekin batera, PNVren aldeko botua eskatuz ezabatuko ditu bere lehengo sigla-arrasto politikoak. Izan ere, historia, denboraren joanean, gure uste batzuekin batzuetan oso krudela izaten da, oso gutxitan eskerronekoa, eta beti irakasle zuzena. Hemerrotekak zenbat kontu gordetzen dituen bere kutxan, gure ganbarari hain erraz ahazten zaizkionak!

Horren oso antzeko analisisa egiten du Floren Ostolazak, une honetan Donostiako Ikastolen lehendakari denak. Honen ustez, EEPAK eta EIKEK, mugimendu biek euskal irakaskuntzaren instituzionalizatzea bilatzen dute gobernu zentralaren edota autonomikoaren menpeko jarriz eta hortik, jakina, ikastolek jatorriz duten herri-mugimenduaren izaera desegitea etorriko litzateke. Beraz, ez bata ez bestea iruditzen zaizkio onargarri. Zergatik? EEPA asmo bat besterik ez delako; EIKE, berriz, honek ikastolak Eusko Jaurlaritzaren kontrolpean jarriko litzuzkeelako. Arazoa, izan, diruarena da: “Hortaz ez EIKE eta ez EEPA. Dohaintasuna ikastolentzat dauden daudenean. Hori onartu behar litzateke. Eusko Jaurlaritzak hori onartzeko ahalmenik badu, jarri ditzala dohainik ikastolak. Orduan lortua daukagu denontzat izatea, eta baita herrikoi mugimendua mantentzea ere”²⁰.

²⁰ “Floren Ostolaza Donostiako Ikastolen Elkarteko lehendakariarekin. Bi bideek ikastolen herri mugimendua deuseztera daramate”, *Argia*, 989, urria-16, 1983, 28.

Azken batean, hipotesi horretan ikastolak Eusko Jaurlaritzaren kontrolpekoak izango liratekeen arren, EIKeren bidea hobesten du. Honi baiezko baldintzatua ematen dio. Ikuspegi hau betikoa dute Ikastolen Federazioek: herri-mugimendua inbokatu eta, aldi berean, Gasteiztik dirua lortu. Baina ez debaldetan, haren zerbitzura egotearen truke baizik.

Nire lehen eta bigarren ataleko lanek goian aipatuz etorri naizen testu-inguru bihurri horretan sortu eta garatzen dira, unean uneko gertakariak aurretik eramanda.

Lehen atalean hezkuntza elebidunari buruz dihardut, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea 1982an aldarrikatu eta gero, orduantxe jarri baitzen martxan eskoletan. EKBren siglapean Egin-en 1983ko martxoan eta apirilean argitaratutako zazpi artikuluek osatzen dute atal hori²¹. Jatorriz, izan, saio bakarra da eta, gainera, EKB bera Bergaran plazaratua izan baino lehen idatzia, nahiz geroztik zatika argitaratua izan. Idazkerak berak adierazten du ondoen zein den lan horren xedea: garbiki esanda, salatzea botere autonomikoak ezartzen duen hizkuntz politika orokorrean eta, kasu honetan, zehazki hezkuntzarenean. Jarrera militantearen aldeko apustua maila indibiduallean baino kolektiboan eraginkorragoa izango zela pentsatuz, siglapean jokatzeko otu zitzaigun, horrela indarrak hobeto koordinatuko genituelakoan. Eta halaxe egin genuen. Nola EBKren bizitzan hirugarren sortzailerik ez den, niri dagokidanez esan behar dut, hura sortzera eraman ninduen arrazoi ez bakarra, baina bai nagusia, salaketarena izan zela eta gerora ere ideia berari eutsi niola. EKBren siglapean, guztira, 13 artikulua argitaratu ziren, zein baino zein jakingarriagoak. Baina horietatik bat hautatu dut, Iñaki Zubeldiak Irakasle Elkartearen gainean idatzi zuena, zeina 2. eranskinean baitator.

Erraz egiten zait testu hori aukeratzearen arrazoiak ematea: osagarri izatearena, alegia. Nola ataleko azkeneko zatian Ikastolen Federazioen jokabidea salatzen dudan eta, bestalde, nola harenean kasu oso zehatzak datozen zentzu berean, biak elkartuz agerian gelditzen da, EAEn botere autonomikoa finkatzen den une beretik, Federazioen zuzendaritza dela ikastolen norakoa markatzen duena eta, bidenabar, bera dela Irakasleen Elkartea, —ikastolen dinamika ardatz izana—, desagertzera kondenatuko duena. Beste bigarren gauza bat ere ikusten da bertan, irakasleen mugimenduaz diharduten lanetan jasotzen ez dena. Gordailuk 1970eko hamarkadan egindako ekarpenak aipatzen dira, merezimendu osoz aipatzen, baina ez Irakasle Elkartea aro autonomikoan egindakoak. Eta badu zerbait eginik hamar urte-inguruko epealdian zehar (1984-94), talde gisa funtzionatzen Lizeo Santo Tomasen hasi eta gero, bere antolaketa autonomoa Amarako Amezketaren plazako egoitzan finkatua izan zuen bitarte horretan. Hemen hiru liberatu arituko dira Elkartearen zerbitzura-

²¹ *Egin*, 1983-03-22/23/26/30; 1983-04-5/8/21.

ko lanean: Iñaki Zubeldia, Agustina Pontesa eta Marisol Agirre. Hauek balukete zerbait esatekorik, norbaitek mingainetik tira ezker. Garai bateko Gordailuren antzera, hiru hilabetez behin argitaratzen zen Isilik pedagogi aldizkariak ere bere bizialdi laburrean ekarpen aberatsez hornitutako bilduma utzi du, epealdi horretan pedagogi korrante eta arazoak zer-nolakoak diren jakin nahi duenak derrigorrez kontsultatu beharrekoa. Bere 19 zenbakietan gai monografiko interesgarriak datoz, besteak beste, hauek: Torinoko esperientzia, Haurra eta sexualitatea, Magisterio Eskolak, Elebitasuna, Euskal Eskola Publikoa orain, Euskal Eskola Publikoa aztergai, Hezkuntza-sistemaren erreforma, Komunikabideak eskolan, Pedagogia, P. Freireren irakaskintza, Hezkuntza-Informatika, Erdaldunak euskalduntzen murgiltze-sistemak, Euskal Herrian eta Kanadan murgiltze-bidean, Soziolinguista, Euskal curriculum. Eta besterik.

Lehen atalaren xedea, bada, salaketarena da, zeinetan, batetik, PNVk era hegemoniko batez gidatutako Gobernu autonomikoaren hezkuntza-politika kritikatzan baita, elebitasunaren arazoa ez iripizde pedagogikoetan baizik politikoetan oinarritzen delako, eta, bestetik, Ikastolen Federazioen jokabidea jartzen da zalantzan, funtsean oportunistak baino ez den joku bikoitza daramatelako, ikastola guztietako guraso-ordezkaritza dutela esan eta PNVren zerbitzura egonez. Gasteizen PNVk monopolizatzen duen bezala botere autonomikoa, Ikastolen Federazioa da, gurasoen ustezko ordezkaritzan oinarrituz, frankismo-garaiko ikastolen inguruan sortutako herri-mugimendu osoa monopolizatzen duena eta unean uneko komenientzien arabera manipulatzan duena. Honela, klandestinitate-garaiko erakunde zabal, pluralista eta koordinatzaile dinamiko baten ezaugarriak zituen Federazioen Elkarte hura, 1980ko hamarkadan zehar, bunkerizatuz joango da, harik eta, Euskal Eskola Publikoaren Legea dela eta, ikastolen krisia erabat agerian jarriko den arte. Ikastolen Federazioen jarrera ilun eta nahasia izan zen, batik bat, orduan auzitan jarri zena. Ikastolen Federazioez aritzean plurala darabilgu, baina egiazko boterea Gipuzkoakoan dago zentralizatua. Historiak egiaztatu du salaketa haiek ez zirela hutsean eginak izan.

Bigarren atala edukiz zein xedez lehenengoa ez bezalakoa da. Eta neurri batean, ezinbestez, zeren, artean euskal irakaskuntza ez-unibertsitarioaz ikuspegi orokorreko lan soziologikorik ez zegoenez gero, EKB plataformatik hezkuntza-erreformismo autonomistari alternatiba berriak kontrajarri ahal izateko, maila horretako irakaskuntza-egoera zein zen ezagutu beharra zegoen. Horretarako, gutxienezko datuak jasotzeari ekin nion, tauletan bilduz gero, ondorio garrantzitsuenak atera eta ikuspegi prospektiboz euskarazko irakaskuntzaren norabide estrategikoak formulatu eta horietara iristeko epe zehatzak finkatu ahal izateko. Aldi berean, azterketa hau Irakasle-Eskolen egoera ezagutzera zabaltzen bada, honen arrazoa da unibertsitate-erakunde hau dela

hezkuntza primarioko irakasleriaren prestakuntzaz arduratzen dena. Ezinbestekoa zen, beraz, etorkizuneko irakasleriaren harrobi denaren berri ere izatea. Hain zuzen ere, nire ustez, hortxe zetzan arazoaren muina: SIADECOK eskola estataletarako emandako datuen arabera²², bagenekien 1876-77 ikasturtean, Hego Euskal Herrian, guztira % 4,6 besterik ez zirela euskaraz zekiten irakasleak. Lehen esan bezala, jadanik EEPak aurrera zeraman ikastolak publikifikatzeko kanpaina eta, nahiz eta EKBn argitaratutako EIKeren kontrako planteamenduarekin erabat ados egon²³, egia esan behar badut, neure zalantza handiak izan nituen euskal ezkerrean nagusitu zen alternatiba haren inguruan eta neure erreserbak nondik zetozen ongi zehaztuta utzi nuen Argiakoekegin zidaten elkarrizketa batean: "EEPA gaurko koiunturan presentatu da. Madrilgo Gobernuak eta Euskal Gobernuak eskaintzen dutenaren aurrean. Nolabait esateko, planteamendu erreformisten barruan. Orduan, nahiz eta helburuak argi markatu EEPak, problema asko ditu. Problema tekniko eta politikoak (...) Problema da behar hainbat irakasle euskaldun ez daukagula eta horiek sortzeko bideak jarri behar ditugula. Berriak sortu ala lehengoak euskaldunduz"²⁴.

Niretzat, garai hartan, arazorik larriena, politikoa ez, baizik tekniko hutsa zen: nola euskaldunduko da sare publikoa ikastolake bertan sartuz, baldin sare publikoko ia irakasleria osoa erdalduna bada eta, gainera, sare publikoko funtzionariengan Gasteizko Gobernuak inolako ahalmenik ez badu? Ez EIKErena zen bidea, ezta EEParena ere. Hauen irtenbideak, pribatizazioarenak zein publikazioarenak, bigarren mailako arazoei erantzuten zien orduko koiunturan eta EEParen kasuan, bereziki, honek bere buruari ezartzen zizkion helburuak bete ahal izateko, baldintza teknikoak falta ziren: euskara irakasle euskaldunak izatea, alegia. Horregatik, Euskal Herriko irakasleriaren euskalduntzea planifikatu eta ziurtzetik abiatzen zen nire planteamedua eta, hain zuzen ere, bigarren atalean lantzen den ikuspegia horixe da, zeinetan, eman berri dudana arrazoi horregatik, iraskakuntza ez-unibertsitarioaren bilakaera hertsiki Irakasle-Eskolen egoerari loturik gogoematen baita, hein batean, gure ustez, honen hizkuntz politikak haren martxa baldintzatzen zuelako.

Txosten hau bere garaian EKB barruan euskal irakaskuntzari buruzko ara-

²² Comité de estudio de necesidades universitarias en relación con la cultura vasca, "Premia larriko neurrien txostena. Dossier de medidas de urgencia", 1979ko uztaila, 33. Testu informatizatua eta argitaragabea. Txosten hau Mikel Zalbidet burutu zuen 1979ko abenduan, Gasteizen Hezkuntza-Saileko Jabier Retegei arduradunaren eskabidez. Bederatzi laguneko lantalde batek parte hartu zuen, berarekin lau hilabetez UZEIn bilduz, apiriletik ekainera. Asistentzi maiztasun besderdinarekin bertan biltzen ginenon izenak, hauek dira: Koruko Aizarna, Luis Maria Banderes, Paulo Iztueta, Enrike Knörr, Iñaki Larrañaga, Mauleon, Oleaga, Martin Orbe, Jesus Mari Txurruka eta Mikel Zalbide bera.

²³ "EIKE proiektuak: irakaslegoaren zatiketa baieztatzen du", *Egin*, 1983-04-13; "Estatuto de ikastolas: Euskalherrian, bi komunitate sortzeko bidea", *Egin*, 1983-04-15. Bi artikulua hauek Tasio Erkiziarenak dira.

²⁴ Arlantz: J. Mollari, "Paulo Iztueta: 'Arazoa ez da ikastola; nazional eta pribatuak dira'", *Argia*, 991, urria-30, 1983, 25.

zoa ezagutu eta proposamen alternatiboak formulatzeko asmoarekin egina izan zen, salaketak bere kontrapuntua izan zezan. Hor du bere leku naturala, horko partaideen artean eta, batez ere, irakaskuntza-saila osatzen genuenon artean, izan zen zabaldua eta eztabaidatua 1984ko otsailaren 6an Parte Zaharreko “Arrano Beltza”n egindako bilera²⁵.

EIKE eta EEParen alternatiben arteko eztabaida honetan gauza bat da ziurra: biek aldarrikatzen dutela Euskal Eskola Nazionalaren erakuntza, baina ez bide beretik. Batek, gizarte-mugimenduari eraginez eta ekinez, goldea sare publikoan sartzen du. Arriskatuz, baina sartu. Besteak, berriaz, printzipio oso nazionalak aldarrikatzen ditu, baina lehengoari eusten dio. Seguraski, dagoen lekuan eroso sentitzen delako.

Tempus agendi: Euskal Eskola Publikoaren Legea (1993)

Azkeneko lau atalak Eskola Publikoaren Legea aldarrikatu aurreko eta, batez ere, ondoko testuinguruan kokatzen dira. Egia esateko, 1980ko hamarkada osoan zehar ezbaian dagoen arazo baten erpina besterik ez da lege hori, PSOEk Gasteizko Hezkuntza-Kontseilariatzatik PNV eta EEREkin adostasunean burutzen duena.

Ikusi da nola lehen, 1980ko hamarkada-hasieran, eskola publikoaren arazoa tenka bizian jartzen dituen PNVren eskola pribatuaren aldeko bokazioa eta HBren eskola publikoaren aldekoarena. EIKE eta EEPak errealitate horixe islatzen dute. Arazoa kaleratzen da, irakaskuntza-munduko zenbait sektoretan kezka pizten da, ikastola transferituen kasu isolatu batzuk gauzatzen dira, baina, orokorrean, bi alternatiba horiek onarpen sozialen aldetik porrot egiten dute. Arazoak, funtsean, erabakitzeke segitzen duen arren, gizarteratutako eztabaida hura ez da debaldetan egina gertatuko, zeren orduan piztutako txingarrak hurrengo hamarkadan egoera berri baten aurrean jarriko baikaitu, zeinetan trenkatuko baita euskal irakaskuntzako sare hirukoitzaren egoera.

Eskola Publikoaren legeak ere bere kronikatxoa du, hau ere jakitea komeni dena, ez baita hura goizetik gauera hutsetik sortzen.

Jakina denez, 10/1988ko ekainaren 29ko Legeak Eusko Jaurlaritzari agindua ematen zion Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea aurkez zezan. Lege hau, sarrerako azalpenean adierazita datorren bezala, ikastolak eskola publikoak bateratzeko xedearekin egina da: “Herri-eskolen sarea, norbanako-alorrekoa, eta

²⁵ Eusebio Osa zenak, orduan Gasteizko Irakasle-Eskolan irakasletza-lanetan ziharduenak, bilera etortzerik ez zuela eta, gutun baten bidez bidali zituen bere oharrak, benetan jakingarriak, adituzera ematen zutenak txosteneko proposamen batzuk ez zirela baliagarriak Gasteizko kasurako (Gasteiztik gutuna Paulo Iztuetai, 1984-02-1). Goraintzi beroak hiri hemendik, heldutasun betean aldendu hintzen aspaldiko Ereinkidea! Bideak aurrera egiten baitu, berandu baino lehen, eskerak igortzen dizkiot baita Josu Txapartegi adiskideari ere, honek, ez EKBren mundutik baizik LABetik, testuan bertan idatziz egin zizkidan oharrengatik.

ikastolen sarea izan badirelakotik abiatuta, unibertsitatekoaz besteko euskal hezkuntza-erapidetzaren birrantolakuntzak demokraziaren arauzko, ontasun-mailako oneko, norbanakako-alorreko sare bakar batez osatutako Euskal Herri-Eskola aunizkoia du xede”²⁶. Bateratze-asmo horri orain “konfluentzi prozesua” deituko zaio eta hemendik sortuko da Euskal Eskola Publikoa.

Lege horretan iragarritakoari jarraiki, eskola publikoaren gaiari berrekiten zaio, baina oraingoan, zalantzarik gabe, beste gizarte-giro batean, zeren, PSOE eta EEren sarrerarekin, Gasteizko gobernu-eraketan beste indar-erlazio bat sortuko baita. Euskal Eskola Publikoaren inguruan gertatuko direnenetan oso kontuan hartu beharreko puntua izanen da hauxe!

Eztabaidarako mandioko ate zabala irekita gelditzen da erdiz erdi. Lege hori atera eta hurrengo urtean, Ikastolen Elkarteak azalean “Euskal Eskola Publikoaren Legea” izenarekin liburu-ikur bat dakarrela, barne-eztabaidarako apunte gisa, Euskal eskolaren diseinua izeneko txostena argitaratzen du²⁷, euskaraz eta gaztelaniaz idatzia eta guztira 100 orrialde-ingurukoa. Autonomiaz diharduen 1. atalean esaten denez, Ikastolen Elkarteak “Euskal Eskola Publiko Berri koherente eta esanahi konpartitua duen baten diseinua” egin nahi du, arras modelikoa: hots, bere ekimen propioa izango duen eskola bizi, dinamiko eta autonomoa, kalitatea ziurtatuko duena, euskal testuingurutik nazioarteko mapara begira burutua eta, egungo baldintza juridiko-politiko guztien gaintetik, Euskal Herri osoa oinarritzat hartuta, Euskal Eskola Nazionala eraikiko duena: “Zentzu honetan Euskal Eskola Nazional bat eratu nahi genuke, Nafarroa eta Iparraldeko eskola ere legezko estaldura bat beraren pean hartuz”²⁸. Aipu hau irakurrita, desasoziatzeari ihes egitea ezinezkoa egiten baita, berriro hemen 1983ko “Maixu” haren ideia bera errepikatzen da. Luma beraren kumea dirudi. Asmo bikainak berriro, inon bikainik bada! Egiten duten galdera da ea legez nola ziurta ote daitezkeen ikastolen ezaugarri instituzionalak. Titularitate berri baten bila abiatuta, legez onartua izango litzatekeen Titularitate Publiko berri baten eredia proposatzen dute, zeinetan, gure herriaren idiosinkrazia eta antropologiarekin sintonian, Euskal Eskola Publiko berri horri legozkiokeen ezaugarri instituzionalak oro “errespetatu, asumitu eta garatu” beharko bailirateke. Horretarako Auzitegi Konstituzionalean datorren Zuzenbide Publikoko “korporazioaren” kontzeptuaz baliatzea proposatzen dute, eredu horren harira Euskal Eskola Publikoak, —ikastolen antzera irudikatuak—, “izaera sozialeko hezkuntz korporazioak” izan ezinik ez bailegoke²⁹.

²⁶ EHAA, 154, 1988-08-6.

²⁷ Txosten honek ez darama datarik, baina, oker handirik gabe, 1989koa izan behar du, urte-bukacera horretan zabaldu baitzen Ikastoletan eztabaidatua izan zedin. Nire artxiboko oharretan irakurtzen dudanez, Zurriolako ikastolan zehazki, 1989-12-12an eztabaidatu zen txosten hori. Txostengileen izenak, bai, badatoz Antonio Kanposek egiten duen hitzurrean: Mikel Badiola, Mirari Bereziartua, Iñaki Etxezarreta, Xabier Garagorri, Imanol Igeregi, Luis Maria Mallona, Ruper Ormaza eta Santos Sarasola.

²⁸ Ibid., 14.

²⁹ Ibid., 23.

Printzipioen mailan seguraski hori guztia posible zen, baina geroztiko historiak aingerukeria hutsa zela erakutsi du. Izan ere, Ikastolen Elkartearen analisisan, printzipio politiko-pedagogiko biribilak aldarrikatzen dira, —horien artean Euskal Eskola Nazionala eraikitzearena—, baina ez da harremantzen horien gauzatze posiblea orduko errealtate soziopolitikoarekin.

Bestalde, Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailak antolatuta, Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua egiten da Bilbon 1989ko maiatzaren 12tik 20a bitartean³⁰. Erbesteko adituak dira bertan beren txostenak aurkezten dituztenak. Puntualki erreferentzia solte batzuk egiten badira ere euskal tesuinguruari aplikatuz, normalean gogoeta orokorrak aletzen dituzte. Aimé Labrégèrek integrazioa ELGEko Herrietan nola ematen den lantzen du; Glenn L. Inmegartek, gaitzat euskal eskola publikoa hartuta, horren hobetzea autonomiaren, garapenaren eta erantzukidetasunaren bidetik ikusten du; Joshua A. Fishman hizkuntza biziberritzeko ahaleginean eskolak dituen mugez mintzatzzen da eta, azkenik, Guy Bergerrek irakasleen etengabeko hobekuntza nola burutu gaiaz dihardu. Txosten hauetan ekarpen teoriko interesgarriak aurkitzen dira, eskola-komunitatea kalitatearen zein funtzionamenduaren aldetik hobetzeko balio dezaketenak, baina argitasun gutxi eskaintzen dute euskal irakaskuntzak dauzkan arazo espezifikoak erabakitzeko.

Herri-mailan, Hernanin egindako bilera baten ondotik, Sortzen plataforma abiatzen da 1991n, 1980ko hamarkadako EEParen tradizioari segida emanez eta garai hartan Langile ikastolak erakutsi izan zuen mobilizazio-indarra berreskuratzeke asmoz. Oraingo eragileak ere, noski, ordukoak dira. Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko mugimendu honen agiria 1992ko ekainaren 6an ematen da eza-gutzera. Berori 4. eranskinean ezarria baitator, hemen bakarrik azpimarratuko dudana da jadanik ezagunak diren printzipioak aldarrikatzen direla, hala nola: euskalduna izatea, titularitate publikoa izango duena, berdin finantzaketa, eta antolakuntzaren aldetik demokratiko eta autonomoa. Hori gauzatu ahal izateko, “lanmarko berria” eskatzen da. Agiri honetan bada, dakarren berritasunagatik oso modu berezi batez azpimarratu beharreko zerbait, eta da, irakasleri osoa euskalduna izatea errebindikatzean, euskara ikasteko borondaterik erakusten ez duten irakasleak beste lanpostu batean enplegatzeke proposamena egiten duela: “Aldi berean irakasleren batek bideak jarri ondoren, euskararik ikasi nahi ez balu, irakaskuntza lanetik kanpo bideratu beharko litzaioke bere lanpostua. Hemendik aurrera Euskal Eskola Publikoan sartzen diren irakasle guztiak euskaldunak izango dira”. Unibertsitateko Hezkuntza-Mintegiko taldeak ere, ildo beretik jarraiki, oraindik askoz gehiago zehaztuko ditu irakasleria euskalduntasunean behar bezala prestatzeari buruzko puntuak. Beharrezkotzat jotzen ditu bost baldintza hauek betetzea:

³⁰ Eusko Jaurilaritza: *Primer Congreso de la Escuela Pública Vasca, Ponencias Internacionales*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria, 1990.

“a) Irakaslego erdalduna euskalduntzeko bideak ezarriko dira, horretarako plangintzak eta epeak zehaztuz eta neurri lotesleak hartuz. Bost urtetako epea aski zabala dela juzgatzen da irakaskuntzarako hizkuntz gaitasuna frogatu ahal izateko.

b) Baldin eta baliabide guztiak bere esku eduki eta gero, irakasleren batek euskara ikasiko ez balu, ikasleen euskalduntzea eragotziko ez lukeen beste zeregin batera pasatuko litzateke. Euskal Herriko hezkuntz sistema nazionalaren alde gaudenok, langile gisa dituzten eskubideak ez ditugu gaitzetsiko. Hala ere, hizkuntz eta lan-gatazkak gurutzatzen direnean, norberaren hizkuntza eta lan-eskubideen gainetik daudela erizten da herri baten hizkuntz eta lan-eskubide kolektiboak.

c) Aurrerantzean Euskal Eskola Publikoan sartuko diren irakasle guztiak irakaskuntza osoa euskaraz emateko euskaldun trebatuak izango dira, gaitasuna Administrazioak horretarako ezarriko duenaren arabera neurtuko delarik. Gutxienik, EGA tituluaren parekoa izatea eskatzen da.

d) Aurrerantzean irakaslego euskalduna aiseago ziurtatu ahal izateko eta, bide batez, gastu publikoak ekonomizatzeke, proposatzen da biharko irakasleen berezko harrobi diren goi-ikastetxeak, bereziki Irakasle-Eskolak, osoki euskaldunak izatea, bai irakaslego aldetik, bai ikaslego aldetik eta baita zerbitzu aldetik ere. Baldintza hau hain beharrezkoa juzgatzen da, ezen oso nekez ikusten da irakaskuntza ez-unibertsitarioan diharduen irakaslegoa euskalduntzea epe labur edo ertainean. Irakaslego gehiena erdalduna izaki, IRALEK ezin du masa hori euskaldundu, ezta irakasleen aldetik borondaterik onena jarrita ere.

e) Hezkuntza sistema osoa euskalduntzeko, irakaslegoaz aparte, beharrezkotzat jotzen da ikastetxe guztietako zerbitzu guztiek ere euskaraz funtzionatzea, horretarako irakaslegoari eskatzen zaizkion baldintza beretsuak edo antzekoak eskatzen zaizkiolarik”³¹.

Agian goiko testu luze horretan irakasleriaren euskalduntasunaz esaten dena pellokeria majoa irudituko zaionik izango da. Baliteke gehiegizko eskakizunen zaku zuloduna izatea. Baina ukatu ezin dena da, hala izan edo ez, arazo larria dela eta ezker abertzalean, irakaskuntzako sindikatu-mailan, ez zaiola behar bezalako trataera eman izan. Gai hori harrotu zen bilera batean egotea tokatu baitzitzaidan, lekuko zuzena naizenez, aitortu behar dut sindikalistengan inhibizio-jarrera antzeko zerbait sumatu izan dudala irakasle funtzionari erdaldunen lan-eskubide lortuen aurrean. Nik sekula ez dut konprentitu izan sindikatu-erakunde abertzale batek zergatik hartu behar duen horrelako jokabide abstentzionista hizkuntzarengatiko bereizkeria hain objektibo eta estrukturalen aurrean, ezago oraindik lan-munduko beste sektoreetan antzeko salbuespenik egiten ez denean. Dena den, sare publikoan gehiengoa osatzen duen irakasle-sektore horren arazoa, euskal sindikalismoak ez, baizik Euskal Eskola Publikoaren Legeak erabakiko du, honek amnistiatzen baititu adin batetik aurreko irakasle erdaldunak.

Euskal Eskola Publikoari buruz ez noa ezer eranstera, niri dagokidanez bederen, esatekoak arestian aipatutako Euskal Eskola Berria izeneko liburu

31 Iztueta, P.; Basurco, F. (koord.): *Euskal Eskola Berria*, Unibertsitateko Hezkuntza Mintegia, EHU, Donostia, 1993, 35-36.

kolektiboan datoz bilduta eta. Lege horren aurreproiektua aztertu eta proposamen alternatibo batzuk lantzeko asmoarekin, irakaskuntza-maila desberdinetako irakasle-talde bat³², 1991-92 ikasturtean zehar, aldika-aldika Elgoibarko Institutuan elkartu izan gara. Hango gogoeta eta azterketen ondorioa da liburu hori, behar bada argi pittin bat eskain zezakeena eztabaida-giro hodeitsu hartan, baina, ezagutzen ez zelako edo, oharkabean pasatu zena. Elgoibarko mintegi horren izpirituan kokatu behar da, bada, V. atala, zeina, funtsean, bai edukiz bai metodoz, II. atalaren segida kronologikoa baita. Eta bi saio soziologiko horien osagarri da III. atala, eskola-matrikulazioaren jaitea noiz eta zergatik ematen den zehazten duena.

Azkeneko bi atalak, V eta VI, Euskal Eskola Publikoaren Legea aldarrikatu geroztikoak dira. Urteak pasa eta burutik uxatu ezin ditudan zenbait galdera datozkit arrapaladan. Posible ote zen lege hura ekidin eta beste egokiago bat lortzea? Itzuliezinezko egoera berri baten aurrean jarri ote gintuen? Joanak joan, zein ote da oraingo gure egitekoa?

Azken bi galdera horiei bere garaian eman nien erantzun publikoa. Azken bi atalek daramaten izenburuei erreparatzen bazaie, edukia irakurri gabe ere erraz antzeman daiteke 1993an, inolako zalantzarik gabe, aro berri bati ekin zitzaioala euskal irakaskuntzaren munduan. Hasiera hartan egoera aski ilun begiztatzen bazen ere, denborarekin, urak bere senera joan ahala, ikastolen eta eskola publikoen arteko dualismo diaboliko hura desagertuz etorri delakoan nago. Zubi-lanak egiten zortzi urteko ibilaldi nekosoa egin eta gero, esango nuke orduan aldarrikatzen zen zorioneko "konfluentzia" haren ordua jadanik iritsia dela euskal irakaskuntzara. Zentzu honetan, sinboliko hutsa ez ezik, etorkizun emankorra izan dezakeen aurrean isil bezain setati baten emaitza izan da Sortzen-ek eta Ikasbatuaz-ek Miramar jauregian 2000ko urtarrilaren 21ean egindako bateratze-protokoloa. Bere sorrera Hernanin izan zuen, baina gero Nafarroara hedatu zen lehen sigla horrek herrialde horretako euskarazko irakaskuntzan jarduten duten eskola publikoak ordezkatzen ditu; Ikasbatuaz, berriz, EAEko publikazio-prozesuaren ondorekin sare publikorako bidea hartu zuten ikastolek osatzen dute³³. Bien uztartzetik "Sortzen-Ikasbatuaz Elkarte" sortu da, bere estatutuak dituena, zeinetan, funtsean, Sortzen-Ikasbatuaz-ek 1999ko urtarrilaren 28an landutako irizpide, norabide eta proposamenak jasotzen baitira, 6. eranskinean osoki transkribatuta datozenak. Elkarte berri honek haize berriak dakartza euskal irakaskuntzara, zeren harentzat ez baita gutxi, egiteko bidea oraindik luzea den arren, 57 ikastetxetako ordezkariren, 25.000 ikasleren, 10.000 familia baino gehiagoren eta 1.800 langileren bilgune eta ordezkariz izatea.

³² Mintegiko partaideak, hauek dira: Jose Ramon Arbe, Mikel Argiñarena, Mila Amurrio, Felix Basurco, Idoia Fernandez, Paulo Iztueta, Koldo Gorostiaga, Kepa Perez Urraza, Anjel Ugartamendia eta Mikel Urkola.

³³ Etxeberria, Malores, "Haize berri bat euskal irakaskuntza publikoan", *Argia*, 1.748, 2000-02-6, 16-17.

Euskal eskola publikotik abiatuta, euskal hezkuntza nazionala eraikitzen hasteko lehen zimentarriak finkatu dira. Asko da. Bestalde, urtero egin ohi den Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaialdira ere gero eta jende gehiago hurbiltzen dela jakiteak poz ematen du: antolatzaileek esatera, 80.000 lagun Donostiako A-noeta kirolgunean 2000ko ekainaren 11n³⁴. Lehen ikastolak bakarrik ziren euskarazko irakaskuntzaren erreferente bakarrak. Gaur, eta zorionez, euskal eskola publikoak ere baditugu. Miramar jauregiko protokoloan bezala, eguneroko lanean batera jokatzeko badute, zerbait aurreratuko da. Hik hasi, garai bateko Isilik-en erreibuea hartzen duen euskal heziketarako aldizkaria ere, hilerok ateratzen da. Honek ere hilerok-hilerok gaurkotasunez jantzitako gai monografikoak argitaratzen ditu, euskal hezkuntza-komunitateak bizi dituenak.

Azkenerako utzi dut lehen galderari erantzuteko lana. Euskal Eskola Publikoaren Legea onartu aurreko egun haiek gogoratze hutsak oraindik ere tristetu egiten nau. Ikastolen alde azkenera arte jokatzeko beti prest agertu izan naiz, —eta egun ere horretan segitzen dut—, Zurriola ikastolan bezala hitzaldi bat ematera deitu ninduten Zumaian ere. Euskal irakaskuntzaren munduan askotxo genituen, —guk uste baino gehiago—, oso abertzaleak izanda, Federazioen Elkartearikiko mesfidakor agertzen zirenak. Izan ere, hala sentitzeko arrazoirik ez zen falta, zeren, aldarrikatutako printzipioen eta gero praktikan hartzen zituen erabakietan ez baitzitzaion koherentziarik ikusten. Haren jokabide anbiguoak sortarazi zuen, hein ez txikian, ezker abertzalean nabarmendu zen noraeza. Bilera bereziak eta guzti egin behar izan ziren jokabide bateratuak lortzeko.

Eta Federazioen Elkartearen anbiguotasunak azkenerarte iraungo zuen. Baina, tarteka, esperantzarako bide eman zezaketen keinu-modukoak ere egiten zituen eta batzuetan bazirudien Gasteizko paktismoari aurpegi emateko ere gertu zegoela eta, erresistentziaren gidaritzak berak hartuz gero, uste izatekoa zen, gizarte-presioen ondorioz, Legearen onarpenera galeraz zitekeela. Bestalde, herri-mugimenduen mailan erresistentzi giroa bizirik zegoen eta posible ikusten zen, Euskal Eskola Publikoaren lege-proiektuaren kontra zeuden eskola-komunitateko erakundeak Danon Artean plataformaren inguruan koordinatuta³⁵, lege-proiektu horren onarpenera ezintzea edota, bederen, sostengu-sozialik gabe utzi eta deslegitimatzea.

Plataforma horrek, hain zuzen, bere lehen agerpen publikoa 1992ko abenduaren 3an egiten du Felix Basurcoren gidaritzapean³⁶, besteak beste, jarraiko erre-

³⁴ *Egin*, 2000-06-12-13.

³⁵ Plataforma hau osatzen duten siglak eta prentsaurrekoan agertzen diren berorien ordezkariak, jarraiko hauek dira: Mikel Eizagire, Sortzen kolektibokoa; Mirari Bereziartua, Ikastolen Federaziokoa; Jose Vicente Ojinaga, Bizkaia eta Gipuzkoako EEMMko Ikasle-Gurasoen Federaziokoa; Felix Basurco, Unibertsitateko Hezkuntza Mintegikoa; Adela Etxeberria, STEE/EILASekoa; Itziar Lopategi, LABekoa; Marisol Agirre, Irakasleen Elkartekoa (*Egin*, 1992-12-3).

³⁶ Irakurtzekoa da "'Escuela Pública Vasca' Lege honekin erresistentzira berriz" artikuluan, Lege honi buruz egiten duen azterketa zehatza (*Isilik*, 16, 1992, 17-24).

bindikazio hauek eginez: legerian lekuan lekuko errealtateari egokitutako eskola-curriculum propioa finkatzea, lan-marko berria sortzea eta eskoletan langileen egonkortasuna ziurtatzea. Beste bigarren prentsa-agerraldi bat egingo du hila-bete bereko 18an³⁷, 22an Gasteizko Legebiltzarreko egoitzaren aurrean egingo den manifestaziorako deia zabalduz. Deialdia egin eta hurrengo egunean, Antonio Kanpos, Josu Meabe eta Patxi Lopez de Aberasturi jaunak, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Ikastoletako Federazioen lehendakariak, “eskola berria eta propioa” bideratu behar dela eta horretarako Denon Artean plataformara bultzatzearen aldekoak agertzen dira³⁸. Iragarri bezala, egun horretan egingo dako manifestazioan 100en bat lagun baizik ez ziren izan³⁹, baina geroztik Bilbon egindakoa, hangoan bai, jendetza handia bildu zen. Suhartsua, gainera, aurrera egiteko gogoz. Orduan konturatu ginen bazegoela Gasteizko paktismoari aurre egiteko adina indar, eta eskola-komunitatearen baitako kaleprotesta handituz joango zela baldin Ikastolen Federazioak erresistentziaren uholdeari eusteko adorea izan baleza. PNVk esana baitzeukan hezkuntza-paktua bete egingo zela⁴⁰, Federazioen Elkartek, herri-mobilizazioak eragiteari utziz, Gasteizko bere agintariekin harremanetan sartuta, bere etorkizuna presatzen hasiko da. Testuinguru honetan kokatu behar da, Federazioen Elkartek, Armentian bilduta, 1993ko maiatzaren 15eko datarekin ikastolei helarazten dien Agiria, 5. eranskinean datorrena. Hemen, printzipio-mailan bere ohiko xede orokorrak aitortu ondoren, ideia berri gisa, eranskineko 6. puntuan irakur daitekeen bezala, “Ikastolen talde solidarioa” sortzea proposatzen da, bere antolaketa juridiko propioa izango duena. Ideia hau egungo ikastolen antolaketa egituratzen duen “Partaide” izeneko elkartean gauzatuko da.

Egun, 1990eko hamarkada-hasieran eskola publikoaren inguruan izandako eztabaida eta kalapita haiek errekek bere marmar isilean eramandako urgalduak dira, baina ez ahantziak. Dena den, harrezkero bide luzea egin da eta euskarazko irakaskuntzak, bereziki sare publikoan, eremu garrantzitsuak irabazi ditu. Eta hau poztekoa da.

Hemen bukatzen da nire txango etnografiko honen kronika laburra. Hemendik aurrera, irakurle, zurea da txanda.

Donostian, 2000ko ekainaren 16an

³⁷ *Egin*, 1992-12-19, 20.

³⁸ *Egin*, 1992-12-19, 7.

³⁹ *Egin*, 1992-12-23, 17.

⁴⁰ *Egin*, 1992-12-11, 19.

I

IKASTOLAK AUZITAN HEZKUNTZA ELEBIDUNAREN AROAN¹

Euskal erreformismoa irakaskuntza ez-unibertsitarioan hezkuntza elebidunaren bidetik lehen pausoak ematen hasten den garai autonomikoan, hain zuzen, ikastolak izango dira auzitan jarriko direnak. Nolatan, ordea, euskarazko irakaskuntzan eredu bakarra izanda? Bada, halatan. Esatera goazenak harritzekoa badirudi ere, ahaleginduko gara galderari harridura-estalkia kentzen. Filosofi gogoeta bera ere ez al zen harriduratik jai? Sar gaitezen, bada, harriduraren oihanean, bide-salatari.

1. Ikastolak arazo: zertan garen eta nora goazen

Ez genuen lumarik hartuko, ez bederen gai hau harrotzeko, egoeraren iluntasunak gure belarriok tente jarri eta bazter guztietara sos esnagarrien uhinak zabaltzera behartu ez bagintu. Esaten denez, ikastolen orain arteko martxa nahikoa desbideratua izan bide da eta oraintxe geundeke, Eusko Jaurlaritzaren gidaritzapean hain zuzen, anormala den euskarazko irakaskuntzaren estatus orokorra normalizatzeko egokierarik aproposenean: irizpide pedagogiko berriak, Ikastolentzako Estatutu berria, etab. Horiek hortxe daude merkatuan.

Gizarteko beste hainbat fenomeno bezala, ikastolek ere eboluzioaren ondorio dira. Guri dagokigu, sarritan intentzio politiko jakinez estaltzen diren promes handietan sobera sinetsi gabe, fase berri baten ezaugarriak azaltzen dituzten gertakari historikoen zantzuaz arta hartzea.

¹ Sarreran esan bezala, EKB siglapean *Egin*-en 1983ko martxoan eta apirilean argitaratutako artikuluen bilduma da.

Ikastolen eboluzioa

Ikastolak ez baitira gaurkoak, euskal gizartearen aurpegi soziologikoa taxutuz etorri den arabera gauzatu da haien historia ere. Fenomeno pribatu izatetik publiko izatera heldu zen urte horretan, 1960an hain zuzen, ikastolek militantismo suhartsuaren beroa zuten beren ondoan, herri-babesaren gerizpe morala eta ekonomikoa. Erakunde jaioberria nolabait gorpuztu beharra zen garaiko kezka nagusia. Geroago, 1970 urte-inguruan, euskal barrutian alternatiba politiko berriak ugaritzearekin batera, ikastolek ideologia desberdinen eraso jasaten dute.

Gaur urruti samar geratu zaizkigu 1970-72 urte haietan ikastolen abiada nekeza zilipurdikatu nahirik piztu zen ekaitz hura: Federazioaren eta Irakasleen Elkartearen arteko liskarrak, Elizaren babes juridikoa eta erlijio-arazoa, pedagogia berriaren lehen urratsak, gurasoen eskubideak eta haurrenak, euskara batuaren inguruko polemika luzea bezain pozoiatsua, elebitasunaren oinarritzko planteamendu teorikoak, etab. Nork ez ditu gogoan orain hamar urteko kontu haiek?

Orduan, Ikastolen inguruan planteatzen zen arazorik nagusia, bere adierazpen zuzenekoan bederen, hirukoitza genuen: ideologikoa, linguistikoa eta pedagogikoa. Zeharka bakarrik zen politikoa. Frankismoa ofizialki bizirik zegoen artean eta ikastolek, klandestinitate-egoeran ez bazeuden ere, ez zuten inolako laguntzarik izan sistemaren partetik. Frankismoak, ikastolen bidez Euskal Herriko zati bati egin dion -eta egiten dion- milioitako lapurketa administratiboz aparte, gehien-gehienik, -eta hori ezinbestean-, soportatu egin ditu herri xeheak beretu duen euskarazko irakaskuntzaren mundu hori. Espainiako Estatuak ezin itzali izan du ikastolak izpirituan goritzen zuen euskararen berreskuratzetxinparta, ezta bera indartsuenik sentitzen zen uneetan ere.

Juancarlistoarekin demokrazia formalera iritsi arte, euskal abertzale izenekoen artean ez zen inor ausartzen euskara, gure hizkuntza nazionala, auzitan jartzera. Barne-barnetik egiazki horrela sentitu ala ez, hizkuntzari historikoki funtsezko garrantzia eman ala ez, hizkuntz zapalkuntza sistematikoaren garaian euskararen aldeko errebindikazioa erresistentziaren sinbolo gisa ikustera ohiturik ginduzkaten oposizioko erakunde eta mugimendu politikoeak.

Gaur, euskal politikaren erantzule etxeakoak egin zaizkigunez geroztik, eguneroko prentsak oso bestelako haizeak barreiatzen dizkigu orohar eta, bereziki, euskarari buruzkoetan eta honen barruan ikastola-mailan. Oraingoa ez da erresistentziaren ordua, autonomiarena baizik, Eusko Jaurlaritzak herriari ekarri omen dion "askatasunarena", herri-mugimenduak, —batik bat, kulturazkoak—, instituzionalizatu behar direnekoa, boluntarismoak bere lekua razionaltasunari utzi behar dionekoa, euskararen irakaskuntza lege psikologikoen arabera ongi eta buruz planifikatu behar denekoa. Eta abar. Teknizismoa behar da. Horrek euskara salbatuko duelakoan!

Orain funtsezko arazoa ez dira Freireren pedagogia askatzailea edo Freineten metodo naturala bai ala ez, erlijioa irakatsi behar den ala ez, *h*-ak sortzen dituen burukominak zein pildorak ken ditzakeen, eta gisakoak. Badira arazo, baina ez hainbeste. Eztabaida, oraingo honetan, gehiago doa politikaren ildotik lehen aipatutako aldagai hirukoitz hartatik baino. Une honetan, etxekoen gobernuarekin, euskara bera jarri zaigu auzitan eta ez, soilki, euskarak har ditzakeen honelako edo halako ideologi formak. Euskararen etorkizuna dago kinka larrian. Garbiago esanda: Euskal Herri euskaldunaren proiektu politikoa daukagu osoro pipiak jota. Eta goitik hasita. Gasteiztik alegia, ez Madriletik bakarrik. Euskarak gora egin orde, behera egin du. Zer gertatzen da? Fantasmak ikusten ari garela esaten zaigu. Ahaleginduko gara kontrarik frogotzen.

Ereduen proposamena

Metodo soziolinguistikoak aplikatuz, euskara ikastoletan zein egoeratan dagoen aztertu berri digute mundu horretan adituak omen diren batzuek. Medikuntzan erabili ohi den terminologiaren arabera, diagnosi baten azalpena eman zaigu. Atera dituzten ondorioak nolakoak diren? Oso txarrak. Negatibo hutsak. Eredu berri batzuen arabera hobetu beharrekoak. Goitik eta behetik, ezker-eskubi, hainbeste zifra metatu ondoren, hauxe esaten zaigu funtsera joanda: Ikastolen eboluzioan, azken urteotan hain zuzen, jauzi koalatiboa bat nabari omen dela hizkuntzaren aldetik, euskararen ezagutza eta beronen erabilera gero eta eskasagoa omen delako. Honen errudun bakarra, -besterik aipatzen ez den bitartean hala dela esan behar-, ikastoletan orain arte aplikatu den eredu linguistikoarena omen da, gaiak euskaraz bakarrik irakatsi nahi izatearena, alegia. Horrek izen handi bat du: elebkarreko eredu. Hau aplikatuz datozke, bada, desbideratze pedagogikoak hezkuntza elebidunean.

Eredu klasiko horrek, espreski esaten denez, bi gaitz ekarri ditu ikasleriaren baitara: batetik, traumak haur erdaldunengan eta, bestetik, hizkuntzaren beraren pobretasuna. Aipatutako gaitzok ikastolen gorputz orokorrean areago zabal ez daitezzen, orain arteko eredu bakarrari uko eginik, eredu berriak proposatzen zaizkigu: zorieko edo zoritzarreko, A, B eta D ereduak, gehi euskararik gabeko X, lehengoaren kopia dena. Mackeyren teoriak eskutik, Hezkuntzako Kontseilaritzak landurik du eredu horien araberrako plangintza didaktikoa, ikastoletan aplikatuak izan daitezzen. Oso zientifikoki hitz eginda, euskararen onetan ari direla behin eta berriz esanda, nagusi berriek sekulako inbentoa plazaratu dute: erdararen bidez euskara hobeto irakasteko metodoa. Lanak ematen ditu horrelakorik posible denik sinestek. Oraingo, puntu honetaz, ez dago deus egiazaturik, proposamen liluragarrien promesa besterik. Auzia, edo tranpa, mer-

katuan dago azterkizun eta, une berean, erosgai. Baiezkoa aise eman aurretik, eta erbiaren ordezkatua sartzen digutela berantegi kontura ez gaitezen, gabiltzan kontuz eta ez gaitezen sobera fida haren eta honen esperimenez. Arazo honek ikastolen geroan izan dezakeen garrantzi handiengatik, horregatik bereziki, merezi du sakon aztertzea. Guk, bitartean, nahiago genuke esperientzi gidari hori ikastoletan ez, baizik beste nonbait egingo balitz, adibidez, eskola pribatuetan eta estataletan.

Ikastolen administrazio-antolaketa berriaren bila

Lehen konbenioak ziren. Zertarako?, galde dezake batek baino gehiagok. Eta, egia esan, aldakuntza mesedegarri izugarritzorik ez da ezagutu. Orain estatutu berri baten eskaintza egiten zaie ikastolei, zeinaren bidez ikastolak pribatu izate-tik publiko izatera pasatuko bailirateke.

Ikastola pluralista eta, gestioari dagokionez, demokratikoa nahi litzatekeela irakurtzen da arautegiko artikuluetan. Irakurri, horrela irakurtzen dugu; baina, “Euskal Ikastolen Erakundea” izeneko proiektuaren gobernu-organoen antolaketa bertikala ikusi ondoren, ezin esan dezakegu horrela denik. Demokrazia zerbait izatekotan, behetik gora egindakoa izan beharko luke, ikastola fisiko bakoitzetik hasita alegia, ikastolako bertako protagonistak oinarrizko zutabetzat hartuz: haurrak, irakasleak eta gurasoak. Estatutu honen arabera, ordea, erabat alderantziz gertatzen da: kontrol-bidez guztiak kanpotik ezartzen zaizkio ikastolari. Zehatzago esanda: Eusko Jaurlaritzak, Diputazioek eta Udalek aginduko lukete ikastoletan.

Eusko Jaurlaritzak estatutu berri honen eskaintzarekin zer lortu nahi duen? Hemen hasten dira gure kezkek. Hasteko, galdera zenbait egingo dugu, arazoa zertan datzan ikus dezagun. Azterketak geroago etorriko dira. Zertarako ote estatutu hau? Egiazko publikotasuna lortzeko? Zalantzan jartzen dugu azken puntu hau, zeren, guztiok ondo dakigun bezala, eskola estatalak estatutu berezi baten beharrik gabe baitira publikoak. Euskarak ez ote dauka gaztelaniak adina esku-bide publikoa izateko? Bere etxean, noski, ez atzerrian. Erantzun diezagu Eusko Jaurlaritzak.

Doakotasuna lortzeko, agian? Balegoke honetaz ere zer esanik. Gaztelaniazko irakaskuntzak, bai eskola estataletan bai pribatuetan, ez du behar inolako dekreturik doakoa izan dadin. Objektiboki hitz eginda, gure herri honetan erdara baldin bada zapaltzaile eta euskara zapaldua, euskarazko irakaskuntzak zeren arrazoiz behar du estatutu baten pribilegioa lege-mailan onartua izan dadin? Erantzun diezagu Eusko Jaurlaritzak.

Borondote makala, euskararen baitan sinesmen kaskarra, gaitasunik eza, botere-gabezia..., oraintxe edozein gauzatan, gure hizkuntzaren normalizazioan ez beste guztietan, pentsatzen hasiak gaituzu eta, egin zaizkigun hain-

beste promesak porrot egin dutenez gero, ez dugu erantzunik espero Eusko Jaurilaritziatik. Pazientiaren pazientzia jadanik itsasoko uretan itoa da, sabela urez ederki beteta.

2. Elebitasuna zertarako?

Guztiok dakigu euskarak, gainera etorri zaion zapalkuntza sistematikoa dela medio, egundainoko jipoia hartu duela frankismo-garaian. Hizkuntz zapalkuntzaren alderdi hau nahikoa landurik daukagu jadanik arlo horretan egin diren azterketa-lan teoriko zein praktikoen bidez. Zazpigarren urtea da Francoren itzal fisikoa desagertu zela eta lehen begirada batean badirudi, itxuraz behintzat, aldakuntzarik egon dela. Hor daude hauteskundeak, erakundeak, Eusko Jaurilaritza bera, hizkuntzari dagokionez, lehengo zapalkuntzaren lekuan elebitasun-dekretua, etab. Datu hauek guztiak hor daude aurrean, konstatagarriak dira. Amen, beraz? Ez, hain aise bederen ez. Funtsezko gakoa, euskal arazoari dagokionez, ez da aldakuntzaren alderdi konstatagarri hori ukatu ala ez ukatu, beste hau baizik: azalezkoa ala egiazkoa da? Berriz ere lehengo egoera bera mantentzeko maliobra zuhurrago bat da ala jauzi koalitatibo baten aurrean gaude? Zertan gara, beraz?

Iritziak hor banatzen dira eta gure azterketa hau ere, zer erremedio!, ikuspegi kontrajarri horretatik abiatuz biribiltzen dugu.

Elebitasuna, gaur, ofizialki onarturik dagoen zerbait da. Honek zer inplikatzan duen? Oro har eta, zehazkiago Ikastoletan, zer? Hona hemen planteamenduaren muina.

Elebitasunaren definizioa

Ikastoletako hizkuntz arazoetan murgildurik dabilen Mari Karmen Garmendiak, elebidun izatea zer den galderari erantzuten hasten denean, zenbait autoreren (Weinreich, Bloomfield, Haugen, Mackey) definizioak eskaintzen ditu “Elebitasunaz ohar pare bat” lantxoan². Definizio zabalegiak izango dira beharbada, baina, gure kasurako, gaurko gure hizkuntz eremuan hitz horren bidez zer adierazten den azaltzeko balio dute. Autore horiek, bakoitzak dioena elkarrengana bilduz, hauxe esatera datoz: elebidun izatea bi hizkuntza konpetentzia edo gaitasun berdinez menderatzea dela, menderatzea nola ulertzeko hala mintzatzeko.

Horraino hitzaren mugaketa. Eta badugu honetaz zerbait esatekorik. Zeren,

² *Jakin*, Donostia, 1981, 19-20, 36.

elebitasuna aipatzen denean, zer fenomeno-mota adierazi nahi da? Ezin gaitzke aurrera joan puntu hau argitu gabe.

Lehenik, elebitasuna norberaren hizkuntz portaerari dagokion egoera bereziaz esan ohi da. Berez, esan, ez dago esaterik gizarte elebidunak badaudunik, baina bai pertsona elebidunak. Bigarrenetik lehenengora ezin da saltorik egin errealitatea gezurtatu gabe. Laburki esanda: elebitasuna arazo pribatua da, norberaren biografiari dagokiona; pertsona jakin batzuk bizi diren inguru-giro baten barruan mugitzen da elebiduna. Elebitasuna, beraz, arazo pertsonala da, indibiduala. Goian aipatu dugun definizioak alderdi hau jasotzen du, batik bat. Baina, bistakoa denez, hizkuntza fenomeno soziala ere bada, dudarik gabe.

Elebitasunak, bigarrenik, bi hizkuntzek beren artean gizarte-botere edo prestigio-estatus berbera daukatela inplikitzen du. Honek, jakina, bi hizkuntzak maila berean egotea suposatzen du, berez eta teoriarik bederen. Praktikan hala gertatzen al da? Gurean bederen ez.

Hirugarrenik, elebitasunaz eman diren azalpen gehienak hizkuntzalari, pedagogo eta psikologoek eskutik etorri zaizkigu eta horiek hizkuntzari ematen dioten trataerak nahikoa alboan uzten ditu beraren erreferentzia sozialak. Soziolinguistikak sarrera kaskarra du eta, Karmele Rotaetxearekin esateko³, gure hezkuntza-sisteman, berriz, batere tokirik ez du.

Laugarrenik, aingeruegiak izan beharko genuke euskal gizartean hizkuntz gatazkaz ez oartzeko. Hizkuntzak, gizakiak bezalaxe, ez dira gizarte paradisiakoetan bizi, elkarren arteko borrokan baizik. Klasearteko borrokak dauden bezalaxe, hizkuntzen arteko borrokak ere badaude. Elebitasuna, promesa maltzurra, goitik eta behetik aldarrikatzen bada ere, borrokak hor dirau. Euskara, elebitasuna martxan dagoela esan arren, bigarren mailako hizkuntza dugu etxean. Ez du eraginik gizartearen hegi erabakigarrietan: irakaskuntzan, administrazioan, mass-medietan, industri munduan, hiriburuetan...

Bosgarrenik, garbi eta ozenki esan dezagun, euskararen egiazko arazoa ez da elebitasunari dagokiona eta bai, —bete-betean gainera—, diglosia estrukturalarekin zerikusi zuzena duena. Diglosiak, elebitasunak ez bezala, hizkuntza baten antolaketa-mota orokor bati egiten dio erreferentzia, hots, gizartearen egitura soziopolitikoari. Gogoan hartzen ditu, beraz, gizarte jakin baten oraingo eta lehen-go historia eta ez, elebitasunaren kasuan bezala, norberaren hizkuntz portaerak soilki. Egoera diglosikoa ematen denean, bi hizkuntza kontrajarriak aurkitzen ditugu. Bata (A) goi-mailakoa da, ofiziala, besteak baino indar eta itzal handiagoa duena komunikabideetan, literaturan, mass-medietan, irakaskuntzan, hau da, bizitza publikoan. Bestea (B), ofiziala ez dena, behe-mailakoa da, sukaldetik eta famili girotik oso urrutik ez doana. B hizkuntza euskara baldin bada, A-n, baten lekuan bi dauzkagu: gatzelania eta frantsesa. Euskara ahulak zer egin behar du

³ Ibid., 52.

bera baino askoz ere indartsuagoak diren beste bi hizkuntzen kontra borrokatze-ko eta bere burua salbatzeko? Borroka honetan zein elementu sartzen dira?

Galdera horiek egin beharrekoak ditugu. Egin beharrekoak, lehenik, lotzen gaituzten kateak zein motatakoak diren jakiteko eta, bigarrenik, kate horietatik askatzeko zein indarrekin konta dezakegun ikusteko. Gehiengoaren demokrazia formalak salbatuko ote du euskara? Ala, bide laburragoa hartuz, euskararen heriotza azkarragoztea lortuko du? Horra galderak.

3. Elebitasuna demokraziaren ondorio

Elebitasuna non aplikatzen da? Normalean demokrazia formalaren legeak aplikatzen diren gizarteetan, beti ere gehiengoaren borondatea oinarrizko abiapuntuztat hartuz. Estatu baten barruan gutxiengoarena den hizkuntza zapaldu bati, demokrazia formalak gehienez ere gutxiengo horren hizkuntza izateko eskubidea ezagutuko dio; une berean, ordea, gehiengoaren hizkuntza nagusi bilakatzeko bideak itxiko dizkio. Zergatik? Horrelako hizkuntz aldaketa batek gizarteko egiturak azpi-azpitik iraultzea eskatzen duelako. Eta horixe da, hain zuzen, demokrazia formalak nahi ez duena. Eta sarrera honekin euskararen arazora gatoz.

Artikulu honetan bi gauza argitu nahi ditugu: lehenik, hizkuntza baten berreskuratze-prozesuan zein faktore sartzen diren eta, bigarrenik, gizarte-faktore horien baitan zein eginkizun betetzen duen demokrazia formalak.

Gizarte-faktoreen eragina hizkuntz borrokan

A eta B hizkuntzen arteko gizarte-harremanak, arestian esan bezala, gatazkatsuak ditugu. Gizarte-taldeen arteko desberdintasuna adierazten dute. Bi faktore bederen sartzen dira hor, elebitasunak ahazten dituenak, hain zuzen: politikoa eta ekonomikoa.

Faktore politikoa. Inperialismo eta kolonialismo-mota guztiek, ondorio gisa, elebitasun ordezkatzaila ekarri dute. Nola? Asimilazio-prozesua azkartuz eta kolonizatzaileen hizkuntza kolonizatuaren gain ezarriz edota, gure kasuan bezala, Estatu nazioaskodunaren hizkuntza ofizialek ertzaldeko beste hizkuntz gutxiengoak zapalduz eta desagertzera kondenatuz. Hizkuntz alienazio-mota desberdinek, funtsean, ondorio berbera dakarte: epe laburrera elebitasuna lau haizetara aldarrikatzea, asimilazio-prozesu osoaren atariko izanez gero, Estatuaren elebarkartasunerako pasabide mozorrotua izan dadin. Elebitasun ordezkatzaila elebarkartasunerako ate handi bat besterik ez da. Euskararekin horixe egin nahi izan da, eta egun ere hil-biziko borrokan murgildurik segitzen dugu.

Faktore ekonomikoa. Boterearen jabe den gizarte-klaseak bere hizkuntza in-

posatzen du gizarteko harreman guztietan. Honela, politikaren zein ekonomiaren aldetik ahulena den taldea edo gutxiengoa sozialki alboratua ageri da, bazterrean utzia. Euskara baserritarren eta herritar soilen famili hizkuntza izan bada, euskal burgesiak kultur tresna gisa gaitzetsi zuelako eta gaitzetsiz segitzen duelako izan da horrela. Klase-interesak eta hizkuntzarenak non hasten eta non bukatzen diren erabakitzeo ueña ez bada ere, badirudi klase dominatzailearen hizkuntza gailentzen dela beheko klase zapalduen hizkuntzaren gainetik.

Euskal burgesia monopolistak, berau ez baita sekula abertzalea izan, euskarari muzin egin zion. Aspaldi egin zion. Katalunian bestela gertatu zen eta, arrazoi horregatik bakarrik ez bada ere, funtsean klasearen faktorea hor dagoelako aurkitzen da katalana euskara ez bezalako egoeran: ez onean, baina bai gurea baino hobean.

EAJ barruan, monopolista ez den burgesiak, kopuruaren aldetik ez baina klase-interesaren aldetik, bai ziurki, sarrera erabakigarria duke zuzendaritza-mailan. Alderdiaren gidarici zenbat interesatzen zaie euskara? Historian zehar atzera begiratzen bada, panorama beltz eta tristea azaltzen zaigu: Eusko-Gogoa-ren heriotza laguntza ezagatik, Monzonek Eusko Jaurlaritza uztea, etab. Orduan ez zegoen plangintzaren arrastorik ere. Gaur ere ez askoz gehiago.

Horregatik, esanak laburbildu ondoren, arazoaren muinera gatz galdera honekintxe: elebitasuna zergatik eta zertarako? Egiatzko irtenbide bat al da edota, alderantziz, batetik gehituz doan eske sozialari eta, bestetik, hizkuntzarengatik diskriminazioa dela eta, zalapartaka dabiltzanei ahoa ixteko aitzakia apropos bai? Taktika hutsa, beraz?

Elebitasuna ideologiaz mozorrotzen denean

Elebitasuna gaur modan dago, ezin ukatu, baina ez da gaurko kontua. Frankismoak, 1956 urte-aldera, aro teknokratikoa inauguratu zuenean, liberalismo espainolaren lumetatik etorri zitzaizkigun elebitasunaren aldeko topiko ezagunak: “batasunean desberdintasuna” eta horrelako esaerak. Nork ez ditu gogoratzen Unamuno, Maeztu, Baroja, Menéndez Pelayo, Menéndez Pidal, Ortega, Madariaga, Sánchez Alborno, Julián Marías, Lain Entralgo eta abarren pasarteak? Liberalak, oso liberalak, bai, baina asimilazionista porrokatuak, ezin espainolagoak denak, Unamuno eta Baroja barne, noski.

Paradoxa badirudi ere, egia hauxe da: hizkuntz inperialismoa ezarria izan den herrialdeetan, martxan jarritako estrategia dominatzailea hizkuntz ideologian babestu izan dela, hain zuzen ere. Itxuraz neutro, oso liberal eta demokratiko gisa agertuz, elebitasuna izan da asimilazio-prozesu guztiaren estaldura.

Lehen esan dugun bezala, herri batek ez du bere hizkuntza gaueetik goizera galtzen. Asimilazioa pittinka-pittinka gauzatzen da, ur ttantak harria zulatzen duen

bezala. Elebitasuna, gatazka-egoeran dagoen hizkuntzari etorkizun baikorra eta bakezkoa eskainiz eta desiratuz, egiazki heriotza goxoa ematera dator, esperantza faltsu batez kordegabetuz gero, oharkabean hil dadin. Horretarako elebitasuna bere ideologiaz baliatzen da. Elebitasuna arrazoitu eta legitimatu egiten da, bere helburu asimilazionista bete dezan.

Jokabidea aski ezaguna dugu: hasteko, eta hementxe datza tranpa demokratiakoaren habia ezkutukoa, ez da esaten, gutxiago zehazten, elebitasuna zein egoera konkretutan hezurmamitu behar den.

Gure kasura etorriaz: zenbat euskaldun dago Euskal Herrian? Araban % 7,9, Bizkaian % 15, 1, Gipuzkoan % 45, Nafarroan % 11 eta Iparraldean % 34,5. Hauek dira Karmele Rotaetxek ematen dituen datuak⁴. Urrutira joan gabe, Euskal Telebista dela eta, antzeko galdera egiten zen: zenbat euskara eman behar da? Benga inkestak! Zenbatek eskatzen du? Herrialde bakoitzaren arabera hainbestek; beraz, % 40tik 60ko bitarte horretan emango da. Emango "omen" da. Beti bezala, status quo delakoa onartuz, vox populi-ren irizpidea da gidari bakar eta nagusi zankar.

Hainbeste baldin badira euskaldunak, ez gehiago, horixe da errealitatea eta horri plegatu behar gatazka. Elebitasunaren aldeko politikak, dagoen status quo hori onartuz, arazoaren ikuspegi "errealista", "apolitiko" azaltzen du. Honela, elebitasuna haizatzuz gero, egoera egonkor baten aldeko hizkuntz planteamenduak egiten dira, demokrazia formalari dagozkion tamainakoak, hizkuntz diskriminaziorik egon ez dadin.

Ideologia honen arabera, pentsatzekoa zenez, erabat zomorroturik, ezkutaturik gelditzen da estatu-hizkuntza dominatzailearen diktadura. Ez da planteatu ere egiten hizkuntza menperatuaren salbazioak gizartearen sistema-mailako aldaketa aurrekatzeko duela. Ez da onartu nahi, lehen gizarteko harreman ekonomiko, politiko eta kulturaletik baztertua izan zen hizkuntzak, orain, baldin salbatuko bada, alderantzizko prozesua eraman behar duela, hots, bizitzen segitu ahal izateko, gizarteko maila guztietan beharrezko hizkuntza izatera iritsi behar duela. Horra hor hasiera eta bukaera.

Eta azkenean, Maria Karmen Garmendiak dakarkigun definiziora itzuliaz, bi ohar nagusi eginez bukatuko dugu:

Bat: Euskararen arazoa ez da elebitasunarena, diglosiarena baizik. Hala izanik, trataerak ere derrigorrez bestelakoa izan beharko du.

Bi: Ez da auzitan jartzen euskararen gaurko egoera. Estatistikak zer esan, hura da errealismoa. Salaketarik egiten ez den bitartean, elebitasuna egiazko arazoa estaltzeko ideologia gisa erabiltzen dela esan beharko da.

Ohar hauek egin eta gero, hobeto ulertuko dugu seguraski euskararen ikastoletako egoera.

⁴ Ibid., 44.

4. Ereduen erasoa

Ereduen erasoaldia gaur egun bizi-bizia baldin bada ere, berorren zuztar teorikoak lehenagotik zeuden botata. Luze pentsatuta eta sakon botata. Mikel Lasak, 1978an argitaratutako artikuluko batean⁵, Euskal Herriko irakaskuntza elebidunaz zenbait ideia plazaratu zituen. Mackeyren ikuspuntutik abiatuz, eredu desberdinen proposamena egiten zuen. Geroago 1981ean⁶, lehen esanak errepikatuz eta zenbait datu enpiriko ekarri, ikastoletan politika linguistiko berria ezarri behar zela esaten zigun egile berak. Gero arazo honetaz hango hitzaldietan eta hementeko mahai-inguruetan haizatu diren ideiek Mikel Lasarengan izan dute beren sorburu nagusi eta lehena.

Eusko Jaurlaritzatik ikastoletara

Espero bazen ez bazen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza-Sailekoek berehalaz jasan zuten eredu desberdinen proposamen-oihartzuna. Ezer berririk asmatu gabe, Sail horretatik bertatik eta 1981ean hain zuzen, A, B eta D izenez ezagutzen diren eredu plangintza zehatza egin zen ikastoletarako. Mikel Lasak eskatzen zuen politika berria 1981ean inauguratzen da ofizialki, Eusko Jaurlaritzaren eskutik zuzen-zuzenean⁷.

Programazio horren aldeko proselitismoa Lontxo Oartzabal, Pello Aierbe eta beste lankideek egin badute ere, erabaki linguistiko horren erantzukizuna ezin da inola ere pertsonalizatu, gobernu-teknikari horien gaintetik eta aurretik Gobernu bera baitago. Areago oraindik: lehen esan bezala, ikastoletako irakasleei norabide gisa eskaintzen zaizkien testu idatzi batzuk daude, argitalpen-jatorriari dagokionez, Lehendakaritza Sailetik datozenak.

Ereduen azalpena

Arestian aipaturiko testu horietan honela egiten da hiru eredu, A, B eta D dituen azalpena⁸.

A ereduari gai guztiak gaztelaniaz emango dira eta euskara bigarren hizkuntza bezala irakatsiko da, irakasgai bat gehiago bezala soilki. Helburua da, egu-

⁵ "Euskal Herriko irakaskuntza elebiduna antolatzeke oiharrizko ideia batzu", *Jakin*, 7, 1978, 47-60.

⁶ "Ikastolen politika linguistikoaren analisi kritikoa", *Jakin*, 19/20, 1981, 22-34.

⁷ Eusko Jaurlaritza: *Hasierako Zikloko euskararen programakuntza. B eta D ereduak. Hasiera Zikloa*, 4. Orientabideak, Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Lehendakaritza Saila, 1981.

⁸ *Ibid.*, 14-16.

neroko elkarrizketa arruntak euskaraz eraman ahal izateko neurrian ikastea OHOk azken urtearen bukaerako. Horretarako, 900 ordu sartuko dira; astean lau ordu.

B eredia ama-hizkuntza erdara eta ingurune soziolinguistikoa ere erdalduna duten ikasleentzat pentsaturik dago eta hemen bi hizkuntzak landuko dira, hots, gaztelania eta euskara. Gaztelania gehiago euskara baino. Hasierako Zikloan, irakurketa zein idazketa ama-hizkuntzan egingo dira, baita matematikak ere. Gizarte-arloko gaiak bakarrik landuko dira euskaraz, hau da, gai praktikoak. Hortik aparte, euskara ikasteari egunero ordu eta erdi emango zaizkio. Horren helburua da, behin "maila batera" (zein mailatara?) iritsi eta gero, handik aurrera ikasketak euskaraz egin ahal izateko moduan ikastea.

D ereduaren programazioa, batik bat, beren ingurune soziolinguistikoa gehienbat euskalduna duten edo euskara etxetik dakiten ikasleentzat disenaitua da. Eskolaurrean eta Hasierako Zikloan euskara erabiliko da, batez ere. OHOk ikasketak gehienak euskaraz emango dira. Aldi berean, ordea, gaztelania ere landuko da, OHOk ikasketen ondoren datozen ikasketak euskaraz eta gaztelaniaz egin ahal izateko. Honen helburua da, Eskolaurrean nahiz OHOn euskara erabiltzea, nagusiki.

Laburtuz: Euskararen eta euskarazko irakaskuntza mailakatu horren arabera, A eta B eruedetan adibidez, ikasleen hizkuntza nagusia ez da euskara, gaztelania baizik. Eta horrela izango da, Orientabideak ematerakoan esaten zaigun bezala, beren gizarteko harremanetan gaztelaniaz baliatuko direlako, hain zuzen. Halere, B eta D eruedetan, teoriarari hauen ustez beti ere, ikasleek gaituta egon beharko lukete ikasketak euskaraz egiteko. Hau guztia, noski, teori mailan.

Elebitasuna eta ereduak

Elebitasuna demokrazia formalaren ondorio zuzena dela esaten genuen. Hemen ere beste horrenbeste esan behar da: ereduaren plangintza elebitasunaren sabeletik datorrela, alegia.

Elebitasuna, demokrazia formalaren barruan, aukera bat da. Ez zaio inori inposatzen. Norberak ikusiko du euskara ikasi ala ez ikasi. Norberaren erabakiak du azken hitza, beraz. Elebitasunak, praktikan, ez du egiazko indarririk irakaskuntzan, ez pribatueta eta ez publikoetan. Itxurak egiteko, ordu batzuk emango dira, ongi ala gaizki bost axola!, eta bale. Elebitasun-dekretua gorabehera, ikastetxeek lehen bezain erdaldunak izanez jarraitzen dute. Eta normalean, elebitasunaren irizpidea nagusitzen den bitartean halaxe jarraituko dute. Arrazoi simple honengatik, hain zuzen: euskararen berreskuratze-plangintza osoa ikastetxeen lehengo zutabe berberetan finkaturik dagoelako, ikastetxeen egiturazko funtzionamendua auzitan jartzen ez delako. Eta horrelako baldintzen aurrean, A edo D eredia pro-

posatzea ezer ez proposatzea bezalatsu da, erabat fariseikoa da, ez baitu inork sinesten horrelako egoeran egonik euskaldun berriak sor daitezkeenik.

Baina ereduaren ixanponak bigarren aurpegia du. Ereduak irakaskuntza elebidunerako proposatzen badira ere, ondorioak ikusi eta, ageri dena da ereduaren eraso ikastolek jasan dutela, batik bat. Gure herriko kultur gizakume ilustratu berankorrek lortu dutena ez da gutxi izan: arazoa konpontzen lagundu ordez, oraindik areago nahastu eta zikintzea. Eta ikastoletako irakasle-andana luze baten ohore intelektuala eta berorien gaitasun pedagogikoa iraintzea, behin eta berriz, “boluntaristak”, “irrazionalak”, “espontaneistak” eta, deitu izan baitzaie.

Ereduen programazio hau, oro har, irakaskuntza elebidunerako pentsaturik badago ere, praktikan ikastoletan aplikatua izateko eginda dagoela esan behar da. Bestalde, eredu honen aldeko edo kontrako arrazoiak aztertzen hasi aurretik, egoera horretara zergatik eta nola etorri garen ikusi behar da. Hemen, funtsean, ikastola klasikoari egin zaion kritika dago tartean.

Eredu hauetan, egin dugun azalpenean garbi dagoenez, irakaskuntza elebiduna sagaritzen da: A eta B ereduetan, garbi-garbi gaztelaniaren alde; D ereduaren, euskararen alde nagusiki. Baina hiruretan dago gaztelania presente. Honaino heltzen da elebitasunaren aplikazioa. X ereduaren, berriz, —esana daukagu—, eskolan euskararik ezagutu ere ez da egiten.

Eta orain arte elebarrerekoak izandako ikastoletan, zer? Hauetan ere elebitasuna ezarri behar al da? Zergatik? Galdera hauek izango dute erantzunik.

5. Elebarrereko ikastola auzitan

Ereduzaleek ikastola historikoari egiten dioten kritika hemendik abiatzen da, ikastoletan mantendu izan den ereduaren elebarrerekoa izan dela, “diktadura” garaiko borroka-unerik gogorrean sortutakoa, hain zuzen, aukera ideologiko baten arabera antolatutakoa, ingurune soziolinguistikoa kontuan hartzeke.

Autore horien ustez, ikastola klasikoaren akats nagusiak zein diren azalduko da hemen, ondoren kritikari kontrakritika eginez. Hiru objektzio dira egiten zaizkionak, tesi gisa formulatuko ditugunak.

Lehena: *Pedagogia “espontaneista” nagusitzen da.*

Zergatik? Hona hemen, laburki azalduta, erantzuna: haurrak, bi edo hiru urterekin euskaraz bakarrik egingo den ikasgelan “murgilduz” gero, bigarren hizkuntza (euskara) besterik gabe ikasiko duela sinesten delako. Baina uste horrek, psikologiaren ikuspuntutik begiratuta, ez bide du oinarri sendorik, espreski esaten denez, “hizkuntzak ikasteko haurrak omen duen erraztasuna” delakoak ez baititu “mirariak” egiten, baldintza oso berezietan izan ezik. Eta gaur egun baldintza objektibo horiek falta dira, ikastoletako ikasleria gehienbat hiritarra baita eta, neurri batean, gainera, hiritar erdalduna. Beraz, errea-

lista izan nahi bada, eredu elebkarrekoak ez, baizik eta elebidunak balio du.

Tesi honi nolako ihardespena eman behar zaion? Ikastolen gaurko gizarte-egitura lehen baino hiritarragoa dela eta, orobat, haur erdaldunen kopurua handitu egin dela esaten bazaigu, ez digute gauza berririk esaten, horretarako aski baita datuak ikustea. Egia da, bestalde, ikastolek azkenaldi honetan hartu duten gizarte-egituraketa berri honek arazo berriak ekarri dizkiola beraren funtzionamenduari. Arazoa ez datza datu hauek onartzean ala ez onartzean, ikastoletan dauzkagun arazoak erabakitzeke orduan proposatu eta aplikatzen diren alternatibetan baizik.

Eredu zaharrak balio ez baldin badu, gehiago balio al du berriak? Erdarak sartuz eta euskarari lekua kenduz, euskarak lehen baino gehiago irabaziko ote du? Eredu elebkarrekoak ezin duena elebidunak egin behar badu, horretarako eskatzen den “mirariak” ez du nolana hikoia izan beharko. Eredu berriari askotxo eskatzen zaio.

Eredu klasikoarekin ez omen da jo helburu aitortuen gaina. Ez noski. Baina hori aurpegira botatzeak ez du ezer frogatzen eredu berriaren alde. Berriz ere lehengoan gaude. Kritikak errazena egin du: Ikastola guztiak zaku berean sartu eta, positiboki lortu dena kontuan hartu nahi izan gabe, dena hankaz gora bota eta, lehengoaren orde, inolako bermerik eskaintzen ez duen eredu hipotetiko eta nobedoso bat proposatu razionalismoaren izenean.

Kritika horri hiru ohar orokor egingo dizkiogu:

Lehenik, Euskal Herrian zehar ikastolak eta ikastolak daude eta, euskararen ezagutzari eta erabilerari dagokienez, ez ditugu guztiak egoera berean aurkitzen direnak. Zenbait ikastolatan, nahiz eta ingurune soziolinguistiko arras erdaldunetan egon, euskararen aldetik nahikoa emaitza positiboak lortzen dira eredu zaharri esker. Ezin litezke, bada, ikastola guztiak parean jar, aldeztu aurretik datu konkrituak eman gabe. Ikastolen hiritartasuna eta ikasleriaren erdalduntzea direla bide, ikastolek dauzkaten gizarte-baldintzak euskararentzat faboragarriak ez badira ere, ez dago frogatuta elebkarreko ikastolek frakasatu dutenik. Lehen esan dugun bezala, hiri erdaldun-erdaldunetako ikastola gehienetan eredu elebkarrekoa baliagarri gertatzen da.

Bigarrenik, eredu zaharrekin egindako bidea aski luzea da eta dauzkagun datuak, -ez noski kritikak nahiko litzuzkeen bezala, guztiak era berdinez negatiboak-, konstatagarriak dira. Hasieran eskola erdaldunak zirenak elebkarreko bilakatu dira bertako irakasleria euskaldunetaz etorri den neurrian. Hor dago, adibiderik nahi izanez gero, Donostiako “Mariaren Bihotza” ikastola. Mirari hori, noski, euskara gero eta gehiago sartuz lortu da, eta ez alde-rantziz.

Ikastoletan zer hobeturik badela? Bai, noski. Hobetuz segitu beharko da, beharbada xede desiratuak erabat kunplitzeko asmorik gabe. Eta honela hobe, triunfalismo errazegian eror ez gaitezen. Baina eredu elebidunak nongo ikas-

toiletako esperientzia positiboaren abala dakar? Inongorik ez! Hil-bizian dagoen hizkuntzari esperimentalismoaren abentura opa behar al diogu? Ez dugu uste gure egoera jolas horretarako dagoenik. Gainera, elebitasunaren bidez erduek beren sudurra sartu duten lekuetan ez bide dute ondorio onik ekarri. Aipagarriak izan daitezke zentzu honetan “Jakintza”, “Axular” eta abarretako esperientziak.

Hirugarrenik, Gales herrian egindako neurketak eta Mackeyren tipologiai aipatzen zaizkigu. Ez batak eta ez besteak balio dute guretzat. Gales ez da Euskal Herria. Bestalde, Mackeyren tipologia eraikuntza, euskal gizartetik at, beste nonbait eratua da eta ez du guretzat balio, urrutiko erreferentzia eta eredu informatazile gisa ez bada bederen.

Gure herria borroka nazionala era nahiko berezian daraman herria da, egoera nahiko lehertuan aurkitzen dena, erresistentziaren bidean jadanik urrats luzekoak emana dituena. Bide horretatik ez bada, egin du euskararenak. Borrokarako, esan dezagun garbi, elebitasuna kaltegarri dugu. Benetan engainagarri. Esan genuen zergatik.

Horregatik, zerbait serioa egitekotan, Mackeyren proposamenak erlatibizatetik hasi beharko genuke. Hau da, lehendabizi elebitasuna ukatu, eta gero gero-koak.

Bigarrena: *“Elebkarreko ereduak haur traumatizatuak sortzen ditu”*

Ikastolak, beraz, haur problematikoen habia ditugu. Hori da esaten dena. Erremedioa? Gaztelania sartu, traumarik izan ez dezaten. Gainera, haurren giza eskubideak defendatu behar dira. Eta hemen, harriduraren harriduraz, UNESCOk 1953an esana gogoratzen zaigu: “ama-hizkuntzari begirunea zor zaiola”. Gehiegizkoa, orain eta hemen, horixe aipatzea. Sinestezina hori ikastoletako irakasle-ahotik entzun beharra izatea. Zer entzungo, eta euskarak erdara zapalduzik daukala! Harrigarria! Baina hemen zein dago “traumatizatu”, herri osoa ala haur batzuk? Irakaskuntzan zein da hizkuntza nagusia, euskara ala gaztelania eta frantsesa?

Traumak sortzen direlako eta haurren eta gurasoen eskubideak errespetatzen ez direlako, ikastolek erdaldunduz joan behar baldin badute, Madrilik ikastolen kontra pedagogia “gizatiar” hori baino metodo hobeagorik ez duela sekula asmatu esan beharko dugu. Seguru!

Hirugarrena: *“Euskara beheraka doa kalitatearen aldetik”.*

Bestela esanda: Ikastoletan, praktikan, ez dira kunplitzen helburu aitortuak. Hala diote. Bai, egia da, baina neurri batean bakarrik. Bi hizkuntza nahasirik dardenean edota, areago oraindik, gure kasuan bezala, gaztelania euskarari nagusitzen zaionean, interferentziak sortzen dira eta, gainera, mota askotakoak: fonologiazkoak, gramatikazkoak, maileguzkoak, lexikozkoak, etab. Eta fenomeno hau gure ikastoletan gertatzen da. Haur erdaldunen euskarari sarri gaztelaniaren itzulpen hutsaren taxua hartzen zaio; aldi berean, hizkuntz ukipen horren ondorioz etxeko euskara galduz doazen haur euskaldunak ere ez dira, agian, gutxienak. Zentzu honetan, bada, ez euskara ez gaztelania ez den halako hizkuntza hibri-

do bat sortu eta ugalduz joateko habia goxo bihur litezke gure ikastolak. Arriskua benetakoa dela uste dugu.

Datua hor dago. Baina errua zeini leporatu behar zaio, ikastolei ala euskal gizarteari berari? Gure gizartea, berau bere osotasunean hartuta, euskalduntzeko asmoak eta bideak martxan jartzen ez badira, alferrik ibiliko gara ikastolak, —eta berdin beste edozein ikastetxe—, barrutik pedagogia berrienez antolatzen eta azken orduko tresneriaz hornitzen. Irakasleriaren prestakuntza eta horri loturik doazen gaineratiko arazo metodologiko eta didaktikoak oro oso inportanteak izango dira, baina ez inportanteenak, baldin ikastolen inguruan baldintza soziolinguistikoak aldatuz joateko ahaleginik egiten ez bada. Eta ereduak, noski, sakoneko hizkuntz arazo hori konpondu ez, baizik larriagotu egiten dute.

Ereduen irtenbidea

Hauxe da pedagogia oso modernoaren eta are demokratikoaren aitzakia-tan luzatu diguten tranpa. Eusko Jaurlaritzatik eta beronek bere erroak botata zenbait ikastolatatik datorkigu proposamendu hori, itxuraz razionala eta kritikoa dirudiena.

Irtenbide hori, ordea, aipatuz etorri garen arrazoiengatik, faltsua da. Faltsua da, hiru eredu horiek, kasurik onenean ere, beti euskarazko irakaskuntzaren egiazko murriztapen bat suposatzen dutelako. Irtenbidea ez da euskarari lurra kentzea, lehendik daukan hura hobetuz joatea baizik. Eredu horien bidez sistema klasikoak lortu ez dituen ez bezalako emaitzak lor daitezkeela? Libre da hipotesiak egitea. Baina arlo honetan ezer frogaturik ez dagoen bitartean eta, bereziki, eredu berri-berri hauen emaitza negatiboak loratzen hasi diren une honetan, hobe izango da, askoz hobe eta zuhurrago, irakaskuntza elebidunaren esperimentu-lekua ikastoletan ez baizik beste nonbait finkatzea eta hor gogotik saiatzea. Adibidez, eredu horiei esker, eskola publikoak nahiz pribatuak euskalduntzen badira, euskara bera aterako da irabazten eta gu harekin.

6. Euskara eskoletan: noizko eta nola?

Baina irakaskuntzaren errealitatea osatzen dutenak ez dira ikastolak bakarrik. Zoritxarrez ez dira, zeren irakaskuntzaren eremurik zabalena ikastoletatik kanpora baitago. Eta ikastoletan euskara ez badabil osasun onean, nola ote dabil beste ikastetxeetan? Galdera honen aurrean pausaldi pentsakor bat egin gabe ezin gaitzke aurrera joan. Eskolaz hitz egiterakoan, eskola publikoaz nahiz pribatuaz ari gara.

Datuen hotzikara

Hizkuntz borroka Euskal Herrian liburuan⁹ datozen 1976-77 ikasturteko datuetan oinarrituz, Hego Euskal Herriko eskola guztietan, pribatu nahiz publikoetan, ikasleen kopurua 490.000koa zen. Ikastoletan zebiltzanak 45.000 zirela kontuan hartzen bada, ikasle gehienak, % 90 inguru, beste ikastetxe horietan zebiltzala ohartzen gara.

Egoeraren larritasunaz hobeto jabetzeko, ikus dezagun segidan zertan den euskara eskola pribatuetan nahiz publikoetan.

Eskola pribatuak. Guztira 377ko sarea osatzen duten eskola hauek, ia guztiak erakunde erlijiosoen gidaritzapean zeuden. Eta bertan 195.949 ikasle eskolatzen ziren, hots, % 40. Giza lege hutsez eta kristau etikaren eskakizunez herri-eskubideak (eta hauen artean funtsezkoenetako bat hizkuntzari dagokiona izanirik) errespetatu eta defendatu beharko lituzketen erlijioso horien euskararekiko portaera nolakoa ote den galdetu izan da askotan. Erantzuna emanik dago eta ez da batere kontsolagarria. Eskola pribatu guztietatik % 40,2 ikastetxetan bakarrik ematen dira euskarazko klaseak. Euskara ehuneko hainbestetan ematen dela esatea, bere apaltasun horretan bertan izan liteke poz-iturri; baina ikasteari zenbat denbora ematen zaion eta nola irakasten den begiratzan bada, itxita gelditzen dira poztasunerako sarbide guztiak. Euskara irakasten den ikastetxe horietan astean ordubete eskas ematen da, ez gehiago, eta hori nahi dutenentzat, ikasleak ez baitituzte euskarazko klaseetara joatera behartzen. Irakasleriaren kualifikazioa, bestalde, bai euskarazko ezagutzaren bai irakasteko metodologiaren aldetik, txarra zen. Oso nolabaitekoa.

Baina geroari begira, tamalgarriena eta, SIADECOn hitzez esateko "alarmagarriena", kolektibo honek euskarari buruz zeukan borondate negatiboan datza: ikastetxe pribatuetakoa ia gehiengo absolutua (% 85) irakaskuntza gaztelaniaz ematearen aldekoa azaltzen zen. Euskararen oraina eta geroa irakasleriaren borondatean oinarritu nahi bada, daukagun demokraziaren arrastoak segitu nahi badira, zein irtenbide gelditzen zaio euskarari? Esan, jaunok!

Eskola estatalak. Ikastetxe publiko edo ofizial hauetan euskararen egoera oraindik dezente okerragoa da pribatuetan baino. Ikaslerik gehienak, bestalde, eskola estataletan zebiltzan: guztira 261.760 ikasle, hots, %,53,4. Ikastetxe hauetan, legearen arabera jokatzuz, euskara norberak nahi izanik bakarrik irakas zezakeen. "Hautazkoen" artean zegoen, beraz.

Baina euskarak bazuen oztopo handiagorik ere eskola estataletan. Tristeia bada euskararik ez ematea, tristeagoa da, egoera zegoen bezala egonda, irakasteko egiazko modurik inondik ere ez begiztatzea. Euskara berreskuratze bide normalik ez zen ikusten. Bi arrazoi hauengatik, batik bat: lehenik,

⁹ Euskaltzaindia/SIADECO, EV, Donostia, 1979, 168.

Hego Euskal Herriko haurtzaindegi eta OHoko irakasle guztien % 4k bakarrik zekiela euskara; bigarrenik, Espainiako estatu-mailako irakasleen eskalafoi sistema dela bide, irakasleriaren bizibidezko egoera funtsean ezegonkorra zelako. Azken egoera hau da larriena: gaur hemen, bihar han. Hauxe da inon ez integratzeko sistemarik onena!

Honaino aditza lehenaldian erabili dugu. Orduan, SIADECOK bere proposamenak kaleratu zituenean (1979), Espainiako Estatuko herri desberdinek nork bere burua gobermatzeko adina botere izango zutela pentsatzen zen. Zegoen esperantza Autonomi Estatutuaren baitan jarriko zegoen. Euskara normalizatuko bazen, hala zioen SIADECOK, irakaskuntza elebiduna ikastetxe pribatu zein publikoetara hedatzea behar-beharrezkoa zen. Bideak ere markatzen ziren: Ikastoletako eskarmentutik abiatu eta berorietan aplikatutako eredu linguistikoa-ri segitu. Euskara irakaskuntzan normalizatzeak, beraz, ikastetxe pribatuak nahiz publikoak ikastolen pareko bihurtzea eskatzen zuen

Aurten 1983. urtean sartu berriak gara. Zertan ote da egun duela 6 urte hain beltz genekusan egoera hura? Hobetu ote da? Irakasleriaren kopuruari dagokionez, ez dugu daturik bildu. Baina, oker handirik gabe, orduko proportzioak mantenduko direla uste dugu. Horregatik, Autonomi Estatutuak euskarari zer on ekarri dion neurtzeko, ikastetxe hauetan beraren presentzia nolakoa den aztertzea mugatuko gara.

Zenbait datu partzialen ispilua

Mundu honetan euskararen egoera nolakoa den ikusteko, lehen norabide argigarri gisa, 1982ko maiatzean plazaratutako datu batzuk eskainiko ditugu. Datuok, STEE-EILASEk antolatu eta gero, Juan, Jesus eta Eli hirukoteak landutako inkesta batetik jasoak dira¹⁰. Inkesta honen esparruak Gipuzkoa bakarrik hartzen du. Horregatik dira partzialak. Eredu gisa Gipuzkoa izan zen aukeratua: lehenik, elebidunena ere bera delako eta, bigarrenik, euskarazko irakasle-kopururik handiena bertan dagoelako. Inkesta-eredu honetan, beraz, euskararen egoera optimoa hautatzen da. Honek zera esan nahi du: beste herrialdeetan askoz ere egoera kaxkarragoan aurkitzen dela euskara. Areago oraindik: Irun eta Eibarren ez baita eskola horietan euskararik irakasten eta Donostialdean, berriz, 4 eskolatan bakarrik, lehentxeago aipatu dugun optimismoa oraindik gehiago beheratu beharra dago. Gipuzkoaren barruan, bada, hiri nagusienak (erdaldunenak) kanpoan gelditzen direnez gero, herri elebidunen irudia ematen digute jarraiko datu hauek. Esan dezagun, baita ere, inkesta honetako eskolen irakaskuntza maila Eskolaurretik OHora bitartekoa dela.

¹⁰ Izenbururik gabeko txostena, 12 orrikoa, 1982-05-20.

Ohar hauek eginik, gatozen datuetara.

Inkesta honek Gipuzkoako 46 eskola besarkatzen ditu, hots, % 38. Eskola hauetan itaunduak izan diren irakasle tutoretatik % 79 erdaldunak dira eta % 21 euskaldunak. Gehienak erdaldunak ditugu, beraz, eta % 21eko horietatik 9,4k bakarrik irakasten dute euskaraz. Euskarak sarrera oso eskasa du, beraz, irakas-kuntzan. Sinboliko hutsa.

Irakasle tutore horiek ez baitira nahikoa euskarazko eskolak emateko, hauen alboan, Eusko Jaurlaritzak irakasle idoneoen profila sortzen du, horien egiteko espezifikoa eta bakarria ikastetxe pribatu nahiz publikoetan euskara irakastea izango delarik. Irakasle hauek, irakasleriaren kopuru orokorretik, Eibar eta Irun kon-tuan hartu gabe, % 8,6 besterik ez ditugu.

Irakasle horiek euskara irakasgai gisa ikasle guztiei eman ahal izateko, 912 gelatan irakatsi beharko lukete. Baina errealitatea oso bestelakoa da, zeren, batazbeste, 5,7 gelatan baizik ez baitute irakasten. Idoneo bakoitzak, asteen, 150 haur inguru dauzka bere ardurapean. Ez dugu esango idoneo hauen lana hutsa-ren hurrengoa denik, ez, zeren lehen ezertxo ere ez zegoen lekuan “dagoentxo” hori bederen hortxe baitago. Baina halaxe dago eta doa aurrera: akatsez eta ozto-poz beteta.

Lehenik, idoneoen ereduarekin segitzekotan, garbi dago irakasleen kopurua handitu egin behar dela, daudenak, zifratan ikusi dugun bezala, ez baitira ikasle guztiengana heltzen.

Bigarrenik, inkestan agertzen denez, irakasle idoneoek egoera nekoso eta gaiztoan lan egiten dute. Batetik, euskara irakasteko ikasgelaren bat eskura daukatenak hamar eskola bakarrik dira. Beste guztietan egunero, eta egunean behin baino gehiagotan, bila ibili behar da. Pulamentu oso koxkorra. Bestetik, zenbait irakasleren kontrako jarrera jasaten dute. Eta hau grabeagoa da, eskola horietan euskararen aldeko giroa zenbaterainokoa den azaltzen baitu fenomeno horrek. Idoneoak nahikoa galduta aurkitzen dira, bakarrik bezala, *avis rara* bailiran.

Hirugarrenik, pedagogiaren aldetik, ikasleen interesik eza ez bide da oztoporik txikienetakoa. Kanpoko nahiz barruko giroa objektiboki erdalduna baldin bada, nondik eta nola sortu ikasleen artean euskararen aldeko zaletasuna? Ingurune osoa euskaldundu beharra argi-bistan jartzen da hemen, bestela ez baita ikusten irtenbide zoriontsurik. Bestalde, egoera xeblere hori begien aurrean edukita, urtean hiru ordu bakarrik emanez, nola demontre irakatsi euskara? Bete ezi-nezko helburuak egozten zaizkio idoneoari.

Laugarrenik, eta hemen metodologiaren aldetik begiratuta, kasu bakoitzean zein metodo hartu erabakitzeke orduan zalantzak esku-beteka dira. Ikasgela bakoitzaren hizkuntz egoera hain heterogeneoa izanik, nola eman guztiei batera tal-detan banatu gabe? Oztopoak aldeztu aurretik ezarrita daude eta horiek gaintze-ko ez da nahikoa euskara oso ongi menderatzea eta metodo on batez baliatzea. Hori ez da nahikoa. Baldintza horiek beharrezkoak izango dira, baina ez nahikoa.

Aipatu ditugun lau oztopo horiek handiak izan arren, ez dira handienak. Funtsezko arazoa ez da metodologikoa, ezta pedagogikoa ere, soziopolitikoa baizik. Erabaki politikoetan datza gakoa, hor batez ere.

7. Federazioak, bai? Zertarako?

Galdera bera nahiko larria izanik, zenbait jenderi eskandalugarria gertatuko balitzaio, irakurleari aldez aurretik ez asaldatzeko eskatuko genioke, harik eta zalantza hauek bultzarazi gaituzten arrazoiak pisatu arte. Nolatan jar daiteke ezbaian horrenbeste saiatu den Ikastolen Federazioen erakundea? Kritikagarri izanik ere, kritikatzeko ordua ote da gaurko hau hain erroturik dagoen erakunde bati buruz dihardugularik? Ez ausart ezta ere lotsati, ez gara hemen hasiko Ikastolen Federazioek oraindainokoa bete dituzten hainbat funtzioengatik alabantzak kantatzen. Halaber, ukatu ere ez diegu ukatuko, guztiok dakigun arrazoiengatik, beraien gain erori den erantzukizun handiko eginkizun historikoa, ikastolen bilakaeran funtsezkoa. Gure ohar kritikoek hau guztia auresuposatzen dute.

Herrialde bakoitzak bere Federazioa baldin badauka ere eta, zentzu honetan, bakoitzak bere autonomia eta berezitasuna baldin baditu ere, funtsean guztiak ekintza beretsuak daramatzate aurrera. Nolabait laburtu beharrez, ikastolen interes pedagogiko, linguistiko, ekonomiko eta instituzionalak zaintzea izango litzaiteke Federazioen helburu nagusia. Hor barruan sartzen dira Federazioak, administrazio publikoari begira, Udalekin, Diputazioekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Gobernu Zentralarekin, etab., dauzkaten harreman politikoak; hor, baita ere, irakaskuntzan dauden hizkuntz eredu arazoa, testugintzarena, subentzioena, etab., nagusienak aipatzeko.

Bai ikusmoldez bai jokamoldez hain zatikaturik dagoen gure herri honetan nekez altxa zezakeen neutraltasunaren bandera bere buruari honelako eginkizun gatazkatsuak egozten dizkion erakunde batek. Beti da arriskutsua zubi-lana, bitartekari-lana. Horregatik, nahiz eta Federazioak Ikastolak zerbitzatzeko sortuak izan, galdetzekoa da ea zein neurritan den egiazkoa helburu aitortu hori. Honetara gatoz orain. Helburuak ez, jokabideak aztertzen dira hemen. Bego hau garbi.

Irakasleen ordezkartza ez da aintzakotzat hartua izan

Akusazio hau ez da oraingoa bakarrik. Gipuzkoako Ikastolen Federazioa sortu zenean, han 1968ko urte-inguru hartan, garaiko kritikak berehalaxe leporatu zion irakasle-taldearen garrantziaz ez zela jabetu eta berorien eginkizuna gutxietsi egin zuela. Federazioak bere antolakuntzaren egitura moldatzerakoan irakasleak kontuan hartu ez zituelako, horrexegatik sortu zen Irakasleen El-

kartea, erreakzioz, hain zuzen. Orduandanik bi erakunde hauek, bata goian eta bestea behean, hura indartsu eta hau beti ezinean, bakoitzak bere bidea markatu du. Baina ikastolen etorkizunari begira erabaki garrantzitsuak hartu behar izan direnean, lehen Konbenioa orain Estatutua, irakasleria sistematikoki baztertuta izan da eta ez zaio negoziazioan parte hartzeko eskubiderik ezagutu. Eta jokabide hau, nonahitik begiratuta ere, onartezina da. Irakasleari urte askotan zehar betebeharrak gehiegi eskatu zaizkio militantismoaren izenean: Ikastolan ordu piloak sartzea, hainbat denboraz Aseguru Sozialik gabe egotea, I RTP-agatik ordaintzen zuenaz beste zerbaiterako baliatzea... Egoera anormal hori lege izan da, baita Juntakoak “ezkerrekoak” omen direnekoetan ere, oraintsu berriki arte.

Eta honetan guztian badute errurik aski Federazioek, zeren hauek, “zenbait” gurasoren interesak eta irakaslerenak kontrajarririk dauden neurrian, babesten baitituzte lehenengoak eta alboratzen bigarrenak. Irakasleriak egin ditzakeen errebindikazioen aurrean, Federazioek gehienetan patrioiaren jokia egiten dute.

Federazioek herri-ordezkaritza galdu dute

Aspaldi samar galdu zuten hasierako “Gurasoen Ikastola-Batzordeak” zeukan herri-giro hura. Ikastolek eta bailarek badituzte beren arduradunak Federazioen Talde Bateragilean, baina horien ordezkartza teorikoa besterik ez da, praktikan Federazioetako bulegari teknikoek burokraziak erabakitzen baitu guztia; horretarako dagoen ekipo tekniko horrek egiten eta desegiten du dena, berak sortzen duen dinamikaren eskabidez, hain zuzen; horregatik, zentralismo honi ihes egiten dion gurasoen ordezkartzak apenas hartzen duen demokrazi arnasarik, ezinezkoa gertatzen baita. Federazioen herri-ordezkaritza hori, beraz, gehienez ere “zenbait” gurasoren ordezkartza dela esango genuke. Ez gehiago.

Eusko Jaurlaritzaren morroiak dira

Gipuzkoako Federazioak Loiolan egindako Batzar Nagusian (80-02-8) azaltzen zuen bezala, diruaren zein legearen aldetik ikastolen normalizazioa lortzeko, behar-beharrezkoa ikusten zuen Eusko Kontseilu Nagusiarekin negoziatzen hastea. Ikastolen eta erakunde publikoen arteko bitartekari gisa ikusten zuen bere burua. Horregatik, non agintedunen txapela, han egon da Federazioaren itzala. Ikastoletako Konbenioa zela eta, kontrako iritzirik ugari egon arren, goitik zetorren proiektuari baiezkoa eman zion 1981ean.

Zerbitzari leialari zor zaionez, abilki egin duten morrontza-lanarengatik ondo sarituak izan dira Eusko Jaurlaritzako X. Agirre, Larrañaga, Oliberi... funtzionariak, garai bateko Federaziokoak. Jauzi honek zerbait asko esan nahi du.

Iazko udaberrian, Araban, batetik Federazioko Ehari eta bestetik Diputazioeko Toki Eder ikastolen arteko arazoa zela eta, salaketa gogorrak egin zitzaizkion E. Knörr jaunari Arabako Federazioaren bidez Eusko Jaurlaritzaren hizkuntz politika ezarri nahi zuela esanez. Arabako Federazioak, 1981eko ekainaren 25ean egindako deklarazioaren arabera, aginte publikoak ikastolen kargu egitea eskatzen zuen, irakaskuntzan elebitasuna sartuz.

Oraingo Estatutu hau martxan jarriko balitz, EIKEren antolaketaren barruan, oraingo Federazioek “Lurralde-Kontseiluen” lekua beteko lukete, zeini goi-goiko eginkizunak baitagozkio. Egia da, Federazioen izena ez da aipatzen Estatutuen azkenengo aurreproiektuan, baina bai, espreski gainera, 1982ko udaberrian edo zabaldu zen aurreproiektu hartan. Estatutu hori egiteko orduan Federazioek ez dutela parte hartu esan eta, beharbada beren neutraltasuna gordetzeagatik edo, amorrazio berezi batez ukatu dute beren partaidetza. Jadanik publikoegia da elkarrekiko inplikazioari buruz ezer ezkututzen ibiltzeko.

Erreformismoari ate zabalegiak ireki dizkie

Federazioek eraman duten politika oso nabarmena izan da: bulegotik bulegora, Gasteiztik Madrilera, eta viceversa. Paktuak han, negoziazioak hemen, hitz onak eta promesak... Zertarako? Subentzioak lortzeko eta, halere, lehen bezain miserable segitzeko. Eta falta zena lortzeko, berriz, (eta beti faltako da politika honekin segitzekotan!) benga Jaialdiak, Tonbolak, Kilometroak...!

Folklorekeria hori guztia, ordea, azken batean gurasoen kontra doa, ikastolen kontra, jaialdi horietan metatzen diren milioiak gurasoen eta hauen inguruko patriketatik irtetzen baitira. Hori, azken batean, norberak bere burua gezurtatzea da.

Federazioek herri militantearekin egin duten diru-hurupatzea benetan salatzeko modukoa izan da. Zergatik? Federazioek Ikastoletako jendea sekula borrokara deitu ez dutelako, beren eskubideak behar den lekuan errebindika ditzaten. Ekintza eta kanpainetarako deia askotan egin da, bai, baina beti dirua “betikoei” eskatzeko, ez borrokarako mobilizatzeko. Gertakari paradoxikoz inguratutik gaude. Bat aipatzekotan, hona hemen hauxe: Eusko Jaurlaritzako jaun kontseilariak eta beste zenbait politikariek ez lukete Kilometroan eta horrelakoetan “paseatzen” ibili beharrik izango, baldin ikastolei eskola nazionalen pareko trataera administratiboan emango balitzaie. Ikastolek ez dute “pribilegiarik” nahi, berez tokatzen zaien finantzaketa publikoa baizik. Oso-osorik!

Jokabide honek mobilizazioak sustatzera eramango gaitu, ikastolen erantzunkizun politikoa daukatenen aurrean planto egitera eta, harik eta helburu mini-moak lortu arte, etsi gabe borrokan segitzera. Hori da bidea.

Horregatik guztiagatik, izenburuan genioen bezala, zertarako dugu herri-

interesen motorra itotzen duen erakunde hau? Oraindik garaiz gabiltza inoiz inork ezer esatera ausartu ez den ikastoletako gerentzia honi ere kontuak zorrotz eskatzen hasteko.

II

EUSKARA IRAKASKUNTZA EZ-UNIBERTSITARIOAN ETA IRAKASLE-ESKOLETAN: EGOERAREN AZTERKETA ETA IRTENBIDE POSIBLEAK¹

Edozein fenomenoren azterketa, hein batean koantifikagarri direnetan bereziki, zenbait datu enpiriko abiapuntutzat hartuta, burutu ohi da. Testak, inkestak, zundaketak eta horrelako neurgailuak oso sarturik daude zientzia aplikatuekin zerikusirik duten hainbat gairi buruzko ikerketa-lanetan. Soziometria, halaxe labor esanda, modan dago. Zifrak eta itemak azaldu ordukoxe, kasu!, badirudi azalpen baten azken froga objektiboa direla eta horien aurrean ahoa itxi eta isiltzea besterik ez dagokigula. “Obrak mintzo” esanaren paretsu, “zifrak kanta” dantzugu sarriegi.

Ez gaude, besterik gabe eta aurreiritziz, metodo horren kontra. Koantifikazioa, berez, itsua baita interpretaziorik gabe, datuak zertarako eta nola erabiltzen diren, alderik egon liteke aztertzailerik batetik bestera. Eta ondorioak ere, noski, desberdinak izan behar derrigorrez. Horregatik, —eta hemen kokatzen dira azterbide honi buruzko gure erreserbak—, datu zifratuen hoztasun eta berorien objektibotasunaren arteko egokitzapena ez da nahitaez egiazkoa, ezta gutxiagorik ere.

Gure helburua oso simplea bezain sotila da. Ez dugu azterketa sakon eta eshaustiborik eskaini nahi. Euskarak irakaskuntza ez-unibertsitarioan dauzkan arazoak arakatzen hasteko lehen apunteak luzatu nahi ditugu, datu estatistiko oinarritzkoenak eman ondoren, gogoeta batzuk eskainiz. Aldi berean, irakaskuntza ez-unibertsitarioa Irakasle-Eskolekin ere elkartzeko ere saiaturiko gara, hauek baitira maila horretako irakasleak prestatzen dituen erakunde espezifikoa. Bi horien

¹ Argitaratu gabeko saio hau 1983ko urtarrilaren 9an bukatua da.

arteko lotura organikoa denez gero, ezinbestekoa egiten da hezkuntza-errealitate biak ezagutzea eta planteamenduetan ere ikuspegi koherente batez jokatzeari. Han-hemen datu solte eta isolatuak eman izan dira, bai, baina ikuspegi orokorra eskaintzeko modukorik ez. Zulo hori betetzera gatz.

1. Euskara irakaskuntza ez-unibertsitarioan

Zertan da irakaskuntza ez-unibertsitaria? Hau da galdera, oraindik, guk dakigula bederen, bere orokortasunean ezagutzera eman ez dena. Oinarritzko datuen azalpen koantitatiboa egitera mugatuko gara, jarraiko hiru puntu nagusi hauek aztertuz: ikasleriaren egoera, irakasleriarena eta ikastoletakoa. Azalpen honetarako, EAE eta Nafarroako erakunde autonomikoen argitaratutako iturri estatistikoen baliatzen gara. Beraz, lau herrialdeak barne-hartzen ditugu. Ez horrela Ipar Euskal Herria, ikastolen kasuan izan ezik. Horko datuak lortzea aski eskuragaitza egiten delako gertatu da horrela. Zatiketa administratiboen askotan zailtasun gandiezina ezartzen dituzte datu estatistikoen lortu eta taulan era koherente batez kokatzeko orduan, kasu batean eta bestean erabilitako metodoak ez baitira kointzidiagarriak izaten.

Ikasleriaren egoera

Hezkuntza elebidunean martxan jarri berriak diren hizkuntza ereduak zertan diren zehaztu aurretik, ikasleriaren eboluzioaz, ikastetxe-mota desberdinez eta hauen herrialdeen arabera banaketaz datu batzuk emango ditugu 1. taulan.

Oro har, ikasleria 1976-77 ikasturteetik 1981-82kora luzatzen den 5 urteko epealdian zehar 44.616 ikasle berriak gehitu bada ere, 1980-81 eta 1981-82 ikasturte-bitarte horretan inflexio-aldi garrantzitsua ageri da, azken ikasturte horretan aurrekoan baino 60.639 ikasle gutxiago matrikulatzen baita ikasmaila desberdinetan. Badirudi datu hau jaiotze-tasa beheititzearen ondorio zuzena dela, ondoko urteetan egiaztatu beharrekoa. Ikasle-kopuruak gehienik ere eutsi egingo dio oraingoari edota, —litekeena hau ere—, zertxobait jaitziz joango da.

Ikasle-multzorik handiena, bai 1976-77 bai 1981-82 ikasturteetan, ikastetxe publikoetan dabil: 1981-82 ikasturtean 329.883 ikasle, zeinak % 51,24 suposatzen baitu. Ikastetxe publikoen indize beretsuari eutsi diote bost bat puntuko diferentziarekin. Ikastetxe pribatuetan, aldez, diferentzia hori 12 puntutik gorakoa da, 1976-77 ikasturtean 293.700 ikasle izatetik 1981-82an 244.528ko kopurura jaisten baita, % 37,98rekin. Honek badu bere azalpena, eta da ikasturte horri dagokion ikastolen zutabe-zelda hutsik dagoela eta INEK horko

ikasleria ikastetxe pribatuan sartuz zenbatu duela. Gogora dezagun SIADECOK, 1975-76 ikasturterako, 35.587ko kopurua ematen duela ikastolentzat.

1. taula: Ikasleriaren eboluzioa ikastetxeen arabera (1976-82)

Ikasturteak	Ikastetxe-motak						Guztira
	Publikoak		Pribatuak		Ikastolak		
1976-77	305.423	50,98	293.700	49,02			599.172
1977-78	294.341	49,43	258.422	43,31	43.278	7,25	596.637
1978-79	319.945	47,22	304.125	44,89	53.276	7,86	677.438
1979-80	326.194	47,12	306.075	44,21	59.952	8,66	692.227
1980-81	332.475	47,19	307.029	43,58	64.923	9,21	704.427
1981-82	329.883	51,24	244.528	37,98	70.007	10,87	643.788

Iturriak: EAeko Hezkuntzako Kontseilaritza; Nafarroako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioioko Kontseilaritza; Ikastolen Konfederazioa; Lan Kide Aurrezkia. Norberak landua.

Bestalde, oso posible da, joera gisa, ikastoletako ikasle-populazioak gehiago zurgatu izatea ikastetxe pribatuetatik publikoetatik baino. Ikastolak izan dira azken urte horietan etengabe beren ikasle-kopurua handituz etorri den ikastetxe-mota bakarra, bost urteren buruan ia bikoiztu egiten baitu bere ikasleria, 1981-82 ikasturtean 70.007ko kopurua duelarik, % 10,87ko indizearekin. Honek zer esan nahi duen? Ikastolek gora egin dutela nabarmenki, ikastetxe publikoen zein pribatuen aldean proportzio handian egin ere. Ikasleria orokorraren hazkundeari dagokionez, bada, eboluzioa ikastolen oso aldekoa izan da.

2. taula: Ikastetxe-moten banaketa herrialdeen arabera (1981-82)

Ikasturteak	Ikastetxe-motak						Guztira
	Publikoak		Pribatuak		Ikastolak		
Araba	36.358	55,87	21.869	33,61	6.839	10,5	65.066
Gipuzkoa	72.339	43,93	67.887	41,22	24.438	14,84	164.664
Bizkaia	159.429	55,67	93.912	32,79	33.005	11,52	286.346
Nafarroa	61.757	52,23	50.755	42,92	5.724	4,84	118.236

Iturriak: EAeko Hezkuntzako Kontseilaritza; Nafarroako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioioko Kontseilaritza; Ikastolen Konfederazioa; Lan Kide Aurrezkia. Norberak landua.

Irakaskuntza ez-unibertsitarioaren itsaso zabal eta handi horretan ikastolak irla baten antzekoak ageri zaizkigu: txikiak, bai, baina, itxura batean, lur seguru-an oinarrituak. Horregatik, oraindik trantsizio-ondoko lehen urte hauetan, ikas-tolen sarea besteen laurdenera iristen ez bada ere, zerbitzu pedagogiko publikoa eskaintzen duen euskal sare honen presentzia gero eta nabariagoa egiten da Eus-kal Herriko irakaskuntzan, gero eta pisu soziologiko handiagoa du.

Ikasleria gehienbat Gipuzkoa eta Bizkaian bildurik dago, azken honetan bereziki: guztira, 287.119 ikasle, zeinek % 45,14 suposatzen baitu. Ia erdia arri-matu. Bigarren Gipuzkoa dator, 264.664 ikaslerekin, ehunekoetan laurdena osa-tuz: % 25,95. Azkenengo biak Nafarroa eta Araba dira. Lehenengoak 118.236 ikasle ditu, hots, % 18,64 eta bigarrenak, berriz, 65.066 ikasle, % 10,25 baino ez. Beraz, Arabako ikasle-kopurua orotara hartuta, ikastoletan dabilenaren antzekoa da, zertxobait apalagoa.

Eta Bizkaia esatean, noski, Bilbo eta beronen ingurua ditugu gogoan, non gatzelania ia osoki nagusitzen baita. Ikasle-kopururik handiena non egon, euskal-duntze-lanari ere handik ekin behar bazaio, bistan da herrialde honetako euskara-ren berreskurapen-plangintza lehentasunezko premietan sartu beharrekoa dela.

EAEn, 1981-02-28ko zentsutik ateratako datuen arabera², euskaraz hitz egi-ten dakitenak, guztira, 696.695 dira, hots, % 32,71. Euskaldun hauek honela banatzen dira herrialdeen arabera: Gipuzkoan 369.323 (% 53,33), Bizkaian 297.773 (% 25,25) eta Araban 29.599 (% 11,46). Hemen agertzen denez, bada, Bizkaian daude euskaldun gehien kopuru absolutuetan, baina proportzioan eus-kaldunena Gipuzkoa da; Araba beste bietatik oso urruti aurkitzen da portzentaie-tan nahiz kopuru absolutuetan. Araba, halere, Nafarroa baino erdaldunagoa izan-da, hura hau baino ikastolez hornituago aurkitzen da % 10,5ekin; hots, Bizkaian baino puntu bat gutxiago baina Nafarroak baino sei gehiago.

Ikastetxe publikoen eta pribatuen arteko banaketari dagokionez, Hego Euskal Herrian ikastetxe publikoak ditugu nagusi % 52rekin, eta hemen, batez ere, Araba eta Bizkaian, hurrenez hurren, % 55,87 eta % 55,68ko portzentaie-kin. Gipuzkoa dugu salbuespen bakarra, non irakaskuntza pribatua nagusitzen baita % 43,93rekin. Nafarroan ere irakaskuntza pribatuak Gipuzkoan bezalatsu-ko indarra du, zeren, bere % 42,92rekin, honek hari 1,7 punturen aldea bakarrik ateratzen baitio. Gertatzen dena da, Gipuzkoan dutela ikastolek pisurik gehien % 14,84rekin eta, aldiz, Nafarroan gutxien bere % 4,84rekin. Sare autonomo hone-tatik eratorritako desberdintasunak egiten du, neurri handi batean, lehen herrial-dean irakaskuntza pribatua era nabarmenago batez nagusi izatea. Bestalde, erri-mo mantsoagoan bada ere, ikastolen sarea indartuz doa Bizkaia eta Araban ere, biek antzeko indizeak dituztelarik, hots, % 11,52 eta % 10,51koak. Halere, kopu-ru absolutuetan, Bizkaiko ikastoletan dabil ikasle-multzorik handiena,

² "Euskararen borroka", *Jakin*, 26-27, 1983, 41.

33.005eko kopuruarekin, zeinak ia bikoiztu egiten baitu beste herrialdeetako ikastoletan dabiltzanen ikasleen kopurua. Komeni da, beraz, portzentaiak eta kopuru absolutuak ez nahastea. Gipuzkoak markatzen du dinamika, baina, kopuruari dagokionez, Bizkaia darama nagusitasuna.

3. taula: Hizkuntz ereduak ikastetxe eta ikasmilen arabera (1982-83)

Herrialdeak	Ikasmilak	Ereduak			
		A	B	D	X
Araba	EA	56,5	37,8	2,9	12,8
	OHO	77,2	4,3	3,9	14,6
	BBB/UBI	22,6	2,5	-	74,9
	LH	43,2	-	-	56,8
		50	11,65	1,7	39,75
Gipuzkoa	EA	28,8	25,6	43,4	2,2
	OHO	64,8	6,9	27,4	0,9
	BBB/UBI	75,8	5,8	10,4	8
	LH	78,5	3,8	2,2	15,4
		62	10,52	10	6,62
Bizkaia	EA	43,4	18,9	18	19,8
	OHO	60,8	4,8	7,5	26,9
	BBB/UBI	56,2	2	3,1	38,7
	LH	88,7	0,4	-	10,9
		51,5	6,52	7,15	20,7
EAE	EA	39,8	22,5	25,3	12,5
	OHO	64,2	5,4	13,5	16,9
	BBB/UBI	58,6	3,4	5	33,1
	LH	67	1,6	1	30,4
		57	8,22	11,2	23,22

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila; Lan Kide Aurrezkiaren *Economía Vasca. Informe 1982*. Norberak landua.

Zalantzarik gabe, hezkuntza-sisteman euskarazko irakaskuntza sartzeak badu bere garrantzia, aipatzea merezi duena. Hezkuntza elebidunari 1980-81 ikasturtean ematen zaio hasiera A, B, D eta X hizkuntz ereduaren ezarpenarekin.

Ikastetxe guztiak aurkitzen dira eredu horietako bat hautatzera behartuak. Plangintza berri honi erantzuteko, Gasteizko Administrazioak 400 irakasle gehiago kontratatzen ditu, hiru ikastetxe publikoetan barreiatuta aurkitzen direnak³. Nahiz eta hezkuntza elebidunari buruzko lehen datu estatistikoak 1981-82 ikasturteari dagozkionak diren, X ereduari buruzko zutaberik ez datorrenez, 1982-83 ikasturtekoak dakartzagu 3. taulan, zeinetan lau ereduak zehazten baitira herrialdeen eta ikasmailen arabera.

Bestalde, hizkuntz ereduaren ezarpenarekin, euskarazko irakaskuntza neurtzeko aldagai berri bat sartzen da, zeren orain, ikastolez at ere, beste ikastetxeetan ere euskarazko irakaskuntzaren lerroak irekitzen baitira. Azken batean, ikastole-tako irakaskuntza bera ere ereduaren arabera koantifikatzen da, hauek ere eredu horien arabera sailkatzen baitira.

EAEn, orokorrean, A eta X ereduak nagusitzen dira % 57 eta % 23ko portzentaia garaiekin, beste bi eredu euskaldunagoek, bateratuta, % 19,42 osatzen duten bitartean. X ereduak, zeina baita erabat erdalduna, Araba eta Bizkaian dago indartsuen, % 39,75 eta % 20,7ko portzentaiekin. A ereduak da herrialde guztietan askogatik nagusitzen dena, ikasle erdiak baino gehiago eredu horretan eskolatzen baitira. Baliteke irakurlea lehen begiradan harrিতuta bezala gelditzea ikus-tean Gipuzkoak ematen duela portzentaiarik garaiena, % 62koa, A ereduaren. Baina zifra horrek harritzekorik deus ez du, baldin kontuan hartzen bada, X ereduari dagokionez, berak duela portzentaiarik apalena ere: % 6,62koa. Euskarazko irakaskuntzari dagokionez, B eta D ereduaren, Gipuzkoak doa buruan % 20,52rekin eta gero datoz Bizkaia eta Araba, lehenengotik aski urrun baina elkarren artean oso parean, % 13,67 eta % 13,35eko portzentaiekin. Esan dezakegu, bada, irakaskuntza herrialderik euskaldunenetan dela euskalduna ere.

Ikasmailen sailera pasatzen bagara, berriz, euskal lerroak lehen bi ikasmailetan, EA eta OHOn, metatzen dira gehienbat, eta hori herrialde guztietan. Araban D eredurik ez da ematen BBB/UBIn eta Bizkaian, berriz, % 3,1eko presentzia besterik ez du; Gipuzkoan, aldiz, indar gehiago du euskarazko irakaskuntzak ikasketetako azken maila honetan, bi ereduaren batuketak % 16,2ko indizea ematen baitu. Oraindik beste ohar bat egin beharrean gaude taulako datuen irakurketan, eta da euskal lerroak, praktikan, ez direla ezagutu ere egiten LHN: Araban batere ez, Bizkaian B ereduaren % 0,4 besterik ez da ematen, hutsaren hurrengoa, eta Gipuzkoan ere ezer gutxi, % 6 baino ez bi ereduaren. Lan-mundura doan ikasle-kopuru garrantzitsu hau, bada, ia erabat aldendua eta baztertua aurkitzen da euskarazko irakaskuntzatik.

Datu hauek ikusita, irakaskuntzan euskararen plangintza egiteko orduan, arreta berezia eta, bidenabar, lehena ikastetxe publikoetan jarri beharko litzatekeela iruditzen zaigu. Eta hori diogu, ez bakarrik ikasle-kopururik handiena ber-

³ Dpto. de Estudios de la Caja Laboral Popular: *Economía Vasca. Informe 1980*, Oyarzun, 1981, 288.

tan dabilelako, baita urrats gidariak aplikatzeko ere gehiago prestatzen direlako ikastetxe-mota horiek. Izan ere, ikastetxe pribatuak, beren barne-funtzionamenduan autonomoagoak izateaz eta nazional-katolizismoaren tradizioan erro-tuagoak egoteaz aparte, duten beren elitismo-izaerarengatik edo, datozkien berri-kuntzak onartzeko beti ere itxiagoak agertzen dira eta, zer esanik ez, hezkuntza elebidunaren kasuan bezala, euskarazko irakaskuntza bideratu behar denean. Horregatik, salbuespenak salbuespen, arrazoi guztiak daude pentsatzeko A eta X ereduaren babesleku erlijiosoen ikastetxeak direla eta hala izanez segituko dutela. Dena den, hipotesi hau azterketa empirikoek egiaztatu beharko dute.

Irakasleriaren egoera

Ikasleen egoerari gainbegiraturia eman eta gero, gatozen irakasleen munda. Hemen, bereziki, jarraiko puntu hauek aztertuko ditugu: irakasle-kopuruaren eboluzioa, hauen banaketa herrialdeka eta ikastetxeen arabera, irakasle eta ikasleen banaketa ikasmilen arabera eta, azkenik, hezkuntza-ratioak.

4. taula: Irakasleriaren eboluzioa EAEn (1978-82)

Ikasturteak	Ikastetxe-motak				Guztira
	Publikoak		Pribatuak		
1978-79	10.142	50,85	9801	49,15	19943
1979-80	11.062	51,96	10224	48,03	21286
1980-81	11376	52,52	10282	47,48	21658
1981-82	11644	53,22	10234	46,77	21878

Iturria: *Euskal urtekari estatistikoa*, Eusko Jauriaritza, 1983. Norberak landua.

Hasteko esan dezagun, goiko taula horretan, EAeko lurraldea osatzen duten hiru herrialdeetako irakasleak bakarrik zenbatu direla. Nafarroakoak, beraz, ez dira sartzen, lau urte horietako daturik ezin baitugu jaso ahal izan. Datu hau gogoa hartu behar da ondoren etorriko direnekin ez nahasteko.

Oro har, irakasleak, urtez urte, gehituz etorri dira. Honela, 1981-82 ikasturtean 1978-79 ikasturtean baino 1.935 irakasle gehiago aurkitzen da irakaskuntzan. Hailere, irakasle-gehikuntzaren eritmoa makalduz doa ikasturteetik ikasturtera. Joera nabarmena da, beraz: ikasle-kopurua jaitsez doan hein beretsuan, halaxe doa irakasleena ere.

Honek, irakaskuntzaren hizkuntza politika praktikora joanda, hauxe esan nahi

du: irakasle berrien eskea gero eta ahulagoa izango dela ondoko urteetan, ahulagoa, hain zuzen, ikasleriaren eskaintza eskastuz doakeen proportzio berean. Ikasleen kopuruak jadanik joa du kurbaren puntarik gorena eta beranzko abiadan sarturik gaude.

5.taula: Irakasleak herrialdeen eta ikastetxe-moten arabera (1981-82)

Herrialdeak	Ikastetxe-motak				Guztira
	Publikoak		Pribatuak		
Araba	1.506	58,59	1.064	41,4	2.570
Bizkaia	6.588	57,25	4.918	42,74	11.506
Gipuzkoa	3.450	45,58	4.118	54,41	7.568
EAE	11.544	53,33	10.100	46,66	21.644

Iurria: Euskal urtekari estatistikoa, Eusko Jaurlaritza, 1983. Norberak landua.

Irakasleriak, oro har, 26.689ko kopurua osatzen du eta, herrialdeen arabera, Bizkaia eta Gipuzkoan daukagu finkaturik erdia baino dezente gehiago, ia-ia lautik hiru: Bizkaian 11.506 (% 43,11) eta Gipuzkoan 7.568 (% 28,35). Araba, txikiena izanda, berak du, 2.570 irakaslerekin (% 9,62), kopururik txikiena. Herrialdetik herrialdera ikasle-mailan ematen den proportzio beretsua gordetzen da irakasle-mailan ere. Ez dago funtsezko aldaketarik.

Irakasleak ikastetxeen arabera banatzen baditugu, berriz, ageri da irakasle gehiago dabilela ikastetxe publikoetan pribatueta baino: lehenengoan 14.438 (% 54,09) eta bigarrengoan 12.250 (% 45,90). Hemen ere, ikasle-mailan konstatatu dugun proportzio beretsua ematen bada ere, aldea zertxobait handiagoa da irakasle-mailan ikastetxe publikoen alde: hots, % 12,6 % 8,47ren kontra. Gipuzkoa, halere, salbuespen gisa hartzekoa da, zeren herrialde honetan irakasle gehiago ari baita lanean ikastetxe pribatueta publikoetan baino: haietan % 54,41 eta hauetan % 45,58. Ikasle-mailan ere fenomeno bera ematen dela ikusi da.

Horiek horrela, hiru ondorio hauetara iristen gara: Lehenengoa da, irakasleak euskalduntzen hasi, irakasle-kopururik garaiena ematen den herrialdetik hasi behar dela eta hor egin behar direla ahaleginak.

Bigarrena da, egokiagoa dirudiela irakasleria euskalduntzeko neurriak ikastetxe publikoetan hartzea. Neurri horiek ondorio gisa aplikatu beharko lirateke ikastetxe pribatueta.

Ikasleriaren kopuru orokorra, lau herrialdeak hartuta, 643.788koa da. Horietatik gehienak OHOn dabilta: 383.408 (% 59,86). Ondoren EAn eta BBB/UBIn dago ikasle-kopururik handiena, hurrenez hurren, 104.858 (% 16,75)

eta 91.206 (% 14,16) ikaslerekin. LHn dabiltzanak 59.316 (%9,13) dira. Lan-mundura zuzendua dagoen ikasle-multzo hau da, kopuruz urriena.

Irakasle gehienak, bestalde, OHOn eta BBB/UBIn enplegatzen dira: lehenengoan 13.918 (% 52,14) eta bigarrenengoan 5.217 (% 19,89). Ondoren datoz EA eta LH, hurrenez hurren, 3.635 (% 13,86) eta 3.451 (% 13,16) ikaslerekin.

6. taula: Irakasleak eta ikasleak ikasmaien arabera (1981-82)

	Irakasleak		Ikasleak	
EA	3.635	13,86	107.858	16,75
OHO	13.918	53,07	385.408	59,86
BBB/UBI	5.217	19,89	91.206	14,16
LH	3.451	13,16	59.316	9,13
Guztira	26.221		643.788	

Iturria: Euskal urtekari estatistikoa, Eusko Jaurlaritz, 1983.

Irakasle eta ikasleen kopuru erlatiboak ikasmaien arabera konparatzen bada, bada alderik, zeren, proportzioan, EAn dabiltzan ikasleen kopurua handiagoa baita irakasleena baino; BBB/UBIn, aldiz, irakasleen kopurua ikasleenen gaineratik dago. Diferentzia hori aparte, zenbat ikasle hainbat irakasle, proportzio hau nahikoa ongi gordetzen da ikasmaien arabera.

Eskura dauzkagun 1980-81 ikasturteko lehen datuak oinarritzat hartuta⁴, baina oraingoan irakaskuntzaren kalitate-indizetat hartu ohi den hezkuntza-ratio mugatuz, esan behar da EAn, ikastetxe-mota guztiak batera hartuta, irakaskuntza batzabeste 28,7koa dela. Baina ratio-erlaziorik onena ikastoletan ematen da irakaskuntza 24 ikaslerekin eta eskasena, berriz, irakaskuntza pribatua irakaskuntza 31rekin. Ikastetxe publikoetan batezbesteko orokorrari eutsi egiten zaio. OHOn, lau herrialdeak batera hartuta, irakasle bakoitzari batzabeste 28,43 ikasle tokatzen zaizkio eta ikasmaila honetan ere, EAn bezala, irakaskuntza pribatua da ikasle-kopuru horretatik gora dagoena irakaskuntza 29,72 ikaslerekin. LH eta BBB/UBIko irakasleek dute ratio-erlaziorik onena, hurrenez hurren, irakaskuntza 16,2 eta 17,7 ikaslerekin.

Aplikazio konkretuetara itzulirik, zera esan behar da: ikasle gehienak EAn eta OHOn badabilta, % 76,67 alegia, euskarazko irakaskuntza ikasmaila horietan ezartzeak garrantzi berezia duela. Gogoan hartzekoa da, bestalde, urte horiek direla haurrak eskolatzen hasten direneko urterik erabakigarrienak eta, halaber, bigarren hizkuntzaz jabetzeko erraztasunik gehien erakusten dutenak: EAn 2tik

⁴ Lan Kide Aurrezkia: *Economía Vasca. Informe 1980*, Oyarzun, 1981.

6 urtera eta OHOn, 6tik 13ra. Horiek horrela izanda, eta baldin onartzen bada haur guztiak badutela egiazko hezkuntza elebidunerako gaitasuna, neurriak inon hartzekotan, lehendabizi eta guztien gainera irakasle-mailan hartu beharko dira. Zertarako? Euskal Herriko irakasleria osoa, -nonahikoa euskal geografiaren barruan-, ahalik eta eperik laburrenean euskaldun bilaka dadin, euskarazko irakaskuntza duintasunez emateko gai izango den irakasle euskalduna, alegia. Irakaskuntzaren hizkuntz politikak, arrazoizko epe batzuen barruan, helburu horretara jo beharko luke. Hori da bidea, gure ustez, bakarra.

Euskararen ezagutza irakasleen artean

Jadanik mila bider errepikatu den kontua da, irakaskuntzatik at gelditzen den hizkuntza, goiz edo berandu, galdua dela. Horixe dugu euskararen kasua: hil-bizikoa. Ez da nahikoa familiaren bidez datorkigunari eustea. Behar-beharrezkoak ditugu, besteak beste, komunikabideen eta, batez ere, irakaskuntzaren euskarriak. Irakaskuntza goitik behera, osorik, euskalduntzen ez badugu, gureak egin du. Haren agonia luzatzea besterik ez dugu lortuko. Gure zoritxarrerako, noski. Baina irakaskuntza euskalduntzeak, hipotesi gisa haur guztiak euskaldun izateko gai direla onartzuz gero, aurrebaldintza hau eskatzen du: irakasleria, osorik, euskalduna izatea, irakaskuntzarako edozein profesionali eskatzen zaion hizkuntz ezagutzaren jabe izatea. Laburki esanda: euskaraz alfabetatua izatea.

Irakasle euskaldunen egoera nolakoa den? Funtsezkoa da galdera hau egitea, hain funtsezkoa non hemen agertuko diren datuek emango baitigute eskuartean dugun arazo linguistikoaren diagnostikorik behinena.

Taularen izenburuan adierazia datorren bezala, —ahaztu gabe, ordea, ikastetxe publikoetako irakasleak bakarrik zenbatzen direla 1976-77ko ikasturte horretan—, irakasleen kopurua, guztira, 8.284koa da eta horietatik 384 baizik ez dira euskaldunak, hots, % 4,6ko indize ezdeusa. Ikasle-mulzorik handiena pilotzen den ikasmailan, hain zuzen, irakasle euskaldunen kopurua benetan txikia da data horretan. Ez dakigu horietatik alfabetatuak, eskolak euskaraz emateko gaituak, alegia, zenbat izango ziren. Pentsatzekoa da, trantsizio-ondoko garai hura kontuan hartuta, gutxienak izango zirela. Dena den, goiko taula hori ikusita, hortik ateratzen den ondorioa begien bistakoa da: Ikastoletatik at dabilen irakasleriaren euskararen ezagutza oso eskasa dela, ezdeusa ez esatearren. Bere gutxian, Nafarroan irakasle euskaldun gehiago zegoen Bizkaia eta Araban baino: han % 4,2 eta azken bi hauetan, hurrenez hurren, % 3,8 eta % 2,2 besterik ez. Gipuzkoak guztizkoaren batzbestekoa ia bikoiztu egiten badu bere % 8rekin, indize honek ez gaitu gehiegi poztzen,

⁵ Comité de estudio de necesidades universitarias en relación con la cultura vasca: "Premia larriko neurrien txostena. Dossier de medidas de urgencia", 1979ko uztaila, 34. Testu informatua eta argitaragabea.

zeren hori ere, oro har, apala baita. Eusko Jaurlaritzak 1979an kalkulatu duenez⁵, 1984-85 ikasturteari begira, 4.509 irakasle euskaldun gehiago beharko dira.

7. taula: *Irakasle euskaldunen kopurua ikastetxe publikoetako EA eta OHOn (1976-77)*

Herrialdeak	Irakasle euskaldunak		Irakasleak orotara
	Kop. Abs.	100	
Araba	20	2,2	884
Gipuzkoa	154	8	1.927
Bizkaia	140	3,8	3.809
Nafarroa	70	4,2	1.664
Guztira	384	4.6	8.284

SIADCOren *Bases para un futuro plan de actuación a favor de la normalización del uso del euskara*, Koldo Mitxelena artxibategian, Donostia, 1978.

Gaur zertan garen? Orduandantik 7 urte igaro dira eta jakingarri da eboluziorik izan den ala ez jakitea. Joseba Arregik⁶, Eusko Jaurlaritzako hizkuntz arduradunak, 1983-84 ikasturte-hasieran emandako datuen arabera, ikastetxe pribatuetan euskara dakien irakaslea % 39 da, erdizka dakiena % 2 eta ezagutzarik ez edo gutxi duena, berriz, gehien-go, hots, % 58. Ikastetxe publikoetan, aldiz, dakitenak % 2,3 besterik ez dira, erdizka dakitenak % 20 eta ezagutzen ez dutenak edo gutxi dakitenak, aldiz, % 75.

Nola liteke, ordea, ikastetxe pribatuetako irakasleria publikoetakoa baino euskaldunagoa izatea? Indize horien azalpenean esaten ez bada ere, badirudi alde nabarmen hori ikastoletako irakasleriari zor zaiola, ikastolak ikastetxe pribatuen barruan sartuta egongo baitira. Noski, ikastoletan dabilzanak zenbat diren zehazki jakin gabe zaila da mugak jartzea, baina oker handirik gabe esan dezakegu irakasle euskaldun gehienak berorietan daudela. Gainera, ikastoletako irakasleria % 39 horretan sarturik baldin badago ere, portzentaia hori garaiegia dela uste dugu, ez baitzaigu goranzko jauzi ezohiko horren faktore esplikatzailerik ematen. Beraz, datu zehatzagorik ematen ez den bitartean, ezingo da esan, besterik gabe, ikastetxe pribatuetako irakasleak publikoetakoak baino euskaldunagoak direnik. Horretarako, ikastolakoak zenbatu gabe egin beharko litzateke beste bi sare horien arteko erkaketa.

Bestalde, euskara dakien irakasle euskaldunen kopurua oso apala da, zeren ezer gutxi edo erdizka dakienak ez baitu euskarazko irakaskuntzarako balio. Areago oraindik: badakitela diotenen artean ere, ikustekoa izango litzateke zenbait izango liratekeen irakasteko gauza. Laburki esanda: 1976-77 ikasturteko irakasle euskaldunen egoera hura ez da asko hobetu, ez bederen ikastetxe publikoetan, ezta, dirudienez, pribatue-

⁶ "Sobre la euskaldunización de la enseñanza", *Deia*, 1983 (?). Testua bera eskuartean daukagun arren, data (hilabete eta eguna) ez dugu osatzerik izan.

tan ere. Hemendik ateratzen dugun ondorioa da, irakasle euskaldunen egoera, gaur 1983an, benetan tristea dela eta azken urteotan alor honetan egin diren ahaleginen emaitzak benetan murrizak direla.

Bada, halere, optimismora deitu nahi gaituen mezurik. Hezkuntzako Kontseilari-tzatik Pedro Migel Etxenike sailburuak prentsaren bidez kaleratzen dituen datu estatisti-ko solteetatik datorkiguna da berau, guk 8. taula hau osatuz biltzen duguna⁷.

8. taula: Euskararen ezagutza ikastetxe publikoetan (1982-83 eta 1983-84)

Ikasmailak	Erdaldunak			Euskaldunak		
	Ikasturteak		Aldea	Ikasturteak		Aldea
	1982-83	1983-84		1982-83	1983-84	
OHO	9.316	9.410	94	488	640	152
BBB/UBI	2.515	2.613	98	176	220	44
LH	1.227	1.324	57	57	75	18
Guztira	13.058	13.347	289	721	935	214

Ikastetxe publikoetako irakasle euskaldunak eta erdaldunak konparatuz gero, ageri da 1982-83 ikasturtean erdaldunak 13.058 direla eta euskaldunak, berriz, 721; hurrengo ikasturtean, erdaldunak 13.347 izango dira eta euskaldunak, berriz, 935. Kopuru absolutuetan, bada, ikasturte baten buruan, erdaldunen kopurua euskaldunena baino handiagoa da, haien 289 hauen 214ren kontra. Portzentaietan, ordea, euskaldunena % 1,32 gehitzen den bitartean, erdaldunena proportzio beretsuan, hots, % 1,31 gutxitzen da. Baina benetako datua, gogoan hartu beharrekoa, hauxe da: ikastetxe publikoetako irakasle gehien-gehienak, — % 93,45, alegia—, erdaldunak direla eta euskaldunak, berriz, % 6,55 besterik ez.

Datu-iturri hauek Eusko Jaurlaritzatik datozenak badira ere, emanak izan diren bezala prentsa-bidez emanda, ez datoz guztiak bat. Joseba Arregik emandako datuen arabera, ikastetxe publikoetako LHn euskara dakien irakaslea % 5 den bitartean, P. M. Etxenikerenean, % 4.56 da. Ikasmaila honetan datuak antzekoak dira eta ez dago horrelako alde nabarmenik. Baina beste ikasmailetan, bai, izugarria. Adibidez, Joseba Arregik dakarrenez, EA eta OHOn, berdin BBB/UBIn, euskara dakitenen indizea % 1ekoa da; P. M. Etxenikek emandako datuetan, aldiz, EA eta OHOn % 5,23koa eta BBB/UBIn % 6,99koa. Datuak jatorrizko iturrian egiaztatzeko sarbiderik ez baitu ematen Administrazioak, prentsa-bidez zabaldutakoak ez dira erabilgarriak gertatzen, batez ere, zifretan adostasunik ematen ez denean.

Eusko Jaurlaritzak prentsaren bidez eman digun informazio estatistiko hone-

⁷ Deia, 1983-09.20.

tan, egia esan, zifren mareoa besterik ez dugu kausitzen. Izan ere, zifrak testu-
guru zabalago batean kokatu ordez, ebakita eta nahi edo interesatzen direnak
bakarrik eskaintzen baitira, egoeraz ikuspegi orokorra eman eta hura zuzen inter-
pretatzeko irizpide objektibo gutxi aurkitzen da eta, kasu honetan, edozer gauza
frogatzeko balio dezakete. Eta hemen horrelako zerbait gertatzen da.
Optimismorako deiaren arrazoia hauxe da: oso gutxi bada ere, irakasle euskal-
dunaren kopurua gehituz doala eta proportzio beretsuan gutxituz erdaldunena.
Hezkuntza elebiduna bere urratsak emanez doala sinestarazi nahi da.

Ikastolen egoera

Ikastolen hegi enpirikoa nahikoa landurik daukagu dagoeneko estatistikaren
aldetik, nahiz eta, iturri desberdinen arabera, zifra desberdinak dauden. Hortxe
daude lekuko gisa, besteak beste, jadanik emanak ditugun Eusko Jaurlaritzak
argitaratuak eta orain azaltzera goazen SIADECOn lanak eta Jakin aldizkariak
irakaskuntza elebidunaz 1978 eta 1981ean argitaratutako bi ale monografikoak⁸.

Ikastolen eboluzio historikoa

Ikastolak egun zein egoeratan aurkitzen diren ezagutzeko, ongi etorriko
zaigu, haien hedapen geografikoari dagokionez, nolako bilakaera izan duten hur-
biletik jarraitzea. Honetarako osatu dugu, hain zuzen, bi hamarkada besarkatzen
dituen 9. taula hau⁹.

9. taula: Ikastolen kopuru-eboluzioa herrialdeka (1960-61 eta 1981-82)

Herrialdeak	Ikasturteak					
	1960-61	1965-66	1970-71	1975-76 ¹⁰	1979-80	1981-82
Araba		1	1	6	16	29
Gipuzkoa	3	17	61	71	72	71
Bizkaia		10	31	45	64	70
Nafarroa		1	7	22	39	39
Iparralde				18		
Guztira	3	29	100	144	191	209

⁸ *Jakin*, 7, 1978; 19-20, 1981.

⁹ *Jakin*, 19-20, 1981, 23.

¹⁰ SIADECOK, 1975-76 ikasturteari dagokionez, beste zifra batzuk ekartzen ditu: Araban ez 6, bai-
zik 8 ikastola; Gipuzkoan 7 gehiago, guztira, 78; Nafarroan 1 gehiago, hots, 23; Bizkaian, bietan
berdin, 45; azkenik, Ipar Euskal Herrian, 18. Guztira, bada, 172; beraz, 28 ikastola zenbatzen ditu
aipatu iturriak (*Hizkuntz borroroka Euskadin*, op. cit, 164).

Ikastolak, erakunde publiko gisa 1960ko hamarkadan finkatzen badira ere, akademia partikular gisa, jadanik 1950eko hamarkadan indarrean zeuden. Ikastolen bilakaera desberdina izanen da herrialde bakoitzean, horietako bakoitzean euskarak agertzen duen gizarte-bizitasunaren arabera. Guk bost urteko epealdiak ezarri finkatu baitugu taula hori, esan behar da datu esanguratsu batzuk ezkututzen dituela, zehaztea komeni direnak. Honela, 9. taulan agertzen den bezala, lehen ikastola Gipuzkoan sortzen da 1960an; handik hiru urtera, 1963an, 2 Bizkaian eta 1 Araban; Nafarroan lehenengoa 1965ean bideratuko da eta Iparraldean, berriz, 1969an¹¹.

Ikastolen fenomeno ez da hutsaren truke sortua, euskal gizarte osoaren soinean garatuz zetorren eboluzio soziopolitiko, ekonomiko eta kulturalaren ondorio gisa baizik. Aurrean daukagun taula ikusiz gero, garbi ageri da ikastolak nola sortzen diren euskararen, abertzaletasunaren eta ekonomiaren aldetik indartsuenak diren bi probintzietan, hots, lehenik Gipuzkoan eta ondoren Bizkaian.

Oro har, ikastetxe berrien etengabeko gorakada ematen da lehen bi hamarkadetan, 1960koan 100 ikastetxe berri sortzen direlarik eta 1970ekoan, berriz, ia beste horrenbeste: 91 zehazki. Ikastolen hedapen-kurbarik handiena, hain zuzen, Burgosko auzian burutzen den euskal borrokaren goranzko jauzialdi ezagunak gaina jotzen duen unean ematen da. Gipuzkoan 44 eta Bizkaian 21 ikastola irekitzen dira 1965-70 epealdian zehar, ETA gizarte-fenomenoaren inguruan hedatuz eta gogortuz datorren erresistentzia soziopolitiko eta kulturala kokatzen den geografi gune horretantxe, hain zuzen. Ondorengo beste bost urteko epealdia, 1970etik 1975eraino doana, makalaldiarena dugu, aurrekoan baino 27 ikastola gutxiago irekitzen baitira, Bizkaian 14 eta Gipuzkoan 10 bakarrik; Nafarroan eta Araban, aldiz, goraldia oraintxe hasten da, lehenengoan 15 eta bigarrenengoan 5 irekitzen direlarik. Azken epealdi honetan pizten dira, hain zuzen ere, gizarte-mugimenduak bi herrialde horietan eta, horiekin batera, ikastolek ere gorantz egiten dute, eta goranzko abiada honek aurrera segituko du Francoren heriotzaz geroztiko 1975-79 epealdian zehar ere, Araban 5etik 10era igotzen baita ikastolen kopurua. Gipuzkoan eta Bizkaian alderantzizko prozesua gertatzen da: herrialde hauek ikastolen hedapen-erritmoa lehen hamarkadan (1960-70) bizi-bizia den bezela, hurrengoan (1970-1979) ez da hainbestekoa, bereziki Gipuzkoan, hemen 11 ikastetxe bakarrik irekitzen baitira. Dena den, azken zifra horren estimazioa erlatibizatu beharra dago, zeren SIADECOK, Gipuzkoari dagokionez, 1975ean, ez 71 ikastola, baizik 78 zenbatzen baititu¹².

¹¹ Euskaltzaindia/Siadeco: *Hizkuntz borroka Euskadin*, E.V, Donostia, 1979, 164.

¹² Lehen esan da datuetan ez dela adostasunik ematen. Oinarritzat SIADECOnak hartuz gero, Gipuzkoan, ez 10eko kopurua, baizik 17koa beharko luke izan.

Taula horretan, bada, ispiluan bezain garden islatzen den oinarritzko datua, hauxe da: hots, segun zein herrialdetan, herri-borroka abertzalearen mugimendua eta ikastolen hedapen geografikoarena, kronologiaren aldetik begirata, parean doazen fenomenoak direla. Honela, Gipuzkoa eta Bizkaian leheritzen den asaldakuntzaren sukarra, handik hamar bat urte inguru edo, Nafarroa eta Arabara hedatzen da. Francoren desagertzea kontuan hartu edo ez hartu, hemen azpian euskal borroka orokortu baten prozesu bakar eta berbera dago, unean uneko gizarte-baldintzen arabera herrialde jakinetan desberdinki garatzen den baina antzeko sintomak aurkezten dituen prozesu bati dagokiona, alegia. Horregatik, zenbait ikastetxe publiko eta pribatutan eskola elebidunak ugaritu egiten direla eta, 1975etik aurrera ikastola berrien irekitzea moteldu egiten dela esatea¹³, ez da egia osoa, ezta erdia ere, taulan besterik konstatazen baita. Ondorio hori Gipuzkoa eta Bizkaia bakarrik aplikatu daieke. Araba eta Nafarroa, -nahiz azken probintzia hau ez egon Eusko Jaurlaritzaren jurisdikziopean-, ez ote dira, bada, beste biak bezain Euskal Herri?

Orain arte ikastolen kopuruaz bakarrik aritu gara. Horien hedapenaren fenomeno bere osotasunean aztertu ahal izateko, horrekin batera eta datu osagarri gisa, ikastola horietan dabiltzan ikasleen kopurua ere zenbatu beharra dago, zeina 10. taulan zehazten baita iturri desberdinetatik jasotako datuen bidez.¹⁴

10. taula: Ikastoletako ikasle-kopuruaren eboluzioa¹⁵

Herrialdeak	Ikasturteak				
	1964-65	1970-71	1974-75	1978-79	1981-82
Araba	22	334	1.200	3.500 ¹⁶	5.001 ¹⁷
Gipuzkoa	520	8.181	20.000	30.356	32.058
Bizkaia	54	2.591	7.800	14.920	14.895
Nafarroa	-	765	2.000	3.744	14.895
Iparralde ¹⁸	-	49	207	423	614
Guztira	695	11.920	31.207	52.943	56.321

Ikasleen kopurua orotara hartzen bada, argi dago hazkundearen joera *in crescendo* joan dela, inolako etenik gabe joan ere. Honela, 1964-65 ikasturte-

¹³ *Jakin*, 19-20, 1981, 23.

¹⁴ *Ibid.*, 24.

¹⁵ *Ibid.*

¹⁶ Aldizkari bereko 75. orrialdean, Lontxo Oihartzabal eta Antton Kaifer jaunek izenpetutako artikuluan, zifra hori baino zertxobait handiagoa dator: 3.661lekoa, hots, 161 ikasle gehiago

¹⁷ Zifra hau hautatu dugu, lan beretik jasoz (*Op. cit.*, 75).

¹⁸ "Seaska" erakundeak emandako datuak dira.

tik 1970-71ra bitarteko epealdian 11.176 ikasleren hazkundera gertatzen bada, hazkunde hori azkartuz doa 19.129 ikaslerekin 1970-71 eta 1974-75eko epealdian eta, 1974-75eko ikasturteetik 1978-79kora doan azken epealdian oraindik areagotu egiten da 21.520 ikaslerekin.

Ikastolen kopuruari dagokionez, hauek orotara hartuta, kurbarik handiena, lehen esan bezala, 1965-70 bosturteko horretan ezagutzen bada, ikasleriarren kopuruari dagokionez, ez dagoela antzeko kurbarik oharitzen gara, ikasleak bosturtekoz-bosturteko gorantz eginez doazela, alegia. Hazkunde hau, bestalde, eta oraingoan datuak herrialdeka hartuz, Gipuzkoan izan ezik, beste guztietan linealki progresiboa izan da. Gipuzkoako ikastoletan, 1970-1975 epealdian 1974-79koan baino 1.463 ikasle berri gutxiago dago proportzioan, hots, 11.819 ikasle 10.356ren aurka. Hau kasu bitxi samarra dugunez, galdezkekoa izango da zergatik den horrela.

Ikastolen fenomenoak Euskal Herri osoari dagokion zerbait izan arren, gipuzkoarra dugu bereziki, ikasleen erdiak baino gehiago bertan biltzen baitira, hots, 1878-79 ikasturtean % 57,79. Euskaldunena eta tradizioz luzeena duena ere bera izanik, normala dirudi horrela izatea. Zentzu honetan, kopuruaren aldetik daukan garrantzia ikusirik, kezagarri gerta daiteke azken 1974/79 bosturteko epealdi horretan konstatatzen den makalaldia.

Ikastolen kokaleku geografikoa

Ez da aski hazkundera, oro har eta herrialdeka, nola joan den ikustea. Areago joanik, ikastolak geografikoki non kokatuta dauden jakiteak ere argi berririk eskaini liezaguke ikuspegi orokor bati buruz. Hedapena segun eta zein gune soziogeografikotatik egiten den, nekazaritza girotik ala hirikotik, ondorioak ere ez dirateke seguraski berdinak.

Taulako lehen bi zutabeak (H + eta O +) orotara hartuta, hiriburuetan ikasleria guztitik % 24,5 eta herri arras erdaldunetan % 9 egongo liriateke, guztira % 33,5. Kopuru hau, halere, handiagoa izango litzateke, baldin, hiriburuekin batera, hirialdeak ere hartuko balira. Honela, Donostia, Donostialdea, Oiartzunaldia, Bilbo eta Bilbo Handia, Gazteiz eta Iruñerria, Baiona eta Lapurdi Beherea hartuz gero, horietan guztira % 35,2 ikastola eta % 44,3 ikasle egongo liriateke¹⁹.

¹⁹ *Jakin*, 19-20, 1981, 15.

11. taula: Ikastolen eta bertako ikasleen kokalekua euskara dakiten eta ez dakiten herrien arabera (1978-81)

Herrialdeak	H +		0 +		E +		Guztira	
	Ikasleak	100	Ikasleak	100	Ikasleak	100	Ikasleak	100
Araba	2.576	51,5	1.766	35,5	659	13,17	5.001	9
Bizkaia	4.182	28	2.653	18	8.060	54,11	14.895	26,5
Gipuzkoa	4.774	15	-		27.284	85,1	32.058	57
Nafarroa	2.012	53,5	551	14,5	1.190	31,7	3.753	6,5
IEH	144	29,5	5	1	342	69,65	491	1
Guztira	13.588	24,5	4.975	9	37.535	66,79	56.198	100

Iturria: Jakin, 19-20, 1981, 15. Norberak landua. Araba eta Ipar Euskal Herriko datuak 1980-81 ikasturtekoak dira; Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroakoak, berriz, 1978-79 ikasturtekoak.

Zeinuen azalpena: 1) H + = Hiriburua; 2) 0 + = Herri oso erdaldunak; 3) E + = Herri elebidunak, kontuan hartzeke euskara dakitenen zifrak.

Herri arras erdaldunen artean Araba nabarmentzen da % 35,5 ikaslerekin; beren ikastolak hiriburuetan kokaturik dauzkaten artean, halaber, Nafarroa eta Araba dauzkagu % 53,5 eta % 51,5 ikaslerekin, hurrenez hurren.

Horrek zer esan nahi duen? Lehenik, ikastolen hiri-izaera, proportzional-ki noski, euskara galduz etorri diren bi herrialde horiei dagokien fenomeno delako, bereziki. Bigarrenik, erdal giroaren eragina gehienik Araba eta Nafarroako ikastoletan nabari delako, herrialde erdaldunetan, hain zuzen. Ingurugirorik euskaldunena, esana daukagunez, Gipuzkoan aurkitzen dute ikastolek.

Hirugarren zutabearen (E +) ikus daitekeenez, ikastola gehienak herri elebidunetan kokatzen dira, hots, % 66,79. Elebidunak esatean, ez baitugu zehaztu 11. taula horretan zein neurritan, dudarik gabe dezente murriztu beharra dago portzentaia hori. Jadanik eginda dauden hogeinakako portzentaia arabera, % 60tik gora euskara egiten den herrietan ikastoletako % 30 ikasle bakarrik bizi da²⁰.

Horrek, orain artekoa laburtuz, zera esan nahi du: ikastoletan erdal giroa dela nagusi, zeren ikasleen % 70 inguru euskara batere ez edo ezer gutxi egiten den gizarte-giroan bizi baita.

²⁰ Ibid., 11.

Ikastolen famili hizkuntza

Ama-hizkuntza zein proportziotan den euskara eta zeinetan erdara zehazteak badu bere garrantzia, ikastolek ere proportzio horren arabera hartuko baitute beren fisonomia berezia. Ikastoletako ama-hizkuntzari buruzko datu zehatzik ez baitago, jadanik eginda dauden hurbilketen ondorioak eskainiko ditugu jarraiko 12. taulan.

12. taula: Euskara dakiten gurasoen kopurua portzentaiatan (1976-77)²¹

	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia
Aitak	18,5	76,1	27,6	55,9
Amak	17	76,5	28,5	52,2

Amaren hizkuntza oinarritzat hartuta, berehalaxe konturatzen gara famili giroaren desberdintasunaz herrialde batetik bestera.

Gipuzkoatik Arabara, tartean Bizkaia eta Nafarroatik pasata, alde handia dago, % 76,5etik % 17ra jaisten baita. Taulan dakusaguna laburbilduz, hauxe esan dezakegu: Gipuzkoa eta Bizkaian euskara ezagutzen duten gurasoak gehiago direla ezagutzen ez dutenak baino; Araban eta Nafarroan, berriz, alderantziz.

Ondorio zenbait labor-labor

Ikastolen hedapen-eritmoa, oro har, beti goranzkoa izan da; oso bizia Gipuzkoa eta Bizkaian lehen hamarkadan (1960-70), zerbait makalagoa bigarrenengan (1970-79); Nafarroa eta Araban, aldiz, hazkundeak beti goraka egin du orain arte-rainokoa, abiada honetan kurbarik ezagutu gabe.

Kronologiaren aldetik, euskal erresistentziaren protagonismoa nagusiki zein probintzian kokatu, ikastolen hazkunde-eritmoa ere halaxe bideratzen da. Ikastolen mugimendua beste gizarte-faktore politiko eta ekonomikoekin batera bideratzen dela erakusten du horrek, borrokak probintzia bakoitzean hartzen dituen berezitasunen arabera. Faktore politikoaren eta kulturalen arteko elkar-eragina ukalezina dugu, beraz.

Ikasleriaren kopuruari bagagozkio, erdia baino gehiago Gipuzkoan bildurik dago. Ikasleriaren bihotza den herrialde honetan konstatatzen da, hain zuzen ere, beherakada nabarmen samarra goranzko abiada orokorraren barruan. Galdera bat gelditzen da zintzilik: zergatik ?

²¹ SIADECO: *Estudio socio-lingüístico del euskara*: VII: Las Ikastolas.

Ikastolen hedapenari zein ikasleriaren kopuruari begiratuta, erabateko egokitzapena ageri da herrialde euskaldunen eta erdaldunen artean. Herrialdea zenbat eta euskaldunagoa izan, orduan eta bizkorragoa da ikastolen mugimendua bere osotasunean. Zehazkiago esanda, hurrenez hurren, hauek dira herrialderik eraginkorrenak: Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Araba.

Ikastolak, hauek geografiaren aldetik zein zonatan finkaturik dauden kontuan hartzen bada, berorien inguruan daukaten bizi-giroa gehienbat erdalduna dela esan behar da, nahiz eta ikastola gehienak zona elebidunetan kokaturik egon.

Ikastoletara doazen kopurua zenbatekoa den ez badakigu ere, ikastolen inguruko gizarte-arnasa % 44,3ko batez erdaldunena eta ikasleen famili hizkuntza, berriz, kasurik onenean % 76,5eko batez euskalduna (Gipuzkoan, ikasle-kopururik haundiena dagoen herrialdean, beraz) eta txarrean % 17ko batez erdalduna (Arabian, euskara gutxienik egiten den herrialdean) dela kontuan harturik, zera esango genuke hurbilketa-bidez: Ikastoletako haur gehienek lehen hizkuntza euskara dela Gipuzkoa eta Bizkaian bederen eta erdara beste bietan. Horregatik, ezin esan daiteke, esan izan den bezala, ikastoletako haur gehienek lehen hizkuntza erdara dela²². Hau ez da erabat egia.

Datu adierazgarrienen aurkezpen orokor honen ondotik, horietan oinarrituta egin diren eta egin daitezkeen interpretazio posibleen eta aurrera begira egin litekeen hizkuntza plangintza baten nondik-norakoaren eremua zabalik gelditzen da.

Horregatik, irakaskuntza orotara hartuta, lehen esan bezala, ikastolek beste ikastetxeen konparazioan gora egin dutela agertzen bada ere, konstatazio honen ondoan beste honako hau ere egin beharra dago: Ikastolen bihotza den Gipuzkoan hazkundearen erritmoa jaitsi egin dela. Eta hemendik, noski, Maixu-ren optimismoa pixka bat zuzendu beharra dago, zeren honek, Zarautz, Legazpia, Azkoitia, Beasain, Arrasate eta Eibarko ikastoletako datuak hartuta, ikastolen etorkizuna esparantzagarria dela edota, beraren hitzez esateko, "hizkuntzaren errekupe-raketari dagokionez, ikastolaren emaitzak nabariak" direla esaten baitu²³. Iritzi horri darion ondorioa garbia da: Ikastolak indartu behar direla eta horien hedapenari esker sortuko dela euskarazko irakaskuntza sare publikoan zein pribatuan. Maixu-ren ikuspegia zuzen jaso badugu bederen, bere ikuspegia ez dela osoki zuzena esan behar dugu. Izan ere, datu orokorren bidez frogaturik gelditu den bezala, Gipuzkoako ikastolen hazkunde-erritmoa azkenaldian azkartu ez, baizik eta moteldu egin baita. Hobeto esanda: sare publiko eta pribatuekin konparatuz gero, ikastoletan dabilzan ikasleen hazkunde-erritmoa bizkortu egin da, hori bai; baina, aldi berean, ikastolek beren barmetik ezagutu duten urtez urteko eboluzioaren baitan proportzionalki (ez kopuru absolutuetan) gutxitu egin da ikasleria Gipuzkoan. Zentzu honetan, bada, ikastolen etorkizunari begira, hedapen bizkor

²² *Jakin*, 7, 1978, 54; 19-20, 1981, 30.

²³ *Egin*, 1983-11-17.

baten aldeko esperantzak ez dira erabatekoak. Arazoa alde honetatik begiratuta, pesimismorako arrazoi gehiago ikusten dugu optimismorako baino.

2. Euskararen egoera Irakasle-Eskoletan

Irakasle-Eskolak ditugu biharko egun hurbilean irakaskuntza ez-unibertsitariotan eta, bereziki, EAN eta OHOn irakasle izango direnen mintegi naturala. Lehen esan duguna gogoratuz, ikasmaila horietan dabil, hain zuzen, ikasle-kopururik handiena. Beraz, garrantzi ezin handiagokoa da, inon egotekotan, ikasmaila horietan bederen irakasle euskaldunen plataforma bermaturik egotea. Ahalik eta eperik laburrenean, jakina. Helburu honi begira egiten ari gara hasiera-hasieratik geure gogoetak.

Orain arteko saioan, irakaskuntzaren merkatu-sarean inplikaturik dagoen irakasleria euskalduna zein egoeratan aurkitzen den ikusi dugu eta, euskarazko irakaskuntzari dagokionez, ondorio triste samarrak atera ditugu.

Irakaskuntza ez-unibertsitarioa egoera larrian aurkitzen bada, zer-nolakoa ote da irakasle euskaldunen harrobia den Irakasle-Eskoletakoa? Galdera honi erantzuten ahalegintzea da bigarren saioaldi honen xedea. Euskarak Irakasle-Eskoletan bizi duen egoeraz ez baita datu estatistikorik argitaratu, —guk dakigularik bederen—, oinarrizko datuen bilketa Hego Euskal Herriko Irakasle-Eskola guztietatik egin dugu. Beraz, segidan eskainiko ditugun zifrak maila pertsonalean jasotakoak dira. Horretarako, zuzenean Hego Euskal Herriko Irakasle-Eskola guztietara jo genuen, guztietan sistemaz datu berberak eskatuz. Jarraiko Irakasle-Eskola hauetan egin zen datu-eskea: Nafarroan, Iruñeko “Huarte Donibaneko” izeneko OHOrako Irakasle Eskola publikoan; Araban, Gasteizko OHOrako Irakasle-Eskola publikoan; Bizkaian, Deustuko OHOrako Irakasle-Eskola publikoan eta Derioko “Begoñako Andra Mari” izeneko diozesiko OHOrako Irakasle-Eskola pribatuan; Gipuzkoan, Donostiako OHOrako Irakasle-Eskola publikoan, Donostiako elizbarrutiko OHOrako Irakasle-Eskola pribatuan eta Eskoriatzako OHOrako Irakasle-Eskola pribatuan. Guztira, bada, zazpi dira: lau publiko eta hiru pribatu, bi Gipuzkoan eta bestea Bizkaian, eta horietatik bi Elizarenak, biak beren egoitzak Apaizgaitegi Nagusi izandakoetan dituztenak.

Irakasle-Eskoletako ikasketa-plangintzak 3 urteko iraupena du eta lau espezialitatetan banatua dago, zeinak baitira Zientziak, Giza Zientziak, Eskolaurrea eta Filologia. Espezialitate hauetarako espreski ezarriak dauden irakasgai edo asignaturak izan ezik, beste guztiak amankomunak dira. Bestalde, Irakasle-Eskola bakoitzeko ikasketa-plangintzan, hiru motatako irakasgaiak bereiz daitezke: oinarrizkoak, hautazkoak eta borondatezkoak. Azken irakasgai-mota hauen kasuan, ikasleak ez dauka nahitaez gainditu beharrik bere ikasketak amaitzeko.

Irakasle-Eskola guztietako datuak eskuratu ahal izan ditugu, Deriokoak izan ezik. Kopuru orokorrak emateko orduan, beraz, ausentzia hori gogoan hartzekoa izango da. Datuak, besterik esaten ez den bitartean, 1982-83 ikasturteari dagozkionak dira. Taulatan laukitxoak hutsik datozenetan, daturik ezagatik datoz horrela. Azalpenari dagokionez, hasteko, Irakasle-Eskoletako ikasle eta irakasleen kopuru-eboluzioaz ikuspegi orokorra eskainiko da eta gero Irakasle-Eskola bakoitzari dagozkion xehetasunetan sartuko gara.

Honela, 13. taula hori herrialdez herrialde irakurtzen bada, zera ikusten dugu: Araban ikasleen kopurua urtez urte jaitsiz etorri dela. Gipuzkoa eta Bizkaian, bestalde, 1981-82 ikasturtea arte goranzko kurba ezagutu bada ere, hurrengo ikasturtean, 1982-83koan, ikasleen kopurua gutxitu egiten da kopuru absolutuetan: hots, Bizkaian ikasleria 3.357tik 3.154ra pasatzen da eta Gipuzkoan, orobat, 2.018tik 1.947ra. Gipuzkoako Irakasle-Eskoletan ere, Eskoriatzakoan izan ezik, ikasleak gutxitu egiten dira aipatutako ikasturte horretan. Irakasle berrien eske sozialak bere gaina jo duen seinalea dugu hori. Irakasleen merkatua asetzen hasia dago, beraz.

Irakasleriari dagokionez, Araba eta Nafarroako egoerari buruzko daturik ez dugunez, beste bi herrialdeetarako mugatuko gatzazkizue. Eta hauetan ondorio kontrajarrien aurrean aurkitzen gara: batetik, Gipuzkoako irakasleriaren bilakaera positiboa daukagu eta, bestetik, Bizkaikoaren etenaldia, zeren hemen, lehen aipatu dugun ikasturte berean, ikasle-kopurua 114tik 110era jaisten baita.

13. taula: *Ikasle eta irakasleen kopuru-eboluzioa (1979-83)*

Ikasturteak	Araba		Bizkaia ²⁴		Gipuzkoa ²⁵		Nafarroa	
	Ikasle	Irakasle	Ikasle	Irakasle	Ikasle	Irakasle	Ikasle	Irakasle
1979-80	895	-	2.700	60	1.631	78	-	-
1980-81	890	-	3.061	73	1.765	79	-	-
1981-82	850	-	3.357	114	2.018	93	-	-
1982-83	821	50	3.154	110	1.947	99	1098	44

Hego Euskal Herriko Irakasle-Eskoletan matrikulatutako ikasleak, 14. taulan datorrenez, 7.020 dira guztira; horietatik ia erdiak (% 44,92) Deustuko Irakasle-Eskolakoak dira, Deriokoak ez baitira kontaktzen. Gipuzkoak, beste hiru Irakasle-Eskolekin, % 27,73 ikasle biltzen ditu, Nafarroak eta Arabak, biak batera, adina ozta-ozta. Ikasleen kontzentrazioa, beraz, probintzia bakoitzak duen pisu demografikoaren arabera da.

²⁴ Hemen Deustuko Irakasle-Eskola publikokoak bakarrik datoz.

²⁵ Hemen Gipuzkoako hiru Irakasle-Eskolakoak batera sartuta daude.

14. taula: Ikasle eta irakasleen kopurua Irakasle-Eskoletan (1982-83)

Herrialdeak	Ikasleak		Irakasleak	
	Kop. Abs.	100	Kop. Abs.	100
Araba	821	11,69	50	16,01
Bizkaia	3154	44,92	110	36,3
Gipuzkoa	1947	27,73	99	32,67
Nafarroa	1098	15,64	44	14,52
Guztira	7020		303	

Irakasleengan, halere, ez dago horrelako diferentzia nabarmenik Bizkaiairean eta Gipuzkoaren artean. Guztira, 303 direla emanda, horietatik % 36,30 Bizkaian kokatzen da (hemen, noski, Derio bazter utzita) eta % 32,67 Gipuzkoan (hemen hiru Irakasle-Eskolak batera hartuta). Bestalde, ikasle-kopuruaren arabera, Araba irakaslez hornituago dago Nafarroa baino, proportzioan, noski.

Gipuzkoa barruan, hiru Irakasle-Eskolak elkarren artean konparatuz, ikasleria honela banatzen da, handienetik txikienera: Irakasle-Eskola publikoan 1.134 (% 58,24), elizbarrutikoan 603 (% 30,97) eta Eskoriatzakoan 210 (% 10,78). Erdiak eta gehiago, beraz, Donostiako Ategorrietako zentru estalean dabilta.

Bai ikasle bai irakasle gehienak Irakasle-Eskola publikoetan dabiltzanez gero, badirudi biharko irakasle euskaldunen giza kapitala ere horietan landuko dela etorkizunean. Neurriak, bada, zentru horietan hartu beharko dira.

Ikus dezagun, segidan, zein den euskararen egoera Irakasle-Eskola guzti horietan eta, bereziki, publikoetan. Nahasketarik egon ez dadin, zifrak herrialdeen arabera emango dira, ikasle zein irakasle euskaldunen eta erdaldunen kopuruak azalduz. Hemen, azterketa xeheetan sartzeko asmorik gabe, taulak osatu eta horko datu esanguratsuenak gainetik iruzkinduko ditugu.

Euskararen ezagutza Gipuzkoako Irakasle-Eskoletan

Gipuzkoan, lehengo Irakasle-Eskola publikoaz gain, beste bi berri sortzen dira aro autonomikoan, biak xedetzat euskarazko irakaskuntza ematea dutenak. Biak pribatuak izango dira, baina, bata Elizarena den bitartean, bestea ekimen kooperatibistari zor zaiona da. Bizkaian ere, elizbarrutiak beste bat berea sortua zuen jadanik 1973an, hemen ere helburu beretsuekin. Araba eta Nafarroan, ordea, Elizak ez du horrelako biderik hartuko. Irakasle-Eskolen inguruan, bada, aniztasuna ematen da hezkuntza elebiduna bideratzen hasten

den une honetan. Horregatik, egokia iruditu zaigu horietako bakoitzaren egoera soziolinguistikoa ezagutzea.

Donostiako Irakasle-Eskola publikoan, 15. taulan jasotzen den bezala, 1.134 ikasle dabilta ikasten eta hauetatik 218 baizik ez dira euskaraz dakitenak, zeinak % 19,22 suposatzen baitu. Honek esan nahi du ikasle gehienak, % 80,77, erdaldunak direla.

Orain arte, 1981etik hasita, euskara irakasgai gisa irakatsi da soilki, astean 4 orduko eskola emanez. Metodo honek frogatu duen gauzarik argiena, zera izan da: euskara jakin gabe sartu den ikasleak ikasi gabe bukatzen dituela bere ikasketak. Beste edozein hizkuntzak, kasurako frantsesak edo ingelesak, ezagutu duen prozesu bera ezagutu du euskarak ere.

Emaitza negatibo horren aurrean, 1982-83 ikasturtean, neurri zorrotzago batzuk hartzen dira, ikasketak hasterakoan euskara ez dakiten ikasleak karreraren bukaerako hura menderatzera hel daitezen. Honela, ikasle-kopururik handiena osatzen duen talde erdaldun horrek, ikasturtearen hasieran, urrian alegia, 100 orduko ikastaro trinkoa egingo du euskara ikasten; gero, astean 4 ordu sartuko ditu. Helburua, arestian esan bezala, karrera-bukaerarako euskara ikastea da. Jokabide berri honen emaitzak ikuskizun daude oraindik.

15. taula: Euskararen egoera Donostiako Irakasle-Eskola publikoan (1982-83)

Hizkuntza-izaera	Ikasleak		Irakasleak	
	Kop. Abs		Kop. Abs	
Euskaldunak	218	19,22	40	64,51
Erdaldunak	916	80,77	22	35,48
Guztira	1134		62	

Irakasleei dagokienez, 62ko kopuru orokorretik 40 euskaldunak dira, erdaldunen ia bi halako, guztira % 64,51 osatzen baitute. Irakasle erdaldun horietatik 7, bestalde, euskara ikasten ari direnak dira, ikasteko borondatea agertzen dutenak eta beste 15ak, aldiz, ez. Azken hauekin ez dago ezertarako konstatzerik.

Irakasletzarako ikasketak osoki euskaraz burutu nahi dituenari aukera guztiak eskaintzen zaizkio, zeren irakasgai guztiak, hala komunak (Pedagogia, Psikologia, Matematikak, Plastika) nola bereziak (Filologia espainola izan ezik), euskaraz ematen baitira. Zentzu honetan, irakasleria euskalduna izateak, eskaintzen dituen ahalbideengatik, urrats positiboa dirudi eta halakotzat hartzen dugu. Gure ustez, Irakasle-Eskolen euskalduntze-prozesuak hortik hasi behar-ko luke: irakasleak euskaldunak izatetik edota, ez badira, euskalduntzetik.

16. taula: Donostiako elizbarrutiko Irakasle-Eskola pribatua (1982-83)

Hizkuntza-izaera	Ikasleak		Irakasleak	
	Kop. Abs	100	Kop. Abs	100
Euskaldunak	560	92,86	20	76,92
Erdaldunak	43	7,13	6	23,07
Guztira	603		26	

Donostiako elizbarrutiko Irakasle-Eskolaren historia, oraindik ere aski berria da, 1977an sortua baita. Hemen euskararen eta euskarazko irakaskuntzari lehentasunezko garrantzia ematen zaio. Guztira, 603 ikasle dabilza ikasten eta horietatik 560 ditugu euskaldunak, hots, % 92,86 euskaldun garbiak. Gutxiengoa da, beraz, sartzetakoan euskara jakin ez eta, karrera-bukaerarako ikasi behar duena.

Irakasleen kopurua, orotara, 26koa da eta hauetatik 6 dira erdaldunak edo, zehatzago esanda, 4 ez dakitenak eta 2 ikasten ari direnak.

Euskararen irakaskuntzari dagokionez, jarraiko plangintza hau dago ezarri: ikaslegaiak, bertan matrikulatu ahal izateko, lehendik 100 orduko ikastaro bat eginda eduki behar du, baldin euskaldun zaharra ez bada. Sarrerako azterketa orokor bat egin eta froga gaituz gero, euskaraz ikasten ari direnek, irailen hasi eta abenduan bukatu, lau hilabeteko ikastaro trinkoa egiten dute euskara ikasten, egunean 6 ordu eginez. Talde honek, beraz, lehen ikasturteari dagozkion irakasgaiak lantzeari urtarriletik aurrera ekiten dio, ikasturte-bukaera hilabete bat edo gehiago luzatuz. Taldea, bigarren ikasturtearen hasieran bertan, beste guztiakin bat eginda gelditzen da, guztiak egitarau bera burutzen dutelarik. Dirudenez, esperientzi mota honek emaitza positiboak lortzen ditu.

17. taula: Eskoriatzako Irakasle-Eskola pribatua (1982-83)

Hizkuntza-izaera	Ikasleak		Irakasleak	
	Kop. Abs	100	Kop. Abs	100
Euskaldunak	210	100	10	90
Erdaldunak			1	10
Guztira	210		11	

Arrasateko kooperatiba-sareari (S. Coop. Ltda.) atxikirik dagoen Eskoriatzako OHOrako Irakasle-Eskola hau, helburu zein prozeduretan, Donostiako

elizbarrutikoaren berdina edo antzekoa dela esan dezakegu. Hau ere, hura bezala, oraindik bideratu berria da, 1976az geroztiko ibilbidea besterik egin ez duena. Guztira 210 ikasle ari dira bertan ikasten eta 11 irakasletatik 1 bakarrik da eralduna.

Euskarari, ikastorduen nahiz pertsonalaren aldetik, erabateko lehenasuna ematen zaio. Lortu nahi dituen helburuak, jarraiko hiru hauek dira: a) lehen ikasmailan, sartu berrien alfabetatze sakona burutzea, egiteko honi astean 5 ordu emanez; b) bigarrengoan D tituluaren maila lortzea, astean 3 orduz arituz; hirugarrengoan Euskal Literaturan eta Glotodidaktikan sakontzea, eginkizun honetan ere astean 3 orduz arituz.

Egia da, lehen ikasmailan sartzeko, euskarazko gutxienezko maila bat edukitzea eskatzen da. Hori hala bada ere, Irakasle-Eskola honen helburua ez da euskaldun berria edo gutxi dakiena baztertzea; alderantziz, hemen lortu nahi dena da bertan sartu nahi dutenak aldeztu aurretik euskara ikastera bultzatzea. Gutxienezko oinarri hori lortu eta gero sartzeko direnentsat, hots, euskaldun berri nahiz garbi aski-gutxi alfabetuentzat, hautentzat lehen ikasmailan edo karrera-hasieran, astero 5 ordu daude ezarrita euskara ikasteko. Horrela, lehen ikasturtea bukatzean, horiek alfabetatze sakonago bat erdiesten dute; bigarren eta hirugarren ikasmaitan, halaber, astean 3 ordu emanez segitzen da eta azkenean, karrera-bukaeran, ikasle guztiak D tituluarekin ateratzen dira Irakasle-Eskolatik.

Arestian esandakoaz gain, lehen ikasmailan, euskaraz ematen dira Mintzaira, Matematikak, Natur Zientziak eta Euskal Geografia.

Irakasle-Eskola honetan bideratzen den esperientzi mota hau benetan interesgarria iruditzen zaigu, eredu horretan garbi islatzen baita beste Irakasle-Eskola publikoek nolakoak izan beharko luketen. Irakasle euskaldun berriak sortu nahi badira, -hauxe da, hain zuzen, plangintza elebidunari dagokion helburu nagusia-, Gipuzkoako bi Irakasle-Eskola pribatu horietan daude ezarriak euskal erroak eta emaitza positiboak lortzen ari dira.

Azkeneko bi Irakasle-Eskola pribatu horien helburu nagusia biharko irakasle euskaldunak eta, beraz, horretarako beharrezkoa den azpiegitura egokia eratzea da. Helburu honi begira antolatzen da euskararen zein euskarazko irakaskuntza.

Euskararen ezagutza Deustuko Irakasle-Eskola publikoan

Bizkaiari dagokionez, berriro gogoratuko dugu, Donostian bezala, hemen ere elizbarrutiak baduela bere Irakasle-Eskola pribatua, Derioko seminario nagusian kokatua aurkitzen dena. Baina, nahiz ahalegindu, horko daturik ezin izan dugunez jaso, jarraiko 18. taulan, Deustuko Irakasle-Eskola publikoko

datuak bakarrik dakartzagu. Hemen, 3.154 ikasletatik 304 besterik ez dira euskaldunak, zeinek % 9,63ko portzentaia suposatzen baitu.

18. taula: Deustuko Irakasle-Eskola publikoa (1982-83)

Hizkuntza-izaera	Ikasleak		Irakasleak	
	Kop. Abs	100	Kop. Abs	100
Euskaldunak	304	9,63	38	34,54
Erdaldunak	2850	90,36	72	65,45
Guztira	3154		110	

Irakasleak, orotara, 110 dira eta hauetatik 72, gehienak % 65,45eko indizearekin, erdaldunak. Irakasle erdaldun horietatik 6 bakarrik ari dira euskara ikasten; beste guztiak ez dute oraingoz horretarako borondaterik erakutsi.

Euskararen trataera honelakoa da: euskaldunak, beronek nahi izanez gero, ikasketa guztiak euskaraz egin ditzake. Irakasgai guztiak, komunak nahiz bereziak, euskaraz ere irakasten dira. Geologia eta Gimnasia bakarrik eman ziren gaztelaniaz 1982-83 ikasturtean. Ikasle erdaldunentzat, berriz, euskararen irakaskuntza beharrezkoa da, astean 4 ordu. Plangintza hau, ordea, aldatu egiten da 1983-84 ikasturte honetan eta, Donostiako Irakasle-Eskola publikoaz jardutean esan bezala, oraindik goizegi da jokabide horrek zein emaitza eman dezakeen jakiteko.

Euskararen ezagutza Gasteizko Irakasle-Eskola publikoan

Gasteizko Irakasle-Eskola publiko bakarrak, 19. taulan datorrenez, 821 ikasle eskolatzen ditu guztira, eta horietatik 709 ikasle, hots, % 86,35eko gehiengoa erdalduna da. Irakasleek 50eko kopurua osatzen dute eta hauetatik 16 bakarrik ditugu euskaldunak, % 32 baino ez.

19. taula: Gasteizko Irakasle-Eskola publikoa (1982-83)

Hizkuntza-izaera	Ikasleak		Irakasleak	
	Kop. Abs	100	Kop. Abs	100
Euskaldunak	112	13,64	16	32
Erdaldunak	709	86,35	34	68
Guztira	821		50	

Bestalde, euskaraz ematen diren gaiak Euskal Filologiari, Historiari eta Literaturari dagozkienak dira, zehazki hauek: Morfologia, Dialektologia, Euskara-Didaktika, Euskal Herriaren Historia eta Euskal Literatura. Euskara ikas-teari, berriz, astean 5 ordu eta erdi eskaintzen zaizkio. Plangintza hau 1983-84 ikasturtean hasita jarriko da martxan.

Euskararen ezagutza Iruñeko Irakasle-Eskola publikoan

Iruñeko Irakasle-Eskola publikoa, Nafarroa guztian bakarra dena, Zaragozako unibertsitate-distritopean dagoena da. Bertan, 20. taulan ikus daitekeenenez, 1.098 ikasle dabilzkigu, honela banaturik: euskaldunak 47ko taldea osatuz eta erdaldunak, berriz 1.051eko kopuru mardul-mardula. Portzentaieetan emanda, % 95,71ko erdaldunen kopuru erraldoia daukagu % 4,2ko euskaldunen kopuru ipotxaren aurrez aurre. Sekulako hizkuntz desoreka da bertan kausitzen duguna. Irakasle-munduan ere, proportzioak guztiz berdinak ez badira ere, antzekoak bai, badira: 44 irakasletatik 7 bakarrik euskaldunak, hots, % 15,90 baino ez. Euskarak, ikasle zein irakasleen aldetik, Iruñeko honetan erakusten du egoerarik txarrena. Bera da askogatik erdaldunena.

Irakasle-Eskola honetan euskarak historia beltza baitu, komeni da zerbait konstatzea. Kontua da, Hego Euskal Herriaren zatiketa administratiboa burutu baino lehen, 1976-77 ikasturtean Nafarroako Foru-Diputazioak Euskararen Katedra sortu zuela eta lan horretarako irakasle bat eta beronen laguntzaileak izendatu zituela. Baina irakasle horietatik inortxok ere ez zuen klaustroan parte hartzeko eskubiderik. Euskarazko eskolak ikas-orduetatik at ematen ziren, azterketarik gabe. Honela, aktarik ez egotean, irakasgai hori ez da agertzen ikaslearen curriculum-espeditentean. Hasieran, ikasle-kopuru handi batek, 350 ikaslek baino gehiagok, eman zuen bere izena, baina ikusirik nolako traktuera administratiboa ematen zitzaion gai honi, hainbatek utzi egiten zion eskola joateari ikasturtea bukatu baino lehen.

20. taula: Iruñeko Irakasle-Eskola publikoa (1982-83)

Hizkuntza-izazera	Ikasleak		Irakasleak	
	Kop. Abs	100	Kop. Abs	100
Euskaldunak	47	4,28	7	15,90
Erdaldunak	1.051	95,71	37	84,09
Guztira	1.098		44	

Ikasleak berriro presioa egin eta egin hasi ziren 1980-81 ikasturtean, euskara borondatezko irakasgai gisa espedientean sar zedin eskatuz. Proposamena onartu zen 1. ikasmailerako eta hemen 96 matrikulatu ziren. Euskarazko eskolak emateko irakasleak, ordea, "bereziak" genituen, zeren hauek, ez Unibertsitatearen, baizik Foru-Diputaziopean zeudenak baitziren. Horregatik, nola irakasle hauek ez ziren unibertsitate-irakasleak, gertatzen zen Filologia saileko ikasleek ezin zutela euskara hautatu borondatezko irakasgai gisa, ingelesa eta frantsesarekin batera.

Azkenik, 1981-82 ikasturtean, Zaragozako Unibertsitateak eta Hezkuntza-Ministeritzak euskara, frantsesaren eta ingelesaren pare, Filologian sartzea onartu zuten. Hori bideratzeko, Foru-Diputazioak bere irakasleak erretiratu zituen eta Unibertsitateak irakasle bat izendatu zuen. Zeuden ikasle guztiak ezin baitzituen artatu irakasle bakar horrek, matrikula ezabatzeko aukera eman zitzaien. Askok ezabatu bazituzten ere, 219 ikaslek aurrera segitu zuten.

Hurrengo ikasturtean (1982-83) Unibertsitateak beste irakasle bat gehiago jarri zuen. Oraingoan ere, euskarazko bi irakasle izan arren, zeuden ikasle guztietarako ez ziren nahikoa. Honela, Foru-Diputazioaren diruz baliatuz, Irakasle-Eskolak ikastaro bat antolatu zuen martxotik maiatzera, kanpotik 6 irakasle ekarritz. Baina, irregulartasunak egon zirela eta, nahi zutenci beren izenak azterketatik eta azken ebaluaziotik ezabatzeko aukera eman zitzaien. Azkenean, guztira, 245 ikasle gelditu ziren.

Hori da euskararen balantzea Iruñeko Irakasle-Eskolan, oztopoz eta zailtasunez jositakoa. Euskarak ezin du biderik egin Filologiako sailean, ezta borondatezko irakasgai gisa sartzeko ere. Zailtasunak eta irregulartasunak agertzen dira alde guztietatik.

Honaino esandakoa laburbilduz, zein ondorio atera dezakegun?

Gipuzkoan, hiru Irakasle-Eskolekin, biharko irakasle euskaldunen prestakuntza dezentte bideraturik dagoela ematen du, batik bat, zentru pribatu horietan, non euskarak erabateko lehentasuna baitu. Donostiako Ategorrietan kokaturiko zentru estatalean ere, irakasleriaren aldetik bederen, urratsik eman da, nahiz eta oraindik % 34,48ko irakasle-plantila hori euskalduntzeko zer egitekorik aski baden. Arazoa da, eta larria bera, erdalduna den % 80,77ko ikasleria hori nola euskaldunduko den. Hizkuntz politika egoki baten arazo sakona daukagu hor, beharrezko neurriak hartzen ez badira, lortuko diren emaitzak ere nolabaitekoak izango baitira.

Beste herrialdeetan, euskararen egoera larria baino larriagoa da. Eta guztietan larriena, berriz, Nafarroan ematen da, eta ez, noski, bera delako erdaldunena, baina bai, ziurki, EAEük banandua gelditzean, bereizkeria garbia nozitzen delako. Hemen erdaldunen kopurua izugarri garaia da ikasleen eta irakasleen artean, bietan chunetik 85-96 bitartekoa. Herrialde honetan egin beharreko ahaleginek benetan ohiz kanpokoak izan beharko dute, baldin euskara biziko bada.

Bestalde, Arabak Bizkaiari aurea hartzen dio ikasleriari dagokionez, hark % 13,64 euskaldun dituen bitartean, honek % 9,63 besterik ez baititu. Halere, ezin-go da esan erdaldunen kopuru-portzentaia, -kasurik onenean bietan % 86tik gorakoa dena-, kezagarria ez denik. Eta alderantziz, irakasleriari dagokionez, Bizkaiko egoera zertxobait hobea da Arabakoa baino, baina ez asko, 2,54ko puntu-diferentzia ez baita nabarmentzekoa.

Euskararen eta euskarazko irakaskuntz antolaketari dagokionez, badirudi Deustuko Irakasle-Eskolak azpiegitura landuagoa duela Gasteizkoak baino, Bilbon irakasle-ikasketak euskaraz egiteko modua baitago eta Gasteizen, aldiz, ez. Diferentziak diferentzia, garbi dagoena da hartutako neurriak oraindik ere aski ahulak direla edo ez, bederen, behar bestekoak lortu nahi den helburu nagusia lortzeko, zeina baita Irakasle-Eskola horietan biharko irakasle euskaldunak prestatzea. Puntu honi ekingo diogu segidan.

3. Euskal eskolaren funtsezko helburuak

Ez baitago eskolarik irakaslerik eta ikaslerik gabe, horregatik jardun dugu hain luze talde horietako bakoitzaren euskararekiko egoera soziolinguistikoa aztertzen. Diagnostika egin ahal izateko beharrezko urratsa zen, baina ez nahikoa. Irakaskuntza ez-unibertsitarioa erakunde jakin batean gauzatzen denez gero, bidean datozkigun euskal haur guztien euskarazko hezkuntza bideratuko duen eskola-mota hori nolakoa nahi dugun alde zuretik zehazteak ezinbestekoa dirudi, orain, batez ere, aro politiko berri bati ateak ireki zaizkionean.

Jarraian, bada, euskal eskolaren ezaugarriak funtsezkoenak aipatzera pasatuko gara.

Eskola nazionala

Hemen "nazional" adjektiboa darabilgunean, hitz honek politikan duen zentzu hertsian ulertzen dugu. Beraz, Euskal Herria, naziotasunaren aldetik zapalduarik daukaten bi Estatu-nazioen kontrako askapen nazionalaren aldeko borrokan sartuta dagoen herri gisa gogoematen da, zeina, bide batez, eskola "nazionalaren" eraikuntza prozesuan barneratua aurkitzen baita. Gu orain gauden fasean, gurean dauzkagun eskola-mota guztiak, publikoak nahiz pribatuak, guztiak Estatu espainolaren eta frantsesaren menpeko eskola nazionalak dira. Nazionalak, bai, baina espainolak eta frantsesak. Euskal Herriko irakaskuntza osoan, beronen punturik erabakigarrietan, Madrilko Administrazio zentralak agintzen du eta ez Gasteizko gobernu autonomikoak. Hura da jaun eta hau morroi. Honek ez du ahalmenik ez bere funtzionariak edukitzeko ez ikasketen programaziorik egiteko.

Madrieko Gobernuak transferitu dizkionak, lehendik euskal lurraldean kokatu zeuden horietan, alegia, dira Gasteizko Gobernuaren funtzionari bakarrak. Areago oraindik: EAEko Gobernuak oposizioetarako egindako dei publikoak Madrieko Administrazioarekin negoziatuak izan dira. Ez du funtzionarietarako oposizio publikoak aldarrikatzeko aski autonomiarik. Eta honen guztiaren ondorioz, orain oposizioak ateratzen dituztenek ere Estatu espainolaren funtzionari izanez segitzen dute oraindik ere. Funtzionari hauek, hori bai, Eusko Jaurlaritzari transferitutakoak dira, baina Gobernu zentralarenak izanez segitzen dutenak.

Labur esanda: Euskal Herriko eskolen egiazko kontrola estatu-mailatik datorkiguna da eta, Eusko Jaurlaritzak eskola publikoetan nahiz pribatuetan zer eginik ez daukanez gero, ez da harriztekoa bere ezintasun mozorrotu horretan ikastolak kontrolatu nahi izatea. LOAPA, LODE eta antzeko lege-proiektuak, —eta oraindik etorriko direnak—, boterean dagoenaren komenientziara ezarriko dira. Orain eta gero. Autonomia “maingu” guztien gainetik.

Horregatik, hor goian azpimarratu dugun ikuspuntutik begiraturuta, ez da zuzen esana esaten denean, alegia, eten politikoa proposatzen duten talde politikoek ez dutela boteretik eta, beraz, hauek aldarrikatzen duten alternatiba (EEPA) ez dela baliagarria. Bere jardunbidea instituzioetan kokatzen ez duen politikagintzaren eraginkortasuna ezdeusa dela juzgatzen bada, politika instituzionalaren goren adierazpena den Eusko Jaurlaritzarena oraindik ezagoa dela esan beharko da, zeren, —beti ere euskal nazionalismoaren ikuspegitik begiraturuta arazoituz—, lortu beharrekoak lortuak baititu eta, honela, behingoz hipotekaturik utzi baitu euskal eskola nazionalaren aldeko herri-borroka. Zentzu honetan, bada, irakaskuntzaren mailan botere autonomikoarekin zein estatalarekin egindako edozein paktu, errealitate politikoaren zolara joanda, haiek ezartzen dituzten neurri koiunturalen arabekoak izango dira. Alderdi estatalistak, —kasu honetan PSOE—, ez daude beren eskola nazionala (espainola) galtzekotan. EIKE-EEPPA arazoa plazaratu zenean, garbi adierazia utzi zuen puntu hau Hezkuntza-Saileko Manuel Huertas Vicente arduradunak, esatean: “Es hora de que quede superado el sentido de escuela nacional vasca de cualquier signo o condición, porque ella entraña supeditación y dirigismo, tanto administrativo como político”²⁶.

Garbiago ezin esan esatekoa. Horregatik, Euskal Herriaren proiektu nazionalak erdiz erdi zeharkatzen badu gaurko politika instituzionala, —funtsean espainola dena—, arrazoi berregatik zeharkatu beharko luke irakaskuntza mailan eramaten dena ere. Etena, beraz, beharrezkoa da, ez bakarrik politikan, baita hezkuntzan ere. Ikuspuntu hau gogoan hartu behar da euskarazko irakaskuntzaren geroa planteatzeko orduan.

²⁶ *La Voz*, 20-07-1983

Eskola euskalduna

Ez da nahikoa eskola nazionala nahi dugula esatea. Euskalduntasunak gure gizarteari hizkuntzaren aldetik datorkion marka berezia eransten dio. Horregatik, “euskal eskola” esaten denean, ongi zehaztu behar da hitz horren bidez zer esan nahi den, zeren, zoritxarrez, zorioneko “euskal” hau era askotara uler baitaiteke. “Nazionala” eta “euskalduna”, gure kasurako, kontzeptu osagarriak dira, baina ez gauza bera: batek eduki politikoa du, besteak etnikoa.

Gure hizkuntza nazionala euskara da eta horregatik nahi dugu irakaskuntza guztia euskaraz izatea. Gure herri-nortasuna ezaugarritzen duena euskara baita, bidezkoa da euskal kulturalaren eremu zabala euskararen bidez adieraztea. Eta Euskal Herri euskalduna diogunean, euskal lurralde osoa esaten dugu, Iparra nahiz Hegoa, beren hizkuntza galdua duten lurraldeak barne direla: Araba, Nafarroako Erribera, Bilbo eta inguruak, Baiona eta kostaldea. Eta abar. Euskal Herri osoa euskalduntzeko helburuak huts egiten badu, nazio-askapenaren aldeko borrorak galdurik duke bere izateko arrazoirik oinarritzakoa.

Helmuga horretara joateko zein bide hartu behar den, prozedurarik egokiena zein den, eta horrelako galderak, zailegiak dira hemen, besterik gabe, horiei erantzuten hasteko. Nolanahi ere, saiatuko gara gero proposamen batzuk egiten.

Eskola publikoa

Publikoa, berez, pribatuari kontrajartzen zaio. Eskola publikoek nahiz pribatuek euskal eskola nazionalak eta euskaldunak izan ezinik ez dute. Publikotasuna, hitzaren zentzu hertsian, irakaskuntzaren antolaketa administratibopolitikoari dagokion zerbaít da.

Eskola publikoak eta pribatuak dauden erregimen politikoetan, normalean, haiek langileriarenak eta hauek burgesiarenak direla esan izan da. Eskola publikoaren eta pribatuaren arteko gizarte-zatiketa honetan, bereziki, klaseartekoari dagokiona sartzen da elementu determinatzaile gisa. Hori horrela izanda, bi arrozoi hauengatik gaude, batik bat, eskola publikoaren alde:

Lehenik, herriko ikasle guztientzako aukera-berdintasun berbera nahi dugulako. Guztientzako aukera berberak, diogu, zeren eskola pribatuak egiten duena, hain zuzen, horixe baita: “bere” eskola egin, diruaren truke.

Bigarrenik, ikasle-gehiengoa non, gure etorkizunaren gakoa han dagoelako. Eta lehen ikusi dugun bezala, gure herrian gehiago dira eskola publikoetan dabiltzanak.

Eskola doakoa

Hau dugu funtsezko beste baldintza bat. Irakaskuntzak, berau herri baten ondasun publikoa denez gero, doakoa izan behar du eta ez klase dirudunari bakarrik atxikia. Euskarazko irakaskuntzaren kasuan ikastolek pairatu duten mota guztietako ustiapena hain grabea eta hain luzea izan da, ezen garaia baita gure eskubideak kaleratzen has gaitezten. Dirua nonbaitetik atera behar eta, behin eta berriro gurasoen poltsikoak sakatzen dira. Gaurko ikastola gehienen larritasuna, beste arazo askoren artean, ordaindu behar dituzten mailegu eta zorretatik dator. Doakotasuna diogunean, bada, zor eta diru-hipoteka guztietatik libratzeaz ari gara. Hor barruan sartzen dira, besteak beste, ikastolen oraingo zorrak, orain arte herri-borondatearen eta gurasoen kontura inbertitua izan denaren kapital-itzulketa, gaur ikastolak mantentzea kostatzen dena. Hezkuntza zerbitzu publikoa denez gero, doala dena erakunde publikoen gain, hizkuntzarengatiko bereizkeriarik egin gabe.

Eskola demokratikoa

Gizarte demokratiko bati dagokionez, gizarte-bizitzan bezala ikastetxeetan ere, askatasun demokratikoak errespetatzea eskatzen da. Errespetatzea, bereziki, irakaskuntzaren prozesuan zuzenean edo zeharka parte hartzen dutenen jokabidea eta ikuspegia. Ikasleak, irakasleak eta gurasoak, batez ere, hauek baitira hezkuntza-komunitateko egile nagusiak, hauen eskubideak berdintasunean aintzat hartzea eskatzen du demokraziak. Printzipio honek, praktikan, zera eskatzen du: irekia izatea kudeaketaren aldetik, irekia pentsakeraren aldetik, irekia pedagogiaren aldetik. Irekia zentzu horietan guztietan, baina, aldi berean, herrian errotua.

Sare bakarrekoa

Irakaskuntza ez-unibertsitarioa euskalduntzeko proiektua borroka nazionalaren barruan kokatzen bada, euskal geografian dauden eskola-motak oro hartu beharko ditu bere gain: publikoak, pribatuak eta ikastolak. Euskarazko eskola nazionala ezin izan daiteke gaur den bezalakoa: zatitua, hots, bakoitza bere aldetik dabilena. Ezin dute euskaldunek eta erdaldunek talde gisa elkarrengandik bananduta segitu. Eskola nazionalak sare bakarrera bildu behar ditu bai ikastolak eta bai beste guztiak plangintza orokor baten barruan. Sare bakar baten beharraz ari gara hemen, horretaz, batez ere, ez hainbeste beraren nolakotasunaz, zeren eskola-mota guztiak sare bakarrera biltzeak alde aurre-

tik egitarau zehatz bat mamitzea eskatzen baitu, euskarari kalterik etor ez dakion. Hain zuzen ere, sare bakarreko eskola horrek, zerbait izatekotan, euskalduna izan beharko du. Hala ez izatekotan, ez du balio. Horregatik, sare bakarra lortzeko prozesuak euskarazko irakaskuntzaren garapena bermaturik eduki behar du.

Hara hor formulatuta hemen euskal eskola zertzen duten elementu batzuk, gure ustez, garrantzitsuenak. Badugu irudipena, batez ere azkenaldiotan, aldarrikapen asko egin dela eskola publikoaren alde, eskola demokratiko eta pluralista baten alde, baina ez neurri berean eskola nazionalaren eta euskaldunaren alde. Eta irakaskuntza ez-unibertsitarioaren mailan gaur daukagun kontraesan nagusia, hain zuzen, eskolaren naziotasunean eta euskalduntasunean datza. Dirudenez, inork gutxi du eskolaren publikotasuna onartzeko zailtasunik. Baina, alderantziz, euskarazko irakaskuntza nazionalaren defentsan borrokatzeko gertu daudenak ez dira hainbeste. Hementxe aurkitzen da gaur horrenbeste eztabaidatzen den ikastolen arazoaren gunea. Helburuak ongi markatuta nora goazen garbi ikusten badugu, zalantzarik gabe, oztoporik handienetako bat gaingidurik genuke, zeren, baldin hara heltzeko borondate kolektiborik eta, azken finean, politikorik bada, bidegintzak berak elkartuko baititu alternatiba honen aldeko partaideak.

4. Hezkuntza elebidunaren mugak

Helburuak finkatu ondoren, jadanik politika elebidunaren inguruan lehen azterketa soziolinguistikoak argitaratzen hasiak baitira haren emaitzak aztertuz eta baloraturaz, azpisail honetan datu horien gainean gogoeta kritiko batzuk egiten saiatuko gara. Errepassoaren joanaldia, irakaskuntza ez-unibertsariotik hasi eta, Irakasle-Eskoletan bukatuko dugu.

Irakaskuntza ez-unibertsitarioan

Hezkuntza elebidunak jadanik pauso batzuk emanak ditu irakaskuntza ez-unibertsitarioan. Bere bide laburrean erdietsi dituen emaitzak ere ezagutzen ditugu, lehen zatian zehaztasunez azaldu bezala. Hemen, emaitza horiek aurrean, ohar kritiko batzuk egiteko askatasuna hartuko dugu, nahiz eta oraindik erabateko ondorioak ateratzeko goizegitzo den.

Metodo soziolinguistikoa aplikatuz, euskara irakaskuntza ez-unibertsitarioan eta, orobat, ikastoletan zein egoeratan dagoen aztertu berri digute. Medikuntzan erabili ohi den terminologiaz baliatuz, euskarak irakaskuntzan bizi duen egoeraz diagnosi antzeko zerbait eman dute han-hemen argitaratutako lan partzialek. Atera dituzten ondorioak nolakoak diren?

Zehazki ikastoletako egoerari dagokionez, oso txarrak. Negatibo hutsak.

Eredu berri batzuen arabera nahitaez hobetu beharrekoak. Goitik eta behetik, ezker-eskubi, askotan elkarren artean batera ez datozen hainbeste zifra metatu ondoren, funtsera joanda, hauxe esaten zaigu: hots, ikastolen eboluzioan, azken urte hauetan, hain zuzen, hizkuntzaren aldetik okerrerako jauzi koalitatiboa nabari dela, euskararen ezagutza eta beronen erabilera gero eta eskasagoa dela. Honen errudun nagusia, esaten denez, ikastoletan orain arte aplikatua izan den hizkuntz ereduari dagokiona da, gaiak euskaraz bakarrik irakatsi nahi izatearena, alegia.

Ikastoletan elebarreko eredia aplikatu izanak, espreski esaten denez, bi gaitz ekarri ditu euskal irakaskuntzaren mundura: batetik, traumatismoa haur erdaldunengan eta, bestetik, hizkuntz pobrezia. Elebakartasunaren eredia aplikatu izanean datza, bada, okerra eta, ondorioz, horren ingurukoa da zuzendu beharrekoa. Horregatik, aipatutako gaitz horiek ikastolen gorputz orokorrean zehar areago zabal ez daitezzen, orain arteko murgilketa-metodoari uko eginik, eredu laukoitza proposatzen da, zeina A, B, D eta X ereduetan zehazten baita. Hezkuntza elebidunak aukera hori eskaintzen du, gurasoek horietako bat hauta dezaten. Horrela jokatzuz gero, —hau ere esaten da—, hizkuntz eskubide pertsonalak bermatzen dira eta, aldi berean, irakaskuntzako hizkuntz politikak eraginkortasun pedagogikoan irabazten du. Laburki esanda, demokraziaren lege proportzionalak aplikatzen dira gizartean bezala hezkuntza-sisteman ere.

Alderantziz, ikastoletako eredu elebarkarrean ez bezala, hezkuntza elebiduna irizpide arautuen arabera aplikatzen den ikastetxeetan emaitza onak jasotzen dira. Eusko Jaurlaritzako Gizarte-Azterketarako Lantaldeak Jose I. Ruiz Olabuenagaren zuzendaritzapean egindako lan luze eta zehatzean²⁷, Eskolaurreko eta OHoko ikasmila bakoitzean hizkuntz ereduaren egoera 1982-83 ikasturtean zein den azaltzen da portzentaietan. Bertan EAEko datuak bakarrik jasotzen dira, ikastolak barne hartuta, eta egileek ondorio optikistak ateratzen dituzte:

“Eskolaurreko eta OHoko ikasmila bakoitzean eta guztietan garaile den eredia A eredia da, non euskara asignatura bezala bakarrik sartzen den; ez dugu oraindik benetako ikasketa-emaitzen berririk. Goiko mailetatik behekoetara jaitsiz goazen neurrian, B eta D ereduaren diharduten gela proportzioa gehituz doa; honek, azken urteotan irakaskuntza elebiduna eta euskarazkoa gero eta gehiago sartzen ari dela erakusten du. Bereziki ohartzekoa agertzen da B ereduak azkeneko 3 urteotan duen goraka progresiboa. Arrazoizkoa dirudi, B eta D ereduak euskaldun osoak sortuko dituztela espero izateak. Aurrikuspen hau batez ere, eta datu hauen arabera, bere lehen mailako ikasketak sei urte barru amaituko dituen belaunaldiko euskaldun-tasa, lehen aldiz gure historian, euskal populazio osokoaren berdina edo handiagoa izango da.

²⁷ “Euskararen borroka”, *Jakin*, 26-27, 1983, 15-258.

Honek esan nahi du, funtsezko aldaketa bat gertatuko dela orain arte ohartutako joeran: belaunaldi gazteenak, tartekoak baino euskaldunagoak izango dira. Hezkuntz sistemaren ekarpen honek gehituz jarraitzen badu eta komunikabide sozia- len (telebistaren, irratia- ren eta prentsaren) laguntza hartzen badu, erdaldun familieta- ko euskaldunei euskaraz bizitzeko ahalbidea emanaz, belaunaldi bat edo biren barruan segurta liteke euskararen superbizipena”²⁸

Transkribatu dugun testu luze horretako mezua irakurrita, garbi dago opti- mismorako deia zabaltzen dela hor. Belaunaldi-pare baten buruan ziurtatua date- ke euskararen geroa.

Joseba Arregik ere, lehen aipatutako artikuluan²⁹, hezkuntza elebidunaren emaitza estatistikoak portzentaietan kaleratzean, B eta D eredu- en aldeko despla- zamendua nabarmentzen du:

“La diferencia del reparto de porcentajes entre el total de alumno (EGB, FP y BUP) y los alumnos de EGB sólo, indica que hay una dinámica de desplazamiento: Los alumnos sin modelo se reducen en un 4%, los del modelo A en un 1%, el modelo B crece en 2% y el D en 3%. Esta dinámica de desplazamiento hacia los modelos B y D se ve aumentada en gran medida si se toma como punto de referencia el reparto de modelos en los primeros cursos de EGB”.

Bi testu horiek merezi dute gure aldetik iruzkinik. Kontuan hartu beharreko lehen puntua da iturri biak leku beretik datozenak direla: Eusko Jaurlaritzatik, alegia. Bietan, bada, politika elebidunaren arrakasta azpimarratzen da. Jakin-eko testuak “goiko mailetatik behekoetara jaitsiz goazen neurrian, B eta D eredu- tan diharduten gelen proportzioa gehituz” doala dio eta, beraz, irakaskuntza elebidu- na ikastetxeetan gero eta gehiago sartuz joango dela. Joseba Arregi ere antzeko zerbait esatera dator. Batetik, BBB, LH eta OHOkoko ikasleak batera hartuta eta, bestetik, OHOkokoak bakarrik elkarren artean konparatuz gero, ateratzen duen ondorioa da desplazamendu-joera nabari dela B eta D eredu- en alde, hots, A ere- dukoak eta “Euskararik ez” sailekoak murriztuz doazela OHOkoko lehen ikasmai- letara hurbiltzen garen neurrian. Eta diotena, zentzu horretan, egia da. Gure kal- kuluen erreferentzi puntu gisa Jakin-eko portzentaiak oinarritzat hartuta³⁰, geure modura antolatutako dugun 21. taulan ageri denez, B eta D eredu- en portzentaiak han- dituz doaz goiko mailetatik behekoetara irakurtzen ditugun neurrian: hots, OHOkoko 8. ikasmailan % 11,4koa dena, EAko 1. ikasmailan % 46,6koa da. Era berean, X eta A eredu- etako ikasmailen irakurketa behekoetatik goikoetara egiten bada, berriz, bi eredu horien batuketak portzentai- a nagusiago agertzen du

²⁸ *Ibid.*, 96-97.

²⁹ “Sobre la euskaldunización de la enseñanza”, *Deia*, 1983.

³⁰ *Jakin*, 26-27, 1983, 96.

OHOko 8. ikasmailan EAko 1. ikasmailan baino, hurrenez hurren, % 88,6tik % 53,3ko diferentziarekin.

21. taula: Hizkuntza ereduaren eboluzioa EA eta OHOkoko ikasmailen arabera 1982-83)

Ikasmailak	Mailak	Hizkuntz ereduak					B + D
		X	A	X + A	B	D	
EA	1	14,5	38,8	53,3	23	23,6	46
	2	12	44,2		20,6	22,6	
OHO	1	13,7	49,3	63,3	15,2	21,8	30,6
	2	14,2	56,8		10,9	18,2	
	3	14,3	60,2		6,9	18,6	
	4	17	62,4	79,4	4,4	26,2	37
	5	19,9	62,9		3	14,2	
	6	22,2	63,2		3,2	11,4	
	7	23,1	63,9		3	10,1	
	8	26,4	62,2	88,6	2,4	9	11,4

Kontua da, goranzko joera gorabehera, OHOkoko azken ikasturtea bukatu eta BBBn bere ikasketak euskaraz egin ditzakeen ikasle-kopurua % 11,4koa dela. Eta egoera hau, bere hotsasun latzean, ez da batere kontsolagarria eta, bai, tristea. Desplazamendu koxkor baten izenean eta gainean ezin daiteke hainbeste esperantza hain merke saldu.

Ez hori bakarrik, zeren ez baita esaten lehen aurrikuspen hori kasurik onenean oinarriturik dagoela. Izan ere, hor gauza gehiagi suposatzen da, hala nola: a) B ereduaren arabera eskolatzen diren guztiak beren ikasketak euskaraz egiteko gaiturik daudela; b) hezkuntza-errealitateak estimazio koantitati-boen arabera funtzionatzen duela; c) OHOkoko ikasketak bukatzen dituzten guztiak BBBko ikasketak hasiko dituztela; d) B eta D ereduaren aldeko joera, ikasmailaz ikasmaila, beti lineala izanen dela. Hemendik seizazpi bat urtera emaitzak aurrean eduki arte, ez dagoke deus frogaturik. Oraingoan, aipaturiko lau puntu hauek ikusteke daude, aurrikuspen hutsak dira, ez gehiago. Guk, besterik nahiko genukeen arren, arras erlatibizaturik ikusten ditugu hipotesi horiek eta, zentzu honetan, bide horretatik joanez gero, optimismorako baino pesimismorako arrazoi gehiago dakusagu.

Kontuan hartzen badugu A ereduak ez duela ezertarako balio, ez bada elebitasunaren aurpegia ikastetxe publikoetan eta pribatuetan nolabait justifikatzeko, ondorio garbi honetara heltzen gara: de facto, oraindik gaur, euskarazko irakaskuntzaren zutabe nagusia, ia bakarra, D eredu da, zeina ikastoletan ziurtatzen baita.

Bestalde, euskararen inguruko eztabaida honetan guztian bitxia gertatzen dena, zera da: hezkuntza elebidunari buruzko arautegia gauzatzen hasten den

unean, —eta aurretik ere, bai—, auzitan daudenak ikastolak direla eta ez, itxura batean hala izan beharko zukeenez, beste eskola erdaldunak. Autonomi legerian formulatua datorren bezala, irakaskuntza ez-unibertsitarioa burutzean ikasle guztiek hizkuntza biak, gaztelania bezala euskara, menderatu behar badituzte, galdetu beharko da ea eredu horiek zinez era berean baliagarriak ote diren helburu hori lortzeko. Gure hipotesia da, eredu horien ezarpenean agintzen duten irizpideak ez direla inola ere soziolinguistikoak eta pedagogikoak, garbiki politikoak baino. Orain arteko emaitzen bidez egiaztatu ahal izan den bezala, legez hezkuntza elebidunean aitortzen zaion helburua, izan, aldarrikapen formal hutsa da.

Hizkuntz erduei buruzko politikan ezkututzen den jokabide maltzurraz jadanik luze jardunak gara Egin-ek EKBren sinadurarekin 1983ko martxoan eta apirilean argitaratutako artikuluetan eta ez daukagu han esanak orain hemen errepikatu beharrik. Hori bai, artikuluko horiek, nahiz eta lehenago idatziak izan eta orain lehen atalean etorri³¹, testuinguru honetan kokatzen dira.

Irakasle-Eskoletan

Duela 5 urte, 1979an, euskarak Irakasle-Eskoletan zeuzkan premia larriei erantzun beharrez, proposamen batzuk markatu zituen Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza-Sailak. Proposamen hauek behin-behinekoak ziren eta epe erdirako pentsatuak zeuden, pausoz pauso aplikatu beharrekoak. Aipatutako proposamenok, laburtuz, Euskal Filologia eta Euskara oinarritzko irakasgai gisa ezartzera eta irakasle euskaldunak kontratatuzera mugatzen ziren.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiru Irakasle-Eskola publikoetan Euskal Filologiaren espezialitatea irakasgaien artean sartzera eta sail honi dagozkion gaiak, gaztelania izan ezik, euskaraz ematea, helburu hau lortu da eta jadanik martxan dagoen errealiategia dugu. Nafarroa ez baita EAEkoa, hemen bada, izan, zailtasunik ugari.

Euskara oinarritzko irakasgai gisa ezartzeak, bestalde, Euskal Filologia hautatzen duten guztiek euskarazko eskolak hartzea inplikatzeko du. Eskola hauek bi maila desberdinetakoak izatea proposatzen zen: bata erdaldunentzat, hauek euskara ikas zezaten, eta bestea euskaldunentzat, hauek alfabetatu zitezaten. Astean 4 ordu eman behar zituzten eta urtean, guztira, 300 ordu. Hizkuntza bat ikasteak 500 ordu inguru eskatzen dituela suposatuz, ikasketen bukaeran faltako ziren 200 ordu horiek gero kanpoan egindako ikastaro trinko batzuen bidez osatu beharko ziren. Plangintza hau aurrera eramateko, jarraiko irakasle-kopuru honen beharra kalkulatu zen: Deustuko Irakasle-

³¹ Hitzaurtean esan bezala, artikuluko horiek liburu honetako lehen atalean biltzen dira.

Eskolan 16 irakasle, Donostiakoan 10 eta Gasteizkoan 6. Euskarazko eskolak hartu nahi ez dituen ikasleak instantzia bat bete behar zuen eta, baldin eskabidea onartua bazen, borondatezko irakasgai baterako izena eman eta irakasgai hori gainditu egin behar zuen.

Ez dakigu, egia esan, proposamen hauek zein neurritan aplikatu ziren, baldin aplikatu baziren. Dakiguna da, euskararik jakin gabe sartu zirenak, sartu bezala atera zirela: lehen bezain erdaldun izanez. Euskaldun bakarrak hasierako euskaldun garbiak gertatzen dira ikasketen bukaeran. Beraz, euskara oinarrizko irakasgai gisa (kasurik onenean) edota borondatezko gisa (kasurik ahulenean) proposatzeak emaitza ustelak ekarri ditu.

Hirugarren puntu gisa, beren ikasketak euskaraz egin nahi dituzten ikasle euskaldunen arrazoizko kopuruaren arabera, irakasle euskaldunak kontratatzea proposatzen zen. Kasu honetan, hein batean, euskararen aldekoa izan da prozesua. Hiru Irakasle-Eskola publiko horietan, 1979-80 ikasturtean, irakasle euskaldunen kopurua zein zen jakiteko modurik ez dugu izan eta ezinezkoa gertatzen zaigu gaurko egoerarekin konparatzea. Datu konparatzaile-rik ez badugu ere, egoera hobetu delakoan gaude, zeren, lehen esan bezala, 1982-83 ikasturtean, Donostiako Irakasle-Eskolan % 64,51 baitziren euskaldunak, Deustukoan % 34,54 eta Gasteizkoan % 32. Dena den, lortua lortu, oraindik asko dago egiteko alor honetan, irakasle gehienak erdaldunak baitira Gasteizen eta Deustuan. Eta Irakasle-Eskolen helburua geroko irakasle euskaldunak prestatzea baldin bada, hori lortzeko bertako irakasleak oro euskaldunak izatea da bidezkoa, ezinbestekoa ez esatearren. Euskaldunak, gainera, bi baldintza hauek beteko dituztenak: euskaraz normaltasun osoz hitz egiteko eta beren jakintza saila euskaraz emateko gai direnak. Igaroak dira orduandantik 5 urte eta oraindik oso urrun aurkitzen gara helburu horretatik.

Eta Irakasle-Eskoletako ikasleak, zer? Irakasleak euskaldunak izatea oinarrizko baldintza baldin bada, lehen urratsa, alegia, horrekin batera dator, halaber, ikasle erdaldunak euskaldun bihurtzeko bitartekoak ezartzearena. Irakasle-Eskola publikoen kasuak gidaritzat hartuz gero, daukaguna da, 1982-83 ikasturtean, ikasle erdaldunak % 80,77 direla Donostian, % 86,35 Gasteizen, % 90,36 Deustuan eta % 95,71 Iruñean.

Portzentaia izugarri garaiak dira horiek guztiak. Irakasle-Eskola publiko-etara doan ikasleria, ia osorik, erdalduna da. Gauza jakina da 1979-80 ikasturterako hartu ziren erabaki haiek, arestian aipatu ditugun horiexek, indarge gertatu zirela eta ez zela egiazko orekarik ematen lortu nahi zen helburuaren eta proposatzen ziren neurrien artean. Ikusirik bide hori antzua zela, 1982-83 ikasturtean, lehengo haren konparazioan errealistagoa dirudien esperientzia berri bati ekiten zaio, zeinaren arabera ikasturte-hasieran 100 orduko ikastaro trinkoa emango baita eta gero, astero, 4 orduko eskolak. Oraindik ikusteko gaude bideratu berria den eredu honen ondorioak nolakoak izango diren.

Goizegi da datuak jaso eta ebaluatzeko. Baina garaiz gabilta lehengo esperientziaren ondorioak ateratzeko, eta da 1982-83 ikasturtean esperientzia berri bat bideratu beharrak, besterik gabe, 1979-80 ikasturteko proposamen haien porrota frogatzen duela.

Hartu berri diren neurri hauek aski izango al dira? Galdera honi hurrengo azpisailean erantzungo zaio.

Azpiatal honetan esanak nolabait laburtuz, hauxe esango dugu: erreformak elebitasunaren bidez hartu dituen neurriak, bai irakaskuntza ez-unibertsitarioan bai Irakasle-Eskola publikoetan, arras epelak direla eta inola ere ez direla nahikoak euskararen beheranzko joerari ez eusteko eta ezago hari gain hartzeko. Konstatazio-mailan gabilta hemen eta ez ametsetan. Ondorioa zein den? Euskararen superbizipenak beste neurri batzuk eskatzen dituela, dudarik gabe errotikoagoak. Nolakoak zehazki? Galdera honek, —zalantzarik gabe orain arte egindakoetan zailenak—, beste azpiatal bat irekitzea eskatzen du.

5. Plangintza eraginkor baterako lehen zirriborroa

Orain arteko proposamen guztien porrota ikusi ondoren, euskarari gelditzen ote zaio irtenbiderik irakaskuntza ez-unibertsitarioan? Ikastolek zein leku ote dute prozesu horretan?

Galdera hauen erantzuna jadanik alternatiba gisa plazaratua dago eta alderdi politikoei, sindikatuei eta euskal kultur mugimenduek beren jarrerak agertuak dituzte EIKE nahiz EEPAREN inguruan. Eguneroko politikagintzak markatzen duen dinamikaren gurpilean bideratzen da alternatiba nagusi horien arteko borroka.

Esanik daukagu zein diren euskal irakaskuntzari egotzen dizkiogun helburu estrategikoak. Eskola nazionala, euskalduna, publikoa, doakoa, sare bakarrekoa izatea. Hauek dira helburu aitortuak.

Nola heldu helburu horietara? Zein ote dira biderik egokienak? Puntu honi buruzko geure proposamenak aurreratzeko orduan, bi bide erabiliko ditugu. Hasieran, nondik ez genukeen abiatu behar esango da eta, gero, inondik joatekotan, nondik joan gintezkeen zehaztera pasatuko gara. Lehenengo bidea, bada, ezezkoarena da; bigarrena, aldiz, baieztatuarena.

Tesi onartezinak

Gure proposamenak aurreratu baino lehen, gure ustez zer ez litzatekeen egin behar esango dugu. Honetaz hona hemen bi baieztapen tesi gisa formulatuta:

Lehena: Euskal ikasleria ezin da bitan zatituz segitu.

Eta hemen zuzen-zuzenean EIKE aurreproiektuaren kontra goaz, hizkuntzagatiko diskriminazioarekin hautsi behar delako. Ezin da onartu irakaskuntza sare bitan banatzea: batetik, euskarazkoa eta, bestetik, erdarazkoa, hezkuntza-sistema osoa baita euskaldundu behar dena.

Euskal irakaskuntza bitan zatitzeak bistako ondorio negatiboak ekarriko lituzte:

Bat: Euskal Herria bere osotasunean euskalduntzeko asmoak hasieratik bertatik porrot eginda geldituko lirakeke, zeren, ikaseredu bakoitza bere ghetoari eustera behartzen bada, gizarteko indar-erlazioen arabera kalterik besterik ez baitletorkioke euskarari. Zergatik? Erdarazko eskolek euskararekiko erantzukizuna bere gain ez hartzean, ikastolen hedapenerako ahalbidea gero eta ahulagoa izango litzatekeelako. Bide honetatik, orain agonia eta laster heriotza letorkioke euskarazko irakaskuntzari.

Bi: Euskal Herria euskalduntzeko beharrezkoak ditugu herrikide guztiak eta, bi hizkuntz komunitate sortuz gero, erdaldunak baztertuta geldituko lirakeke alde zurretik euskalduntze-prozesutik. Berez, baldintza batzuk betez gero, noski, eskolatze-adinean dauden haur guztiak dira euskaldun-gai Euskal Herriko edozein lekutan, Tolosan bezala Bilbon edo Tuteran. Eta aukera hori ez zaio inori ukatu behar eta, bai, bide egokienak eskaini. Aukera hori gauzatzeko modurik eskaintzen ez bada, euskaldunen eta erdaldunen arteko dikotomia betikotzeko arriskua gero eta larriagoa izango da.

Hiru: Erdarazko eskolek, ikastolei buruz izan ditzaketen aurreiritziengatik, hizkuntzaren aldetik kontraeredu gisa ikusten badituzte, nekez bereganatuko dute irakaskuntza euskaldundu beharraren kontzientzia. Alderantziz, eta erreakzioz, erdararen apologistarik gartsuen ere bihur litezke.

Bigarrena: *Eskola publikoaren izenean gaztelaniaren euskararekiko asimilazio-prozesua ezin da onartu.*

Eta hemen beste ertzeko arriskuaren kontra goaz. Lehen esan bezala, euskarazko eskola nazionala, publikoa eta sare bakarrekoa nahi dugu. Bestela esanda: orain dauzkagun eskola-motak (ikastolak, eskola pribatuak eta estatalak) bateratuz joango den eskola nahi dugu. Baina kasu! Batasun hori egiteko orduan, zuhurtziak oro gutxi izanen dira. Horregatik, oraintxe bertatik, bi arrisku handi alboratu behar dira.

Lehena, ikastolak gheto bihurtzea da. Bestela esanda: makalduz doan ikastolen hazkunde-erritmoa kontuan hartuz, gaur egun ikastoletan dabilen 62.230eko ikasle-kopurua noizko helduko da 525.750eko kopurua lortzera? Noizko euskara galdua duten lurraldeetan? Sekula ez! Bide galdua da hori.

Bigarrena, *ikastolak, behar hainbesteko bermerik gabe, eskola transferituetan integratzea* da. Bestela esanda: guztira 26.688 irakasle baldin badira eta horietatik 1.867 bakarrik (% 7) euskaldunak, nola eta noizko euskaldunduko da gehiengo handi-handia osatzen duen irakasleria erdaldun hori? Bestalde, irakas-

le euskaldunik gabe ez da posible euskarazko irakasletza, egurrik gabe ezpalik ez dagoen bezalaxe. Ikastola guztiak eskola publikoan sartuko balira eta, kasurik onena pentsatuz, orain duten nortasun bera errespetatzeko baldintzarekin onartuak izango balira ere, orduan ere euskararen arazoak lehengo antzera segituko luke, zeren irakaskuntzaren egiturak lehen bezain erdalduna izanez baitirauke. Arras erdaldundutako hezkuntza-sistema bera alde aurretik euskaldunduz joateko gutxienezko baldintza tekniko eta administratibo batzuk finkatzen ez badira, ezinezkoa ikusten dugu gehiengoa gutxiengoaren esanera jartzea.

Euskal irakaskuntzarako oinarritzko baldintza batzuk

Euskarazko irakaskuntza euskalduntzeko bete beharko liratekeen baldintzen artean, lehenengoa, oinarritzkoetan oinarritzkoena, irakasleria guztia euskalduntzea da edo, nahiago bada, euskalduna izatea. Baldintza hau betetzen ez bada, beste guztiak, oso garrantzitsuak izan arren, bigarren mailakoak dira. Horregatik, behar-beharrezkoa ikusten dugu irakasleria guztia, ahal den eperik laburrenean, euskaldun bihurtzea, horretarako borondatea agertzen den heinean. Jakina, helburu hori betetzeko, behar diren arazoizko bide guztiak jarri beharko dira, euskararen munduan sartu nahi duen inor alboratua senti ez dadin.

Orain arte hartu izan diren neurri guztiak porrot egitera deituak zeuden eta halaxe egiten dute. Irakasle “idoneoak”, hizkuntz ereduak eta honelakoak, egia esan, nolabaiteko irtenbideak dira; irtenbideak baino gehiago, gure ustez, ihesbideak. Nolanahi ere, ez bederen arazoaren neurriko erantzunak. Erreforma politikoak, antza, ezin zezakeen gehiago eskaini eta ez du eskaini.

Arazaari azpi-azpitik heldu behar zaionez, gure proposamena hipotesi honetan oinarritzen da: baldin onartzen bada Euskal Herri osoko irakasleria euskaldunduz gero, posible dela bertako ikasleria ere euskalduntzea, orduan lehen egingizuna, hil-bizikoa berau, irakasleak euskalduntzea da. Zergatik? Lehen baldintzak, ondorio gisa, bigarrena eskatzen duelako. Abiapuntutzat jarri dugun lehen premisa hori jadanik frogatua dago praktikan. Kasu batzuk bakarrik aipatzekotan, hortxe daude Lizarra edo Tafallako ikastolak. Hauek hiri erdaldunduak izanda, ikasle-multzo batek euskaraz egiten du ikastolari esker, hau da, irakasleria euskaldunari esker.

Irakasle-Eskolak euskaldundu beharra

Plangintza erabakigarri bati begira, has gaitzen kalkulu batzuk egiten datu konstatagarri batzuen gainean.

Lehen konstatazioa: *la irakasleria guztia erdalduna da.*

Ikasle-kopurua, 1981-82 ikasturtetik 1983-84a bitartean, pixka bat gutxitu egin da. Lehen ikasturtean, ikastolak barne, 526.981 ikasle ziren eta bigarrengotan, berriz, 525.750. Beraz, 1.231 ikasle gutxiago. Jaiotze-tasa beherantza doala ikusita, pentsatzekoa da ikasleriaren kopurua ez dela haziko; gehienez ere eutsi egingo dio lehengoari edo oraindik areago jaitsiko. Alderdi demografiko hau kontuan hartuta, badirudi gaur irakasletzan diharduen baino askoz irakasle gehiago ez dela behar izango datozen urteetan.

Demagun, gure kalkuluetarako, ikasleriaren kopurua bere hartan mantentzen dela eta, beraz, Hego Euskal Herrian 525.750 ikasle dauzkagula eta horietatik 62.230 ikastoletan dabilzanak direla. Bestalde, ez dakigu zehaztasunez, ikastoletatik at, ikastetxe pribatu eta publikoetan dabilzan irakasleetatik zenbatek dakien euskara. Demagun berriro, abiapuntuztat kasurik onena hartuz, irakasleriaren guztizkotik % 7ko batek badakiela euskara, honekin esan gabe, noski, zenbat dakien. Beraz, 1981-82 ikasturteko datuen arabera, ikastetxe publikoetan 14.438 eta pribatuetan 12.250 irakasle badabilza, eta hauetatik % 7a bakarrik baldin bada euskalduna, kopuru absolutuetan ikastetxe publikoetan 1.010 eta pribatuetan 857 euskaldun daude. Ez gehiago. Hemendik, hotz-hotz esanda, ondorio hau ateratzen da: 24.821 irakasle euskaldunen beharrean gaude-la. Hauxe da errealitatea, gure sakoneko arazoa, zemahi egiten hasi aurretik edozein hizkuntz politikak kontuan hartu behar duena. Noski, baldin hizkuntz normalizazioari buruzko hezkuntza-plangintzan irizpide soziolinguistiko eta pedagogiko hutsak erabili nahi badira.

Bigarren konstatazioa: *Irakasle berrien harrobia, orobat, erdalduna da.*

Irakasle berriak, urtez urte, Irakasle-Eskoletan sortzen badira, bistakoa da euskarazko irakaskuntzaren arazoa, ez bakarria, baina bai lehena, harrobi honetan datzala.

Lehen eskainitako datuetan oinarrituta, guztira eta karrerako hiru urteak batera hartuta, 7.020 ikasle dabilza irakasle-titulua atera nahirik; horietatik 1.494 bakarrik ditugu euskaldunak, hots, % 21,28. Bestalde, hasieran matrikulatzen direnen eta ikasketak bukatzen dituztenen kopurua ez da berdina. Elizbarrutiko eta Eskoriatzako Irakasle-Eskoletan, laugarren promozioaren buruan, atera den irakasle berrien guztizkoa oinarritzat hartuta³², batzabeste, kopuru orokorretik % 25ek bukatzen du. Indize honek, kopuru absolutuetara itzulita, zera esan nahi du: urtero 383 maisu-maistra berri ateratzen direla Hego Euskal Herrian. Urtero ateratzen diren irakasle-tituludun berri horiek honela banatzen dira Irakasle-Eskola desberdinen arabera: Donostiako Ategorrietan 54, Donostiako elizbarrutikoan 162, Eskoriatzan 52, Deustuan 76, Gasteizen 28 eta Iruñean 11.

Zifra horiek ondorio kezagarriak dakartzate, aditzera ematen baitute, goazen martxan segituz gero, 64 urte beharko ditugula falta zaizkigun 24.821 ira-

³² *Deia*, 1983-10-26; *Egin*, 1983-06-23.

kasleren kopurura heltzeko. Lekutan gaude! Orduko gaztelaniak, frantsesak zer esanik ez, ederki asimilaturik duke gure euskara.

Demagun, —orain ere berriro kasurik onenean pentsatuta—, Irakasle-Eskoletako ikasleak oro, —lehen aipatu ditugun 7.020 horiek zehazki—, beren ikasketak euskaraz egiteko bidean jartzen direla. Kalkulatuz 7.020 ikasle horietatik urtero 1.755eko batek bukatzen dituela bere ikasketak eta guztiak euskaldunak direla, garbiak zein berriak, 14 urte beharko lirateke horko irakasleria euskalduntzeko.

Horrek zer esan nahi duen? Erdalduna den irakaslea, eskola pribatu nahiz publikoetakoa, euskalduntzeko esperantzak benetan ahulak direla eta, arazoa alde horretatik ikusita, etorkizun iluna bistaratzen dela aurrera begira. STEE-EILAS-ek emandako datuetan datorrenez³³, Gipuzkoan % 74,6 dira irakasle erdaldunak, eta horietatik % 26,5 ikasten ari dira, % 33,7k ez du inoiz ikasi eta % 12,2k ikasleriari uko egin dio. Datu hauek, bistan da, ez dira batere kontsolagarriak. Irakasleen euskalduntzea norbere borondatearen esku uzten bada, pentsatzekoa da zifra horiek gorera ere ez direla askoz gehiago hobetuko.

Beraz, etorkizunari leihoak inon irekitzekotan, Irakasle-Eskoletan ireki beharko zaizkio. Baina badakigu zer esango zaigun: zertarako irakasle euskaldun gehiago, lehendik daudenak lanik gabe eta ezin enplegatuz badabiltza? Hona hemen kontraesanaren handia, sindikatu abertzaleak ere mutu utziko dituen. Inoiz entzun izan dugu egun Hego Euskal Herrian 1.000tik gora direla enplegurik gabe dauden irakasle euskaldunak. Airean botatako zifra hauek egiaztatzeko modurik ez dugun arren, ez zaigu batere harrigarri egiten halaxe izatea; alderantziz baizik.

Itxuraz kontraesankorra dirudiena, sakonean arras ohikoa atzematen dugu. Egia da irakasle berrien kopurua, oro har, gehituz doala eta lanpostuak murriztuz. Erreformak hezkuntza-sistema ezertan ere ukitzeko asmorik ez duenez gero, guztiz normala da irakasle euskaldunentzat lanposturik ez egotea, lehengo irakasle erdaldunek bertan segitzen baitute. Arazoa, beraz, ez da irakasle euskaldunak sobera egotearena, beste hau baizik: dauden euskaldun banaka horiek ere ezin dituela Eusko Jaurlaritzak enplegatu. Zergatik eta, lehendik arrazoa aurreratua daukagunez, Gasteizko erakunde autonomikoak euskal irakaskuntzan aski boteretik ez duelako. Hauxe da gure ikuspuntua, aspalditxotik defendatuz gatozena.

Irakasle-Eskola estatalak euskalduntzeko proposamen zehatzak

Hemen proposamenak bi zentzutan doaz. Batzuk irakasleriari zuzenduak dira eta besteak, berriz, ikasleriari.

³³ Izenbururik gabeko txostena, 12 orrialdekoa. Inkesta hau Gipuzkoan egina da, bertako 46 eskolatan, hau da, % 38 eskolatan. Data: 1982-04-20.

a) Irakaslerian begira

Irakasleek euskaraz ez badakite, ikasleek ere ez dute ikasiko. Lehen emandako zifrak aurrean, oraingo egoera hau da: irakasle gehien-gehienak, Donostiako Irakasle-Eskolan izan ezik, erdaldunak direla. Eta egoera hau errotik aldatu ahal izateko, behar-beharrezkoa ikusten da neurri jakin batzuk hartzea.

Lehenik, hemendik aurrera, hots, 1984-45 ikasturteik aurrera, irakasleak kontratatzeako orduan, euskaldunei emango zaie lehentasuna, hizkuntz gaitasun tekniko-zientifikoaren eta prestakuntza akademikoaren arabera.

Bigarrenik, euskara ez dakien eta ikasi nahi duen irakasleari, horretarako egokiak irizitako bitartekoak emango zaizkio, gehienez ere 2 urteren buruan euskara mendera dezan eta bere saileko gaiak euskaraz emateko gauza izan dadin. Hautetzako epca, gehienez, 2 urtekoa izango da. Neurri honek Irakasle-Eskoletako nahiz ikastetxe ez-unibertsitarioko irakasle guztientzat balioko du, herri-hizkuntzaren aldeko gizarte-esketik inor baztertua izan ez dadin eta, bide-nabar, eske horri erantzuteko irakasle gaituak egon daitezten.

Hirugarrenik, prozedurari dagokionez, irakasleentzako bide errealkak jartzeko esaten dugunean, adibide gisa, proposamen hau aurreratzen da: hots, irakasleak ikasturte osoan zehar sartu behar dituen lan-orduetatik hainbesteko ordukopuru bat euskara lantzen sar ditzala eta, bide batez, horientzako euskarazko eskola berezi batzuk egon daitezela ordu egokietan jarriak. Datu indikatzaile gisa esan dezagun, HABEK egindako estimazioen arabera, EGA titulua lortzeko 1.500 ordu behar direla.

Irakasle bakoitzaren euskara-ezagutza kontuan hartuz ebaluatuko da klase-orduen bolumena. Euskarazko ikastaro berezi hauen helburua, -eta beroni ezinbestekoa deritzogu-, Alfabetatze Teknikoari dagokion ezagutza-mailara iristea da. Eta maila honetara iristeko behar diren klase-ordu errealkak kalkulatu behar ko dira, errealkak eta ez teoria optimistenen neurriara egindakoak, kasurik gehienetan praktikak besterik erakusten baitu, ikastaroa bukatu eta gero ez daudela behar bezala prestatuta, alegia. Horregatik, irakasle ofizialki euskaldun berriak ez du aipatutako helburu hori duintasunez betetzeko balioko, baldin egiazki lanbidez dagokion irakaskuntza mailarako gaitasunik aski ematen ez badu.

Laugarrenik, izena eman eta euskara ikasten ari direnek hutsik utzitako ordukopurua irakasle euskaldun berriek beteko dute, haiek beren euskarazko gaitasun-agiria lortu bitartean. Ordezko gisa sartuko lireratekeen irakasle horiek, aldi berean, bertan segituko lukete, baina oraingoan bertan leudekeen irakasle erdaldunak eta euskara ikasteko asmorik agertzen ez dutenak bertatik desplazatuz, harik eta irakasleria osoa euskaldun bilakatu arte. Honek suposatzen du, noski, de facto badaela euskarazko irakaskuntzan txertatzeko borondaterik erakusten ez duen irakaslerik. Nahiz eta hauen eskubide pertsonalak errespetagarriak izan, iruditzen zaigu horrelakoen jarrera negatibo edo indiferenteak ez lukeela hipotekatu behar euskararen etorkizuna beren lanbidea duten ikastetxeetan.

Honela, lanik gabe dauden edota, halabeharrez, beste zereginetan dabiltzan irakasle euskaldunak enplegatuko lirateke eta irakasle euskaldun berriek ugalduz doazkeen heinean, erdaldunen desplazamendu-prozesuari segida emango litzaioke. Ordezko irakasleen kontratazioa dei publikoaren bidez egingo litzateke, lehen esan bezala, euskaldunei lehentasuna emanez.

Bosgarrenik, euskara ikasteko borondatea agertzen ez duen irakaslea, honek bere superbizipenerako eskubidea duen herri-hizkuntzari uko egiten dionez gero, juzgatuko da euskararekiko zapaltzaile-jarrera daukala eta, ondorioz, haren lanbidezko eskubide lortuak herri-eskubideen eta interes publikoen kontra doazela. Irakasle hori, beraz, euskararen ezagutza hain beharrezkoa ez den beste nonbait enplegatuko litzateke, bere lanpostua irakasle gaituari dagokion profila betetzen duen batek bete dezan.

Seigarrenik, irakasle guztiek, nola euskaldun garbiek hala berriek, beren irakaskaiak euskaraz eman beharko dituztenez gero, euskarazko prestakuntzaren aldetik Alfabetatze Teknikoan trebatuak egon beharko dute. Hauentzat epea, orobat, 2 urtekoa izango da.

Zazpigarrenik, euskararen egoera Irakasle-Eskola bakoitzean eta, halaber, herrialde bakoitzean desberdina bada ere, aipatutako xede hauek zutik diraute, baita kasurik txarrenean legokeen Irakasle-Eskola horretan ere. Egoera-desberdintasun horrek Irakasle-Eskola batzuetan beste batzuetan baino ahalegin gehiago egin behar dela adieraz dezake, baina ez, errealismo praktikoen izenean egin ohi denez, helburuei uko egin behar zaiela.

Zortzigarrenik, neurriok ikastetxe publiko nahiz pribatuak irakasle guztientzat dira baliagarri. Gertatuko balitz, -eta badirudi hala gertatzen ari dela-, ikastetxe pribatuak, berauen administrazio-egoera berezia dela eta, bertako zuzendaritzaren zein irakasleriaren aldetik euskararen berreskurapenerako zaborberia nabaria ematen dela, ongi legoke, lehen urrats gisa eta beste zenbait erabakiren artean, ikastetxe horiek subentzioen laguntzarik gabe uztea. Ez da bidezkoa herri-diruaz baliatzea, zertarako eta, herri horren funtsezko interes zehatz baten kontra joateko.

b) Ikasleriari begira:

Irakasle-Eskoletan matrikulatzeko, baldintza hauek eskatuko dira:

Lehenik, ikaslegai guztiei, alde zurretik, azterketa bat egingo zaie euskararen ezagutzari buruz zein maila duten jakiteko.

Bigarrenik, euskaldun garbiek, ikasketak bukatu baino lehen, Alfabetatze Teknikozko ikastaroak egin eta sail horri dagokion titulua gainditu beharko dute. Hirugarrenik, euskaldun berriari, matrikulatu ahal izateko, gutxienez, Euskararen Oinarrizko Ezagutza, hutsetik hasi eta mintza-praktikaraino doan ezagutza mailakaturia, edukitzea eskatuko zaio. Honek, batazbeste, 600 orduko ikastaroa egin eta berori gainditzea inplikatu luke. Ondoren, Irakasle-Eskolan bertan, ikas-

turtearen lehen 4 edo 5 hilabeteetan zehar, egunero 6 ordu sartuko dituzte eus-kara ikasten, hori bakarrik ikasten. Talde honek gai izan behar du 2. ikasturte-hasieran besteekin batera ikasketak euskaraz egiteko.

Laugarrenik, eta oraingoan ikasketa-plangintzari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitateari dagokion plangintza berria egitea eskatzen da, Euskal Herriaren errealtate orokorra kontuan hartuko duena. Besteak beste, horren barruan sartu beharko lukete autonomia propioz jarraiko gaiok: Euskal Herriko Historia eta Geografia, Euskal Literatura, Euskararen Didaktika, etab.

Bosgarrenik, ikasle guztiek, beren ikasketak bukatu baino lehen, mintzame-na lantzeko, ikastaro berezia egin beharko dute. Alfabetatze Teknikoa, beraz, mintzamenaren gaitasunarekin bat eginda egongo da.

Irakasle-Eskoletako irakasle zein ikasleci dagozkien goiko puntu horiek, aha-lik arinen gauzatuak izan daitezzen, oraintxe bertatik hasita jarri behar dira abian.

Azken ohar gisa esan dezagun, proposamen hauek luzatzean, euskarazko irakaskuntza ematen den Irakasle-Eskoletako hizkuntz plangintzak kontuan har-tuta eginak izan direla, jadanik aplikatzen direnak zentru pribatueta, zehazki elizbarrutiko jurisdikziopeko Donostia eta Deriokoan eta Eskoriatzakoan.

Eta ikastetxe ez-unibertsitarioetan, zer?

Hemen hiru sare dauzkagu elkarren ondoan, elkarri kompetentzia eginez: eskola publikoak, pribatuak eta ikastolak. Hauetako bakoitzak du bere antolake-ta berezia eta euskarak ere ez bide du guztietan trataera berbera hartzen. Irakasle-Eskoletan bezala, hauetan bide beretsutik doaz geure proposamenak.

a) Ikastetxe publikoetan

Irakasle-Eskoletako irakasleriari buruz esan denak balio du, oro har, ikaste-txe hauetarako ere. Hizkuntz politika bera segituko da, beraz.

Honela, irakasleria euskaldunduz doan prozesu honen barruan irakaskuntza-tik kanpora dauden eta, bereziki, lanik gabe aurkitzen diren irakasle euskaldunak berehala, eta kondiziogabeki, irakasleriaren sarean integratuko dira. Lehendabizi irakasle horiek eta gero, urtero berriak sortuz doazen heinean, berriak sartuko dira sarean, irakasle erdaldunen lekua bete dezaten.

b) Ikastetxe pribatueta

Ikastetxe pribatuen esparru juridiko-administratiboa publikoena ez bezala-koa bada ere, ikastetxe publikoen kasuan egindako eskabideak ez dira ezertan aldatuko. Eskola hauetan zuzeneko erantzukizuna dutenei, eliz titularitatea nahiz bestelakoa dutenei, irakaskuntzaren euskalduntze-prozesuan barnera daitezela eskatzen zaie. Pribatutasunaren izenean ez da onartuko inolako salbuespenik, gutxiago hizkuntz eskubideen kontra doakenenik.

c) Ikastoletan

Ikastolen aurrekontu orokorra, osoki eta Euskal Herri osoan zehar, Adminis-trazio publikoak bere gain hartzea eskatzen da, kondiziogabeki hartzea, alegia, horren truke inolako hipotekarik eskatu gabe. Ikastolen inguruan mugitzen diren erakundeak jokabide ofentsibo hau sostengatzen duten neurrian onetsiko dira. Era berean, lehengo sistema defentsiboari eusteko egingo liratekeen diru-bilke-tak eta antzeko ekintzak sistemaz ezeztatu egingo dira.

Ikastolek, hauen jarraipenerako edozein formula juridiko hartzen delarik ere, haien izateko arrazoia den euskalduntasuna defendatuz segituko dute. Nola? Zehazki, honela:

—*Eredu aniztasunari uko eginez eta D ereduari tinko eutsiz*. Besterik frogatu arte, eredu hori daukagu, ikastoletan egiaztatu ahal izan den bezala, egiazki balio duen eredu bakartzat. Beti ere jokabide zuhurragoa da bide ziurretik jotzea, zalantzak alde batera utzita. Maila honetan, garbi bereizi behar dira irizpide pedagogikoak hertsiki politikoetatik.

—*Eskola publikorantzako norabidea hartuz eta, aldi berean, euskarazko irakaskuntza ziurtatuz*. Eskola publikoak euskaldunduz doazela aditzera ematen duten datuak leudekengan, hots, gaztelaniaren euskararekiko asimilazio-arriku-rik ez legokeengan, orduan emango lirateke sare publikoan sartzeko baldintza objektiboak. Beraz, planteamendu honek, lehen fase batean, eskola publikoetan gutxienezko aldaketa koalitatibo batzuk, maila linguistiko eta juridikoan bereziki, gauzatzea eskatzen du. Aldaketa hauek emanez batera, bigarren fase batean, sare bakarreko euskal irakaskuntzaren prozesua sendotuko litzateke.

—*Doakotasuna ozenki oihukatuz*. Honen arrazoia da, ikastolek pairatzen duten zapalkuntzarik larrienetako bat ekonomikoa dela, halabeharrez izaera juri-diko pribatua izatetik datorkiena, nahiz, bistakoa denez, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten. Hemen, errebindikazio gisa, ikastolen egitura eta funtziona-mendu historikoa errespetatuz, berorien zama ekonomikoa Hezkuntza-Sailak bere gain hartzea proposatzen da. Bere gain hartu, baina trukean baldintzak ezarri gabe. Ikastolen nortasuna ezein zentzutan, -maila politikoan eta linguistikoan, bereziki-, hipotekatu gabe, alegia.

Azkenik, eta hau orokorrean diogu ikastetxe-mota guztiei begira, *ikasgele-tako hezkuntza-ratioa jaitea* proposatzen da. Arrazoi pedagogikoak kontuan hartuz, eskola pribatu, publiko eta ikastoletan, hauetan guztietan gero eta ikasle erdaldun gehiago daudenez eta hizkuntz ereduaren eraginkortasuna zalantzan jar-tzen denez, Eskolaurreko ikasgeletako haur-kopurua jaitea eskatzen da, orohar irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko eta, bereziki, haur horien euskalduntzea errazteko xedearekin. Honela, gainera, irakasle gehiagorentzako lanpostuak sor-tuko lirateke.

6. Botere politiko gehiagoren beharra

Euskal Herriko erakunde ofizialek ez dute oraingoz proposamen horiek jaso, bideratu eta bete ahal izateko adina botere politikorik.

Batetik, Madrilgo Gobernu zentralak berekin gordetzen ditu hezkuntza-sistemaren plangintza eta kontrola, puntu nagusietan bederen bai, nahiz eta hezkuntzako lehen transferentziak 1980ko irailaren 26an aldarrikatuak izan. Eskoletako irakasleak, adibidez, haren menpeko funtzionariak dira. Eusko Jaurlearitzari ematen zaion ahalmena, batik bat, administratiboa da, kudeaketa-ardura, alegia. Bestetik, EAEtik kanpora gelditzen den Nafarroan, hemen irakas-kuntza 1982ko Foru-Erregimenaren Berrintegrazio eta Hobekuntzarako lege organikoak arautzen du, baina honek ere ahalmen juridiko mugatuak ditu, Gasteizkoaren antzera, batez ere, administratiboak.

Beraz, euskal subiranotasuna etengabe geureganatuz goazen ekinaldi honetan, irakasleriaren eskalafoi-sistema, oraindik osoki estatala dena, soilki euskal lurraldera mugatua izatea eskatzen da. Honela, hasteko, oposizio-bidez mailaz igotzeko ahalbideak indartuko dira.

Horrekin batera, lehen irakasleriaz jardutean zehaztu den bezala, hertsiki hobetuko lirateko irakasle titularren eta interinoen euskararekiko baldintzak.

Gauden egoeran egonda, aski botererik gabe eta erreforma ustelaren bidetik joanez, obraezinezkoak dirudite aipatutako proposamen horiek. Irtenbide bakarra, —eta berau historikoa—, Euskal Herriak daraman subiranotasunaren aldeko borroka dugu, zeina soilki kulturala baino zabalagoa den testuinguru soziopolitiko eta ekonomikoaren barruan gauzatuz baitator. Borroka espezifikoki kulturalak politikoa ere inplikatzeko du. Heldu zaigu, bada, egoera defentsibotik irten eta jarrera erasotzaileagoak hartzeko ordua, errebindikazio espezifikoko eta mailakatuak kalean, edo behar den lekuan, egiteko ordua.

Euskarazko eskola nazionala eta publikoa “slogan” polita da, lortu beharreko helburua, baina, edukirik izan dezan, borroka egin beste biderik ez da gelditzen, zeren eman, ez baitigute inoiz ezer emango. Oraingoz, bada, borroka eta erresistentzia dira hitz nagusiak. Erresistentziak ere badu bere kultura propioa.

Bukatzeko, esan gabe doa hemen orain Hego Euskal Herrirako formulatu ditugun gogoeta hauek, mutatis mutandis, berdin balio lezaketela Ipar Euskal Herrirako. Osatzeak, ordea, txosten honen antzeko beste bat lantzea eskatzen du, Euskal Herri osoan bakarra den kausa nazional honek Bidasoaz haraindi ere bere paraleloa izan dezan. Egiteko hau bego beste saio baterako.

III

HEZKUNTZA, DEMOGRAFIA ETA LANPOSTUA¹

Aurreko atalean esana gelditu da ikasleen matrikulazioa nabarmenki jaitsiz doala 1980ko hamarkadan zehar. Bertan ematen den demografi datu aski adierazgarria da, zehazki 1982-83tik 1989-90 bitarteko zazpi ikasturte horietan, 54.408ko ikasle-kopurua galtzen dela EAeko irakaskuntza ez-unibertsitarioan. Joera honek hurrengo harmakadan ere jarraitu egiten du eta Gasteizko Hezkuntza-Sailburuak, ikasturte-hasieran egindako prentsa-agerraldian, ohar kezkarri gisa azpimarratzen zuen 1992-93 ikasturtean aurrekoan baino 16.000 ikasle gutxiago matrikulatu zirela, % 3,7 gutxiago alegia. Komunikabide-mota desberdinek lau haizetara gizarteratzen dute berri hori eta mundu akademikoan ere, pedagogikoan bereziki, aztergai bihurtzen da.

Eusko Jaurlaritzak prentsaratu dituen emaitza isolatuak testuinguru demografiko eta geografiko zabalago batean kokatu, osatu eta epekatzea eta, azkenik, horiek suposatzen dutena azaltzea da atal honen egitekoa.

1. Euskal Herriaren bilakaera demografikoa

Euskal Herria administrazio-mailan hiru lurraldetan zatituta dagoenez, Administrazio bakoitzak bere datu estatistiko partzialak eskaintzen ditu eta, ondorioz, ez dute Euskal Herri osoari buruzko ikuspegi orokorrik eskaintzen. Muga politiko hau, maila akademikoan, Lan Kide Aurrezkiko Ikerketa-Sailak gaindi-

¹ Txosten hau 1992-10-8an egina da, Hezkuntzaren Soziologian emateko apunte gisa prestatua. Zuen garrantziarengatik, gai hauxe bera erabili genuen Euskadi irratian, 1992ko irailaren 18an egindako hizketaldian.

tzen du urtez urte euskal ekonomiaz argitaratzen dituen txostenen bidez², hauetan Hego Euskal Herria bere osotasunean hartuz eta, bereziki, SIADECOK³, honek Hegoa zein Iparra, biak batera hartuz. Beraz, 22. taula honetan bezala, Euskal Herriaren demografi egoeraz ikuspegi osoa izateko aukera dugu. Datu estatistikoak iturri ofizialetik jasoz osatu ditugu geure taulak. Zifra batzuetan ez da erabateko adostasunik ematen, baina ez-adostasun hori, konstatatu ahal izan dugunez, datu berberak errepikatzen direneko data desberdinetako iturri ofizialean aurkitzen da. Nolanahi ere, diferentziak ez dira handiak.

22 .taula: Zuzenbidezko biztanleriaren eboluzioa Euskal Herrian (1960-91)

Urteak	Hegoa				Iparra		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Nafarroa	Lapurdi	N. Beher.	Zuberoa
1960	133.742	473.951	751.014	40.2042	149.824	34.490	20.633
1970	199.777	626.049	1.041.461	46.4867	166.197	33.126	19.484
1981	257.850	694.681	1.189.278	50.7367	188.803	30.434	17.726
1991	271.081	671.765	1.150.866	52.1940	203.696	29.938	16.627

Iturriak: INE; Lan Kide Aurrezkiaren *Economía vasca. Informes.* Norberak landua.

Taularen izenburuan datorrena zehaztuz, esan behar da herrialdeko udalerriren batean erroldatuta daudenean osatzen dutela zuzenbidezko biztanleria, zentsua egiteko unean bertan dauden ala ez kontuan hartu gabe.

Euskal Herriak, orotara hartuta, 2.865.913 biztanle ditu 1991n, 1981ean baino 20.226 gutxiago⁴, orduan 2.886.139 baitzituen. Beraz, 1960ko hamarkadatik aurrera goranzko joera duenak, 1990eko harmakada-hasieran % 0,70eko beheradaka erakusten du. Galera dezenteko handia da, zalantzarik gabe. Baina biztanle-galera hori, 23. taulan ikus daitekeenez, ez da ematen Ipar Euskal Herrian.

Hor ageri da, 1981-1991 epealdian Hegoaldeak 33.524 bizilagun galtzen dituen bitartean, Iparraldeak epealdi berean 13.298 irabazten dituela. Gainera, lau hamarkadetan zehar, Iparraldeak, gutxi bada ere, etenik gabe gora egin du; Hegoaldeak, aldiz, 1981eko hamarkada arte hazkunde-eritmo bizi eta jarraitua ezagutu eta gero, hortik aurrera alderantzizko joera hartzen du oso nabarmen.

² Lan hauek liburu-bilduma biziki interesgarria osatzen dute, izenburutzat *Economía Vasca* dararamana.

³ Elkarte honek egindako "Euskal Herriko demografiaren bilakera" izeneko azterketaren emaitzak jasotzen dira prentsan (*Egunkaria*, 1993-01-10).

⁴ Lehen esan duguna gogoan hartuz, SIADECOn kalkuluetan, Euskal Herriak 3.155 baizik ez ditu galtzen (*Egunkaria*, 1993-01-10).

23. taula: Euskal demografiaren eboluzioa Hego eta Ipar Euskal Herrian (1960-91)

Urteak	Hegoaldea	Iparaldea	Guztira
1960	1.760.749	204.947	1.965.696
1970	2.332.154	218.807	2.550.961
1981	2.649.176	236.963	2.886.139
1991	2.615.652	250.261	2.865.913

Iturriak: INE; Lan Kide Aurrezkiaren *Economía vasca. Informes*. Norberak landua.

Euskal Herria herrialdeka hartzen bada, ordea, hiru herrialde-mota bereiz daitezke euskal geografian. Multzo berean sartzekoak dira Araba, Nafarroa eta Zuberoa, herrialde hauetan hazkundera beti dinamikoa izan baita, lehen bi herrialdeetan industrigintzaren eta honek eragindako inmigrazio-uholdearen ondorioz. Arabaren kasuan, gainera, EAEko gobernu-egoitza bertan finkatu izanak izan du bere eragina. Lapurdiren hazkundera, batik bat, turismoari eta bertara Frantziatik bizitzera etorritako jendeari zor zaio. Bigarren multzoan Bizkaia eta Gipuzkoa aurkitzen ditugu, industrializatzen lehenak izan ziren herrialdeak, hain zuzen. Hauek, esan bezala, industrigintza azkarrak eragindako inmigrazio-uholde handiaren ondorioz, beren biztanleria etengabe gehituz etorriko dira denbora luzez 1981. urtea arte. Ekonomi krisia etortzean, ordea, jipotuenak horko industrigune zaharkituak gertatzen baitira, biztanle-murritzeta nabarmentzen hasten da, zeinaren emaitzak 1991ko saldo negatiboan islatzen baitira. Demografi galerarik handiena bi herrialde horietan ematen bada ere, nola biek batera Euskal Herriko kopuru guztikoaren % 63,59 egiten duten 1981ean, beroriek izanen dira euskal demografiaren norakoa gehien baldintzatuko dutenak. Hirugarren multzoa funtsean nekazaritzari emanak dauden herrialdeak dira: Nafarroa Beherea eta Lapurdi, alegia. Hauek 1960-1991 epealdian zehar etengabeko saldo negatiboa erakusten dute. Barnealde hau nekazari gizarteari dagokion krisi-motari lotua dago.

Euskal Herriko mapa demografikoa, bada, ez da uniforme, lehen herrialde-multzoan saldoa positiboa baita, besteetan ez. Bestalde, negatiboa den kasuetan, murritzetaren kausak desberdinak dira eta, orobat, ondorioak. Husten ari diren nekazari herrialdeak, —Zuberoa kasurako—, ezin dira berdindu oraindik ere populazio-dentsitate sendoa duten herrialde industrializatuekin.

Inmigrazio-mugimenduak itsasaldeko bi herrialde industrializatuen hazkundera izandako eragina aipatu da arestian. Faktore horrekin batera, oraingoan begiak 24. taulan tinkatuz, jaiotze-kopuruaren beherakada ere azpimarratu beharrekoa da.

Ekonomi hazkundera indartsua eman zen 1960-1975 epealdian euskal gizarteak populazio-hazkundera biziki handia ezagutu zuen bezala, —urtean batz-

beste % 2,46 haziz, hots, EEEkoaren aldean hiru aldiz eta Espainiakoaren aldean bi aldiz gehiago⁵—, 1975. urtetik aurrera, justu krisi ekonomikoa has- ten denean, jaiotze-tasak beherako joera hartzen du, eta joera hau hain da dei- garria, ezen hamarkada batean bakarrik 1975eko % 18,21etik 1991ko % 8,02ra jaisten baita: 10,19 puntu. Azken urte honetan, orotara, 16 urte lehe- nago baino 25.562 haur gutxiago jaiotzen da. Orokorrean heriotzen kopurua jaiotzena baino apalagoa bada ere, 1991n berezko hazkundeak 467 laguneko saldo negatiboa ematen du.

24. taula: Hego Euskal Herriaren populazio-mugimendua (1975-1991)

Ikasturteak	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Nafarroa	Guztira		100
1977-78	10.184	38.619	46.358	19.147	114.308		
1978-79	10.219	42.329	50.517	20.003	123.068	8.760	7,66
1979-80	11.844	43.766	51.515	20.179	127.304	4.236	3,44
1980-81	11.644	43.881	51.155	21.989	128.669	1.365	1,07
1981-82	11.115	31.512	44.989	20.698	108.314	-20.355	-15,82
1982-83	10.669	30.437	42.777	18.909	102.792	-5.522	-5,10
1983-84	10.144	28.360	40.496	17.437	96.437	-6.355	-6,18
1984-85	10.028	27.556	39.558	16.381	93.523	-2.914	-3,02
1985-86	9.542	26.027	37.949	13.690	87.208	-6.315	-6,75
1986-87	9.722	24.464	36.358	13.611	84.155	-3.053	-3,50
1987-88	9.610	23.276	35.849	11.814	80.549	-3.606	-4,28
1988-89	9.283	21.361	33.983	15.077	79.704	-845	-1,05
1989-90	8.746	20.502	32.457	15.231	76.936	-2.768	-3,47
1990-91	8.538	19.030	30.506	15.043	73.117	-3.819	-4,96
1991-92	7.863	18.041	29.270	14.389	69.563	-3.554	-4,86

Iturriak: INE; Lan Kide Aurrezkiaren *Economía vasca. Informes*. Norberak landua.

Galdetu izan da zergatik gertatu den Europa osora zabaltzen den jaiotze- tasen behararada hori. Hipotesi asko egin daitezke eta egin dira, baina kuk fenomeno horretan, besteak beste, jarraiko faktore hauek harremandurik ikus- ten ditugu: industrigintzari eta hirien hazkunderari loturik datorren pentsake- ra-aldaketa, bizi-mailaren igoera, familia krisia, emakumezkoak lan-mundu- an sartzea eta, azkenik, jaiotzen kontrola. Fenomeno hau, normalean, herrial- de aurreratu, industrializatu eta aurretatueta ematen da.

⁵ Lan Kide Aurrezkiak: *Economía vasca. Informes* 1988, 387.

Nolanahi ere, faktore horietatik zein gailentzen den esatea zaila bada ere, e-gun asko azpimarratzen da, batetik, ongizatezko gizarteak ekarri duen konfort-egoera orokortua herrialde aurreratuetan eta, bestetik, emakumea bereganatuz datorren autonomia bai bere gorputzaz baliatzearen eta bai, lan-munduan murgilduz, bere autofinantzaketa ziurtatzearen aldeko borrokan. Arazoaren alderdi hau argi asko planteatuta gelditu zen Euskadi irratian egindako solasaldian (1992-09-18).

2. Matrikulazioaren beherakada

Azken urteotako jaiotze-tasaren beherakadak ezinbesteko eragina izan du hezkuntza-fluxuetan, zeina modurik zuzen eta argienez Eskolaurrean islatzen baita, 25. taulara begiratuta egiazta daitekeen bezala.

25. taula: Matrikulazioaren eboluzioa EAn (1977-91)

Ikasturteak	Herrialdeak				Guztira		100
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Nafarroa			
1977-78	10.184	38.619	46.358	19.147	114.308		
1978-79	10.219	42.329	50.517	20.003	123.068	8.760	7,66
1979-80	11.844	43.766	51.515	20.179	127.304	4.236	3,44
1980-81	11.644	43.881	51.155	21.989	128.669	1.365	1,07
1981-82	11.115	31.512	44.989	20.698	108.314	-20.355	-15,82
1982-83	10.669	30.437	42.777	18.909	102.792	-5.522	-5,10
1983-84	10.144	28.360	40.496	17.437	96.437	-6.355	-6,18
1984-85	10.028	27.556	39.558	16.381	93.523	-2.914	-3,02
1985-86	9.542	26.027	37.949	13.690	87.208	-6.315	-6,75
1986-87	9.722	24.464	36.358	13.611	84.155	-3.053	-3,50
1987-88	9.610	23.276	35.849	11.814	80.549	-3.606	-4,28
1988-89	9.283	21.361	33.983	15.077	79.704	-845	-1,05
1989-90	8.746	20.502	32.457	15.231	76.936	-2.768	-3,47
1990-91	8.538	19.030	30.506	15.043	73.117	-3.819	-4,96
1991-92	7.863	18.041	29.270	14.389	69.563	-3.554	-4,86

Iturriak: INE; Lan Kide Aurrezkiaren *Economía vasca. Informes*. Norberak landua.

Orokorrean, ageri dena da EAko matrikulatze-kopurua 1980ko hamarkadan zehar urtez urte jaitsez etorri dela batezbeste % 5,3ko indizearekin. Honek supo-

satzen du 11 urte horietan 69.106 haur gutxiago matrikulatu direla: 1980-81 ikasurtean 128.669 eta 1991-92an, berriz, 69.563 baino ez. Ikasle-galeraren inflexio-unerik garrantzitsuena, hain zuzen, 1981-82 ikasurtean ematen da, aurrekoan baino 20.355 haur gutxiago matrikulatzen baitira, % 15,82 gutxiago, alegia. Geroak esango du noiz arte jarraituko duen joera negatibo horrek.

Bestalde, herrialde guztietan ematen den fenomeno da hori, baina nabarmendu, Gipuzkoa eta Bizkaian nabarmentzen da gehienbat, batez ere, lehenengoan, zeren hark 12.369 haur galtzen dituen lekuan honek 6.166 baino ez baititu galtzen. Honek erakusten duena da, jaiotze-tasa jaitsez doan heinean, halaxe doala matrikulatze-indizea ere Eskolaurrean eta, ondorioz, baita hezkuntzako beste mailetan ere. Hauxe da hemen azpimarratu nahi genuen ondorio nagusia.

Bigarrena da ikasle-kopuruaren beherakada ez dela Euskal Herrian bakarrik ematen den fenomenoa. Europakoa ere bada, baina diferentzia kronologiko jakingarri honekin: European Hego Euskal Herrian baino hamar urte lehenago eman zela, hots, 1970eko hamarkadan. EEEko irakaskuntza orotara hartuta⁶, 1977-78 ikasurtean 71,8 milioi ikasle zebiltzan eta 1986-87an, berriz, 67,8 milioi baino ez, hots, 4 milioi gutxiago.

Hirugarren zehaztapen bat ere egin beharrean gaude, eta da, irakaskuntza ez-unibertsitarioan ematen den matrikulazioaren beherakada honen parean eta aldi beretsuan, irakaskuntza unibertsitarioan alderantzizko joera indartuz doala. Honela, 1981eko zentsuko datuetan oinarrituta⁷, 18-24 urte bitarteko ikasle-talde orokorraren eskolatze-tasetan, estatu-mailan Madril (%17,1), Euskal Herria (% 14,9) eta Castilla-León (% 13,5) dira buru doazenak, batzbesteko % 6ko tasa nazionala aise gaudituz. EUSTATEk argitaratutako 1986-87 ikasurteko datu berriagoen araber, ordea, EAeko goi-irakaskuntzako eskolatze-tasa % 19,2koa da.

3. Jaiotzeak eta matrikulazioak jaistearen ondorioak

Matrikulatze-kopuruaren jaisteak, sobera orokortzerik ez badago ere, ondorio jakin batzuk dakartza. Guk batzuk bakarrik aipatuko ditugu.

Lehena da, emanik 26. taulan ikus daitekeen bezala, EAeko irakaskuntza ez-unibertsitarioan diharduten irakasle gehienak (% 58,56) ikastetxe publikoetan dabiltzala 1990-91 ikasurtean, pentsa dezakegu matrikulatze-jaistearen erasana sare horretantxe nabarrituko dela gehienik eta honek, bide batez, ikastetxe horietako irakasleengan zein ikastetxe horiexen funtzionamendu-dinamikan izan dezakeela, edo duela, eragin zuzena.

⁶ Eurostat: *L'Europe en chiffres*, Luxenburgo, 1990.

⁷ Bosch, F.; Díaz, J.: *La educación en España. Una perspectiva económica*, Ariel, Barcelona, 1988, 81-83. Autore hauek INEK emandako datuetan oinarritzen dira.

Guztiko 30.477 irakasleetatik 17.846 ikastetxe publikoetan badabilta eta, arestian esan bezala, azken hamarkada honetan 69.106 haur inguru gutxiago matrikulatu bada, bistan da ikasle-eskasiaren fenomeno honek baldintzatu egiten duela irakasleen lanbidea edota lan-arazoak sor ditzakeela, batik bat, eskasia hori ematen den ikastetxeetan eta horko irakasleengan. Izan ere, baldin kontuan hartzen bada ikasleriaren aldetik antzeko kopurua dabilela ikastetxe publikoetan eta pribatuetan, irakasleriaren aldetik desoreka nabariegia ematen da, zeren sare pribatuko % 49,17 ikaslerentzat % 41,44 irakasle dauden bitartean, sare publikoko % 50,83 ikaslerentzat % 50,56 irakasle baitaude. Desoreka hau nabarmenegia da, zalantzarik gabe, honetaz Administrazioa ohar ez dadin.

26. taula: EAEko ikasle eta irakasleen banaketa ikastetxe-moten arabera (1990-91)

Ikastetxe-motak	Irakasleak		Ikasleak	
	Kop. Abs.	100	Kop. Abs.	100
Publikoak	17.846	58,56	273.509	50,83
Pribatuak	8.948	29,36	264.554	49,17
Ikastolak	3.683	12,08		
Guztira	30.477		538.063	

Iurria: Irakaskuntzaren estatistika, 90/91, Eustat, 1992.

Ikasleen matrikulatze-jaiste honek, gertatzez, norabide bat baino gehiago hartu ditu. Kasu batzuetan, ikastetxeak itxi gabe, hezkuntza-ratioa hobetzera jo da; beste batzuetan, aurrera segitzeko beharbesteko ikasle-kopururik ez zegoelako, 1970eko hamarkadan hasita, eskola-eraikin asko hutsik gelditu dira eta beste gizarte-zeregin batzuk betetzeko eraldatu dituzte. Beraz, daukaguna da, irakasleak zein ikastetxeak sobera daudela eta horiek bere horretan mantentzeak gastu publikoaren areagotzea dakarrela, noiz eta euskal gizartea ekonomi krisi latza jasaten ari den unean.

Baina desoreka hori ez da mugatzen hezkuntza-sistemara bakarrik, baita lan-mundura ere. Datua da, matrikulazioaren kopurua jaistearekin batera agertzen dela langabeziaren fenomeno ere. EAEk, 1987ko datuen arabera⁸, Espainiako estatu-mailan laugarren handiena du, Andaluzia, Extremadura eta Kanariaken ondoren. Espainiako langabezi ratioa 1.00 dela emanda, Euskadikoa 0.87koa dugu 1987an; Nafarroakoa, berriz, Espainiakoaren gainetik agertzen da 1.17rekin. Lau herrialdeak batera hartuta, bada, ozta-ozta gainditzen dute Espainiakoa 1.02rekin.

⁸ Fernández Enguita, M.: *Educación, formación y empleo*, Eudema, Madrid, 1992, 106-110.

Joera gisa, fenomeno kontrajarrien aurrean aurkitzen gara euskal gizartean: batetik, hezkuntzaren esparruan, matrikulatze-indizeak apalduz doaz irakaskuntza ez-unibertsitarioan eta, alderantziz, gehituz unibertsitarioan; bestetik, lan-munduan, ekonomi krisiaren ondorioz, langabezi tasak goraka doaz.

Egoera nahasi horren aurrean, matrikulatze-kopurua jaisteak, lehen esandako hezkuntza-ratioari buruzkoa kontuan hartuta, etorkizun posible hauen atarian jar gaitzake:

Epe laburrera, itxuraz, aurpegi positiboa eskaini lezake, zeren pentsa baitaiteke, eskolatuaren kopurua murriztearekin batera, lan-eske daudenen arteko konkurrentzia ere gutxitu egingo dela eta, ondorioz, baita lizentziatu langabetuen kopurua ere. Eta koiuntura honek, zentzu batean, momentuz arnasa hartzeko balio lezake. Goi-eskolatzea ugalduz baina lan-mundurako merkatua murriztu doan une honetan, behe-mailako irakaskuntzan matrikulatze-tasa apaltzeak, denbora gutxiren buruan, lizentziatu langabetuak gutxitzea eta, beraz, lanpostuengatik lehiakidetasun-gatazkan aukera gehiago izatea ekarriko luke.

Hori, alderdi batetik begiraturik, egia da. Epe luzera, ordea, egoera hori gizarte-desoreka berrien iturri gerta daiteke. Eta honen arrazoia da, gizarte-bilakaerak, bereziki produkzio-munduan, gazteriaren presentzia eskatzen duela, eta zer esanik ez teknologi egoera berrietara moldatzeko prestaketa eskatzen den aro informatizatu honetan. Bestalde, gizartea zenbat eta zaharrago, horren etorkizuna orduan eta ilunago agertzen da. Eta hauxe da, hain zuzen, Europa zaharkituaren kasua. Ezaguna da bere gizarte zaharkituari erremedioa jartzeko erabili zuen terapia: inmigrazioari sarrera eman, produkzioerako eskulan merkeaz baliatuz. Europako Elkarteak, 1989an, 1.756 milioiko demografi hazkundea izan zuen, eta horietatik % 67 migrazio-saldoari zegozkionak ziren.

Hortik, noski, hezkuntza-arazo espezifikoak sortu dira, etnia nahiz kultura nortasunari buruzkoak, bereziki, eta testuinguru horretan garatu da pedagogia interkulturalista.

Europa zaharkituaren barruan, are zaharkituago aurkitzen da Euskal Herria. Zer egin behar da? Nondik jotzea komeni da? Arazo demografiko honek gero eta garrantzi handiagoa du Hezkuntzaren Soziologian eta gogoeta berriak egin beharko dira etorkizunari begira irtenbide egokiak bilatzeko.

IV

EUSKAL ESKOLAREN BILA¹

Apunte gisa paraturiko azalpen honetan, hiru atal landuz hurbilduko gara euskal eskolak hizkuntzaren aldetik planteaturik daukan arazora. Lehenengoan, metodo genealogikoaren eskabidez, ikuspegi historikoari helduko dio; bigarrenengan, hizkuntz egoera zertan den ikusiko da datu estatistikoaren eta sail horretan egin diren ikerketen argitan; hirugarrenean, etorkizunari begira, alternatiba berri bati buruz proposamen batzuk luzatuko dira.

Izenburuan bertan espreski adierazia datorrenez, eskolaren euskalduntasuna bakarrik gogoematen da; hala ere, zeharka, publikotasunari buruzko arazoak agertuko dira.

1. Abiapuntu historikoaren garrantzia

Euskal irakaskuntza elebidunaren bilakaerari dagokionez, XIX. mende-bakeraetik gaur arte luzatzen den epealdian, lau aro historiko bereizi ohi dira².

¹ Iztueta, P.; Basurco, F. (koord.): *Euskal Eskola Berria*, Unibertsitateko Hezkuntza Mintegia, Elgoibar, 1992, 124-177.

² Garmendia, M. K., "Euskal irakaskuntzaren historia apur bat", *Ixilik*, 4, 1984; *Les Ikastoles en Pays Basque d'Espagne. La question du bilinguisme scolaire*, Strasburgo, Argitaratu gabeko tesi doktoralak, 1985.

Fuerismotik nazionalismora (1896-1936)

Lehen aroa 1896-1936 epealdiari dagokiona da. Foruak abolitu eta gero (1876), euskal nazionalismoarekin batera abiatzen den eskolak, maisu-maisura erdaldunen bidez, euskal gizartearen deseuskalduntzean eragin negatiboa jokatzeko du. Euskal Herriatik kanpo jaiotako maisu-maistren portzentai tasa handia da, 1912an % 61,8koa, Katalunia eta Galizian baino askoz handiagoa, hauetan, hurrenez hurren, % 19,5 eta % 18,7koa izan baitzen³. Euskara gizartean orohar zuzpertzeko eta, zehazkiago, eskola euskalduntzeko xedeari dagokionez, aro honetan, batera datoz euskaltzale gehienak, foruzaleak nahiz nazionalistak, hala nola: Azkue, Urkijo, Kanpion, Sabino Arana, Eleizalde, Landeta, etab.

Hezkuntzari dagokionez, hainbat ekintza bideratzen dira. Ekintzok, jatorriari dagokionez, ekimen pertsonaletik, instituzionaletik eta pribatutik datozenak dira.

Norberak sortutakoak. Ekimen pertsonalari esker, Azkuek, 1896an, "Ikastechea" ireki zuen Bilbon eta Migel Muñoak, 1914an⁴, Donostiako "Euskal Ikastetxea", gero, 1924an, "Koruko Ama Birjinaren Ikastetxea" bilakatu, biak irakaskuntza euskaraz emateko xedearekin. Donostiakoak 1936ko gerrate zibila etorri arte iraun zuen.

Instituzionalak. Geroago datoz xedetzat irakaskuntza elebiduna duten erakunde-antolakuntzatik eratorritako plangintza zehatzak, bereziki Oñatiko Batzarraren ondotik (1917) bideratuko direnak. Maila praktikoan, ekintza kolektibo interesgarriak gauzatzen dira, beti ere instituzio-esparruetan nagusi diren indar nazionalisten ekimenez. Honela, Bizkaiko Diputazioaren babesean, 1919tik aurrera, "Auzo-Eskolak" antolatu ziren, helburu espezifikotzat nekazari gizarteko eta industri guneetako analfabetismoa gutxitzea zutenak. Honela, 1920-1930 bitartean, 100 eskola eraikitzen dira, 5.800 haur eta 148 irakasleekin⁵. Aro hau, Bizkaiari dagokionez, aski xehetasunez aztertzen du Gregorio Arrienek⁶.

Era berean, Gipuzkoako Diputazioak, 1927an, nekazari gizarteko eskolak sortzeko proiektua onartu zuen, Bizkaian bezala hemen ere analfabetismoa gainditzeko asmoarekin. Udalek finantzaturik, 1929an, 110 nekazari eskola

³ Dávila, P.: *Educación en el País Vasco: El Magisterio y la Enseñanza elemental (1857-1930)*, Bartzelonako Unibertsitatea, Tesi doktoral, Argitaragabea, 1988

⁴ Ikastetxe honen sortze-datatz, Idoia Fernandezek (*Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*, UEU, Bilbo, 1994, 21) 1914 ezartzen du eta Mikele Errezolak (Jakin sorta, 6, 1972, 264), berriz, 1917.

⁵ Ostolaza, M.: *La depuración del Magisterio vasco en la guerra civil*, Madrid, Tesina, 1992

⁶ *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía, 1898-1936)*, Diputación Foral de Bizkaia, 1987

eta 150 udal eskola zeuden; Diputazioak finantzatuak, aldiz, 64 eskola, 2.300 haurrekin, 1934ko datuen arabera⁷. Bizkaikoek adinako arrakastarik izan ez bazuten ere⁸, izan zuten berea.

Pribatuak. Geroago, II. Errepublika etortzean, nazionalistek Bizkaiko Ikastolen Federazioa sortu zuten 1932an, bi helburuok zituen: hots, “educación íntegramente vasca e íntegramente cristiana” ematea⁹. Helburu bikoitz honekin abiatu zen Federazio hau Errepublikak aldarrikatutako eskola-laizismoaren kontra, estatutu-mugimenduari batera. Hauek, Diputazio eta Udalen aldetik laguntzarik jasotzen ez zuten gero, ordaindu beharreko eskolak izan ziren eta bertara joan, nazionalisten seme-alabak joan ohi ziren. Guztira, 15 eskola ireki zituzten, guztiak Bizkaian, bat izan ezik Gipuzkoan, berori Bergaran, 1934an. Haurkopurua, 1935-36 epealdian, 1.079koa zen, 26 andereñorekin.

Maila teorikoan, Eusko-ikaskuntzak bere hiru Batzar Nagusietan egindako ekarpenak dira aipagarri.

Batetik, pedagogiari dagozkionak dauzkagu, Europan zehar barreiatuz zihonan Eskola Berriaren esperientzia zekartenak. Bestetik, hizkuntz ereduari dagozkionez, elebitasuna sustatzen da. Baina zehaztu behar da elebitasun hori nolakoa den eta Euskal Herrian nola planteatzen den.

Bat: Elebitasunak, eskolan, mailakatua izan behar du. Lehenik ama-hizkuntza, gero ofiziala. Eta hau, orduko ikerketen arabera, arrazoi pedagogiko-psikologikoen eskabidez.

Europan garai hartan indarrean zeuden elebitasun-ereduak kontuan hartuta, —bereziki, Britainia Haundiak bere koloni herrialdeetan aplikatutakoak—, hiru ondorio hauek atera zituen Anizeto Olanok¹⁰:

“1. La primera enseñanza se debe dar en lengua materna.

2. Una vez bien cimentado el estudio de la lengua materna, debe comenzar el estudio de la segunda lengua como asignatura.

3. En la enseñanza secundaria y en la superior, el ideal pedagógico es la enseñanza en la lengua materna con el estudio intenso de la segunda lengua como una asignatura. Como solución provisional impuesta por las circunstancias sociales y políticas, se puede admitir la práctica de la enseñanza de las materias imaginativas en lengua materna y de las materias técnicas en la segunda oficial, tanto en los cursos superiores del grado secundario como en todo el grado superior universitario, siendo siempre el estudio de la lengua materna una materia principal y central en todos los grados”.

⁷ Ostolaza, M., op. cit.

⁸ Basurco, F., “La normalización de la Ikastola: Breve historia y estado de la cuestión de la Escuela Pública Vasca”, *Historia de la Educación*, 205, 1992, 141.

⁹ Ostolaza, M., op. cit.

¹⁰ “Bilingüismo”, in *Lucha de idiomas en Euzkadi y Europa*, Euskaltzaleak, Donostia, 1935, 30.

Orduko ikertzaileen artean (1911) gauza onartua zen ezin zirela hizkuntza biak (amarena eta ofiziala) batera ikasi eskolan. Irizpidea zen, oinarriztat irakaskuntzan ama-hizkuntza hartu behar zela eta bigarren hizkuntza poliki-poliki hasi behar zela irakasten. Bigarren hizkuntza 9 urtetik aurrera ikasten hastea gomendatzen da, ez lehenago.

Bi: Euskara erdal monoglotismoak menperatzeaz dauka. Aitzolek¹¹, euskararen diagnosia egiten duelarik, hiru elebitasun-mota desberdineko lurraldeak bereizi zituen: a) bi hizkuntzen ezagutza gizarte-bizitzarako beharrezkotzat jotzen deneko lurraldea, Luxenburgokoa bezala; b) hizkuntz mugez zatiturik dagoeneko lurraldea, hala nola Belgikakoa, alde batean flandiarrak eta bestean waloiak; c) klase pribilejiatuari dagokion hizkuntza arrotza,—aristokratikoa, intelektuala eta diruduna—, elebiduna dena, eta erabat monoglota den herriarena koexistitzen direnoko lurraldea, hala nola Finlandiakoa. Aitzolek¹² finlandiar elebitasun-eredutik erdal monoglotismorako bidean sartua ikusten du Euskal Herria: “Nuestro País Vasco, que hasta hace poco podía ser considerado como bilingüe de esta categoría última, va avanzando rápidamente hacia la primera y, aun camina hacia el monoglotismo erdérico castellano”.

Hiru: Eskoletan ezartzen den elebitasun-eredua, zehazki Bizkaiko “Auzo-Eskoletan”, bikoitza zen: A eredua lurralde euskaldunetan, irakaskuntza euskaraz ematen delarik, gaztelaniaren irakaskuntza bigarren ziklorako utziz; B eredua, aldiz, lurralde erdaldunetan ezartzen da, irakaskuntza gaztelaniaz emanez eta euskararen irakaskuntza goi ziklorako utziz.

Esan behar da, azkenik, maila politikoan, ekimen guztiok autonomismoan oinarrituak zeudela eta, ondorioz, haien eragin-indarra ere murrizta izan zela. Bestalde, Autonomi Estatutuak aldarrikatutako hizkuntz plangintza, ez lurraldetasun-irizpidean, baizik eta pertsona-irizpidean oinarritua zen. Bi muga horiek zituen.

Frankismotik juancarlistora (1940-1976)

Komeni da hemen bi aro bereiztea, frankismoa esan eta, ez baita dena esana.

Klandestinitate-garaia (1941-59)

Klandestinitatean eratzen diren ikastolak ditugu hemen aipagarri. Lehenengoak, gerra ondoren, Donostian eta Bilbon hasi ziren gauzatzen ezkutuana eta

¹¹ “La lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa”, in *Lucha de idiomas en Euzkadi y Europa*, op. cit., 102-152.

¹² *Ibid.*, 105.

isilpean, euskara irakasteko akademia gisa jokatuz eta horretarako edozein etxebizitzaz baliatuz. Gipuzkoan, Elbira Zipitria, Migel Muñoaren eskolakoa, izan zen mugimenduaren bihotz. Bilbon, andereño horren esperientziak bultzaturik, lehen ekinaldiak 1957an hasi zituzten Xabier Peñak eta Maria Angeles Garaik San Nikolas Parrokiako Eskola Kateketikoan; era berean, Julia Berrojalbizek, 1958an, dozena bat talde antolatu zituen etxe partikularretan. Edukia: Euskararen irakaskuntza, Matematikak eta Erljioa kantu eta jokoen bidez emana.

Ikastolen hedapena eta legalitatea (1960-77)

Esan bezala, isilpeko lan hori 1950 urte-inguruan hasi zen eta gero, pixkanaka, hiriko ikastolekin harremanik gabe eta elkarren arteko plangintza bateragilerik gabe, herrietan ikastolak irekitzen hasi ziren: Elgoibarren, Hernanin, Algortan, Lazkaon, Andoainen, Erreterian, Pasaian, etab. Zentzu hertsian, ageriko erakunde gisa, 1960ko hamarkadan gorpuztu ziren: 3 ikastola Gipuzkoan 1960an, 10 Bizkaian, 1 Iparraldean 1969an.

27. taula: Ikastoletan matrikulatutako ikasleriaren eboluzioa herrialdeen arabera (1964-82)

Ikasturteak	Herrialdeak					Guztira
	Gipuzkoa	Araba	Nafarroa	Bizkaia	Iparraldea	
1964-65	520	22		54		596
1969-70	5.770	171	348	1.958	8	8.255
1970-71	8.181	334	765	2.958	14	12.252
1971-72	10.673	376	950	3.157	47	15.203
1972-73	13.245	486	1.377	3.755	101	18.964
1973-74	15.272	677	1.631	4.938	175	22.693
1974-75	17.971	1.026	1.892	5.822	225	26.936
1975-76	21.325	1.429	2.158	8.634	305	33.851
1976-77	25.314	1.812	2.621	10.977	341	41.065
1977-78	29.652	2.654	3.094	13.422	382	49.204
1978-79	31.423	3.293	3.744	14.875	390	53.725
1979-80	34.733	4.277	4.909	16.136	474	60.529
1980-81	37.145	5.086	5.369	17.157	516	65.273
1981-82	39.128	5.509	5.727	19.107	564	70.035

Iturria: Jakin, 28, 1983, 10.

Oro har, ikastetxeen hazkunderik gorena 1960-1970 epealdian gertatzen da, orduan 71 zentru irekitzen direlarik, hain zuzen Burgosko auzian euskal borroka abertzaleak gaina jotzen duen unean. Araba eta Nafarroan, goraldia 1970-75ean ematen da, hurrenez hurren, 15 eta 5 ikastola irekitzen direlarik.

Hazkundeko epealdi honetan, bi gizarte-egitate dira aipatu beharrekoak.

Batetik, ikastolen herri-mugimendua goraka doan unean, 1965ean, lehen mailako irakaskuntzako ikastetxe guztietan Eskolaritate-Liburua lortzea beharrezkoa egiten baita, isilpeko ikastolak beren egoera legezatu beharrean aurkitu ziren. Izan ere, jadanik legezatuak zeuden Donostiako Santo Tomas Lizeoa eta Bilboko Azkue ikastolak salbu, beste guztiak ilegalak genituen. Horren aurrean, zuzenean Hezkuntzako Ministeritzara joan eta beren egoera legala lortuko dute, baina Elizaren babesean. Honela, ikastolak parroki ikastola bilakatzen dira eta behin-behineko egoera honetan iraungo dute, harik eta Madrilgo Ministeritzatik legezkatasun autonomoa lortu arte.

Bestetik, ordea, arazo legalez aparte, hazkunde orok berarekin dakartzan alderdi ekonomikoak, materialak, pedagogikoak eta bestelakoak pilatuz zihoazenez gero, erakunde bateragile baten beharra sortu zen eta, ondorioz, Gipuzkoako ikastolen Federazioa eratu zen 1969an.

Erreforma demokratikoaren esparru juridiko berria (1978-92)

Franco hil eta gero, Espaniako Estatuan berrikuntza politikorako abiada hartzen da, sistema politikoaren prozesuan aldaketa batzuk ekarriko dituen, hala nola: 1977ko hauteskundeak, Konstituzioaren onarpena Gorteetan 1978ko urriaren 31n eta horretatik eratorritako Autonomi Estatutuak, Komunitate desberdinetan data desberdinetan eta eduki desberdinez garatuak. Gasteizko Estatutu Autonomia 3/1979ko Lege Organikoan onartu zen, abenduaren 18an, eta harrezkerotik hasiko dira gauzatzen hezkuntzari buruzko transferentziak.

Politika-aldaketaz eta legeriaz, ohar batzuk egingo ditugu jarraian, gatazka-iturri diren punturik garrantzitsuenak ez baitira askotan aipatu ere egiten.

Transferentziak hezkuntzan

Gasteizko Autonomi Estatutuak, bere 16. artikuluan dakarrenez, badu ahalmenik irakaskuntza mailan eta orduandanik hasten da Gobernu zentrala Gobernu autonomikoari hezkuntza-transferentziak egiten. Honela, 2808/1980ko Errege-dekretuaren bidez, irailaren 26an, gauzatzen dira lehen transferentziak; zehazki hauek: Eskolaurrekoak, OHOkoak, Batxilergokoak, Lanbide-Heziketakoak, Helduen Hezkuntza Iraunkorrekoak eta OHOko unitateetako Hezkun-

tza Berezikoak, Ikasketa Bateratuetakoak, Ikasketa Espezializatuetoakoak, Arte Aplikatuoen eta Ofizio Artistikoetarako Eskolak, Urrutiko Hezkuntzakoak eta Hizkuntz Eskola Ofiziala¹³, Inspekzio Teknikoa, ikasketa-programak eta euskarara irakasteko norabide metodologikoak, irakasleak euskalduntzeko plangintza, Ikastetxe-Zuzendarien aukeraketa eta izendapena, etab.

Baina Gobernu zentralak, Konstituzioan eta 8/1985eko uztailaren 3ko LODEn ezarritakoaren arabera, jarraiko konpetentzia hauek beretzat gordetzen ditu: “ordenación general del sistema educativo, programación general de la enseñanza, fijación de las enseñanzas mínimas y regulación general de las condiciones para la obtención, expedición y homologación de títulos académicos y profesionales válidos en todo el Estado y la Alta Inspección...”¹⁴

Beraz, eta hemen datza gakoa, irakasleriaren funtzionario-estatutuari buruzkoa Gobernu zentralak beretzat gordetzen du. Irakasle funtzionarioen titularitateak ihes egiten dio Gobernu autonomikoari eta honek, noski, erabat baldintzatu eta hipotekatzen du euskarazko irakaskuntzaren etorkizuna. Horregatik sortuko du IRALE erakundea, gehiengoa osatzen duten irakasle erdaldunak euskalduntzeko asmoz, hain zuzen, baina sekula behar adina euskaldunduko ez direnak. Geroago itzuliko gara luzeago arazo honetara.

Hizkuntz normalizaziorako lege-esparrua: mugak eta kontraesanak

Ikus ditzagun, lehenik, euskarari buruzko artikulatuak, berorren ezagutza eta erabilera arautzen duten oinarrizko legerian, hots, Espaniako Konstituzioan eta Gasteizko Gobernuak aldarrikatu dituenetan datozenak.

Espaniako Konstituzioak (1978) hala dakar 3. artikuluko 1. parrafoan: “El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocer el castellano y el derecho a usarlo”. Eta artikuluko bereko 2. parrafoan: “Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos”.

Gogoan har, lehen parrafoak dioela hiritar espainol guztiek daukatela gaztelania ezagutu eta erabiltzeko, ez bakarrik eskubidea, baita obligazioa ere.

Gasteizko Gobernuaren hizkuntz politikari buruzko legeriari dagokionez, Euskal Autonomi Estatutuak (1979) honela dakar 6. artikuluan: “1. El euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas. 2. Las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, teniendo en

¹³ Eustat, 1991, XIX.

¹⁴ Arregi, P. eta besteak, “La educación en Euskadi”, *Hezkuntza Teoriako VIII. Batzarrean aurkeztutako txostena*, Donostia, 1989, 3. Argitaragabea.

cuenta la diversidad socio-lingüística del País Vasco, garantizarán el uso de ambas lenguas, regulando su carácter oficial, y arbitrarán y regularán las medidas y medios necesarios para asegurar su conocimiento. 3. Nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua”.

Lehen parrafoan zehazki esaten denez, hor aitortzen den guztia da Euskal Autonomi Erkidegoko hiritar guztiek dutela euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea, baina ez gehiago. Ondorioa, lege-mailan, garbia da: gaztelania, edonon, ezagutu beharrekoa da; euskara, aldiz, ez.

Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko Oinarrizko Legeak (1982) Autonomi Estatutuko 6. artikuluan datorrena garatu eta zehazten du eta berori da funtsezko erreferentzi puntu bilakatu dena ondoko hizkuntz garapenean. Testuaren onarpena, 1982ko azaroaren 24ko parlamentu-legean, PSE-PSOerekin adostu ondoren lortu zen, bere ezetza agertu zuen bakarra Alianza Popular alderdia izan zelarik¹⁵. Legeria honen funtsa, beti ere euskararekiko arazoa eskubide aldetik planteatuz, honela laburbiltzen du E. Cabrerosek¹⁶:

“Partiendo de que todos los ciudadanos del País Vasco tienen derecho a conocer y usar las lenguas oficiales, tanto oralmente como por escrito (art. 5.1.), se reconocen a los ciudadanos del País Vasco los siguientes derechos lingüísticos fundamentales: a) el derecho a relacionarse en euskara o en castellano oralmente y/o por escrito con la Administración y con cualquier organismo o entidad radicado en la Comunidad Autónoma; b) el derecho a recibir la enseñanza en ambas lenguas oficiales; c) el derecho a recibir en euskara publicaciones periódicas, programaciones de radio y televisión y de otros medios de comunicación; d) el derecho a desarrollar actividades profesionales, laborales, políticas y sindicales en euskara; e) el derecho a expresarse en euskara en cualquier reunión (art. 5.2)”.

Lege honen helburua da hiritarren hizkuntzarekiko eskubide batzuk ezagutzeta eta haren normalizaziorako zeregina Gasteizko Gobernuaren eskuetan uztea. Honen ondorioz sortuko da geroxeago, 1983ko urtarrilaren 17an, Hizkuntza-Jaurpidetarako Idazkaritza¹⁷, zuzenean Gobernuko Lehendakartzaren manupean egongo dena.

Gertatu zen Gobernu zentralak, Auzitegi Konstituzionalaren Lege Organikoko 30. artikulua indarrez, legeria horren zazpi artikulua, —zehazki 5, 6, 8, 3, 10, 12, 13 eta 14—, inpugnatu zituela, argudiatuz inkonstituzionalak zirela. Emandako arrazoiak dira, batetik, EAERI berari ez dagozkion esparruetan sartzen dela eta, bestetik, gaztelaniari ez zaizkiola errespetatzen Estatuaren hizkuntza

¹⁵ Castells, J. M. “La normativa sobre el euskera”, *Revista Vasca de Administración Pública*, mayo-agosto, Oñate, 1983, 250.

¹⁶ “Sobre las normas de la Comunidad Autónoma referentes a la política lingüística”, *Revista Vasca de Administración Pública*, Enero, 5, 1983, 259.

¹⁷ BOPV, 1983-02-2.

ofiziala den aldetik dagozkion zereginak. Zehazkiago esanda, duten garrantzi-arengatik, J. M. Castellsek¹⁸ laburbiltzen dituen hiru arrazoi hauek banan-banan aipatuko ditugu, Estatuak bere hizkuntz politika nola gogoematen duen juzgatze-ko txit argigarriak baitira:

“... se defiende la atribución al Estado de las facultades pertinentes para el diseño de las grandes líneas del modelo lingüístico a implantar, por el interés supracomunitario que presenta dicha política. Segunda afirmación: interpretando la letra del artículo 3.1 C. E., respecto del castellano y únicamente del castellano cabe predicar el deber de conocerlo, no siendo posible que una Comunidad Autónoma pueda consagrar un deber de conocimiento de la lengua propia idéntico al previsto para el idioma oficial del Estado; en el supuesto que una Comunidad Autónoma obrara de tal manera, la actuación de los poderes públicos podía ser estimada como discriminatoria para el castellano, vulnerando de tal modo el artículo 14 de la C. E. Tercera afirmación: el derecho subjetivo individualizado de usar la lengua propia se corresponde con un deber subjetivo de conocimiento, pero imputable a los poderes públicos en abstracto y no respecto de los funcionarios públicos en concreto”.

Garbi dago, bada, kontraesan nabariak ematen direla hizkuntz politikan. Zer ondorio atera behar den lege-mailako auzi horretatik?

Guretzat, geure arreta inora ez garamatzen bigarren mailako interpretazio-xehetasunetan jarri gabe, hauxe da azpimarratu beharrekoa: Lege-maileko desberdintasun hori, obligaziotik eskubideraino doan hori, estatu-entitate juridikotik autonomikora dagoen jauzi politikoaren araberakoa dela, funtsean, koalitatiboa, zeren bere historia osoan zehar hizkuntz uniformetasuna aldarrikatu eta ezarri duen Estatu zentralista batek, —eta Estatu guztiak dira zentralistak—, definizioz, ez baitezake sekula onar bere gainetik edo parean egon daitekeen beste legeriarik, ez autonomikorik ez bestelakorik. Eta Gobernu autonomikoa, bere lege-esparrua baduela eta, hala pentsatzea, ilusio hutsala da, azken batean Auzitegi Konstituzionala izango baita erabakiko duena.

Euskara-esparruan sortuz datozen kontraesanak hizkuntz politika orokor horren argitan irakurri beharrekoak dira, hor barruan inplikaturik datozelarik, ez bakarrik elementu linguistiko hutsak, baita beste batzuk ere, bereziki, ekonomikoak, politikoak eta ideologikoak. Gizarte-errealitatearen bilakaera, bere orokortasunean, izaeraz kontraesankorrak diren elementu horien guztien emaitza besterik ez da. Eta gizarte-adostasuna, politika-mailan, kontraesan horiek gaindituz lortzen da, hiritar bizikidetasuna gutxienezko neurri batez bermatua izan dadin. Hezkuntza-sistemaren gizartearekiko harremana osoki horren

¹⁸ Op. cit., 255.

barruan planteatzen dute, beste askoren artean bizpahiru autore bakarrik aipatzearren, Applek¹⁹ zein Bowles eta Gintis bikoteak²⁰.

Gertatzen dena da, euskal gizartean, kontraesanak orohar areagotuz doazen heinean, hizkuntzarenean ere nabarmenago bilakatuz doazela. Adibide, plastikorik bada dioguna argitzeko.

Bat: Euskararen egoera diglosikoak, gaur egun mundu guztiak onartzen duenak, garbiki islatu eta salatzen du lege-esparruan ezkutatzen den planteamendudesegokitasuna.

Gobernu autonomikoak nola aldarrika dezake euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea, baldin gehiengoa erdaldun hutsa den gizarte batean, lurraldetasunaren printzipioa eta Estatu zentralak beretzat gordetzen duen beharrezkotasuna, batik bat, bi printzipio hauek, aintzakotzat hartzen ez badira? Zer suposatzen du esateak, lege autonomikoaren indarrez esateak, maila pribatuaren bezala instituzionalean hiritar orok euskara erabil dezakeela eta eskubide hori onartu egin behar zaiola, baldin, aldi berean, haren gainetik dagoen estatu-legearen indarrez, erdaldun pribatuak nahiz instituzionalak euskaraz erantzuteko obligaziorik ez badauka? Zer balio du pertsona-mailako hizkuntz eskubideak aldarrikatzeak baldin instituzio autonomikoak, egituraz, funtsean erdaldunak badira? Eta galderak eginez gindoazken eran, kontraesanak pilatuz joan gintezke.

Bi: Hizkuntz legeriaren esparru formaletik politikagintzara etorrira, Gasteizko Gobernuaren baitan ere kontraesanak badaude, egon, han ere gero eta ageriagoak, gizarteak bizi dituen mota guztietako harreman kontraesankorrek han islatzen baitira. Politikariaren jokabidea, azken batean, interes kontrajarrien eta indar-erlazioen aldagaiek mugatu eta erabakitzen dute. Honela, hizkuntz politikaren gidaritza daraman Eusko Jaurlaritzaren baitan, indar-erlazioaren arabera neurtu eta partekatzen dira alderdi estatalen eta autonomisten arteko interesak. Estatalak nagusituz gero, interpretazio estatalaren aldeko politika markatuko da, euskararen hedapena geldiaraztearena, alegia; autonomistak nagusituz gero, al-diz, autonomiaren aldekoa, hots, lehen aipatutako muga gaindiezinen barruan, sustatzearena. Euskarareriko zerikusi zuzena duen sailean segun eta nork hartzen duen Kontseilaritza, jarrera-aldaketak orduan bistaratzen dira ondoenik norabide batean ala bestean.

Baina binomio honek, irizpide nagusia hori izanda ere, ez du era koherentean jokatzeko gerta baitaiteke hezkuntzako sektore jakin bateko gizarte-presioengatik edo indar-erlazioan ahul egoteagatik, Euskal Jaurlaritzako partaide autonomistak jarrera murriztaileak hartzera behartuak edo, baita ere, isiltasunera makurtuak egotea. Paktismoak horixe du bere mugateko bat: noizbehinka bere

¹⁹ *Educación y poder*, Paidós/MEC, Madrid, 1987.

²⁰ "La reproducción como escenario de las contradicciones en la reproducción de la relación capital-trabajo", *Educación y Sociedad*, 2, Akal, Madrid, 1983, 7-23.

interesen kontra ere joan beharra. Adierazgarri da, zentzu honetan, Churruca hezkuntza-kontseilariak, PNVkoa izanda. 1986ko uztailaren 4an aldarrikatu zuen agindua, zeinaren helburua B ereduko zentru publikoetan irakasle euskaldunen kopurua murriztea baitzen. Orain, Euskal Eskola Publikoaren legea kaleratzeaz dagoen une honetan, antzeko kasu baten atarian egon gaitezke. Maila honetan planteatu behar dira Fernando Buesa lehendakarioordeak berrikitan (1992) egin dituen deklarazioak, Eusko Jaurlaritzatik baina Espaniako Konstituzioaren argitan egin ere, helburutzat euskararekiko politika murriztea suposatzen duten jarraiko bi puntuok azpimarratuz: euskararen lege-beharrezkotasunik eza eta gizarte-errentagarritasunik eza.

Hizkuntzaren eskubidea onartzen da, bai, baina ez beharrezkotasuna: “el ciudadano tiene derecho de saber euskara, pero no la obligación”²¹. Beraz, euskara ikasi ala ez ikasi, norberaren esku dago, azken batean. Arazo pertsonala da, ez administratiboa. Hori bai, norbaitek euskara erabili nahi badu, edonon, erabil dezake eta, 2. parrafoan datorrenaren arabera, lekuko instituzioek eskubide pertsonal hori bermatu behar diote. Hau ere onartzen du Buesak dioenean: “nadie cuestiona que no se deba enseñar a los niños el euskara y en euskara en el sistema de enseñanza; que la Administración no responda a un ciudadano que se dirija a ella en euskara; o que haya la posibilidad de expresarse en los medios de comunicación, de aprender la lengua cuando se es adulto, o de hacer una política cultural que se exprese en euskara”²².

Bestalde, murriztapen-mezua saltzen du, dioenean euskararen normalizazioan gehiegi gastatzen dela, hots, ez dagoela orekarik sustapenean gastatzen den diruaren eta hortik sortzen diren etekinen artean. Euskararen alde sobera gastatzea kritikatzeko du: “Cualquier actividad de un gobierno, de una administración pública que utiliza impuestos de todos los ciudadanos, debe estar sujeta a crítica”²³. Bestela esanda, euskara ez da batere errentagarria euskal gizartearentzat. Hara hor arazoari utilitarista ezin argi goa.

Jarrera-desberdintasun hau justifika dezaketen arrazoiak, sakonean, unean-uneakoak dira, gizartean eta Eusko Jaurlaritzan bertan egosten diren barne-kontrasesan eta indar-erlazioen arabera islatzen direnak. Azken batean, gobernu-kideen arteko paktu isil nahiz agerikoaren ondorio dira, gehienetan Gobernu zentrolean indar hegemonikoa den alderdiaren faboretan gertatzen dena, baita alderdi hori Gobernu autonomikoaren eraketan gehiengoa autonomista denean ere. PNVren kasuan bezala, Gobernu autonomikoaren Gobernu zentralarekiko menpekotasun egiturazkoak, joko demokratikoari darion errealismo posibilistan sartuz gero, es-

²¹ “Elkarrizketa”, *Egin*, 1992/05/3.

²² *Ibid.*

²³ *Ibid.*

tatu-mailako alderdi hegemonikoaren esanera paktatzera behartzen du alderdi autonomista²⁴.

Hiru: Ikastola Euskal Eskola Publikoaren sarean sartzea dela eta, prozesu horretan zehar eman diren urratsak, orobat, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntz politika orokorraren barruan aztertu behar dira. Esan daiteke hor hiru joera nabarmentzen direla:

Bata da ikastolen publikotasuna aldarrikatzen duena, baina Euskal Eskola Publikoaren sare bakarrean urtu gabe. Jokabide hau sostengatu izan dute Ikastolen Federazioek eta Eusko Jaurlaritzako sailburu autonomistek. Ikuspegi honen harian onartu zituen Parlamentuak Ikastolen Konbenioa (1980/10/4), EIKE (1983/06/27) eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza-Sailaren eta Ikastolen Federazioaren arteko Konbenioa (1987/12/18), ikastolek ziurtatu zutelarik, hurrenez hurren, beren titulatasun publikoa, estatutu juridikoa eta subentzio ekonomikoak pertsonal — eta mantenimendu—gastuetarako.

Bestea da Euskal Eskola Publikoaren barruan sare bakarra osatzea eta Ikastolak ere hor txertatzea. Baina zein baldintzatan? Hemen datza gakoa, jokoan dagoena euskararekiko trataera espezifikokoaren bermea baita. Horregatik, baldintzak zehazteko orduan, bi joera kontrajartzen dira: batetik, EEPak bere garaian proposatutakoa dago, zentru publiko transferituen sare publikoan sartuz gauzatu zena, aldez aurretik hizkuntz ereduari nahiz pertsonalaren iraunkortasunari dago-kienez gutxienezko baldintza batzuk ziurtatuz; bestetik, berri, LODEk ezarritako lege-esparruaren baitan Eusko Jaurlaritzako partaide estatalek (PSOEK eta) proposatzen dutena, euskararen estatua inola ere bermatzen ez duena.

Lau: Euskal Eskola Publikoaren aldeko prozesu honetan, publikotasunaren kontzeptuari edozein esanahi ematen zaiolarik ere, hiru gauza dira erabat bereizi beharrekoak:

Lehenik, esan behar da, irakaskuntza mailan, euskararen arazoa ezin dela pribatizatu, berorren garapena ikastoletara bakarrik mugatuz. Bide hori, emankorra izanik ere, mugatua da, hazkundearen erritmoa murriztu egiten baita. Ikastolak ongi finkatuak daude Euskal Herriko hezkuntza-sisteman. Asko hobetu dute beren azpiegitura. Baina, beste hezkuntza-sareak oro euskalduntzeko perspektibarik ez baitute eskaintzen, badirudi itxitura batean barneratuta aurkitzen direla. Amets gehiegi egitea izango litzateke, lehiaketa bidez, beren baitako bilakaera autonomoz, beste sare guztiak beregana ditzakeela pentsatzea. Alde honetatik begiratuta, badirudi Ikastolen Federazioak ahalegin serio bat egin beharko lukeela euskal irakaskuntzaren proiektu amankomunean sartu eta hor, gero gehiago zehaztuko den euskal eskolaren gutxienezko bermea ziurtatuz gero, bere protagonismoa eraman dezan. Euskara ez dagoela ziurtatua sare publikoan eta, ezin da

²⁴ Varella, S.: *El problema regional en la Segunda República Española*, Unión Editorial, Madrid, 1976.

gerra pribatua egiten gelditu eta, Eusko Jaurlaritzatik mehatxua datorkionean, jendeari manifestatzeko deia egin, gutxiago, askotan bezala, jokoan daudenak interes hertsiki ekonomikoak direnean. Euskarazko irakaskuntzaren dinamika eraman eta gizarte-zeregina bereganatzekotan, esparruak areago, hots, euskal eskola osora zabaldu behar ditu.

Bigarrenik, Euskal Euskal Publikoa osatzeko, herri-mugimenduan oinarritutako euskal eskolak, oro har, alde zuzenetik oso argi planteatuta eduki beharko ditu hizkuntz xedeak eta berorietara heltzeko bide errealak. Hori horrela, geroago azalduko ditugun datuetan oinarrituta, ezinbesteko baldintza izango da irakasleria euskalduna ziurtatzea lurralde guztirako eta hori ziurtatzeko oraintxe bertan neurri egokiak hartzea maila guztietan, eta hartzea, gainera, koherentzia osoz. Eta hala diogu, mugimendua bera bere barne-kontraesanetan eror ez dadin. Euskarazko irakaskuntza orokortuz joateko bidea hori dela uste badugu ere, pribatizazioak jadanik impassean gaitatuta gauzkalako, beharrezkotzat jotzen da eskola transferituek nahiz bide hori daramatenek euskararen sustapen areagotua ziurtatzea, publikotasunaren aldarrikapen formalak eraginda, euskaratik daukagun apur hori ere, sare publikoan gaztelaniak duen asimilazio-indar eskerdaren ondorioz, gal ez dezagun.

Euskararen aldetik, bada, berrikusi beharra dago, ez bakarrik hizkuntz eredu politikoa eta aipaturiko 1986ko uztailaren 4ko agindua, baita hori guztia ahalbideratzen duen elebitasunari buruzko legeria osoa ere. Orain artean bederen, zentzu honetan, ez da inolako plangintza zehatzik egin.

Hirugarrenik, Eusko Jaurlaritzako PSOEK eta honen hariko alderdi estatalek bultzatzen duten Euskal Eskola Publikoaren eredia, euskaldunetik deus ez duela, erabat uniformetzaila da eta, ondorioz, ezezko biribila eman behar zaio. Bidean datorren Lege-Proiektu horren kariaz, une egokia izango litzateke euskarazko irakaskuntzaren inguruan mugitzen diren herri-indar guztiak bat egin eta batera borrokatzeko. Sarturik gaudeneko impasse honetatik atera eta alternatiba berri baten atzetik indarturik abiatzeko abagune historikoa izango litzateke, agian. Bost: Beraz, alternatiba berri bati buruz gelditzen den bide bakarra ikastola guztien eta sare pribatu nahiz publikoetan euskal lerroetan (B eta D ereduetan) dabilzanen arteko batasunean datza.

Euskal eskolaren etorkizuna bide horretatik gidatzeko arrazoia sinplea bezain funtsezkoa da: euskarazko irakaskuntza daramatenek markatu behar dutela, alegia, beroriek baitira, izan, hezkuntza-egitate hori gauzatzen duten gizarte-agente zuzenekoak.

Zeregin kolektibo honetan, ikastolek erresistentziaren historian zehar izan duten gidaritza gutxietsi gabe, azkenaldian sare publikoan egin den ahalegina ere biziki kontuan hartzekoa da, kopuru absolutuetan hortik baitoa gehiengo baten euskarazko eskolatzea. Azken elementu hau ezin da ahaztu.

Euskal Eskola Publikoaren plataformak, bada, euskarazko irakaskuntza egunero-

ko praxian oinarritzen deneko gorpuzt sozialean izango du bere euskarria. Batasunak hor gorpuztu behar du.

Sei: Onartzen bada hizkuntz politikaren azken helburua euskal lurraldea euskalduntzea dela, esan behar da legeria autonomikoak ez duela inondik inora ez ahalbidetzen ez ziurtatzen, ezta gutxienezko berme batez ere, jomuga hori lortzea. Ez orain, ez inoiz. Lege-jokoan erortzea, lege autonomikoaren izenean lege zentralaren kontra jardutea, honezkeroko, hitz-ontzikeria eta maltzurkeriaren laberintean jendea nahastu eta denbora alferrik galtzea besterik ez da. Alternatiba, gelditzen den bakarra, herri-mugimenduan datza, honek ezartzen dituen xede eta bideetan.

2. Hizkuntz ereduak hezkuntzan

Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Oinarritzko Legeak bere II. atalean arautzen du euskararen erabilera nolakoa izango den irakaskuntzan. Elebitasuna ezartzen da hezkuntza-sisteman (21 art.), obligaziozkoa izanik hizkuntza ofizialaren irakaskuntza irakas-tresnatzat hautatua ez den kasuetan (16 art.). Lege honen ondorioz ahalbidetzen da euskara irakaskuntza ez-unibertsitarioan sartzeko lau hizkuntz eredu bidez, desberdintzen direnak elkarren artean murgilketa-maila handiagoaren edo txikiagoren arabera. Ordukoak ditugu, beraz, ereduak. Orduarte eredu bakarra zen: gai guztiak euskaraz bakarrik irakastearena. Ereduei buruzko emaitza estatistikoak, beraz, 1982-83 ikasturtetik aurrera dira neurgarri.

Hizkuntza-mailan, epealdi honetako ezaugarri nagusia da, ikastoletan bakarrik ematen zela irakaskuntza euskara hutsean. Eredu bakarra zen eta ez zuen hartaz inork zalantzarik, eta pentsatu ere ez zuen inork pentsatzen euskalduntzeko beste eredurik egon zitekeenik ere. Aipatutako legearen ondorioz, ikastolak ez ziren beste ikastetxe pribatu nahiz publikoetan euskara sartzeko xedearekin eraturakoak dira hizkuntz ereduak.

Euskararen ezagutzari dagokionez, A, B, D eta X ereduak hartuko dira erreferentziatzat. Emaitzak aurkeztu aurretik, ordea, argigarri deritzogu hizkuntz eredu desberdinen azalpena egiteari, zehazki jakin dezagun eredu bakoitzak zer barne-hartzen duen²⁵.

- A eredu: Euskara irakasgai gisa ematera mugatzen da, astean zenbat ordu eman Hezkuntza eta Kulturako Sailak erabakitzen duelarik. Eskolako beste gai guztiak azaltzeko gaztelania da erabiltzen den hizkuntza bakarra. Eredu hau da ikasle erdaldunci zuzentzen zaiena.

²⁵ Ereduen azalpena jadanik egina da I. ataleko 4.2 azpisailean.

- B eredia: Bai gaztelania eta bai euskara, biak beste irakasgaiak lantzeko erabiliko diren hizkuntzak dira. Gaztelania, berez, Irakurketa, Idazketa eta Matematika bezalako irakasgaietarako erabiliko da. Euskara beste arloetako gaiak lantzeko: Esperientziak, Plastika eta Dinamika, bereziki. Euskara eta gaztelania irakasgai gisa ere landuko dira, astean zenbat ordu Hezkuntza eta Kulturako Sailak erabakiko duelarik.

- D eredia: Irakasgai guztiak, gaztelania izan ezik, euskaraz landuko dira. Euskara bera ere irakasgai-moduan landuko da, astean zenbat ordu Hezkuntza eta Kulturako Sailak erabakiko duelarik. Gaztelania, eskolako beste edozein irakasgai bezala emango da eskolatzeko-hasieratik bertatik.

- X eredia: Euskararik gabeko eredia. Eskola frankistan ematen zen eredu bera eta bakarra.

Printzipioz hala ezarririk daude eredu bakoitzaren mugak. Praktikan, ordea, eredu horiek egoera oso desberdinak adierazten dituzte.

A ereduaren kasuan, adibidez, ikusi ahal izan da ordu-kopuruaren aldetik, bereziki, desberdintasunik egon dela: "Había aulas donde los niños tenían cinco horas semanales, había otras donde los niños tenían tres horas y juegos, etc., porque evidentemente el año 1982-83 todavía se carecía de los recursos de profesorado suficientes"²⁶.

Era berean, B ereduaren kontzeptua, I. Etxezarreta, X. Garagorri eta I. Osorok konstatatu ahal izan dutenez²⁷, ez da batere operatiboa gertatzen, ikastoletako errealtateak, agitz konplexuagoa denak, sailkapen-mota horren eskema hausten duelako. Dioten bezala, "zein eredutan sartuko litzateke jokabide hau: Taldea erdalduna; edukin-mailan B eredukoak; eta komunikazio-mailan euskara hutsean. Errealia al da B ereduan sartzea? Errealia al da D ereduan sartzea? Galdera honen erantzuna zaila litzateke, adibide askotan eredu bicitatik hartzen bait dira irizpideak". Horregatik, errealtateari lotuagoa irizten dioten beste sailkapen-mota hau aurkezten dute: "A multzoa: talde berean euskaldunak eta erdaldunak nahastuz; euskaldunak eta erdaldunak elkarrekin, beraz. B multzoa: talde desberdinetan: alegia, euskaldunak talde batean eta erdaldunak beste batean. D multzoa: talde desberdinetan, baina talde erdaldunetan B ereduak adierazten duen bidea edo antzekoa jarraitzen dute"²⁸.

Multzoen sailkapena egiteko, bada, haurren hizkuntz jatorria eta haiek B eredia aplikatzen deneko talde desberdinetan daukaten proportzioa hartzen dira oinarritzat. Azkenik, Felix Etxeberriaren²⁹ eta Pello Aierbereren³⁰ tesieta ikus daitekeenez, D eredia ere ez da uniforme, nahiz eta eredu honetan desberdintasunak B ereduan daukan baino txikiagoak diren.

Hemendik ondorioz ateratzen dena da, hizkuntz ereduak neurtzen direnean,

²⁶ Arregi, P. eta besteak, op. cit.

²⁷ "Elebitasuna Ikastoletan: egoera eta irtenbideak", *Jakin*, 32, Donostia, 1984, 47.

²⁸ Etxezarreta eta besteak, op. cit., 47.

²⁹ *Bilingüismo y educación en Euskadi*, EHU, Tesi doktoral, 1985.

³⁰ *Factores de la lectura en niños bilingües*, EHU, Tesi doktoral, 1986.

askotan ez dakigula zehazki zein hizkuntz errealitate neurtzen dugun. Zifrak, beraz, beti ere zuhurtziaz hartu beharrekoak dira. Segidan, EAEkoak dakartzagu.

Ikasleriaren euskara-egutza (1982-1990)

Datu estatistikoak lau ataletan banaturik emango ditugu, elebitasunaren emaitzak aldagai esanguratsuenen arabera, ahalik eta xehetasun handienaz, neurtuak izan daitezten. Honela, eredu bakoitzaren eboluzioa bere osotasunean aurkeztu ondoren, segidan eboluzio hori ikasmaila, zentru eta probintzia desberdinen arabera nolakoa izango den ikusiko da.

Horko 28. taula horretatik ateratzen den ondorioetako bat, deigarria bera, demografikoa da: hots, ikasle-kopurua urte urte gutxituz etorri dela epealdi guzti honetan zehar, 1989-90 ikasturtean 1982-83 ikasturtean baino 54.408 haur gutxiago matrikulatu baitziren. Ez da ahaztu behar EAEko jaiotze-tasa Estatu espainiako apalena dela. Fenomeno honek irakasleengan, zehazki irakasle euskaldunengan, eraginik baduela egiaztatuko da, irakasleen gutxitzea hortik baitator.

Oro har, ageri da hizkuntz ereduaren eboluzioan ere aldaketarik nabari dela. Goazen ereduka.

28. taula: Ikasle-matrikulazioaren eboluzioa ereduaren arabera (1982-90)

Ikasturteak	Hizkuntz ereduak				Guztira
	A	B	D	X	
1982-83	60,68	8,49	12,16	18,65	523.622
1983-84	66,99	8,08	14,17	13,74	524.448
1984-85	70,34	9,11	15,2	5,34	519.869
1985-86	71,53	10,31	16,17	1,97	513.146
1986-87	69,77	11,6	17,47	1,14	508.520
1987-88	67,99	12,98	18,15	0,86	499.154
1988-89	65,48	14,38	19,27	0,85	484.437
1989-90	63,23	15,56	20,3	0,89	469.124

Iturriak: Euskal Urtekari Estatistikoa, Eustat. Hemen ikasmailok daude sartuta: EA, OHO, BBB/UBI, LH, IEE eta MP. Sartu gabe: HHI eta EPA.

Aldaketarik handiena, zalantzarik gabe, X ereduaren nabarmentzen da, 1982-83 ikasturteari dagokion % 18,65 hura zazpi urteren buruan 0,89ra jaisten baita, orotara 17,76 puntu. Ulertzekoa da eredu hori hasieran hain altua izatea, hizkuntz berrikuntza orduan izan baitzen ezarria. Beste ereductan, aldiz, eboluzioak gorantz egin du. A ereduko kopurua gutxi aldatzen da, 2,55 puntu gehiago soilki; B ere-

duan nabarmenki gehiago, alde 7,07 puntukoa baita; hala ere, askogatik hazkunderik handiena ezagutzen duena D eredu da, 17,76 punturekin. Ezin da zehaztu X ereduak zein eredutara pasatu diren. A eredu? Ez dirudi, zeren kopuru bere-tuan mantentzen baita. Oso posible da Atik Bra pasatzea eta Btik Dra, eta ez alderantziz.

Dena den, orotara jaso behar den datua da B eta D ereduaren hazkundera nabarmena izan dela eta, alderantziz, X eredu ia desagertu eta A zerbait gehitu egin dela. Zentzu honetan, aldaketa-prozesu bat ageri da, X eta A ereduaren lekuan B eta D ereduak indartuz doazelarik. Hauxe da lehen ondorioa.

Baina B eta D ereduaren hazkundeak ez gaitu optimismora eraman behar, zeren oraindik ikasleriaren gehiengoa euskarazko irakaskuntzatik at baitago: % 63 A ereduaren eta 0,89 X ereduaren. Bestalde, geroago ikusiko dugun bezala, baldin B ereduak ikasle euskaldun orekatuak lortzeko ez duela balio juzgatzen bada, D ereduak % 20,30 kopuru hori ez da izugarria gertatzen helburutzat hezkuntza-sisteman egiazko elebitasuna ezartzea daukan hizkuntz politikarentzat.

Hemen ere komeni da, 29. taulari erreparatuz, ikasmailaz ikasmaila ondorioak, gainbegiratu bederen, zehaztea.

EAn, joera orokorra da X eta A ereduak behera egiten duten bitartean, B eta D ereduak gora egiten dutela, puntuak proportzio honetan banatzen direlarik: X ereduaren, 16,73; A ereduaren, 4,98; B ereduaren, 12,81; D ereduaren, 8,89. Gehien indartu dena, beraz, B eredu da.

OHO, halaber, oso antzeko joera konstatatzen da, X eta A ereduak, hurrenez hurren, 18,02 eta 3,36 puntu jaisten baitira eta B eta D ereduak, aldiz, 12,06 eta 8,85 goratzen.

29. taula. Hizkuntz ereduak ikasmailen arabera (1982-90)

Ikasmailak	Ikasturteak	Hizkuntz ereduak				Guztira
		A	B	D	X	
EA	1982-83	36,11	22,96	23,11	17,81	83.046
	1989-90	31,13	35,77	32,00	1,08	61.705
OHO	1982-83	61,55	7,09	12,63	18,71	313.123
	1989-90	58,19	19,15	21,48	0,69	251.337
BBB-UBI	1982-83	75,00	3,34	5,67	15,96	76.651
	1989-90	81,84	1,02	17,12	-	84.178
LH	1982-83	73,86	1,22	1,17	23,73	50.802
	1989-90	92,37	0,73	3,36	3,43	51.090
IEE	1982-83	-	-	-	-	-
	1989-90	72,76	2,03	25,92	-	20.540
MP	1982-83	-	-	-	-	-
	1989-90	89,8	15,56	20,30	-	364

Iturria: Euskal Urtekari Estatistikoa, Eustat.

BBB-UBIn ordea, —eta hau oso gogoan hartzekoa da—, EA eta OHoko joera antzekoarekin hautsi egiten da, zeren goi-ikasketarako bidea suposatzen duen ikasmaila erabakigarri honetan A eta D ereduak baitira gora egiten dutenak, hurrenez hurren, 6,84 eta 11,45 puntutan, B ereduak 0,49 jaitsi eta X ereduak desagertzen den bitartean. Honek esan nahi du, 1989-90 ikasturtean, ikasle-gehiengo batek ez duela euskarazko ikaskuntzarik egin, % 81,84 A ereduaren eta % 1,02 B ereduaren dabilen bitartean, % 17,12 bakarrik baita D ereduaren eskolatua. Datu hau guztiz kezkarria da, aukera horrek asko baldintzatuko baititu ikasle horien geroko unibertsitate-ikasketak eta, oro har, euskareriko harremanak. Aukera honen arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke. Bat: Ikastola gehienek ikasmaila hori ez dutenak direla eta ikasleak, gurasoen eraginez edo, gaztelaniazko lerroak hautatzen dituztela beste ikastetxeetara, bereziki pribatueta, joatean. Bi: Gerta daiteke, baita ere, OHO bukatzean, B ereduko gehienak euskara behar bezala ez menderatzea eta horregatik, irakaskuntza Ertainetako zikloak errazago ziurtatzeko xedearekin, A eredura pasatzea. Hala izatekotan, ikasmaila honetan nabari den euskarazko irakaskuntzarekiko prozesualdaketak egiaztatuko luke B ereduak elebidun desorekatuak sortzen dituela eta, ondorioz, eredu hori ez dela baliagarria euskarazko irakaskuntzarako.

LHn, asko indartu dena A ereduak izan da, 18,51 punturekin; D ereduak ere zerbait bai, baina 2,29 puntu bakarrik; B eta X ereduak 0,49 eta 20,3 puntu apaldu dira. Esan behar da, portzentaia orokorretara joan eta, gehiengo batek (% 92,37) euskara irakasgai gisa bakarrik daukala, B ereduak indarririk ez duela (% 0,73) eta dezente direla (% 3,43) euskararekin inolako harremanik ez dutenak. Euskarazko irakaskuntzaren presentzia, esateko, testimoniala (% 3,46) da. Ikasmaila hau dugu erdaldunena.

IEEn, BBB-UBIrekin konparatuz gero, esan daiteke euskarazko irakaskuntzak osasun hobea duela, B eta D ereduaren dabilentzarako % 2,03 eta % 25,92 baitira, nahiz eta gehienak, % 72,76, A ereduaren eskolatua izan. Euskarak ikasmaila honetantxe du, hain zuzen, presentziarik handiena. Hau ere ikertzekoa izango litzateke zergatik den horrela. Geroago ikusiko dugun bezala, LH gehienak pribatuak baitira eta horietan euskararen presentzia apalagoa baita, izan bide daiteke hori arrazoiaren zati bat. Gehiago gabe, bego, oraingoz, hipotesi gisa.

Azkenik, MP ikasmailari dagokionez, LHn nabari den joera nagusitzen da, portzentaia hauek direlarik: % 89,83 A ereduaren, % 6,04 B ereduaren eta % 4,12 D ereduaren.

30. taula. Hizkuntz ereduak ikastetxeen arabera (1982-1990)

Ikasmailak	Ikasturteak	Hizkuntz ereduak				Guztira
		A	B	D	X	
Publikoak	1982-83	62,74	7,71	3,86	25,67	266.732
	1989-90	68,33	18,71	12,90	0,03	220.417
Pribatuak	1982-83	73,42	6,65	4,92	-	194.878
	1989-90	81,13	11,24	5,34	-	179.340
Ikastolak	1982-83	2,30	24,54	68,73	14,99	62.012
	1989-90	0,36	16,80	82,83	2,28	69.093

Iturria: Euskal Urtekari Estatistikoa, Eustat. 1989-90 ikasturteari dagokionez, ez dira hor kontabilitatzen MP ikasmilari buruzko datuak.

Jarraian, 30. taulako datuak hartuz, eredu bakoitzak zentru desberdinetan nolako eboluzioa izan duen azalduko dugu banan-banan.

A ereduak gora egin du 5,59 eta 7,71 puntutan, hurrenez hurren, zentru publikoetan eta pribatuetan. Ikastolak izan dira 1,94 puntu behera egin duten bakarrak. Honek esan nahi du A ereduak dela nagusitzen dena, askogatik nagusitu lehen zentru horietan, bereziki zentru pribatuetan.

Era berean, B ereduak izan da indartu dena: 11 puntu publikoetan eta 4,59 pribatuetan; ikastoletan, aldiz, 7,74 jaitsi da. Oro har, eredu hau da gehien indartuz datorrena.

Orobat, D ereduak gutxiago indartu da, baina dezente gehiago publikoetan pribatuetan baino, hurrenez hurren, 9,04 eta 0,42 puntu. Pribatuetan, esateko deus ez. Ikastolak dira eredu honi eusten dioten bakarrak, lehen baino 14,1 puntu gehiagorekin. Honek esan nahi du, joera gisa, ikastolak direla D ereduaren sostengu nagusi.

X ereduak presentzia handiagoa izanez segitzen du zentru pribatuetan publikoetan baino, nahiz eta bietan puntu asko jaitsi den: lehenengoan 27,62 eta bigarrenean 70,06. Euskararen ausentzia, bereziki, zentru pribatuetan nabari da. Hemen nahikoa garbi ageri da gehienak erlijiosoek diren ikastetxe pribatu horiek, euskarari dagokionez, gutxienezko arautegiari lotzen zaizkiola.

Kopuru absolutuetara etorruta, zentru publikoetan, euskararen sarrerari dagokionez, aldaketarik nabari da. B eta D ereduak batera hartuta, zentru publikoetan, 1982-83 ikasturteko 30.879ko ikasle-kopuru hura, 1989-90 ikasturtean 69.707koa izatera iritsi da, ikastolek, epealdi berean, 54.699tik 68.843rako gorakada egin duten bitartean. Beraz, hasieran ez bezala, orain ikasle-kopuru antzekoa dabil bi eredu horietan, zertxobait aurrea hartu dietelarik publikoek ikastolei. Dena den, datuok konparatzeko orduan, ez da ahaztu behar ikasle-gehiengoa, oro har, zentru publikoetan dabilela, 1989-90 ikasturteko datuen arabera, % 47,01 publikoetan, % 38,25 pribatuetan eta % 14,73 ikastoletan.

Baina, berriro esan behar da, B ereduaren emaitzak benetan zalantzan jarztekoak direla. Geroago itzuliko gara zehazkiago puntu honetara. Horregatik, esan izan den bezala, ezin da esan zentru publikoek hartu dutela euskararen protagonismoa, oraindik ere D ereduaren funtsezko gordailu ikastolak baitira, izan. Bestalde, 31. atalak erakusten duenez, hizkuntza ereduaren eragina desberdina da herri bakoitzean.

Lehenik, 1989-90 ikasturtea mugatatz harturik, Araba eta Bizkaiaren ahulezia ageri da, horietan ikasle-gehiengoa A ereduari dena baita: % 77,52 lehenengoan eta % 71,69 bigarrenean. Gipuzkoan kopuru hori erdiraino ere ez da iristen: % 43,26. Honek, noski, Araban eta Bizkaian gaztelania nagusitzen dela adierazten du eta, beraz, gizarte-ingurune hori kontuan hartuz egin behar direla irakaskuntzarako plangintzak. Adibidez, irakasleria euskaldunaren eragina arras erabakigarria gerta daiteke probintzia hain deseuskaldundu horien euskarazko irakaskuntzan. Bizkaiaren kasuan, adibidez, Bilbo hiri erdaldunak ikasle-kopuru handia biltzen du.

31. taula: Hizkuntz ereduak herrialdeen arabera (1982-1990)

Herrialdeak	Ikasturteak	Hizkuntz ereduak				Guztira
		A	B	D	X	
Araba	1982-83	60,80	9,80	1,71	29,20	65.071
	1989-90	77,52	16,55	4,36	1,55	64.435
Bizkaia	1982-83	60,31	6,81	7,47	25,39	280.890
	1989-90	71,69	12,26	15,23	0,80	251.934
Gipuzkoa	1982-83	61,23	11,21	23,40	4,14	177.661
	1989-90	43,26	20,59	35,39	0,74	152.845

Iurria: Euskal Urtekari Estatistikoa, Eustat.

Bigarrenik, desberdintasun horren barruan, B eta D ereduaren eboluzioa begiratuta, ageri da hiru probintzietan positiboa izan dela, hirurek egin baitute gora, gehien Gipuzkoak, B ereduari 9,47 punturekin eta D ereduari 12,15ekin.

Hirugarrenik, A ereduari dagokionez, Gipuzkoan izan ezik, beste bi probintzietan kopurua hamar puntu igo egin da 1982-1990 epealdian. Gipuzkoan, lurralderik euskaldunenean ere, eredu hori da nagusi, bakarka hartuta: % 43,26.

Hizkuntz ereduaren ebaluaketa kritikoa

Datu estatistikoak eskaini ondoren, ikus dezagun neurtuak izan diren kontzeptuen edukia. Hasieran esan bezala, eztabaidagarriena A eta B ereduak plante-

atzen duten arazoa da. Konplexuagoa da zehazten bigarrena lehenengoa baino. A ereduaren bideak, hainbat eta hainbat aldiz frogatua izan denez, ez ditu betetzen euskarazko irakaskuntzaren helburuak. A ereduaren bidez ez dira lortzen edozein hizkuntzarako hitzunei dagozkien trebetasun minimoak, hala nola: ulermena, mintzamena eta idazmena. A eredia, beraz, ezin da ikasleak euskalduntzeko baliagarritzat jo. Kasurik onenean ere, oinarritzko hiztegi eta arau gramatikalak bakarrik lor daitezke. Lehen esan bezala, hizkuntz eredu hau erdaldunentzat pentsatua dago. Baina honetan ere ez da betetzen euskaldunen eta erdaldunen arteko portzentaiaren legea, demokrazia formalaren izenean eraikia. Baldin 1981-11-28ko zentsuaren arabera³¹, EAEn % 32,71 bada euskalduna, A ereduan dabilen ikasle-kopurua hori baino % 10,43ko batez garaia-goa da. Honek esan nahi du jatorrizko hainbat ikasle euskaldun A ereduko ikastetxe derberdinetan dabilela. Bide honek ez garamatza inora, itxurak egin eta irakaskuntzaren euskalduntzea frenatzera ez bada.

B eredia da, A ereduarekin batera, Eusko Jaurlaritzak haur erdaldunak euskalduntzeko ezarri duen bigarren bidea, helburutzat duena ikasleak bi hizkuntzetan gaitasun berdinez prestatzea 12 urterekin Bigarren Mailako Irakaskuntza hasiko dutenerako. Lehen esan bezala, praktikan, eredu honek erre-alitate bat baino gehiago ezkututzen du.

Baina hortik aparte, gure ustez oinarritzkoak diren ohar pare bat egin behar dugu, eredu horren bideragarritasuna zalantzan jartzen dutenak.

Lehenengoa, juridikoa da. Ereditu honetan, bereziki ikusten denean euskara indartzeko doala gizarte-eskearen ondorioz, Administrazioak hainbat oztopo jarri ohi du, kanpotik nahiz barrutik. Eta oztoporik handienetako bat, lehen aipatutako 1986ko uztailaren 4ko aginduak ekarritakoa da, zeinaren arabera B ereduko OHOk irakasleen erdia bakarrik izango baita derrigorrez euskalduna, beste erdiak euskara ez jakitea zilegitzat ematen delarik. Uste dugunez, inolako arrazoi pedagogikorik gabe, zeren irakasle ez-euskaldun eta, are gehiago, antieuskaldunen presio-neurrien aurrean amore ematea izan baitzen agindu horren izateko arrazoi bakarra.

Bigarrena da, euskarari buruz, D ereduaren emaitzak hobeak direla B ereduaren aldean. Irakaskuntza mailako elebitasunaz egin diren ikerketa desberdinek erakutsi dutenaren arabera, emaitza hauek jaso daitezke:

- D ereduan eskolatutako ikasleek B ereduan eskolatutakoek baino puntuazio garaia-goa lortzen dituztela Ulermenaren nahiz Sorkuntzaren arloetan eta, errendimendu akademikoari dagokionez, Matematika eta Esperientziaren arloetan ez dela eragin argirik nabarmentzen³².

³¹ Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-azterketarako lantaldea: "Euskararen borroka", *Jakin*, 26-26, 1983, 41.

³² Aierbe, P. eta besteak, op. cit.

- B ereduko ikasleek D eredukoek baino puntuazio apalagoak lortzen dituztela euskarari eta gaztelanierari, berriz, A eredukoak antzekoak³³.

- B ereduan eskolatuek, Matematikako probetan, D eredukoek baino puntuazio apalagoak lortzen dituztela ebaluaketa euskaraz egiten denean, eta antzekoak gaztelanierari egindakoak³⁴.

- Batetik, bi hizkuntzetan oreka handiagoa lortzen dutela batezbesteko puntuazioetan D eredukoek beste bien konparazioan; bestetik, B eredukoak puntuazioak, oro har, hobetuz doazela eta, azkenik, B eta D ereduetan eskolatutako erdaldunek, gaztelanierari dagokionez, A eredukoak antzeko maila erakusten dutela³⁵.

Emaitzak orotara hartuta atera daitezkeen ondorio nagusia, guk hemen azpimarratzen duguna, da A ereduak elebarrak erdaldunak sortzen dituela, B ereduak elebidun desorekatuak eta, azkenik, D ereduak bakarrik elebidun orekatuak³⁶.

Irakasleriaren kopurua

Ikasleekin bezala egingo da, irakaskuntzarako nolako giza kapitala daukagun jakiteko. Lehenik zenbat diren eta, bigarrenik, horietatik zenbat elebidun. Datuak, gaurkoagorik ez baitugu eskuartean, 1986-87 ikasturteari dagozkionak dira. Eguneratu beharrekoak, beraz.

32. taula. Irakasleria herrialde eta ikastetxe-moten arabera (1986-87)

Kerrialdeak	Ikastetxe-motak						Guztira	
	Publikoak		Pribatuak		Ikastolak			
Araba	1.964	60,17	1.084	33,21	216	6,61	3.264	10,68
Gipuzkoa	4.154	46,06	2.883	31,97	1.980	21,95	9.017	29,51
Bizkaia	7.950	60,12	4.197	31,74	1.975	8,13	13.222	43,28
Nafarroa*	2.894	57,37	2.150	42,62	351	6,98	5.044	16,51
	16.962	55,52	10.314	33,76	3.622	11,85	30.547	

Iurria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, *Unibertsitate eta Ikasketak* (1987-XII-1).

* Nafarroako datuak 1982-83 ikasturtekoak dira.

³³ Etxeberria, Felix, op. cit.

³⁴ Lukas, J. P., op. cit.

³⁵ EIFE, 1990

³⁶ Lukas, J. F., op. cit., 124

Irakasleriak, oro har, 30.547ko kopurua hartzen du, 1981-82 ikasturtean baino 3.858 irakasle gehiago dago. Eta herrialdeen arabera, Bizkaia eta Gipuzkoan finkaturik dago ia lautik hiru: Bizkaian 13.222 (% 43,28) eta Gipuzkoan 9.017 (% 29,51). Bi probintzia hauen ondoren, Nafarroa dator eta, azkenik, Araba 3.264 irakaslerekin (% 10,68). Probintziatik probintziara, ikasle-mailan ikusi den portzio beretsua kausitzen da irakasle-mailan ere.

Irakasleak zentruen arabera banatuz gero, berriz, irakasle gehiago dabil publikoetan pribatueta baino: han 16.962 (% 55,52) eta hemen 10.314 (% 33,76). Halere, zentru pribatu eta publikoetan dabilzan ikasle-kopuruarekin konparatuta, zentru publikoetan dabilzan irakasleen kopurua dezente handiagoa da portzentzian. Honek esan nahi du ikasle-kopuru txikiagoa daukala irakasle bakoitzak zentru publikoetan pribatueta baino.

EGA titulua daukaten irakasle euskaldunen kopurua, guztira, 7.282koa da, hots, % 24,07koa. EGA tituludun irakasle euskaldunak honela banatzen dira zentruen arabera: % 67,02 ikastoletan, % 26,10 publikoetan eta % 12,57 pribatueta. Eta herrialdeen arabera, Gipuzkoa da irakasleriarik euskaldunena duena, % 37,34-rekin, segidan Bizkaia % 22,31rekin, azken biak Araba eta Nafarroa, hurrenez hurren, % 19,73 eta % 6,95ekin.

Zifra hauetan EGA titulua dutenengana bakarrik mugatu gara. Baina, bista-koa denez, ez daude hor euskaldun irakasle guztiak. Adibidez, ikastoletan dabilzan 3.622 irakasleetatik 2.235 bakarrik dira EGA tituludunak. Beraz, % 38,29 EGA titulugabea da ikastoletan. Kopuru absolutueta 1.387 irakasle dira egoera honetan daudenak. Honek esan nahi du irakasle euskaldunen % 24,07ko kopuru hori dezente gehitu behar dela. Irakasle euskaldunen egiazko kopurua zein izan litekeen zehaztea zaila da, inola ere. Dena den, gutxieneko % 24,07ko kopuru horrek gogoeta batzuk egiteko aukera ematen du.

33. taula. EGA tituludunen portzentzaiak EA, OHO, BBB-UBI eta LHko irakasleen artean (1986-87)

Herrialdeak	Ikastetxe-motak			Guztira
	Publikoak	Pribatuak	Ikastolak	
Araba	22,14	6,45	64,35	3.264
Gipuzkoa	34,06	20,18	69,19	9.017
Bizkaia	22,11	11,10	67,53	13.222
Nafarroa*	-	-	-	5.044
	26,10	12,57	67,02	30.547

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa (1987-12-15). Nafarroako kopuru absolutua 1982-83 ikasturteari dagokiona da.

Batetik, 1983-84 ikasturteko datuekin konparatzen bada³⁷, irakasleriaren euskalduntzean urrats galanta eman dela konstatazen da, orduan euskaldunen portzentaia % 7koa baitzen. Baina posible al da horrelako aldaketa handia hain denbora gutxian? Nondik eta nola gertatu da? Edota, bestela, 1983an eskainitako datu haiek ez ziren batere zehatzak. Orain, baldin datuok fidagarriak badira, zentru pribatuetako % 12,57 irakasle euskaldunak dira. Oraingo apalena duela bost urtekoa baino dezente garaiagoa da. Ulertzen zail samarra.

Bestetik, zifra hauetan optimismo gheiegitxo agertzen dela badirudi ere, irakaskuntza euskalduntzeko prozesu orokorrari begiratzen bazaio, helburu horretatik oraindik urrun gaudela esan behar da, egun ere ez baita laudenera osoki heltzen irakasle euskaldunen kopurua. Eta nola euskaldundu irakaskuntza, irakasleak ez badira euskaldunak? Ezinezkoa da. Gainera, EGA tituluak puztu egi-ten du kopurua, titulu hori edukitzeak ez baitu esan nahi irakaskuntza osoa euskaraz emateko gaitasuna duenik.

Euskararen ezagutza Irakasle-Eskoletan

Euskarazko irakaskuntzari hertsiki atxekia dago Irakasle-Eskoletako hizkuntz trataera, ikastetxe hauek baitira biharko irakasleen mintegi naturala. Harrobitik nolako irakasleak irten, euskaldunak ala ez, ondorioak ere halakoak izango dira gero ikastetxeetan. Norberak duen huraxe erreproduzitzen du. Euskara dakienak euskaraz irakas dezake, ez dakienak nahita ere ez. Hortxe dago diferentzia. Eta honen iturrian bertan daude Irakasle-Eskolak.

Hemen bi atal ikusiko dira: batetik, zein den ikasle-kopuruaren eboluzioa eta, bestetik, zein ikasle euskaldunen kopurua.

34. taula: *Ikasle-kopuruaren eboluzioa EAeko Irakasle-Eskoletan (1979-87)*

Herrialdeak	Ikasturteak			
	1979-80		1982-83	
Araba	895	17,12	850	11,72
Bizkaia	2.700 (2)	51,66 (3)	3.357	46,29
Gipuzkoa (1)	1.631	31,20	1.947	26,84
Guztira	5.226		6.154	

(1) Gipuzkoako hiru Irakasle-Eskoletakoak sartzen dira batera.

(2) Deustuko Irakasle-Eskola estatalekoak bakarrik datoz.

(3) Deriokoak eta Deustukoak batera..

³⁷ *Deia*, 1983/09/20.

Ikasle-kopurua, 34. taula honetan ageri denez, zerbait gehitu egiten da, baina ez asko: 928 ikasle gehiago. Hemen, iruzkinetan sartu gabe, datua konstatatuzera bakarrik mugatzen gara. Goazen, besterik gabe, ikasle euskaldunen kopurua ikustera, 35. taulan barneratuz.

Lehenik, esan behar da Irakasle-Eskoletan biharko egunean irakasle izateko asmotan dabiltzan 3.337 ikasleetatik 664 bakarrik direla euskaldunak, hau da, % 21,29. Ezta laurdena ere. Euskara jakin gabe sartzten dena, nahiz eta eskola-sistema barruan euskararen irakaskuntza antolatuta, esperientziak egiaz-tatu du euskara menderatu gabe irteten dela. Neurriak, dirudienez, ikasketak hasi aurretik jarri beharko lirateke, ikaslegaiak euskara zein neurritan jakin behar duen finkatuz.

35. taula: *Ikasle euskaldunak Irakasle-Eskoletan (1986-87)*

Herrialdeak	Irakasle-Eskolak	Euskaldunak		Guztira
		Kop. Abs.	100	
	Estatala	185	36,27	510
Gipuzkoa	Elizbarrutikoa	69	100	69
	Eskoriatza	180	100	180
		434	78,75	759
	Estatala	128	18,41	695
Bizkaia	Elizbarrutikoa	54	52,42	103
		182	35,41	798
Araba	Estatala	38	12,10	314
Nafarroa (1)	Estatala	10	1,41	707
Guztira		664	21,29	3.337

(1) Datuok 1987-88 ikasturteari dagozkionak dira.

Bigarrenik, zifrak herrialdeka hartuz, ikasle euskaldun gehienak (% 78,75) Gipuzkoan kokatzen dira, gero Bizkaian (% 35,41), segidan Araban (% 12,10) eta, azkenik, Nafarroan (% 1,41). Normala da Gipuzkoako ikasleria euskaldunena izatea. Hala da, batetik, herrialderik euskaldunena bera delako eta, bestetik, Eskoriatzako eta Donostiako elizbarrutiko Irakasle-Eskola pribatueta ikasle guztiak euskaldunak izatea arautua dagoelako. Ez dirudi horrela funtzionatzen duenik Derioko Irakasle-Eskola pribatuak, hemen ikasle euskaldunen portzentaia % 52,42koa baita.

Hirugarrenik, Irakasle-Eskola estatalak bakarka hartu eta oraingo zifrak 1982-83 ikasturtekoekin konparatuz gero, emaitza hauek jasotzen dira: orain Donostiakoan % 36,27koa da ikasle euskaldunen kopurua eta orduan % 19,22koa zen, Deustukoan % 18,41ekoa orain eta 9,63koa orduan, Araban % 12,10ekoa

orain eta 13,64koa orduan, Nafarroan % 1,41ekoa orain eta % 4,28koa orduan. Gipuzkoa eta Bizkaiaren kasuan, ikasle euskaldunen kopurua ia biderkatu egiten den bitartean, Arabari eta Nafarroari dagokienez, alderantziz gertatzen da, lehen kasuan zerbait eta bigarrenean asko jaisten baita. Herrialde hauetan, beraz, eboluzio desberdina eman da: lehen bietan aldekoa eta azken beste bietan kontrakoa.

3. Irtenbideak

Datu estadistikoek argitan jarri digutena da euskarazko irakaskuntzak, 1980ko hamarkadan aurrera egin badu ere, orohar hezkuntza-sistemaren barruan aurrerapen horrek ezer gutxi suposatzen duela. Badirudi eredu bakoitzaren joerak jadanik finkatuxek gelditu direla. A ereduak, bereziki, nekez egiten du atzera.

Hori horrela dela, zer egin?

Jokabide antzu eta bukatuak

Hamar urteko ibilaldia aski badela uste dugu euskal erreformak zer eman duen eta zer eman dezakeen usmatu ahal izateko. Aski datu adierazgarriak dira aurreko orrialdeetan eskaini ditugunak. Honezkero, beraz, argiago dago zertan ez ditugun galdu behar geure indarrak eta nondik nora ez dugun jo behar.

Bat: Ezin da eskola hizkuntzaren etorkizunaren erantzule bakar egin, zeren, nahiz eta hezkuntza-sistemak bere autonomia erlatiboa baduen, azken batean, bera kokaturik dagoeneko gizartearen oinarrizko kontraesanak sortzen eta birsortzen baititu. Tesi hau nahikoa sendoturik dago gaurko Hezkuntzaren Soziologian. Hezkuntzak badu bere dinamika sortzailea, bere barne-kontraesanen bidez gauzatzen dena, baina ezin ditu gaingitu, ordea, gizartetik datozkion egiturazko determinismo-motak oro. Eskolaren eraldakuntza zeregina, zentzu honetan, mugatua da.

Horregatik, hezkuntza-sistema gizarte osoaren barruan mikrogizarte gisa funtzionatzen duen azpisistema bat izaki, hari buruzko planteamenduak gizarte-egitura osoaren ikuspegitik begiratuta egin beharrekoak dira eta, ondorioz, gizarte-mekanismoaren bilakaera historikoan funtzezkoenak diren faktore eraginkorren inplikazioak kontuan hartu behar dira, horien artean politikoak, ekonomikoak, ideologikoak eta, gure kasuan, ezpezifikotasunez hornitutako etniko-linguistikoak. Azken ezaugarri hauetan oinarritzen da, bereziki, euskalduntasuna.

Ondorioz, hezkuntza-sistemaren barruan, euskararen arazoa planteatzean, abiapuntua ezin da mugatu, inola ere, hertsiki eskola-mailara, aldi berean, eskolara eta gizartera baizik.

Bi: Hezkuntza-sistemaren barruan, euskararekiko planteamendu partziala erakusten duten proposamenak ez dira onargarriak. Gaur egun, irakaskuntza ez-unibertsitarioaren barruan, hiru sare dira hezkuntza-sistema osoa osatzen dutenak: zentru publikoak, pribatuak eta ikastolak. Zentzu honetan, ez litzateke bide jatorra izango, zentru publiko nahiz pribatuetan euskarazko irakaskuntza ez dagoela behar adina bermatua eta, herri-dinamika osoa ikastolen autonomia administratiboaren aldeko borrokara iraultzea. Arazoa ez da soilki euskarazko irakaskuntzaren arloan irabazia dugun esparruari eustea, baizik eta areago, berreuskalduntze osoaren amoretan erdararen asimilazio-prozesu indartsuari gain hartuz joan gaitezen, erdarak bereganaturik dauzkan sektore publiko eta pribatu horiek ere irabaztea. Herri-dinamika horretan, ikastolek, duten pisuarengatik, erantzun historikoa daukate betetzeko, hezkuntza-sektoreko beste indarrekin batera jokatuz. Ez dugu uste bere arazo espezifikoak konpon ditzakeenik, gutxiago euskararenak, baldin eta planteamenduak egoe-ora orokor horretatik aparte egiten badira, hots, maila partikularrean. Zentzu honetan, galdetzekoa da Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak eztabaidarako kaleratutako Euskal Eskolaren Disenua txostenak zein orain aurrera atera nahi den “Euskal Eskola Publikoaren Lege-Proiektuak” erantzuten dioten ala ez euskal eskolaren planteamendu orokorrari. Publikotasuna titularitatearen irudi juridiko berrian oinarrituz, badirudi horren helburua gehiago dela finantzaketa altxor publikotik ziurtatzea sare guztientzat euskarazko plangintza baterako lehen urratsak aurreratzea baino. Azken maila honetan, eskola euskaldunaren aldeko aldarrikapen orokorrak aparte, ez da inolako proposamen zehatzik agertzen. Eta hau sintomatikoa da.

Hiru: Bide itxia da, halaber, euskarazko irakaskuntzaren plangintza orokorra sare publikoan oinarritzea, bereziki gaurko esparru juridikoaren indarrez hezkuntza-sistemak funtzionatzen duen bezala. Borroka indibidualak, nahiz eta sistemaren barrutik dihardutenen ahalegin kolektiboak -adibidez eskola transferituenak, edo herri-eskolenak- benetan bultzagarriak gertatu, uste dugu testimonialak izatetik ez direla pasatzen egituraz erdalduna den hezkuntza-sisteman. Galdera da ea zein neurritan den posible, proposatzen den ikastolen eta eskola publikoen arteko “konfluentzia” (hau da gaur indarrean dagoen hitza) honetan, Euskal Eskola eraikitzea oraingo esparru juridiko barruan. Publikoa, bai, izan daiteke; euskalduna, besterik da. Eztabaida honetan, arazoa nazio-ikuspegitik begiratuta, “euskalduna” da hitz substantiboa; “publikoa”, aldiz, adjektiboa da.

Honekin esan dena da, oro har, arazoa ez dela ez partikularra, hots, ez ikastolena eta ez ikastetxe batzuenak bakarrik, baita egitura ere eta, ondorioz, inten-bide orokorra aurreikusi behar dela.

Alternatiba berri bati buruzko proposamenak

Alternatiba berri bati ekiteko orduan, lau mailatako arazoak aipatuko ditugu: juridiko-politikoak, pedagogikoak, hizkuntz soziologikoak eta antolaketazkoak. Honekin ez da esan nahi besterik egon ez daitekeenik. Lau maila horiek, arestian esan bezala, hertsiki harremandurik gogoematen ditugu, hain harremandurik ezin direla elkarrengandik ez bereizi eta ez banandurik gogoeman.

Juridiko-politikoak

Gaurko hezkuntza-plangintza, Franco hil eta gero juancarlistoarekin inauguratzen den erreforma politikoan oinarritzen da, hots, Europako Mendebaldean ohikoa den demokrazia formalean, zeinaren arabera giza-eskubide indibidualak hartzen baitira kontuan eta hauek hartu, gainera, proportzionaltasun-printzipioaren arabera. Eskubide kolektiboak, demagun euskararenak, printzipio horren arabera arautzen dira: zenbat euskaldun, hainbestekoa izango da bizitza publikoan hari dagokion gizarte-eskubidea, ...

Horregatik, euskararen normalizaziorako eman diren arauak, elebitasunaren bidetik mailaz maila berreskurapen osora hel daitekeela aldarrikatzen den arren, baieztapen arras engainarriak dira, praktikan egingarriak ez direlako.

Herriaren euskalduntze-prozesua egiazkoa izan dadin, gure ustez, ezinbesteko baldintzok bete beharko lirateke, lege juridikoan arautuak egon beharko luketenak:

- Pertsona-eskubidea ukatu gabe, ukazina delako, *lurralde-printzipioaren ezarpena*, zeinaren arabera euskara mintzatua izan den eta asimilazioaren poderioz egun galdurik dagoen lurraldeetan ere hura zuzpertzeko azpiegiturak martxan jartzeko ahalbidea emango bailuke. Belaunaldi gaztea, haurrekin hasi eta, euskaldundu ezinik ez dago.

- *Euskararen beharrezkotasuna legeztatzea*, herriaren euskalduntze-zeregin kolektibo honetan Administrazio publikoak ezin baitu norberaren borondatean utzi hizkuntzarekiko erantzukizuna. "Boluntarismo linguistikoa" deitua, besterik gabe, hiltzera kondenatua dago. Horregatik, euskararen ezagutza lege beharrezko bihurtzen ez den bitartean, gaztelania den bezala, haren erabilera gizartean lagunartera edo famili txokora murrizturik egongo da, eta horietan ere gero eta gutxiago, ez baita errentagarria egituraz erdalduna den gizartean. Kontraesan hori, hasteko, lege-mailan ere gainditu beharra dago.

Gaurko lege-esparrutik abiatuta, zenbait instantzietan, beti ere eskubide pertsonaletan oinarrituta, errebindikazio batzuk egin daitezkeela? Bai, egia da eta, zentzu honetan, esan behar da irekiak dauden zirrikitu guztiak ez direla betetzen ez errebindikazio pertsonalez ez kolektiboz. Baina hori gertatzen da Ad-

ministrazioak berak, kasu gehienetan, aintzakotzat hartzen ez dituelako. Gainera, lehen esan den bezala, errebindikazio horiek muga bat dute, eta gaindiezina bera: gatzelaniaren beharrezkotasunak euskararen eskubideari ezartzen diona, alegia. Jauzi koalitatiboa dago hor.

Pedagogikoak

Hizkuntz politikari dagokionez, geroago zehaztuko ditugun arrazoi soziolin-
guistikoengatik, elebitasunak ez du balio euskararen egoera diglosikoa gaindi-
tzeko. Eta elebitasuna esatean, zera esan nahi da: bi hizkuntza txandaka erabil-
tzeko gaitasuna³⁸. Euskal gizarte osoa noiz eta nola bilakatuko da egiazko elebi-
dun, aipatu dugun hitz horren zentzu hertsian, baldin gehiengoa elebaker erdald-
na bada eta, gainera, gizarte-abantaila guztiak berak baditu? Egiazko elebidun ba-
karra, gaur gaurkoz, euskalduna da. Horregatik, arrazoizkoa dirudi, elebitasunaren
printzipioa erabili ordeztu, elebakartasunarena erabiltzea, arazoa ez baita euskaldu-
nak elebiduntzea, baizik eta erdaldunak elebiduntzea, hauek bakarrik baitira ele-
bakarrak. Euskaldunak aspalditik daude elebidunduta.

Elebitasunaren aplikazioa, hezkuntza-sisteman, aipatutako hizkuntz ereduen
finkapenean gauzatu da. Elebitasun orekatua lortzeko eredurik ziuirena, inolako
zalantzarik gabe, D ereduak da, ikastolek bere historia luzean erabili izan dutena.
Esan den bezala, B ereduak ez du bermatzen egiazko elebitasuna. Beraz, gai guzti-
ak euskara hutsean egindako irakaskuntza bideragarri izan dadin, besteak beste,
hiru baldintzok bete behar dira:

Bat: *Pedagogikoa*. Haurrek elebitasunerako gaitasuna badutela frogatu behar
da. Lehen, 1920 eta 1930eko hamarkadetan elebitasunari buruz zegoen uste pesi-
mista hura gaintuz, zeinaren arabera bigarren hizkuntzaren irakaskuntza beran-
dutu egin behar baitzen ezagutza-mailan atzerapenik ekar ez zezan, gaur egun
pentsatzen da hobe dela haurra haste-hastetik elebitasunean hezte, murgilketa-
bidezko eskolatzear baliatuz lortzen dena. Areago oraindik: haurretan elebidun
izatea ahalezko ez ezik, aberasgarri ere bada. W. Lambertek³⁹, elebitasunaren
ondorio positiboak aipatzerakoan, jarraiko hauek dakartza: ezagutza-mailako za-
lutasuna, sortzeko ahalmena, pentsamentu desberdindurako gaitasuna eta azkenik,
nortasunaren aldetik, kultura bat edo gehiagoren arteko harremanak sendotzea. E-
lebitasunaren esperientzia indarrean dago Kanadan eta, azkenaldi honetan egin di-
ren ikerketak, gehienbat handik datozenak dira. Halere, nahasterik sor ez dadin, e-
san behar da Kanadan aplikatzen den ereduak maila batean bakarrik dela guretzat

³⁸ Muller, I., "Elebitasuna Euskal Herrian: teoria eta egoera", *Jakin*, 32, 27.

³⁹ "Algunas consideraciones del bilingüismo", *Revista de Occidente*, 10-11, 1982, 143-166.

baliagarri, zeren, soziolinguistikaren aldetik, frantsesaren corpus-estatusa eta euskararena ezin baitira inola ere berdinu.

Bi: *Soziala*. Elebitasun orekatua bideratzeko ez da nahikoa frogatzea pedagogia aldetik ahalezko dela. Esperientzia hau, Kanadara joan gabe ere, Euskal Herrian bertan ondo samar egiaztatua dago lurralde erdaldunduetan bezala euskaldunetan finkaturik dauden ikastoletan. Herri-borondatea ere zaindu behar da, euskarazko irakaskuntza bortxatua izan ez dadin. Zentzu honetan, badirudi euskarak gizarte-onarpen aski zabala duela. Joan den urtean (1991), Hizkuntza Politikarako Idazkaritzaren aginduz egindako inkesta batek dakarrenez, gehiengo batek (% 79k) pentsatzen du “haurrek euskara ikas dezatela nahitaezkoa izan behar dela”⁴⁰. Gehiengoaren herri-eskabidea hori bada, gizarte-sostengua bermaturik legoke.

Hiru: *Politiko-sindikala*. Arazoa da euskarazko irakaskuntza eskaini eta eman ahal izateko, irakasleriak, bere osotasunean, euskalduna izan behar duela, lanbide horretarako berme osoz gaitua egongo dena. Hego Euskal Herrian, 1986-87 ikasturtean (ez dugu geroztiko daturik), 30.547 irakasle ziren guztira eta horietatik, esan bezala, 7.282 EGA titulua zutenak, hots, % 24,07.

Jakina denez, irakaskuntzan hizkuntz ereduak bideratu zirenez geroztik, Eusko Jaurlaritzak IRALE egitaraua dauka martxan jarria irakasle erdaldunak euskalduntzeko. Eta diru-inbertsioak ere, bide hori indartzeko asmoz, biderkatzeraino handitu ditu azkenaldian, orduan 180 milioi pezetakoa zena orain (1992) 3.000 miliokoa baita. Esaten denez, 1982-1992 epealdian zehar, 4.058 irakasle izan dira, bere irakasle-lanak utzi eta, IRALE egitarauan jardun dutenak⁴¹.

Baina hizkuntz jokabide horri guztiz antzua deritzogu, bistako arrazoi hauengatik: batetik, bide horretatik irakasleriaren euskalduntze-prozesua asko luzatzen delako eta, bestetik, egiazko irakasle euskaldunak sortzeko duen gaitasunaz zalantza asko dagoelako. Luza ditzakeen gaitasun-titulua gorabehera, EGA ala bestelakoak, euskarazko irakaskuntzaren praxi egunerokoan egiazta- tuak beharko lukete egon, titulu horien azpian zein mailatako euskara-ezagutza ezkatutzen den jakin dezagun.

Irakasle funtzionarien kompetentzia Gobernu zentralari dagokionez, ulertze-koa da Eusko Jaurlaritzak IRALE egitaraua gauzatzea, esparru juridikoak gehi- gorako maniobra-tarterik eskaintzen ez diolako. Hementxe datza, hain zuzen, euskal eskolak daukan arazorik sakonenetako bat, gure ustez sakonena eta kon- plexuena, zeren, une berean, politikoa eta sindikala baita. Politikoa da, irakasle funtzionariak, Estatuaren aurrean eskubide lortuak dituen bezala, bere legezko estatusari eusten diolako; sindikala da, bere lanbidean segitzeko, langile-eskubi- deak errebindikatzen dituelako. Egitura-mailako antagonismo honen argitan ulertu behar dira irakasle erdaldunen presioak eta Eusko Jaurlaritzaren aipaturi-

⁴⁰ Bandres, L. M., “Euskararen alde”, *Egunkaria*, 1992,-05-3.

⁴¹ *Egin*, 1992,-04-24.

ko murriztapen-aginduak, guztiak euskal eskolaren kontra doazenak zuzen-zuzenean. Hemen dago kontraesana argitu beharra, eta berori gainditzeko euskal dinamika osoa elkartu beharra. Berrito diogu, funtsezko arazoa, une honetan, hortxe datza.

Egoera honek jadanik kontraesan bortitzak ekarri ditu, euskarazko lerroarentzat biziki kaltegarriak, zeren, ikasle-kopurua urritzean eta Irakasle-Eskoletako euskarazko irakaskuntza indartzean, azken harrobi horretatik ateratako irakasle euskaldun berriak lanik gabe gelditu baitira eta Irakasle-Eskola pribatuetako bat, —Donostiako elizbarrutikoa, hain zuzen— atek itxi beharrean aurkitu baitzen. Hara kontraesan nabaria: hainbat eta hainbat irakasle euskaldun behar izan eta, halere, horko sektore batek langabeziara joan beharra.

Zirkulu itxi horretatik atera beharra dagoenez, zerbait proposatzen hasi eta, proposamenak bi bide hauetatik joan daitezkeela uste dugu:

Batetik, IRALERen egitaraua erabat baztertu gabe, horko inbertsioek ondo justifikatuak egon beharko lukete, ikusiz eta egiaztatuz, ikerketa arras hurbilekoen bidez, ea nolako ekarpena egiten duen irakasleriaren egiazko euskalduntzean. Eskaintza eman, irakasle orori eman behar zaio, inor zapuztua izan ez dadin. Gaitasunik erakusten ez badu, ordea, ez luke zertan zapuztua sentitu. Egokiena, beste lanbide bat eskaintzea izango litzateke, lanpostuz aldatzea, alegia.

Bestetik, irakasleriaren prozesua azkartzeko, ezinbestekoa ikusten da irakasle euskaldun gaituak sortuko dituen azpiegiturak antolatzea, jadanik martxan dauden Irakasle-Eskolak berregituratuz eta, behar izanez gero, ad hoc ikastetxeak eraikiz, xede nagusizat izango dutenak irakaskuntza ez-unibertsitario osoarentzako irakasleria osoki euskalduna ziurtatzea epe jakin baten barruan. Honek eskatuko luke, noski, Irakasle-Eskola horietan hizkuntz politika berria ezartzea bai irakasleentzat bai ikasleentzat, euskarazko irakaskuntza hasieratik bertatik bermatua izan dadin. Proposamen honek aldaketa koalitatiboa eskatuko luke, zeren, funtsean, aurreaukera bat egitea suposatzen baitu, sarrera euskaldunentzat mugatzea edo antzeko neurriak hartzea.

Soziolinguistikoak

Gure arazo nagusia ez da euskara corpusaren zein estatusaren aldetik zein gizarte-egoratan aurkitzen den deskribatu eta tipifikatzea. Jadanik nahikoa ondo egina dago euskarak pairatzen duen egoeraren diagnosis. Iñaki Larrañagak⁴² hone-laburbiltzen ditu haren diglosi egoera ezaugarritzen duten elementu oinarritzakoak. Lau dira hauek:

- prozesu mailakatua buruturik egotea, hasteko; euskaldun elebarrak des-

⁴² "Euskal soziolinguistikaren egoera eta bide berriak", *Jakin*, 42-43, 1987, 15-16.

agertzea, ondoren; erdaldun elebkarrek euskara ikasi beharrik ez sentitzea; azkenik, eta ondorioz, gehiengoa erdara bakarrik jakinez bizitzea.

- gizarte- bizitza euskaraz egin ahal izateko, lurgune geografiko konpaktu minimorik ez edukitzea.

- hizkuntz transmisiorako ohiko bideak, hots, familiak huts egitean, gizarte agente berriek erdaren erreproduzioaren alde eta euskararen aurka funtzionatzea.

- euskararen erabilera, gizarte-bizitzarako errentagarri ez izatean, azkenaldiotan ikaragarri jaisteia.

Diagnosia eskuan dugula, nondik nora jo pentsatzerakoan agertzen dira teori ikuspegi desberdinak. Bada joera funtzionalista bat, gehienbat Eusko Jaularitzaren aholkulari den Fishmanen ikuspegian islatzen dena⁴³, zeinaren arabera elebitasunari buruzko azterketa ikuspegi sinkronikotik abiatuta egiten baita, arrazoi historikoak kontuan hartzeke. Antzeko planteamenduak egiten ditu Mackeyk ere⁴⁴, beronen hizkuntz eredu desberdinen proiektzioan ez baitatuz garbiki implikatutik gizarte-faktore determinatzaileak. Txepetxeren eredu teorikoak ere badu halako apolitikotasun-kutsu nabariegia⁴⁵, zeren hizkuntzaren erabilera funtsezkoa dela, hitzunari garrantzia eman behar zaiola, hizkuntz komunitate bakoitzari espazio bat zor zaiola, etab., alderdi guztiok azpimarratzea, argigarri izan arren, ez baita nahikoa arazoaren sustrai teorikora joateko. Zergatik? Bada, goian esan bezala, hizkuntzen arteko gatazkan faktore politikoak, ekonomikoak eta bestelakoak interes kontrajarriez eta eraginkorrez harremandurik daudelako. Zentzu honetan, Calvetek⁴⁶ koloni herrialdeetarako erabilitako eredu teorikoa beste horiena baino egokiagoa zaigulakoan gaude, zeren honek, hasierako bere lan horietan, batik bat, hizkuntzaren arazoa gatazka soziopolitiko eta ekonomikoan oinarritzen baitu. Gure herria ez da egun kolonia herri bat, baina izana da erromatarren garaian eta orduko ondorioak jasaten ari da oraindik ere, oso modu berezi batez, maila linguistikoan. Baldin eta esplikatzen bada zergatik eta nola jausten den hizkuntza bat egoera diglosikoan, Calveten hitzetan esateko “glotofagian”, ikuspegi diakroniko eta dinamiko horrek argitasunik eman dezake, halaber, berreskurapenerako zutabe oinarritzeko aurkitzeko orduan.

Antolaketazkoak

Arrazoi akademikoak egiazko euskal eskola, baldintza batzuk bestez gero, ahalezko dela baieztatzen badu, berori lortzeko indarrak nola antolatuta da geldit-

⁴³ *Sociología del lenguaje*, Cátedra, Madrid, 1979.

⁴⁴ *Bilinguisme et contact des langues*, Klicksiek, Paris, 1976.

⁴⁵ Un futuro para nuestro pasado: *Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*, Estella, Lizarra, 1987.

⁴⁶ *Linguistique et colonialisme. Petit traité de glotophagie*, Payot, Paris, 1974.

tzen den azken arazoa, hau ere aski larri eta konplexua, tartekatzen diren aurretizi eta interes partikularrengatik.

Honetan guztian ikusi behar den lehen puntua da zein den, euskal eskola nahi dugunontzat, kontraesan nagusia. Ez da pribatua ala publikoa izan, nahiz berau garrantzitsua izan, baizik eta, lehen-lehenik, beste hau: historian behingoz euskal eskola sor dadino, euskalduna izan ala erdalduna izanez segitu.

Hori horrela, Euskal Eskola Publikoaren aldarrikapen honetan aurrera zintodasunez egin ahal izateko, jarraiko baldintzok ezinbestekotzat jotzen dira:

Hezkuntza-sare desberdinen arteko sektakeria gainditu eta euskal eskolaren protagonismoa daramaten indarrak oro, ikastoletakoak nahiz beste sektoreetakoak, elkartzea plangintza amankomun baten barruan.

Plangintza honetan, nahiz eta elkarrri oso lotuak egon, euskalduntasunari datxezkion ezaugarri espezifikokoak eta publikotasunari datxezkionak garbiki bereiztea, Euskal Eskola Publikoaren aldeko borroka desbideratua gerta ez dadin. Gestio demokratikoa, titularitate publikoa, zentruen autonomia, finantzaketa publikoa, lan-esparru berria, eskolarteko koordinakuntza, etab., ezaugarri guztiok lan- du beharreko puntuak dira, garrantzitsuak, baina balio, euskalduntasuna bermatuz gero bakarrik balio dezakete, gure kasuan bederen.

Oraingoz egituraz erdalduna den hezkuntza-sistema honen aurrean, garrantzitsuena hurbileko xedeak eta urrutikoak bereizi eta bakoitzaren eginkizunak zehaztea da. Zer-nolako euskal eskola nahi dugun irudikatuz gero, errazago asmatuko da nola jokatu aldi bakoitzean Administrazioak jar ditzakeen lege-oztopo desberdinen aurrean.

V

MAIATZAREN 25a: ZIKLO BERRI BATEN HASIERA?'

Ezagunak zaizkigu emaitzak: ikastola erdiak edo, sare publikora pasa dira, ikasle gehienak ikastoletan gelditu diren bitartean. Honek esan nahi du, datu gordin horien interpretazioan sartuta, ondasunez ondoenik hornitutako ikastolek erantzun ahal izan diotela hezkuntza-legearen desafioari; zentzu honetan, badirudi ikastola bakoitzak egindako aukera egun bizi duen ekonomi egoeraren isla izan dela, kasu batzuetan, gainera, hartzekodunek kanpotik bortxatua. Bestalde, lege-arazoez zintzilik diraute kooperatiba-sistema daukaten ikastoletan, inpugnazioen esanera.

Eztabaida lehendik datorrena da eta gertatuak, egia esan, ez nau ustekabeen harrapatu. Jadanik 1980ko hamarkada-hasieratik aurrera larrituz etorri den krisi-prozesu sakon baten ondorio normala izan da. Krisiaren lehen abisua 1983an eman zen, EEParen eraginez, ikastola batzuk zentru publiko transferituak izatera pasa zirenean. Mugimendu horrek erabilitako argumentua zen, EIKEren proiektuaren arabera, irakaskuntzaren euskalduntzea soilki ikastoletara mugatzea zela eta, ondorioz, jokabide horrekin euskal gizartean bi komunitate sortu nahi zirela. Alternatiba horren aurrean, Ikastolen Konfederazioak, sare publikoan sartzeari uko eginez, titularitate propioa aldarrikatzean oinarritu zuen bere estrategia. Bere jokabidea justifikatu zuen esanez, ikastolek asimilatuak izateko arriskua zeukate-la sare publiko erdaldunaren barruan eta, egitura hori aldatu bitartean, behin-behinekiko irtenbidea ikastolen berezko hazkundeari eustea zela, horretarako lehia-kidetasunean oinarritutako eskola-eredua, kalitatezkoa deitu izan zaiona, bizkortuz.

¹ *Egin*, 1993-06-1.

Ordukoaz zer esan gaurko leihatilatik begiratuta? Biek bazutela beren arrazoi-puska, baina ez batak eta ez besteak osoa. Konfederazioaren planteamenduak aldeaz asmatu zuen, eskola transferituek ez baitute lortu ikastoletako ereduari eustea, ez bederen oinarritzotzat dauzkagun hizkuntz murgilketari eta pertsonalaren egonkortasunari buruzko puntuetan. Hezkuntza-sistemaren asimilazio-indarra erabakigarriagoa izan da Administrazioak agindutako garanti hitza baino.

1. Antzeko ikasle kopurua

Baina aldeaz bakarrik asmatu zuen, zeren, 1982-90 epealdiko datu estatistikoek erakusten duten bezala, proportzioan hazkundearen eritmorik biziena ikastoletan eman bada ere, azken urteotan, kopuru absolutuetan euskarazko irakaskuntzaren hedapena eskola publikotik etorri da gehienbat. Antzeko ikasle-kopurua zebilen 1990ean, 79.000 ingurukoa, ikastoletan eta eskola publikoan. Errealitate horren aurrean, bada, ezin da ezikusiarrena egin.

Impassea, beraz, bi aldetatik egon da. Ulergarriago gertatzen zait planteamenduetan erabat ez asmatzea, gizontxoena baita erratzea ere. Baina nekezago oinarritzen dut Ikastolen Konfederazioak azken hamar urteotan eraman duen hezkuntza-politika, funtsean ekonomizista eta posibilista, Gasteizko Administrazioari atxekia eta herri-mugimendutik aldentua. Herriari urtean bost aldiz eta bost lekutara deitu zaion bakoitzean, dirua jasotzeko deitu zaio, ez hezkuntza-sistemaren aldaketa errebindikatzeko. Azken hau lehengoa bezain garrantzitsua da, niretzat garrantzitsuagoa, ikastolen lehen epealdian izan zen bezala. Hutsune politiko eta ideologiko honek izan du eraginik oraingo krisi honetan eta, nire ustez, uste baino handiagoa. Bestalde, baldin kontuan hartzen bada Gasteizko Administrazioan PSOEek oso azpian harturik daukala PNV gobernukidea, nahikoa erraz esplikatzeko da Eskola Publikoaren Lege hau indartsu sentitzea gure ahuleziaren aurrean.

2. Bi alternatiba

Lege-proiektua kaleratu zenean, bi alternatiba ziren posible: bata hezkuntza-komunitate osoari intsumisiora deituz eta desadostasuna kalean agertuz, lege-proiektu horri ezezkoa eman eta, bidenabar, bi sareen arteko konfluentzia aldarrikatzea Danon Artean plataformaren inguruan, eta bestea, legea bera egin zutenekin negoziatuz, ikastolei irtenbide partikularra ematea. Ikastolen Konfederazioak bigarren aukera egin zuen. Bilboko manifestazio hura sinboliko hutsa izan zen. Haizerrotata bat besterik ez. Honen frogatzea da ez zuela segidarik izan. Honela, berriro, PNVrekin paktismo antzu eta misterioetsuan urrezko

denbora galduz eta ikastolen mugimenduan bertan sekulako mesfidantza sortuz, noraezaren zuloan sartuta utzi gaitu.

Halere, maiatzaren 25ak gogoeta sakon bat egiteko eta gauza asko argitzeko parada eman digu. Mindura handia daukat, Administrazioa gauza izan delako, batetik, legea ideologia aurrerakoiaz ondo mozorrotuta, ikastoletako partaideok elkar-erasoka jartzeko eta, bestetik, hezkuntzari buruzko gure arazo nagusia desbideratzeko. Eskola pribatua ala publikoa erabakitzeko orduan, erantzunaren inmediateismoak eraginda, eztabaidaren beroan ez da esan gure funtsezko arazoa, kontraesan nagusia alegia, eskola euskaldunaren eta espainolaren artekoa dela. Nik bereizten ditut hemen ezarrita daukagun hezkuntza-sistema estatalean eskola pribatuak, publikoak eta ikastolak. Hau guztia errepikatu beharrak egiazki lotsatzen nau, baina entzundakoak entzun eta irakurritakoak irakurri eta gero, idatzi beste erremediorik ez dut.

Dena den, eztabaida patxada onean eramanez ez bada ere, sobera politizatua egon bada ere, egiazko arazo batzuk plazaratu dira. Ondo jabetu gara krisi honek, azpi-azpian, kausa estrukturalak dituela, bere oinarriak politikan dituen, eta horiei puntualki erantzunez joaten ez garen bitartean, urrunduz joango garela euskarazko irakaskuntzaren helburutik. Hau bederen badu positibotik. Eta nik alderdi hau azpimarratu nahi nuke.

3. Ideia baliagarriak

Irtenbiderako proposamenak? Ez gaude hutsetik abiatzeko egoeran. Egin nahi den euskal eskola berriaren inguruan, teoriarik bederen, proposamen jakin batzuk formulatzen jardunak dira Ikastolen Konfederazioa, Sortzen, Unibertsitateko Hezkuntza-Mintegia, etabar, eta horietan jasotzen diren ideiak balaiagarriak izan daitezkeelakoan nago, hala nola: konfluentzi prozesuaren plangintza eta hezkuntza-komunitatearen autonomia zentruen gestio-antolaketa eta hezkuntza-proiektuaren nahiz hizkuntz politikaren finkapenean. Areago zehaztuz, oinarriko puntuak iruditzen zaizkit jarraiko hauek: a) hizkuntz politikari dagokionez, murgilketa-metodoaren finkapena, irakasleria euskaldunaren ezarpena eta lurralde-printzipioaren onarpena; b) gestio-antolaketari dagokionez, botere lokalean oinarritutako deszentralizazioa, erabakitzeko ahalmena izango duena hezkuntza-proiektua egiteko nahiz irakasleak kontratatuzko orduan; d) pedagogiari dagokionez, irakasleriaren egonkortasuna, kalitatezko irakaskuntza ahalezko izan dadin.

Beraz, Euskal Eskola Nazionala lortzeko, badakigu zer ez den egin behar: lehengo bidetik kaskagogor segitu eta herri-protagonismoa aparatu burokratiko baten eskutian utzi. Gertatua eskarmenturako izan bekigu. Eta hau esanda, zer egin behar dugun orain hobeto dakigu: etenak ireki dizkigun zauriak lehen-

bailehen sendatzen ahalegindu, sare publiko nahiz pribatuko euskal irakas-
kuntzan dihardugun indar guztiak —hemen gurasoak, irakasleak eta ikasleak
sartuz—eguneroko praxian elkartu, eta presioa egin eskola-sistemaren barrutik
eta kanpotik. Horretarako gorputz organiko bat eratu behar da, egiazki eragilea
eta militantea izango dena, eta arnasa herri-mugimendutik hartuko duena.
Horrela bakarrik lortu ahal izango dugu hurrengo legegaldian lege-esparru dui-
nago bat izatea, zeren eman, ez digu inork ezer ezertxo ere emango eta.
Gehiegizko hipokresia da esatea Hezkuntza-Saila izan dela txantaia egin
duena. PSOE errudun eta PNV ez? Nahikoa da, jaunak!

Eta bukatzeko, zinez diot ziklo berri eta esperantzakor baten aurrean gau-
dela. Nire zalantzarik handiena hauxe da: zein erakundek bideratuko ditu
hezkuntza-komunitatea osatzen dutenen errebindikazioak? Galdera zintzilik
uzten dut.

VI.

EUSKAL ESKOLA NAZIONALA EGINKIZUN¹

Arazoren bat hots handiz kaleratzen denean, askotan nahasten dira arrazoi politikoak eta akademikoak, hau da, egiazko arrazoiak eta ez direnak, edota arrazoi batzuk ezkutatzen dira eta beste batzuk nabarmentzen. Hori guztia komenientzien arabera. Horrelako zerbait gertatu zelakoan nago 1993ko uda-partean ikastolen arazoa irakaskuntza publikoaren eta pribatuaren arteko alternatiba gisa planteatu zenean.

Hasteko hauxe esango dut: gure arazo nagusia ez da eskola publikoa ala pribatua, baizik eta Euskal Eskola Berria lortzen ahalegintzea edo, oraindik zehatzago esanda, arrazoi historiko jakinengatik bere garaian lortu ez zen Euskal Eskola Nazionala gauzatzea. Beraz, eztabaida honetan “publiko” nahiz “pribatu” adjektiboen azpian ezkutatzen den arazoa, garrantzitsua izanik ere, bigarren mailako zerbait da. Naziotasuna da hemen hitz substantiboa. Eskola nazionalaren barruan publikoa ala pribatua izan, hau beste maila bateko arazoa da.

Badirudi oroitzapen historikoa galdu dugula eta zalantzan jarri ditugula euskal irakaskuntzari aitortu zaizkion balio batzuk, horien artean pedagogi eredu berritzailea eta, bereziki, euskalduntasuna. ikastolen betiko helburua, 1960ko hamarkadatik aurrera, irakaskuntzaren bidez euskal gizarte osoa, Hegoa eta Iparra, hiri handiak nahiz txikiak, dena euskalduntzea izan da, batez ere deseuskaldunduak izan diren herrialdeak berreuskalduntzea eta, zergatik ez!, inoiz euskaldun hutsak izan ez direnak euskalduntzea. Eta badirudi,

¹ *Bai*, 13-14, EKB, 1994ko azaroa, Donostia.

egunean egunekoa bizi eta atzera begiratzeko astirik ez dugulako, oinarrizko erreferentzia hauek ahaztu egin zaizkigula.

Horregatik, baldin onartzen bada helburu horrek orain ere zutik irauten duela bere osotasunean, galdetu behar da zein bide diren egokien, eraginkorren eta ziurrenak helburu horretara joateko. Galdera honi erantzuteko, arazoa beti ere ikuspegi sozio-historikotik begiratuta, euskarazko irakaskuntzaren garapena gehien baldintzatzen duten faktoreak zein diren aztertu behar da. Nire ustez, hauek politiko-juridikoak eta soziolinguistikoak dituzu. Hauekin harreman estuan, baina bigarren maila batean datoz hertsiki pedagogikoak. Gatozen, bada, beroriek pixkabat gainbegiratzera. Azkenean, interbide posiblen artean, bat proposatuko dugu. Balantze antzeko zerbait egingo dut.

1. Oztopo politiko-juridikoak

Arazo politiko-juridikoen eragina behar bezala aztertzeke, gerrateondoan bi aldi bereizi beharra dagoela uste dut: frankismo-garaia eta gerokoa.

Frankismo-garaia dagokiona ezaugarritzeko orduan, bost puntu nabarmentzea guztiz beharrezko ikusten dut, horien kontrastean bakarrik uler baitaiteke gaur arteko eboluzioa. Gogorarazteko xedearekin hezur hutsean doazkizun honako hauek dituzu:

- *Ikastolen hazkunde bizkorra*. Ez ditut hemen aipatuko ikastolek legeztatzeke izan zituzten zailtasunak, 1965etik aurrera, batik bat; baina, bai, esan nahi nuke, eta datu hau oinarrizkoa da, ikastolen hazte, sendotze eta egituratzea autonomi legeria aplikatzen hasi aurretik egin zela. Lehen transferentziak 1980an egin ziren lehen mailako irakaskuntzan. Ikastolek erakusten zuten osasun onaren adierazgarri dira datu hauek: 1964-65 ikasturtean 596 ikasle zebiltzan eta 1981-82an, berriz, 69.935. Gorakada ikaragarria². Puntu hau gogoan hartu behar da gero esango dugunerako, funtsezkoa baita Euskal Eskola Nazionala eraikitzeke bidean nondik nora jo erabaki beharra tokatu den une eztabaidagarri bezain ilun honetan.

- *Herri-protagonismoa*. Esan behar da artean oso indarrean zegoela gizarte-mugimendua eta ikastoletako gizarte-egileak, gurasoak nahiz irakasleak, hauek, batik bat, oso sartuta zeudela herri-dinamikan eta horien eskuetan zegoela ikastolen protagonismoa. Zapalkuntza frankistak berak asko indartu zuen herritarren militantismo eta solidaritatearen sentiberatasuna, ideologi desberdintasunen gainetik jarrera amankomunak mantentzeraino indartu ere.

- *Gipuzkoako Ikastolen Federazioaren herri-dinamika*. Hau 1969an eratu zen, eta honek ere, irakasle-taldeekin bere ezinegonak izan bazituen ere 1970eko

² Iztueta, P., "Euskal eskolaren bila", op. cit., 132.

hamarkada-hasieran, herri-borrokaren ildo horretatik aurrera segitu zuen eta azpiegitura oinarrikoenak falta ziren epealdi larri hartan ikastolak maila nazionalen koordinatu eta zuzentzeko helburuari zintzo eutsi zion.

- *Irakasle-taldearen partehartze eragile eta zuzena.* Irakasleek ikastolei egin dieten ekarpena modu askotakoa izan da, baina, batez ere, pedagogikoa. Bazeuden kolektibo honetan ere, noski, arazo ideologikoak, ikastolen bizkar burgeskeriaren sanbenittoa botatzen zutenak, eta horrelakoak. Salaketa hauek euskal ezkerreko sektore bati 1970eko hamarkada-hasieran internazionalismo marxistak eragindako suharraren isla ziren. Baina orduan ere, nahiz eta ikastolen erakundea klasearteko ikuspegitik kritigarri atzeman, sektore horrek garbi zeukan ikastolen helburua euskal irakaskuntza euskalduntzea zela.

- *Pedagogi eredu berri baten finkapena.* Ezin da ukatu ikastolek hezkuntza-estilo berria sortu dutela, originala eta aberatsa. Berrikuntza handiak ekarri ditu ikastolen inguruan egindako esperientzia kontrastatuak pedagogiaren nahiz antolakuntzaren aldetik. Ikastolak izan dira, beren mugen barruan, demokratikoa, herritarra, autogestionarioa, berrizalea, partehartzailea izaten gehien saiatu direnak. Herrian eta herritarrek sortu eta bideratua izateak ematen dio erakunde honi bere berezitasuna, Euskal Eskola Nazionalaren prototipoa izateko koalitate guztiak dauzkana. Ez dago eredu bila kanpora joan beharrik. Inbentoa egina dago.

Erregimen demokratikoarekin hasten den bigarren epealdian (1978-1994), ordea, gizarte-aldagai berriak tartekatzen dira eta hauek eragin zuzena bezain sakona izango dute ikastolen eta, oro har, euskal irakaskuntzaren eremuan.

Sorreran, 1978ko Espainiako Konstituzioa dago, 3.artikuluko 1.parrafoan hauxe dakarrena: "Todos los españoles tienen el deber de conocer el castellano y el derecho de usarlo". Ondoren, 1980an, Gobernu zentralak Gasteizkoari hezkuntza ez-unibertsitarioan egiten dizkion transferentziak daude, baina 1985eko LODEren arabera, konpetentzia batzuk beretzat gordetzen ditu, zehazki hauek: hezkuntza-sistemaren antolaketa orokorra, titulu akademikoak eta profesionalak ematea eta goi-inspektzioa egitea.

Euskal Estatutu Autonomoak, 1979an, 6. artikuluan esaten du hiritar guztiak dutela bi hizkuntzak, gaztelania eta euskara, ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Artikulu hori areago zehaztuz, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarriko Legea dator 1982an, PSE-PSOErekin adostua, zeinetan irakaskuntza bi hizkuntza ofizialetan hartzeko eskubidea dagoela aldarrikatzen baita.

Esparru juridiko honek orain artekoan eman duena hauxe izan da: nahiz eta Gasteizko Administrazioetik behin eta berriz esan euskarari lege aldetik posibilitate handiak irekitzen zaizkiola eta irekitzen diren zirikitu denak erabiltzen ez badira euskaldunon erruz dela, euskara, *de facto*, bigarren hizkuntza dela, baztertuta izanez segitzen duela, eta hori, beste faktore batzuk aparte, legeriak berak baldintzatzen duelako gertatzen dela horrela. Eta nik esango nuke gehienbat horregatik, zeren, legearen arabera, gaztelania baita beharrezko bakarra, kolektibo

osora hedatzen dena, euskararen erabilera maila indibidualera mugatzen den bitartean. Euskal Herrian ez dauka inork euskara ikasteko obligaziorik, eskubidea bakarrik. Horixe gogorazten zuen Fernando Buesa kontseilariak 1992an, gaineratuz, ausardia handiz, Administrazio publikoak diru gehiegi gastatzen zuela euskararen berreskurapenean.

Lege horiek atera eta gero, irakaskuntza mailan hiru sare (eskola publikoa, pribatua eta ikastolak) aurkitzen baitziren, esparru autonomikoaren barruan, ikastolei nolako tratamendua eman izan da arazoa. Beti ere ezarritako lege-esparruaren barruan jokatzuz, Gasteizko Parlamentuan neurri batzuk hartu izan dira, Hezkuntzako Sailburua nor izan, hala taxutu izan direnak. Gobernu-mailako indar-erlazioen neurrikoak ditugu egin diren hitzarmenak: Ikastolen Konbenioa 1980an, EIKE 1983an eta Euskal Gobernuko Hezkuntza-Sailaren eta Ikastolen Federazioaren arteko Konbenioa 1987an eta, azkenik, Euskal Eskola Publikoaren legea 1993an.

Hezkuntzako Sailburua alderdi autonomisten harikoa izan den bitartean, bada, ikastolek bermatu izan dituzte beren titularitate publikoa, estatutu juridikoa eta subentzio-ekonomikoak.

Ikastolari dagokionez, bi joera plazaratu izan dira, batez ere EIKE bideratu zenez geroztik.

Bata 1983an eraturako EEPA mugimendua izan zen, ikastetxe publiko transferitu batzuk sare publikoan sartzeari ekarri zuena, alde zuzenetik hizkuntza ereduari eta pertsonalaren egonkortasunari dagokienez gutxienezko baldintza batzuk ziurtatzea eskatuz. Sare publikoan sartzeko erabiltzen zen argumentua bikoitza zen: bat, ez dela espero izatekoa irakaskuntza ikastolek izan dezaketzen hedakuntzaren bidez euskalduntzea eta ondorioz, EIKERen hezkuntza-plangintza soilki ikastole-tara mugatzen denez gero, bide horrek irteerarik ez duela; eta bi, horrela jokatzuz gero, euskal gizartean bi komunitate bereizten direla, batean euskaldunak eta bestean erdaldunak. Hortik zihoazen, beren nabardurekin, HBren planteamenduak, euskal eskola publiko baten bila. Porrot egin zuen.

Bestea EIKERena zen, PNVk bideratu zuena. Honen sostengatzaileek zioten proiektu hori zela legeriak onar zezakeen irtenbide bakarra, zeren ikastolak sare publikoan integratzeak arrisku handian jar baitzezakeen beraien ezaugarri nagusia: hots, euskalduntasuna. Eta hemendik zihoan Ikastolen Konfederazioaren politika ere. Sare publikoan sartzeari uko egin eta bere titularitate propioa eskatzen zuen.

Aipaturako arazo hori plazaratu zen garai hartan, bi ikuspegi horiez aparte, beste ikuspegi bat ere argitaratu zen prentsan³. Proposamenaren silogismoa hone-labur daiteke:

Bat: Ikastola izango da biharko Euskadiko Eskola Nazionala. Hori izango da Euskal Eskola Bakarra. Euskadi bere buruaren jabe izango denean, subiranoa

³ *Egin*, 1983-11-17/18.

alegia, orduan bakarrik lortu ahal izango da eskola-eredu hori: “Eskola Bakarra, Euskadin, bertako herri borrokaren fruitua izango da, Euskadi burujabe eta bateratua lortzen den heinean. Bitartean, etsaien joku instituzionala egiten ari gara”.

Bi: Sare publikoaren egitura funtsean erdalduna baita, ikastolak, hor barruan sartuz gero, egitura hori aldatu baino gehiago asimilatuta geldituko lirateke: “Zer aldatuko litzateke beste ikastetxe publikoetan, gu Sare Publikoan sartuta?”.

Hiru: Interbidea, beraz, ikastolen berezko hazkundeari eustea da, horretarako lehiakidetasunean oinarritutako eskola-eredua bizkortuz: “Geure eragina ez dago instituzioetan, edo instituzionalizatuta, orain arteko bidean baizik: ikastolak haztean, ugaritzean. Eta orduantxe bai, ikastetxe pribatuak zein publikoak (konpetentziaren eraginez) ‘euskarazaleak’ bihurtuko dira. Hori bera gertatzen ari bait da Gipuzkoako herri gehienetan”. Eta ikastolen hazkundearen adibidetzat, Gipuzkoako ikastola batzuen zerrenda ekartzen du taulan, hor sartuz: Zarautz, Legazpi, Azkoitia, Beasain, Arrasate eta Eibarkoak, erakustera emanez nola herri horietan ikastolen presentzia beste sareen parekoa edo handiagoa den.

Iritzi hau “Maixu” kolektiboak atera zuen. Ez dakigu zein zen talde hori, baina, bai, esan dezakegu filosofia horrek harrezkero bere bidea egin duela Ikastolen Konfederazioaren hezkuntza-politikan. Bere lekuan aztertuko dut plantamentu horren okerra.

Ikastolen Konfederazioak, azken epealdi honetan, aldaketa nabarmenak ezagutzen ditu. Elkarre hiru, haziz joan ahala, mikrobotere bihurtzen da, funtzionamenduan burokratizatu egiten da eta ikastolen gestio-bideak monopolizatzen ditu. Orain, aurreko epealdian ez bezala, hizkuntz errebendikazio politikoak ez, baizik ekonomikoak lehenesten ditu. Jokabide honek eramango du, batetik, etengabe negoziatuzera Gasteizko Administrazioarekin aldian aldi-ko kojunturen arabera eta, bestetik, herri-mobilizazio soilki ekonomikoak egitera: Kilometroak, Oinez, Araba Euskaraz, Herri Urrats, eta gisakoak.

Eta horrela segitu du, beti ere jarrera dinamikoan baino gehiago estatikoa babestuz, harik eta Hezkuntza-Saila Fernando Buesa sozialistaren eskuetara pasatzen den arte. Orduarte negoziaketan solaskide zuena PNV/EA baitzen, orain Sailburua sozialista izatean, gauzak zaildu egiten dira. EE, PNV eta PSOEk, elkartuta, Euskal Eskola Publikoaren Legea aurrera ateratzen dute 1993an, paktu politiko baten bidez, gizarte-adostasunik gabe. Eta oraingoan, PNV eta PSOE paktu horren barruan daudenez, Ikastolen Konfederazioa, azken epealdi honetan negoziaketa hutsetik bizi zena, jokitik kanpora harraipatzen dute. Eta hemendik datoz zalapartak.

Baina lege honi buruzkoa, eskola euskaldunaz hitz egiterakoan ikusiko da zehatzago. Segidan, beraz.

2. Arazo soziolinguistikoak

Eskola publikoa bai ala ez galderari ezin zaio besterik gabe erantzun, ez be-
deren irakaskuntzan euskararen egoera zein den ikusi gabe.

2. 1. Ikasle-matrikulazioen hazkundea, data-abiapuntutzat 1982-83 eta 1989-90
ikasturteak hartuta, orotara ageri da ikasle gutxiago eskolatzen dela, 46.315 gu-
txiago eskola publikoetan eta pribatuetan, halaber, 15.538 gutxiago. Ikastolak
dira 7.081 ikasle gehiago hartzen dituzten bakarrak. Datu absolutuak 1989-90
ikasturtean, hauek ziren: eskola publikoetan 220.417 ikasle, pribatuetan 179.340
eta ikastoletan 69.093. Bestalde, oraingoan 1992-93 ikasturteko datuak erabiliz,
emaitza hauek dauzkagu portzentajetan emanda:

36. taula: *Ikastxe-motak portzentajetan (1988-93)*

	1988	1993
Publikoak	47,03	45
Pribatuak	38,21	40
Ikastolak	14,74	15

Ohar-pare bat egin beharra dago ikasleen matrikulazio-tasan gertatu diren
aldaketak bere lekuan jartzeko.

Lehenik esan behar da, eta datu hau orokorra da, ikaslariaren kopurua gutxi-
tu egin dela azken urteotan. Matrikulatze-kopurua nabarmenki jaisten hasi, 1985-
86 ikasturteetik aurrera hasten da. Jauzi koalitatiboa zehazki 1983-84 ikasturteetik
1985-86 ikasturtea bitartean ematen da, 659.409 ikasle matrikulatuzetik 512.472
ikasletara jaisten baita. Honek 145.937 ikasle gutxiago izatea suposatzen du. Epe-
aldi horretan, bada, 249.271 ikasle gutxiago matrikulatu ziren. Eta joera horrek
aurrera segitzen du: iaz, 1993-94 ikasturtean, 410.138 matrikulatu ziren eta aurren
12.867 gutxiago.

Jaiotze-tasa jaistearen ondorioz gertatu da fenomeno hori. Beheranzko kurba
nabaria 1976an hasi zen eta geroztik handituz etorri da: 1976an 41.100 haur jaio
ziren eta 1989an, berriz, 17.024, hau da, 24.076 gutxiago. Erdia baino gutxiago 13
urteren buruan bakarrik.

Matrikulatze-beherakada orokor horren barruan, halere, ikastolak izan dira,
gutxi baina, gora gehien egiten duten bakarrak bai kopuru absolutuetan bai por-
tzentaian. Hau guztia egia da, baina datu honek ez gaitu gehiegi itsutu behar. Izan
ere, 1964-82 epealdian, hots, 18 urteren buruan, 596tik 69.935era igo zela kontu-
an hartzen bada, ohartuko gara nola ondoko 8 urteren buruan 7.091 ikasle gehia-
go baizik ez dituela hartu bere sarean. Oso gutxi egin du gora, aurreko epealdiare-

kin konparazioan bederen. Beraz, ikastolak barrutik haziz joateko optimismo haciek asko limatu beharra dago. Ikastolek zein eboluzio izan duten jakin behar da, batik bat.

Eskola pribatuak, 89-93 epealdian, ehunekotan bederen, gora egiten dute. Datu hau ere jakingarria da. Ezaguna da irakaskuntza pribatuak indar handia duela Espainian. Eta hemen, 1985-86 ikasturtean, Gipuzkoa zihon guztien buruan OHOn % 60rekin eta EAn, berriz, Baleares eta Madrilen ondoren zetorren. Espainiatik kanpora, Belgika eta Holanda dira portzentaia handiagoak dituztenak⁴.

Adierazgarria da, bestalde, Europako Elkartean, herrialde gehienetan eskola publikoa, estatala nahiz udal eskola, nagusitzen dela, baina askogatik. Publikoak dira Danimarkan % 95; Alemanian, % 92; Espainian, % 65; Frantzia, % 97; Britania Handian, % 91; Grezian, % 93; Italian, % 92; Irlandan, % 88; Luxenburgon, % 95; Portugalen, % 93. Esan bezala, Belgika eta Holanda dira pribatutik doazenak, hurrenez hurren, % 43 eta % 30eko portzentaiekin. Eta gero segidan Espainia dator⁵.

Sare publikoetan dabilta, halere, EAeko ikasle gehienak. Baina honek ez du esan nahi, geroago ikusiko den bezala, dinamikarik handiena hor dagoenik, alderantziz baizik.

2. 2. Ikasleak irakasere duen arabera sailkatuta, oro har, B eta D ereduak aldeko joera nabarmentzen da eta, aldiz, A eta X ereduak indar-galtzea. Datuok argigarriak dira zentzu honetan: 1982-83 epealdian A eta X ereduak % 75 zebilen, B-n % 10 eta D-n % 15; 1992-93 epealdian, ordea, B eta D ereduak % 28 izateraino iristen dira, A eta X ereduak % 44ra jaisten diren bitartean⁶. Eta badirudi joera euskal lerroen aldekoa dela. Honela, B eta D ereduak batuz gero, % 56rekin, ikasleri gehiengoak euskarazko sarean egongo litzateke.

Baina itxura batean bakarrik da hori egia. Eta hau diogu, zeren ikasmilak oinarritzat hartuta, 1994-1995 ikasturte honetan adibidez, BBB-UBIn A ereduak baita nagusi % 71,4ko portzentaia igoarekin⁷. Eta unibertsitate-ikasleak irakaskuntza Ertainean erabakitzen direla kontuan hartzen bada, beheko ikasmilak portzentaia handiek gutxi laguntzen dute goi-irakaskuntzan euskarazko ikasleak jarraipena izan dezaten. Euskarazko lerroak ziurtatzeko segitzen du. Zergatik gertatzen den eten hori? Faktore bat baino gehiago tartekatuko da, zalantzarik gabe. Garrantzitsuenak, iruditzen zaidanez, hizkuntz gaitasunean legoke: hot, B

⁴ Fernández Enguita, M.: *La escuela a examen*, Eudema, Madrid, 1990, 78-90.

⁵ García Garrido, J. L.: *La educación en Europa: Reformas y perspectivas de futuro*, Cincel, Madrid, 1989, 13.

⁶ Garmendia, M.K.: *Eusko Jaurilaritzako Hizkuntza Politikorako Idazkari Nagusiaren agerraldia, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko irakaskunde eta herrizaingo batzordearen aurrean*, Jaurilaritzako Lehendakartzaren Idazkaritza, Gasteiz, 1992, 29.

⁷ *Egunkaria*, 1994-09-10.

ereduak ez duela aski trebetasunik ematen Irakaskuntza Ertaineko irakasgaiak euskaraz burutzeko. Hipotesi hau egiaztatuko balitz, ez bakarrik A eredia, B ere auzitan jarri beharra legoke, orain arteko ikerketek erakutsi baitute B ereduak elebidun desorekatuak sortzen dituela.

2. 3. Irakasereduak 1989-90 ikasturtean ikastetxeetan nola banatzen ziren begirata, datu hauekin aurkitzen gara, ehunekotan emanda:

37. taula: Hizkuntz ereduak ikastetxe-moten arabera (1989-90)

	A	B	D
Publikoak	68,33	18,71	12,90
Pribatuak	0,36	16,80	82,83
Ikastolak	81,13	11,24	5,34

Hemendik ateratzen den ondoretako bat da, hain zuzen, oraingoan kopuru absolutuak orotara hartuta, euskarazko irakaskuntzan antzeko ikasle-kopurua zebilela ikastoletan eta sare publikoan ikasturte horretan: hots, publikoetan 69.707 eta ikastoletan 69.093. Iazko zatiketaren ondoren, jakina, balantzak sare publikoaren alde nabarmen egiten du. Datu hau aintzakotzat ez hartzea itsuarena egitea da, euskarazko irakaskuntzaren hedapenak kezkatzen bagaitu bederen. Hazkundera nondik doan begiratu behar da.

2. 4. Irakasereduen egoera EAeko probintzietan zein den jakiteak ere badu garrantzirik. Aipaturiko 1989-90 ikasturteko datuekin segituz, probintziarik euskaldunena, zalantzarik gabe, Gipuzkoa da 1990an, B eta D ereduak batera hartuz gero, horiek nagusitzen baitira: % 55,98 guztira, D ereduan gehiago (% 35,39) B ereduan baino (% 20,59). A ereduan, % 43,26 dabil. Bestalde, Araba eta Bizkaiaren ahulezia nabari da, gehienak A ereduan ari direlako: % 77,52 Araban eta % 71,69 Bizkaian.

Askotan, seguru asko propaganda-arrazoiengatik, Gipuzkoaren eredia estrapolatzeko joera agertzen da, prentsan batez ere. Demagogia errazegia da ikastolen hazkunderaz jardutean Gipuzkoako datuak bakarrik argitaratzea eta jokabide hori, egia esan, tranpa arriskutsua da, baldin eta onartzen bada gizarte osoa dela euskaldundu beharrekoa.

2. 5. Euskal irakaskuntza euskalduntzea errotik baldintzatzen duen beste faktore-etako bat, irakaslearen hizkuntz gaitasuna da. EGA tituludunak, 1986-87 ikasturtean, eskola publikoetan % 26,10, pribatuetan % 12,57 eta ikastoletan % 67,02.

Nola ez dakigularik, azalpenik ez baita ematen, 1990ean, izugarritzko aurrerapausoa ematen da irakasleria erdaldunaren euskalduntzean, zeren % 42 inguru baitira irakasle EGAdunak eta % 7 inguru IGAdunak⁸. Irakasleria honen barneprozesua barrutik ezagutu gabe, datu estatistiko hauek ezin dira bere soiltasun horretan onartu. Halere, kasurik onenean ere, irakasle-gehiengoa erdalduna da. Galdera hau da: nola euskaldundu irakaskuntza irakasle gehienak erdaldunak badira?

3. Irtenbideak urratzen

Euskal Eskola Publikoaren Legea jadanik martxan dago. Nondik jo orain? Zalantzarik ez dut lege honen ezarpenak hipotekaturik utzi duela aldi baterako irakaskuntza euskaldunaren etorkizuna. Horrek ez du ekarriko euskal eskola berria, hots, nazionala. Bestalde, legeria berriak sortu dituen hizkuntz profilen politikak irakasle erdaldunen jarraipena ziurtatu du. Esperantza kokorra dago, beraz, oraindik gehiengoa den irakasleria hori euskalduntzeko.

Baina, gertatuak gertatu, ezin da jarraitu Euskal Eskola Publikoaren lege hori deitoragarria dela esanka, ezta ere, 1993ko eskolarteko gatazkak direla eta, zipozkerian segitu bakoitza bere aldetik. Irtenbiderik gabeko jarrera antzuak dira horiek. Badago, nire ustez, alde batetik nahiz bestetik zer baturik asko, ikastoletan bezala eskola publikoan ere aurkitzen baitira elementu positiboak. Eskola publikoaren alde esan beharra dago, ikastoletan adina ikasle, —orain dezente gehiago—, ari dela euskarazko irakaskuntza egiten. Bistan da, potentzialki bederen, hor ere indarra badagoela ondo bideratzen jakinez gero. Bestalde, ikastolen zirkulari bakarrik eustea ere bide itxia da. Arrazoiak? Emanak daude ia gehienak. Uste zen ikastolek beren baitako hazkundearen bidez hedatuko zirela eta, hedatu ahala, beren eredia nagusituko zela sare pribatuan nahiz publikoan konkurrentziaren bidez. Horretarako kalitatea ziurtatu behar zen. Ametsa zen hori beste edozer baino gehiago. Hazkundera, bai, nabaria da, beste sareen aldean handia, baina ez nahikoa inola ez. Kopuru absolutuetan nahikoa gutxi egin du aurreazken hamarkada honetan.

Beraz, ondorio positiboetara etorrira, euskarazko irakaskuntzaren defentsan eta kudeaketan, ikastolak ez dira erakunde bakarra. Zorionez, eskola publikoetan ere euskaraz irakasten da. Ondo edo gaizki, sistemari itsatsita edo ez, hortxe daude.

Hori horrela izanik, kaltegarri deritzot eskola publikoaren aurrean jarrera defentsiboan tematuta segitzeari, jarrera honek inora ez garamatzalako, autozauritzera ez bada.

⁸ *Euskal irakaskuntza*: 10 urte, Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saila, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, 1990, Gasteiz, 45.

Gelditzen zaizkigun alternatiba posibleetan ez baitzaigu aukera handirik gelditzen, konfluentsiarena iruditzen zait emankorren eta irekiena. Baina nora goazen eta zer nahi dugun alde zurretik ondo mugatuta. Non euskararen presentzia, han bildu behar dira indarrak. Gelditzen den bide bakarra, beraz, konfluentsiarena da, Iruñean gurasoek aldarrikatu zuten huraxe bera, zeinaren arabera, eskola publikoetako euskal lerroek eta ikastoletako indarrek bat eginik, orain arte ezagutu ez den bide berri bati ekin behar baitzaio, helburutzat hartuz hezkuntza-sistema osoaren euskalduntzea maila guztietan. Prozesu baterakor hori zeinek gidatuko duen ikustear dago oraindik. Iazko zauriek ere odoletan dira. Euskarazko irakaskuntzaren abiatan fase bat bukatu eta berri batean sartuta gaudelakoan nago. Herri-mugimenduan oinarritutako beste erakunde batek hartu beharko du txanda, ikastolen eta eskola publikoetako euskaldunen zubia eginez, zintzo eta anbiguitaterik gabe, pausoak seguru markatuz, Euskal Eskola Nazionalaren erakuntzan tinko jokatzuz.

DOKUMENTU-ERANSKINA

1. dokumentua

DOCUMENTO BASE DE EEPPA

Ante la situación actual de crisis por la que atraviesan las ikastolas, reflejo y consecuencia de la política educativa que venimos padeciendo, y desde el firme posicionamiento a favor de la Escuela Pública Euskaldun, los organismos, partidos y sindicatos abajo firmantes manifestamos lo siguiente:

Que analizada la situación actual y vistos por una parte la paulatina privatización a que se ven sometidas las ikastolas y por otra, que el proyecto del Gobierno conduce a la institucionalización de una doble red de Enseñanza llamada Pública, que en la práctica no sería más que el enmascaramiento de una enseñanza privada, oficializada y funcionarizada al servicio de los intereses que defiende el partido en el Gobierno.

Visto además que el citado proyecto pone en peligro la función primordial que ha de cumplir la Escuela al servicio de la recuperación de la identidad nacional y en concreto la recuperación del euskara, perpetuando y profundizando la división de la comunidad vasca.

Las ikastolas tienen que definirse y optar, para lo cual proponemos la siguiente alternativa al objeto de que las ikastolas se posicionen respecto al contenido de la misma.

Las ikastolas que decididamente están por transformarse en Centros Públicos y que de verdad defienden la Escuela Pública Euskaldun, exigen del Gobierno que para el próximo curso 83-84, de forma conjunta puedan entrar a formar parte de la red pública de Escuelas Públicas, equiparándose en igualdad de condiciones al resto de las escuelas públicas transferidas, con el cumplimiento de los tres siguientes requisitos:

* Los patrimonios, haberes y deudas de las ikastolas serán asumidos por la Administración Pública, de la misma forma que se pretendía hacer a través del Estatuto.

* El personal de la ikastola será asumido por la Administración pasando los irakasles a los cuerpos comunes de profesores, con su garantía de una rápida normalización de su situación administrativa bien a través de oposiciones restringidas, o de cualquier otro modo que en negociación entre las partes implicadas reglamentariamente se establezca. Se garantizará la estabilidad de los equipos docentes en el puesto de trabajo.

* En cuanto al euskara, se mantendrán las actuales opciones o modelos lingüísticos de cada ikastola.

Asimismo consideramos que lo correcto y necesario sería elaborar, no un Estatuto de Ikastolas, sino un Estatuto de la Enseñanza Pública Vasca, dentro del cual entrasen todas las escuelas con el objeto de construir la Escuela Pública, Unica, Gratuita, Pluralista y Euskaldun, al servicio de los intereses comunes de todos los niños y como consecuencia los intereses del pueblo, para la consecución de lo cual consideramos totalmente necesaria la existencia de una Función Pública que contemple un cuerpo único de profesores.

Irakasleen Koordinakundea

STEE-EILAS, HB, EE, LKI, EMK, NI

Egin, 1983-04-15

2. dokumentua

IRAKASLE ELKARTEA. EUSKAL IRAKASKUNTZARAKO MORROI ISILA. IRAKASLE ELKARTEAREN ALDAKUNTZA

1979 urte inguruan irakaskuntzako sindikatuak indartzen ari ziren, eta Euskal Herrian aukera politiko ezberdinak oso garbiak ziren. Gainera Ikastoletako Lehen Konbenio Laboralaren aurreproiektua eztabaidatzen ari ziren irakasleak. Eta orduan nahiko garbi ikusi zuen Irakasle ElkarTEak aukera sindikal eta politiko ezberdinei bidea libre utzi behar zitzaizela eta Irakasle ElkarTEaren eginkizuna irakasle guztien ordezkari izatea zela sindikalgintzaz eta politikaz kanpo egon behar duen euskal irakaskuntza eta pedagogia alorrean. Honela Batzar Nagusi pare bat egin ziren eta Irakasle ElkarTEaren estatutuak aldatu egin ziren bere bidea batez ere irakasleen pedagogi koordinakuntzan finkatuz. Geroztik, ElkarTEaren asmoa hau-xe izan da: Irakasleen koordinatzaile izatea, eta beroien lana errazagoa eta efikazagoa egitea, haien kezkek, hutsuneak, beharrak jaso eta erantzun egoki bat ematen saiatzea, euskal irakaskuntza munduan jorratu gabe zeuden alorrak jorratzea etabar.

Irakasle Elkartearen ekintza nagusienak gaur

Goian esan diren koordinaketa lan arrunt hoietatik kanpo beste hauek ere Irakasle Elkartearen lan berezi bezala aipa daitezke:

- Udako ikastaroak: Aurreko artikuluan¹ esaten zen bezala irakasleen rezi-klajea gauza beharrezkoa da euskal irakaskuntzan. Irakasleak gero eta trebe-ago bihurtu behar du berak ematen duen gaian, euskararen ezagupenean eta teknika berrietan. Horregatik Irakasle Elkartek sortu zen urte beretik, udao-ro egin ditu ikastaro berezi eta teknikoak 400-500 pertsona partaide izaten direlarik.

- Kurtsoan zehar ikastaroak: Udako ikastaroak oso interesgarriak izana-gatik ere ez dira nahiko. Gainera irakasle guztiei ez datorkie ondo udan aste bete leku batetara joatea eta han egotea. Horregatik bailara ezberdinetan eta kurtsoan zehar ere ikastaro jarraitu eta luze batzuk antolatzen ditu Irakasle Elkartek, irakasleen partizipazioa erraztuz.

- Matematikako Testak: Duela lau urtetik honuntza Gipuzkoako ikastola ezberdinetan “factor numérico” edo “kalkulua” neurtzeko test batzuk pasa-tzen ditu Irakasle Elkartek. Ihaz 31 ikastoletako 3.070 ikasleri pasa zitzaiz-kien. Gero ondorioak eta mediak ikastola bakoitzera bialtzen dira norberak bere media besteenarekin konpara dezan eta besteak zein nibeletan dabilztan ikus dezan.

- Euskarazko Testak: Euskara erakusteko metodo ugari dago, eta lan egi-teko erak ere bai, baina inork ez du neurtu oraindik gure ikasleek nolako aurrerapena egiten duten gure hizkuntzan. Hori neurtzeko duela urte t’erdi baino lehenagotik Test elaboratua dauka Irakasle Elkartek eta herri txikiren batetan esperimientalki bakarrik pasa baldin badu ere, lan handiagotan ez da sartu, dirurik eman ez zaiolako lan honetarako.

- Torinorako bidaia: Torinoko udalak duen irakaskuntzaren antolaketa ha-rigarria da. Italiako “Movimiento de Cooperación Educativa” izeneko mogi-menduaren izpiritua jarraituz antolatua dago irakaskuntza eta horko Fran-cesco Tonnuci, Mario Lodi etabar gaurko Europako pedagogo ezagunenen artean daude. Horregatik ihaz Irakasle Elkartek antolatuta 40ren irakasle izan ziren hango esperientzia ezagutzen, eta aurtien partidu, sindikatu, Diputazio etabarreko jendearentzat bidaia bat antolatu du Irakasle Elkartek, hango es-perientziak ezagutu ondoren, hemen zerbait eta nola aplika daiteken ikusteko.

- Haur Literatura: Euskal haurrek irakurgai aldetik zeukaten aukera eska-sa ikusi ondoren, Irakasle Elkarteko talde bat Haur Literaturan buru belarri

¹ EKBk sinatuta datorren artikulua honen egilea Iñaki Zubeldia da, garai hartan Irakasleen Elkarteko partaidea. Berak idatziak dira artikulua honen aurreko beste biok ere: “Ikastolak 1974-75 ingurura arte” (*Egin*, 1983-04-22) eta “Ikastolari buruzko zenbait planteamentu teoriko” (*Egin*, 1983-04-23). Hemen dakargun hau hirugarrena da, berak egindakoetan azkenekoa.

lanean hasi zen. Eta irakasleen lan isil horri esker gaur 40 liburutik gora kale-ratuta daude Itzul, Sor, Sorgin, Perkak, Bostak, eta beste zenbait sailetan. Liburu hauen kalitatea eta prezioa parerik gabekoak direla uste dugu Euskal Herrian, bestela ikastoletan ikusi besterik ez dago zeintzu diren gehien saltzen direnak eta zeintzu diren merkeenak.

- Matematika Ariketak eta Hiztegiak: Beste zenbait lanen artean hauek ere egin dira eta egiten ari dira. Matematika lantzeko materiale lagungarri dira arike-ta liburu hauek. Eta aukera zabal bat eskaintzen da bertan. Eta hiztegiei dagokie-nez garbi dago Batasunaren Kutxa agortu zenetik euskal hiztegi bat ez dugula. Erdaraz hitzaren ordaina ematen dutenak pila bat, baina euskaratik euskarara dagoen hiztegi ez, eta honetan dihardu Irakasleen Elkartek adjetiboan hizte-gia eta hitz ezezagunen hiztegiak irakaskuntzarako eginez.

- *Isilik* pedagogi aldizkaria: Euskal pedagogi aldizkaririk ez zegoen, eta ikas-toletako esperientziak, idea berriak etab. beti gorde-rik geratzen ziren. Lehenago ere *Urrats* izeneko pedagogi aldizkari bat atera zuen, oso txukuna eta kalitate onekoa bera, baina behar bada artean nahiko indarrak ez zegoelako edo, berri-ere isildu egin zen aldizkari hura. Eta orain Irakasle Elkartea *Isilik* izeneko peda-gogi aldizkaria argitaratzen hasi da. Dagoeneko bi ale atera dira eta hirugarrena ateratzear dago. Aldizkari honetan esperientzia ezberdinak, ideia eta asmo berriak, teoria mailako korronteak, irakasleen eritziak, eta beste mila arazo jakin-garri agertu nahi ditugu. Edonork hitzegiteko tribuna ireki bat izango da *Isilik*. Eta gainera Irakaskuntza, Pedagogia eta Hezkuntza mailako gaiak, euskara bera gai hauetarako trebatzeko itxaropenez eta asmoz. Hemen bai irakurle guztioi zuen laguntza edo harpidetza eskatu nahi dizuegula.

Irakasle Elkartearen ahuleria

Irakasle Elkartek asmo bikainak, intentzio garbirik, euskararen eta ikasto-len aldeko borrokarik eta indarrak eskaini badu ere, sekulan ez da ongi ikusia izan erakunde ofizialetatik. Mendean egon den bitartean eta morroi isilak bezala agin-dutako lanak egin dituen bitartean, eta menpekotasun hori zalantzan ipini ez duen bitartean, hortxe nonbait. Baina bere nortasuna baduela azaldu nahi izan duene-an, eta irakasleen ordezkartza betetzen duenez, ikastolen gaurko eta etorkizune-ko erabaketan hitza baduela esan duenean, aurretik “bai, bai” esan zaio beti, baina atzetik “izorrai”. Honela gertatu zen “Normativa de Titularidad Oficial de las Ikastolas” izeneko itun edo konbenio hura aurrera eraman zenean. Ika-stolen izenean Federazioa eta Irakasle Elkartea eseriko ziren mahaietan eta sina-tuko zuten itun hura. Hala esan zieten Federazioko I. Oliberi eta X. Agirrek I-rakasle Elkarteko J. M. Mujika eta I. Zubeldiari. Baina mahaietan negoziatzeko garaia etorri zenean, isilka eta Irakasle Elkartea jakinaren gainean ipini gabe

Federazioa, Diputazioa eta Euskal Kontseilu Nagusia izan ziren nonbait itun haren sinatzaile, irakaslegoaren eritzia eta ordezkartzari "tok" eginez.

Berdin gertatu zen Ikastoletako Lehen Konbenio Laborala negoziatzera-koan. Konbenio hartan baziren arazo laboralez gain arazo pedagogikoak ere, eta hitza eman zitzaion Irakasle Elkarteari arazo pedagogikoak negoziatzera-koan mahaikide izango zela. Baina hemen usai handiagoko "pardel" bat egin zuten ELAk eta Federazioak. STEE-EILAS sindikatua eta independenteen ordezkaritza (gehiengoa) marjinatu egin zituzten ELAk eta Federazioek, eta noski Irakasle Elkarteari berriro ere "tok" egin zitzaion, inoiz sinatu den konbeniorik hankamotz eta ergelena sinatuz.

Eta honelakoak asko. Eta hau dena zergatik gertatu da? Irakasle Elkartea erakunde ahula delako, indar ekonomiko eta sozialik ez duelako. Eta gaur egun ez badago dirurik, ez dago indarririk. Ikastolen izenean biltzen diren diru guztiak Federaziora joaten dira: Kilometroetatik 3.000.000 pta., Ikastoletako haurrei kobratzen zaizkien kuotetatik 7.000.000 ptatik gora, Euskadi-Irlanda partidua jokatu zenean 2.600.000 pta. inguru eta erakunde publiko eta bankuetxeetatik nork daki zenbat. Irakasle Elkarreak, berriz, bere bazkide diren 1.000 bat irakasleren kuota jasotzen du urteroko diru fijo bezala: 1.500.000 pts. Lehenago azaldu ditugun lan konkretu batzuegatik ere subentzioak jasotzen ditu, askotan lanaren kosto guztiak ordaintzen ez direlarik. Honela irakaslegoa zerga berezi bat ordaintzen ari da, ikastoletan euskal irakaskuntza hobe eta bizkorrago bat posible izan dadin. Hau seguru asko munduan ez da beste inon gertatuko. Eta gainera loteria nazionala, otarrainaren erifak eta antzeko "birgeriak" egin behar izaten ditu Irakasle Elkarreak zenbait lan egin ahal izateko. Baina esan beharra dago baita ere zenbait irakaslek bere langintzako gorputz kolektiboan sinesten ez duelako edo informazio egokirik berarengana iritsi ez delako edo, nork daki irakasle izateaz lotsatzen delako, ez du irakasleen elkartea apoiatu. Nahiago izan du bera bakarrik bizi eta bere lan miresgarri bitxia bere altxorren kutxan gordeta eduki, besteekin bere lana, esperientziak, jakinduria eta ideia pertsonalak konpartitu baino.

Nola ulertzen da bestela Ikastolen Estatutua egiterakoan, eta egin eta gero ere irakaslegoaren eritzirik ez galdetzea ofizialki. Eta gehiago oraindik, Euskal Ikastolen Erakunde-an (EIKE-n) Federazioa erakunde horretako partaide azaltzen den bitartean Irakasle Elkartea, irakaslegoa marjinatea? Zertarako eta zergatik? Irakaslegoak modu organizatu batez estorbo egiten al du eta indibidualki hartuta errazago domestikatzen al da?

Eta nola liteke ziklo oso bateko helburuak eta orientabideak Eusko Jaurlaritzak aldatu dituenetan eta horren informazioa irakasleei eman behar zaizenean, irakasleen konbokatzaile Federazioa izatea eta erakunde pedagogikoa den Irakasle Elkartea ez konbokatzea eta ez informatzea horretaz. Guzti honekin zer lortu nahi da? Irakasle Elkartea itotzea, bere terrenoa jan eta

desagertzea? Edo sentidurik gabeko gerra absurdo batetan sartzea? Nahikoa da, jaunak.

Indarrak eta interesak batu ordez elkar jaten hasi behar badugu, gureak egin du. Ez euskara, ez euskal kultura, ez ikastola ez dira irabazten aterako. Eta orain, AEK, *Argia*, *Anaitasuna* eta beste antzeko zenbaitekin dagoen jokabide absurdoaz gogoratzen gara. Zergatik ez zaie behar eta merezi duten ainaro laguntzarik ematen? Zergatik utzi zaio *Anaitasunari* hibernazio aroan erortzen? Gauza asko ez da ongi ulertzen Euskal Herri honetan, edo behar bada ondoegi ulertzen da. Lana egin nahi duenari, lanean utzi eta lagundu, mesedez. Lana egitearen izenean beste zerbaite nahi lezakeenari, laguntza ordez salakuntza publikoa emaiozue. Baina jakin ezazue betirako euskaldunok eritzi politiko ezberdinengatik edo interes pertsonalengatik elkarren arteko gudu sartzan bagara, eta euskal kulturari ari diren indarrak fin eta balioetsuenak erretzen badira edo zabor ontzira botatzen baditugu, ez dugula ez Jainkoaren ez Aitorren eta ez herriaren barkamenik izango. AP, PSOE, UPV, eta Espainiako beste mamu (i) guztiak ez dute lanik izango Euskal Herria itotzen, geuk itoko dugu euskara, euskal sena, Euskal Herria, baina gure asaba zaharren madarikazioa gure gain eroriko da eta euskaldunon etorkizuna, etorkizun beltza izango da, gure asaba zaharren izpirituek ez bait gaituzte pakean utziko, gauez nor-nori-nork eta nor-nork aditzak erreplikatuko bait dizkigute eten gabe, eta egunez UZEI-ko hiztegi guztiak, UEU-ko gai tekniko guztiak, eta Txillardegi eta Patxi Goenagaren gramatikako zati korapilotsu eta arbola guztiak sartuko bait dizkigute gure buruko zelula guztietan har zuri, beltz, gorri eta urdinez burua bete arte. Hala bedi!

Euskarazko Kulturaren Batzarrea (EKB)

Egin, 1983-04-24

3. dokumentua

IKASTOLAREN ETORKIZUNARI BURUZ EZTABAIDAN IKUSPEGI “DESBERDIN” BAT

Ondorengo lerroetan azaltzera goazen eritzia, oso ikuspegi bereziaz tajutua da: Gipuzkoatik eta herriko ikastola soil batetik planteatua. Honek hauxe esan nahi du: Euskadiko beste herrialdeetan dauden ikastolak oso azaletik ezagutzen ditugula. Dena den, gauzak argitzeko baliagarria gerta daitekeen ikuspegia delakoan gaude.

Gure ikuspegi “desberdin” honen oinarria honako galderotan datza: zein izan zen Ikastolen sorgunean geure buruan zebilen asmoa? Zer da —guretzat—Euskal Eskola (Euskadiko Eskola nazionala)?

Bi galdera hauek geure buru koskorretan zurrunbiloka darabiltzagularik, aburuok egitera ausartzen gara: Ikastola sortu zuten guraso eta irakasle haiek, ahaztuezinezko beste sektore herritarren laguntzarekin, amets (utopia?) zehatza izan baldin bazuten, Ikastola biharko Euskadiko Eskola Nazionala bihurtzea zen berori. Euskal Eskola eraikitzea, alegia.

Baina, zer da hizki haundiok (Euskadiko Eskola Nazionala) adierazi nahi dutena? Beste era batez esana: Zer da —guretzat— Euskal Eskola? Erantzuna emateko garaian, ondoko bi aspektuok ezin ditzakegu ahaztu:

1. Euskal Eskola, Euskadin bakarrik dela posible: Euskadi burujabe batetan, soberanoan hain zuzen. Euskadi bateratu batetan, zazpi herrialde historiko-en batasunean. Euskadi euskaldun batetan, euskara hizkuntz nazionala duenean.

2. Euskal Eskolak ezaugarri gardenok barneratu behar dituela: Euskera hizkuntza bakarra eta Euskal Kultura, eragile nagusia. Gestio eta funtzionamendu herritarrak, demokratikoak eta autogestionarioak. Eskola Bakarra, zatiketa sozialik sortuko ez duena. Ingurune hurbilari egokitua, autonomia bere hezkuntza plangintzan. Dohakoa, gratuitoa. Pluralismo ideologikoa barneratuko duena.

Aurreko guzti honen arauera, beraz, geuk ateratzen dugun ondorio garrantza zera da, Ikastolen mugimenduak ez du Euskadiko Eskola Nazionala bihurtzea lortuko, mugimendu bera bakarrik eragile bakarra izanik. Frankismo garaian ez zuen lortu; ezta frankismondoko honetan ere. Eskeintzen zaizkion irtenbideak, benetako euskal botere politikotik irtetzen ez duten bitartean, aurrera-pauso txiki bat besterik izan daitezke (sic): instituzionalizatzea (EIKE, oraingo Sare Publikoan sartzea, Nafarroako Sare Estatalean txertatzea, Frantziako Sarean,...) eta gainerakoak. Baina, hainbeste kostatu zaiguna galtzeko arriskuan ez al dugu jartzen? Ez al dago ikastola likidatzeko arriskurik? Gratuitatea ez al liteke bihur ikastola merkealditan saltzeko trukaketa instituzionala? Arazoa, geure iritziz, beste bat da: nahi dugun helburua lortzeko botere politikoa behar da, oso-osorik. Euskadi, nazio burujabe den heinean —eta orduan bakarrik— posible izango zaigu Euskal Eskola Nazionala. Bitartean, joko instituzionala egiten ari gara.

Azkenik, eta aurkezpen txiki hau bukatzeko, geure buruetan ere bueltaka ibili arren, publikoki plazaratzera ausartzen ez garen problema gordin eta gorria: euskara eta euskarazko irakaskuntza maite ez dutenen arazoa, edota areago: gerora begira ere, maitatuko ez dutenena.

Azter dezagun bizi dugun errealitatea

a) Esparru politiko-instituzionala

- Euskadirekiko Espainia eta Frantzia Estatuak daramaten zapalkuntza nazionala eta kulturala. Frankismondoko garai honetan aurreko horrek “erai-ki” duena: Gernikako Estatutoa. Eusko Jaurlaritza (Gipuzkoa, Bizkaia, Araba). Ikastolari dagokionez, ezaugarri nabariak: Hezkuntza Konpetentzia-

rik eza. Madrileko Lege Nagusiekiko morrontza; zazpi herrialde historikoe-kiko ahalmen politiko-instituzionalik eza. Egin daitekeen edozein planteamentu, erren da sorgunetik beretik.

- Nafarroako Amejoramentua. Nafar Diputazioa (Nafarroa Garaia). Ikastolari dagokionez: Gernikako Estatutoaren antzekoak... Madrilekiko morrontza.

- Iparraldeko hiru herrialde historikoak. Aipaturiko beste bi horiek baino egoera larriagoan.

b) Esparru politiko-ideologikoa

- PSOE, AP, PSF, UPN,... indar estatalisten joera, begi bistakoa dugu: Estatu mailako legeak tajutzean, Euskara eta Euskadirekiko jarrera inperialista eta zapaltzailea erakusten digute (euskararen etsaiak, ikastolaren kontrakoak, herri honen asmo historikoen aurkakoak eta edozein herri mugimendu kontrolatzeko asmoa, ikastolak barne).

- PNV-EAJ... Honek erabat murriztutako botere politikoa du instituzioetan. Bere hautatzaileei, ordea, "ikastola gratuito" lortuko zuela agindu zien. Hauteskunde garaian gaude, gainean dugu behintzat, eta emandako hitza bete beharrean aurkitzen da, nola edo hala. Ikastola "kontrolatu" baten aldekoa agertzen zaigu.

- EE, HB... indarrek ez dute inongo botere politikorik. Ikastola "publiko" (instituzionala) baten aldekoak. PNV-k eskeinitako EIKERen kontrakoak. EEPA alternatibaren defendatzaileak, baina aurrera eramateko indar politikorik gabetuak (sic).

c) Ikastolaren egoera

- Hizkuntzaren errekeraketari dagokionez, ikastolaren emaitzak nabariak dirateke, ukazinezkoak. Urte gutxitan, eta ezagutu izan duen esparru ideologiko-politiko-instituzionala erabat aurkakoa izan dela aitortuz, Ikastolak aurrerapen izugarria egin du. Estadistikak eta datuak kontsultatu besterik ez dago.

- Barneko gestio eta funtzionamenduari dagokienez, ikastola bakoitzak (herri bakoitzak) berezko esperientzia izan du. Ezin dezakegu esan egoera homogeneo xamarra izan denik, nahastua baizik. Guk azpimarkatu nahi ditugun bi datuak, hauek liriateke: Ikastola sortu zenean, gurasoak, irakasleak, bazkide laguntzaileak,... den denak projektu herritar eta zabal baten inguruan bildu ziren. Ondoren, herri askotan, gehienetan, tirabira ideologikoak zirela eta, zatiketa eta sektakeriak ugaldtu ziren, guraso eta irakasleen artean eten-dura gogorrek sortuz. Une honetan, guraso eta irakasle arteko etendura honek

ba dirau, mesfidantza eta elkarren arteko ulertezinak sortuz, era guztitako pre-
sioak tartean izanik.

- Geure ikastoletako egoera, ikasle kopuruari dagokionez, eta beste ikas-
tetxeetako ikasle kopuruari dagokionez, honako datuon bitartez azaldu nahi-
ko genuke. Ez ditugu Gipuzkoa osokoak eskeintzen, azaltzen ditugunak,
bataz-beste, adierazgarrienak direlako².

Komentario labur gisa, zera esan nahi genuke: EEPA defendatzaileek
maiz erabili izan duten argudioa (Ikastetxe guztiekiko Ikastolak 12 garela eta
nola ote litekeen posible Euskadi euskalduntzea hain eragin txikiz) hankaz
gora erortzen direla goiko datuak kontuan hartzen badira (geure ustez, gauza
bat da datu orokorrak eta beste bat -erabat ezberdina- etorkizunari begira dau-
den datuak).

Bestalde, datuok eta portzentaioak, ikastolak gratuitoak izan gabe. Zer
izango litzateke ikastolak “diskriminazio ekonomiko” hori izango ez balute?

Herriak	Ikas-mailak	Publikoak	Ikastolak	Pribatuak
Zarautz	Eskolaurrea	19	32	48
	Hasera Zikloa	13	34	53
	Erdiko Zikloa	13	33	54
Legazpi	Eskolaurrea	27	55	18
	Hasera Zikloa	34	52	14
	Erdiko Zikloa	39	42	19
Azkoitia	Eskolaurrea	14	50	36
	Hasera Zikloa	15	43	42
	Erdiko Zikloa	19	38	43
Beasain	Eskolaurrea	34	43	23
	Hasera Zikloa	33	39	28
	Erdiko Zikloa	27	37	36
Arrasate	Eskolaurrea	27	63	10
	Hasera Zikloa	40	40	35
	Erdiko Zikloa	38	38	31
Eibar	Eskolaurrea	37	45	18
	Hasera Zikloa	35	35	30
	Erdiko Zikloa	36	33	31

- Egoera ekonomikoari dagokionez, era guztitako Ikastolak aurki ditzake-
gu, baina hala ere denentzat komunak diren faktoreok aipa ditzakegu:
Ikastola haundietatik gehienak inbertsio izugarrietan sartuak dira; irakasleen
soldatak eta aseguruak ordaintzeko garaiak, berau ikastoletako gasturik bait
da, ikastola gehienek ez dute egungo marko legalik errespetatzen (kotizaketa

² Argitaratzailearen oharra: Ikus jarraian taulako datuak portzentaietan emanda.

irrealak eginez, benetako kotizazioak zorretan utziz,...); urtero, balantzeak ixtean, ikastola gehienek defizitaz amaitzen dute ikasturtea, karga ekonomikoak gero eta haundiago bilakatuz, lur jota gelditzeko arriskuan. Soluzio azkar baten premia larri-larria da, alegia.

- Pluralismo ideologikoari dagokionez, bi alde bereizi nahi genituzke: ikasleak matrikulatzeko garaian planteatzen dena eta irakasle-guraso arteko konfliktibitatea sortarazten duena. Lehenbizikoari dagokionez, egia esan, Ikastolan sartzeko ez da inorentzat errestrikzioa (ez dago kriterio ideologikorik, alegia), sartzeko oztoporik haundiena kuotak eta gainerako elementu ekonomikoak direlarik. Bigarrenari dagokionez, berriz, bi konstatazio hutsok azpimarkatu nahi genituzke: gurasoen presio ideologikoa irakasleekiko haundiegia dela eta, bestalde, irakasleen arteko setakeriak areagotzen ari direla herri askotan.

d) Ikastolari eskaintzen zaizkion irtenbideak, esparru politiko-ideologiko-instituzional honetan

- EIKE-IVI. PNV-EAJren irtenbidea. Federazioen kolaborazioaz (?). Arrazoiak-Argudioak: Ikastolak... Publikoak bihurtu nahi izan. Gaurko legeriak eskeintzen digun esparru bakarra EIKE sortzea omen da, Euskal Eskola Bakarra lortzeko bidean. EEPA alternatiba ez da posible, ikastolak arrisku haunditan jartzeko da. Gaurko Sare Publikoak ez du Ikastolaren ezagugarri nagusien multzoa garantizatzen.

- EEPA. EE-HBren irtenbidea. PSOEn kolaborazioaz (?). Arrazoiak-Argudioak: Ikastolak... Publikoak bihurtu nahi izan. Gaurko legeriak eskeintzen digun esparru bakarra oraingo Sare Publikoa omen, Euskal Eskola Bakarra lortzeko bidean. EEPA alternatiba posible den bakarra da, bi komunitate sortu nahi ez baditugu. Ikastolaren ezagugarriak mantentuz jarraitzen badugu, gauden "getho"tik ez gara irtengo. EIKEn bitartez Euskalduntzea Ikastoletara mugatzea izango litzateke. EIKEk proposatzen duen bidean ez da gestio demokratiakoan aurrerako pausorik ematen. EIKE baliagarria litzateke Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ikastolentzat, bakarrik.

Argudio hauek (eta idatzi ez ditugun beste batzuk, noski) kontuan izanik, ondoko eritziok burura zaizkigu eta lerro hauen bitartez zuzentzen dizkiogu irakurleari.

- Guk nahi dugun Ikastolak behar du "euskara hizkuntza bakarra" eta "euskal kultura eragile nagusia". Honen arabera, bai EIKEn bai sare Publikoan antzeko garantiak litzuzke geure Ikastolak orain arte eraman duen dinamika eramaten jarraitzeko. "D" eredia kontserbatzeko garantiak, alegia. Baina, arazoa ez da geure Ikastoletako euskarazko irakaskuntza (berezko problematika suposatu arren). Koska nagusia zera da, EIKEn ala Sare Publikoan sartzeko ze eragin izan lezakeen Euskadi Euskalduntze Prozesuan, baizik. Zer aldatuko litzateke beste

ikastetxe publikoetan, gu Sare Publikoan sartuta? Zer alda dezakegu guk beste ikastetxe publikoetan EIKEn nahiz Sare Publikoan sartuta?

Gure erantzuna garbia da: guk ezer ez, edo ezer gutxi, aukera batekin zein bestearekin. Ikastetxe publikoak euskaldunduz joango dira, bertako guraso eta irakasleen nahi kolektiboak hori bera gura duenean, eta Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Diputazioak eta Gobernu Frantsesak borondate politikoa agertzen duten neurrian. Bitartean, geure eragina —instituzionalizatuta— ahuntzaren gauerdiko eztula baino kasgarragoa da. Geure eragina ez dago instituzioetan, edo instituzionalizatuta, orain arteko bidean baizik: ikastolak haztean, ugartzean. Eta orduantxe bai, ikastetxe pribatuak zein publikoak (konpetentziaren eraginez) “euskarazaleak” bihurtuko dira. Hori bera gertatzen ari bait da Gipuzkoako herri gehienetan.

- Guk nahi dugun Ikastolak behar du Gestio eta Funtzionamendu herritarra, autonomia. Puntu honetan desberdintasun haundiak daudela deritzagu EIKE eta Sare Publikoaren artean. Dena den, arazo honetan pertsona adina eritzi izaten da, eta Demokratikoa, Herritarra, Autonomia eta Autogestionarioa bezalako hitzak zehaztea gako bihurri samarra bilakatzen zaigu. Hala ere, punturen batzuk azalduko ditugu:

1. Gorengo aginte mailak: Sare Publikoan agintari politikoak eta berauek izendatutako burokratak dira jaun eta jabe, beheko ordezkariarik eza nabaria izanik. EIKEn beste horrenbeste dugu. Nahiz eta Parlamentua, Diputazioa eta Hezkuntza Saila ordezkari zabalago batez agertu, behetik (ikastoletako oinarritik) beharko litzatekeen ordezkari zabalago erabat murriztua da. Hala ere, esan behar, Sare Publikoan dagoena baino haundiagoa: Lurralde bakoitzari Ikastolen ordezkari bat dagokio, behinik behin.

2. Ikastola mailako agintea: Sare Publikoan aginte maila bakarra dago, “Consejo de Dirección” deritzana. Azken finean, bertako Irakasleak du indarrik haundiena eta gurasoak “konpartsa hutsak” dirateke. Hau oso grabea ez bada ere, hona hemen beste puntutxo bat: irakasle bakoitzak nahi duena egin dezake bere gelan (barruti legala errespetatuz, noski) beste irakasleekiko kooperazioa ukatuz EIKEn agintea Ikastolako Batzarrari leporatzen zaio, guraso eta irakasle kopurua berdinkidea izanik, askoz “itxura orekatsua” daitekeelarik. Dena den, aspektu asko anbiguetate haundiz kutsatuak direnez gero, EIKE arautuko lukeen Normatiba atera artean, balorapen orokorrak egitea arriskutsu samarra gerta dakiguke. Une honetan gauzak dauden bezala, EIKE askoz gertuago dago Ikastolen nahitik Sare Publikoa baino.

Herri bakarraren pilpira

- Guk nahi dugun ikastolak behar du Eskola bakarra izan, zatiketa sozia-

lik sortuko ez duena. PSOE, EE, HB,... indar politikoen buruzagi zenbaiten ahotan eta EEPA kidegoarenetan ere entzun izan dugu EIKE komunitate ezberdinetako berezitasunak harrotu eta bizkortzen ari dela, herri bakarraren sentimendu eta giroa sortu beharrean. Berehala bururatzen zaizkigun galde-erantzunak hauek dira:

1. Ikastolak sortu al du hizkuntz-diskriminazioa?, ala hizkuntz-diskriminazioa zegoelako, ikastola sortu dugu?

2. Ikastolak harrotu eta bizkortu al du diskriminazio sozial-kulturala?, ala diskriminazio sozial-kulturala zegoelako, planteatu dugu ikastolaren beharra?

3. Ikastoletan gabiltzanok, zer egin behar dugu beraz?: ikastolak desegin?, horrela konpontzen al dugu barru-barruan dugun “bi komunitateen ziria”?

4. Sare Publikoan sartuko bagina ere, ikastoletara sartuko liratekeen haurrak eta euskarazko linearik onartzen ez duten beste ikastetxe publikoetan sartuko liratekeen umeak, ez al dira diskriminatuak sentitzen jarraituko? Nola arraio alda dezakegu egoera hau? Nola alda dezakegu guk, guraso eta irakasle askok euska-
ra eta are gutxiago euskarazko irakaskuntza begi bistan nahi ez badute?

Ez dezagun “diskriminazio-konplejua” sofritu, eta are gutxiago ikastolari leporatu. Eskola Bakarra ez da batuketa soil baten emaitza: ez da ikastola gehi ikastetxe publikoa berdin Euskadiko Eskola Nazionala. Ez. Eskola Bakarra, Euskadin, bertako herri burrukaren fruitua izango da, Euskadi burujabe eta bate-ratua lortzen den heinean. Bitartean, etsaiaren joku instituzionala egiten ari gara.

Galda diezaiegun geure buruei: EIKE eta EEPAk guk nahi dugun Euskal Eskola lortzen ez dutenez, bietako zeinek (ala biek, ala inork) leuntzen duen hobekien Euskal Eskola hori lortzeko bidea. EIKE proiektuak dioenez, berau Euskal Eskola Bakarra lortzeko bidean pauso probisional da. EEPA alternatibak, berarenez beste horrenbeste dio: Sare Publikoan sartu, Euskal Eskola eraikitze-ko. Biak, beraz, bat datoz gauza berean: Euskal Eskola ez da orain posible, une honetan emango genituzkeen pausoak (eta hona hemen arazo guzti honen garrantzia) Euskal Eskola hori eraikitzeko dira.

Guzti honetaz, geure eritziak topo egiten du honako puntuotan: ongi da, itxu-
ra denez, denok nahi dugu eta defendatzen dugu Euskal Eskola Bakarra. Une honetan, ordea, ez dugu posible ikusten. Baina... orain arte, Ikastola-munduko estamentuak mintzatu gara bakarrik; zertan dira Sare Publikoan aurkitzen diren estamentuen eritziak? Ikastolakoek -zatituta eta kontrajarriak diren eritzien bitar-
tez- geure eritzia azaldu dugu.

Zergatik ez dugu arazo gordin hau planteatzen? Sare Publikoan dauden irak-
kasle gehienak gainera etorriko zaizkigulako?, ezinezkotzat jotzen dugulako?...
Nola demontre planteatu dezakegu, beraz, Sare Publikoan sartzea, errealitate latz
hau ikusita gero?

Herriaren errealtatean txertatu

- Guk nahi dugun ikastolak ingurune hurbilari egokitua behar du izan. Hau esatean, zera adierazi nahi dugu: Euskal Eskola geure herriaren errealtatean txertatu behar dugula, hezkuntza ereduari dagokionez zein tokian tokiko hizkuntza egoerari dagokionez.

- Bai EEPAk proposatzen duen irtenbidean, bai EIKEk eskeintzen duenean, bai edozein beste desberdinetan, Ikastoletakoek jakin izango dugu orain arte urratutako bideari eusten eta saiatuko gara Eskola eta ingurunea lotzen, zalantzarik gabe. Baina, puntu honi jarraituz, gehien kezkatzen gaituen arazoa zera da, EIKEk ala EEPAk (Sare Publikoak, alegia) eskeintzen du autonomi espaziorik haundiena? Bietatik zeinek —une honetan. noski— eskein dezake behar beharrezkoa zaigun Eskola mailako autonomia?

- Guk nahi dugun ikastolak behar du izan dohakoa, gratuitoa. Puntu honetan ez dago zalantzarik: EIKE zein Sare Publikoak, biok, garantizatzen omen dute hainbeste amestutako gratuitatea.

- Guk nahi dugun ikastolak pluralismo ideologikoa barneratu behar du. Hemen ere, aldeko puntuak eta kontrakoak datoz bi irtenbideetan. EIKERen pluralismo ideologikoa garantizatzen da baita Sare Publikoan ere. Eta manipulazio ideologikoa, agintari politikoen eraginez, berbera gerta daiteke batean zein bestean.

e) Nolakoa behar den definitu

Bai, ez dago burua hondar artean izkututzerik. Ikastola munduan eztabaida hau pil-pil dago eta bertan gabiltzanok —eritzi honen egileok, barne— geure aburuak plazaratu beharrean aurkitzen gara. Guk ahalik eta era sinpleenaz egin nahi genuke, eta orain arteko erreferentzi historikoa galdu gabe:

- Frankismo garaian, ikastolak sortu genitueneko garaian, helburu estrategiko bat bagenuen: Euskadiko Eskola Nazionala atzematea. Ingurune instituzionalak eta politikoak ez zuen nahi genuen Euskal Eskola hori zertzen uzten, Euskadi burujabe ez zelako, bateraturik ez zegoelako eta euskara geure hizkuntza nazionala ez zelako. Hartu genuen jarrera taktikoa (ezinbestekoa), Eskola Pribatuen “larru legala” erabili eta ikastolak sortu, ugaritu eta indartzea izan zen.

- Frankismondoko garaian, bizi dugun une hau beraz, ikastolak sorguneko helburu estrategiko berbera du: Euskadiko Eskola Nazionala eraikitzea. Ingurune instituzional eta politikoak, “zerbait” aldatu arren Hego Euskadin, ez du gure Euskal Eskola gauzatzen uzten, goian aipaturiko arrazoi eta argudio berdinak tartean direlarik: ahalmen politikorik eza eta euskara hizkuntza nazionala ez izatea. Zein izan daiteke une honetako jarrera taktikoa? Geure

eritiz bi bakarrik daude: Ikastola instituzionalizatzea, oraingo instituzio “publikoak” erabiliz (EIKE, Sare Publikoa...) edo instituzio hauetatik aparte ibiltzea, ikastola instituzionalizatu gabe.

- Geure Planteamendua, beraz, eta Ikastolaren tradizioari eutsiz, hauxe da:

1. Ikastola ez dago salgai.

2. Ikastola ez dugu manipulatzeko utzi behar, diru eta gratuitatearen truke. Nahiko manipulatu aurkitzen da dagoeneko.

3. Ikastolak helburu estrategiko berdinari eutsi behar dio: bera da Euskadiko Eskola Nazionala eraikitzekeo kimua.

4. Ingurune instituzionala eta politikoa hain murrizta eta estua den bitartean, Ikastola ezin da instituzionalizatu. Instituzionalizatzeak ez dio “publikoaren kalifikatiboa” ematen, edukiari dagokionez. Publikoa, herritarra da, eta ikastola Euskal Herriko beste hainbat erakunde bezala (AEK...) herri mugimendu bat da.

5. Ez EIKE eta ez Sare Publikoa, ez dira Ikastolari komeni zaizkion esparru instituzionalak. Ikastola kontrolatzeko eta -behar bada- itozteko irtenbideak besterik ez dira.

6. Ikastetxe publikoetako estamentuek (guraso, irakasle eta beraien jabea den Estatuko Administrazioak, alegia) heuren eritzia eman behar dute Euskal Eskola Nazionalari buruz, bertara iristeko beharrezkoak diren pausoak eta hartuko diren konpromezu zehatzak seinatuz. Bitartean, ez dago hori eta horrenbestez pauso bat ematerik.

7. Ikastoletan dagoen diskriminazio bakarra desagertzeko, “diskriminazio ekonomikoa, alegia”. Gratuitatea esijitu instituzioetatik “Ikastola hainbeste maitatu eta babesteko gogoia baldin badute”. Erabil daitezkeen formulak desberdinak dirateke: komenioak...

8. Ikastoletan aurki ditzakegun (eta badira ugari) egoera ez-demokratikoak salatu eta gestio demokratikoa aldarrikatu formulazio zehatzez: guraso eta irakasleen erabaki ahalmena berdinkidea, erabakiak hartzeko garaian...

Azken oharrak

1. Behin eta berriro azpimarkatu nahi neguke txostentxo hau Gipuzkoatik egina eta bertako egoera aztertuz burutu dugula, beste lurraldeetako egoeraren ezagutza erabat azalekoa zaigulako. Horregatik, ikastola munduan zabalduzaten bizkaitar, arabar, nafar eta iparretar aberkideei zera eskatu nahi genizueke: zeuen lurraldeetako informazio eta azterketa plazara dezazuela, bertako problematika denon jakinean jarri.

2. Irakaslearen egoera ez dugu txosten honetan aztertu, berezko formulazioa eskatzen duelako arazo honek, eta espazio eza nabaria zaigulako. Dena

den, irakasleen egoera da ikaragarri kezkatzen gaituen beste arazo bat eta alde honetatik saiatuko gara geure eritzia tajutzen.

MAIXU

Egin, 1983-11-17/18

4. dokumentua

SORTZEN. EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIAREN ALDEKO MUGIMENDUA

Euskal Herriko Ikastola eta E. Publikoetako guraso, ... eta irakasleak osatu dugun kolektibo honek, Euskal Eskola Publikoak gure Herrian izan behar dituen eta ezinbestekotzat jotzen ditugun ezaugarriak, gizarteari ezagutzera eman nahi dizkio.

Aldi berean, eta prozesuak ezberdinak izango badira ere, eskola eredu honek, Euskal Herrian ditugun "Administrazio" ezberdinen aurrean Euskal Eskola Publiko Berri baterantz eman behar ditugun urratsak bideratzeko balio behar digu. Eta ondorioz, administrazioei, beren proiektuek jaso behar dituzten derrigorrezko baldintzak edo puntuak jakinarazi eta esigitzeko.

Garbi ikusten genuen, gaur dugun zatiketarekin euskalduntzea eta berdintasuna ez direla lortuko eta EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIA egitekotan bi sareetako indarrak bildu eta elkarrekin osatu behar genuela Euskal Herriak behar duen eskola eredua.

Bide hau urratu nahian eta gaurko alternatibak ez dutela balio pentsatuz, eta goitik eskaini dizkiguten aurre-projektuak onartzen ez ditugunez, behar dugun EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIAREN eredia finkatzen saiatu gara. Aurrean duzue, ideia honen inguruan azken hilabete hauetan egin dugun gure saiakeraren ondorioa. Azter dezazuen eta zuen iritzia jakin nahian, eskuratzen dizuegu.

Euskal Eskola Publiko Berriaren ezinbesteko ezaugarriak

1. Euskalduna izango da

* Euskara delako gure herriaren hizkuntza eta euskal kulturaren jabetasunerako ardatza.

* Euskal Herriko haur guztien eskubidea delako euskaraz egoki jakitea, bai gizartean integratzeko, bai giza harremanetarako, eta baita etorkizunean lan munduan integratzeko ere.

* Horretarako, eskolak berreuskalduntze prozesoa bultzatuko du eta euskal kulturaren partaide aktiboa izango da.

* Guzti hau posibilitatu ahal izateko, derrigorrezkoa da Euskal Eskola Publikoko irakaslego guztia euskalduna izatea. Izan ere horrek bakarrik ziurtatuko bait du, haur guztiak euren ikasketak euskaraz jarraitu ahal izatea.

* Horretarako, euskaraz ez dakien irakaslegoa euskalduntzeko planak, bideak eta epeak zehaztea ezinbestekoa da. Aldi berean irakasleren batek bideak jarri ondoren, euskararik ikasi nahi ez balu, irakaskintza lanetik kanpo bideratu behar-ko litzaioke bere lanpostua. Hemendik aurrera Euskal Eskola Publikoan sartzen diren irakasle guztiak euskaldunak izango dira.

* Euskal Herriak bere Hezkuntza Curriculum propioa izango du. Bertan herri honek bere nortasuna berreskuratu eta osatzeko behar dituen oinarri kultural guztien taxuketa sendo bat eraikiko da.

Eranskina

Eskola Euskaldun hau lortu ahal izateko, zenbait aurre kondizio berehala aldatzea ezinbestekoa da:

* A eredia desagertzea, euskalduntzeko balio ez duelako.

* 86ko Uztailaren 4ko agindua baztertzeta.

* Egungo B eta D ereduak berformulatzea, murgiltze sistemak indartuz.

* Nafarroako Vascuence Legearen aldaketa eta euskararen irakaskuntza lurralde osoan ziurtatuz.

* Euskal Eskola Publikoan dauden zerbitzu guztiak euskalduntzea.

2. Titularitate publikoa

Euskal Eskola Publiko Berriak, Titularitate Publikoa izango du. Baina aldi berean, gaur dituen ondorioak izan ez ditzan, komunitate eskolarraren partehartzea ziurtatzeko eta zentroen autonomia egiaz gauzatzeko, Titulartasun Publikoaren edukia beritu beharko litzateke.

Berritze honek ez luke ondareen jabegoarekin zerikusirik izango (zentrook ez bait dugu patrimonio patikularren beharrik), erabakietan parte hartzeko esku-bide juridikoaren errekonozimenduari baizik.

3. Irakaskuntzaren gestio demokratikoa eta autonomia

EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIAN, Gestioa benetan demokratikoa izan dadin, ezinbestekoa da, Administrazioaz gain, Hezkuntza mailan zuzenki inplikaturako sektore guztiak Euskal Herriko Hezkuntza Politikaren partaideak izatea. Berrikuntza hau gauzatzeko ezinbestekotzat jotzen dugu:

a) Hezkuntza Sistemaren deszentralizazioa: herrialde, mankomunitate edo bailara, herriei eta ikastetxeei, dagokien mailan, dagozkien ahalmenak traspasatuaz eta autonomia juridikoa errekonozituaz.

b) Guzti hori egiaztatzeko, administrazioaz gain, Udaletxeko eta eskoletako ordezkariak ere, Gestio Organoen partaide izango dira. Ondorioz, Zentroko Kontseilu Eskolarrak, Herriko Kontseiluak, bailara edo mankomunitatekoak, herrialdekoak, erakunde sozialak, erabakiorrak izango lirateke, dagokien mailan.

c) Komunitate eskolarra eta Administrazioa bilduko dituen "Gestio Organo Orokorra" Euskal Herriko Euskal Eskola Publikoaren Hezkuntza Kontseilua izan daiteke. Hau osatzen duten ordezkariak errepresentatiboak izan beharko dute. Garbi dago ordea ez litzatekeela kontsultiboa izango, erabakiorra baizik. Eta administrazioek berari transferitu beharko liokete aipatu ditugun helburuak lortzeko beharrekotzen dituen konpetentzia guztiak.

d) Ondorioz, Administrazioek berezko dituzten eskubideak izango dituen bezala, Euskal Eskola Publikoko komunitate eskolarrari ere, berezko eskumenen transferentzia juridikoa gauzatu zaio.

Eranskina

Euskal Herri osoan, Euskal Hezkuntza Sistema ezarriko da nahiz administrazio errealtate ezberdinak izan. Hau ziurtatzeko Euskal Eskolen mankomunitatea sortuko da. II eta III artikuluan oinarrituko da bere osaketa. Bere funtzioa Euskal Hezkuntza Sistema ezartzea izango da.

Gestio demokratikoa

Euskal Eskola Publikoan, GESTIOA, demokratikoa eta partehartzailea izango da, parekidetasun printzipioan eta zentro bakoitzaren autonomian oinarrituz.

Era honetan, Eskola komunitateko estamentu guztiek bere ordezkariak izango dituzte, komunikazioa eta elkarrizketa bideratzeko.

Eskolako partaide guztiek (guraso, irakasle, ikasle, ez-dozente) zentroak darman hezketa bidean edo proiektuan intziditzeko eta erabakiak hartzeko aukera izango dute:

- * Zentroaren Hezkuntza Proiektua gauzatzeko.
- * Pedagogi mota aztertzen.
- * Hezkuntza proiektuaren arabera, lanpostu guztien perfila eta perfil hori beteko duen pertsona ziurtatuko da.
- * Eskolaren antolakuntzan.
- * Ekonomiaren kontrolean eta erabileran.
- * Erakundeekiko koordinaketan.
- * Eskolaren norabidea aztertzen.

Zentro bakoitzak bere Proiektu eta Curriculumaren barnean, ikasleak euskalduntzeko neurriak jarri ahal izateko eta hau aurrera eramateko baliabide eta ahalmena edukiko du.

Aniztasun ideologikoa

- * Eskolak aniztasun ideologikoa izango du, hau da pluralista izango da.
- * Errealitatea aztertzeko orduan, dauden ikuspegi ezberdinak ezagutu ondoren, neska-mutilak euren bidea kritikoki aukeratzeko eta bideratzeko gai izango dira.
- * Gizartearen onerako, ideologi ezberdinak elkarrekin lanean iharduteko aukera emango du eskolak. Elkarrenganako errespetuan, besteen iritzia entzuten eta norberarenak azaltzen ikasiz, elkarrizketarako gai izanez.
- * Honela, oinarrizko jarreratzat honokook jotzen ditugu:
 - Beste pertsonaren ideia, iritzi eta sinismenenganako errekonozimendu eta balorapena.
 - Beste pertsona eta giza-talde biziaren bizitzeko era ezberdin, sinismen, balore kultural, etab. errespetatzea.
 - Egoera diskriminatzaile ez onartzea.

* Euskal Eskola Publikoa integratzailea izango da. Diskriminazio mota guztiak baztertuz. Muga fisiko edo psikikoak dituztenekiko, sozialki marginatuak

direnekiko, etab., bereizketarik egin gabe. Ikasleen artean eman daitezkeen prozesu eta erritmo ezberdinentzat baliabideak eskeiniz eta behar den kasuetan konpensaketa lana antolatuz.

Eskola hezkidetzaileria

* Neska mutilek, beren nortasun indibiduala era osoan garatzeko aukera eta laguntza behar dute. Ondorioz norbere burua estimatzen jakin behar du eta elkar-tasunean oinarritutako harreman interperstonalak burutzeko, heziketa afektibo-sexuala egokia jaso behar du.

* Betidanik gizon eta emakumezkoenak kontsideratu direla kontutan hartu gabe, ikasle bakoitzaren baloreak, ahalmenak eta norberaren ezberdintasunak onartuko dira, generoarean esterotipoak gaindituz.

* Joera eta edukin diskriminatzaileak aztertzeko eta aldatzeko bideak jarri-ko dira:

- Sexista ez den hizkera erabiliz.
- Bi generoen baloreak integratuz.
- Erabiltzen diren testu eta irudietan, gizon eta emakumeak modu orekatuan azalduz.
- Irakasle eta gurasoen heziketa hezkidetzaileria bultzatuz.
- Emakumeen aldeko diskriminazio positiboa bultzatuz.

Hezkuntza prozesu integrala

* Hezketaren oinarritzko helburua, pertsonaren garapen integrala da. Garapen hau, nortasunaren atal hauetan gauzatuko da: motorezko eta intelektual mailan, oreka pertsonal eta afektiboan, pertsonarteko harremanetan eta gizarte ihardueran.

* Ikasle bakoitzaren ezberdintasuna onartuko da, bakoitzaren heldutasun maila, erritmoa eta gaitasun intelektuala kontutan izanez, bakoitzaren positibota-suna indartuz eta guztiei adierazteko aukera emanaz. Bakoitza NOR izan dadin, bere kabuz jokatzen ikas dezan, pertsona libre, kritikoa eta autonomoa izaten lagunduz.

* Guztiok partaide eta solidario garen gizar-tean, bakoitza, norberaren origi-naltasuna besteei aportatzeko gai izatera bultzatuz.

* Euskal Eskola Publikoa beraz, integratzailea izango da. Diskriminazio mota guztiak baztertuz: muga fisiko edo psikiko dituztenekiko, kulturalki, sozialki, edo arrazarekiko marginatuak direnekiko, etab., bereizketarik egin gabe. Ikas-

leen artean eman daitezkeen prozesu eta erritmo ezberdinentzat baliabideak eskainiz eta behar den kasuetan konpentsatze lana antolatuz.

4. Finantziazioa

Euskal Eskola Publikoan finantziazioa publikoa izango da.

Finantziazio hau hiru mailatan emango litzateke:

* Orokorrean, guztientzat derrigorrezkoa dena.

* Pedagogi berrikuntzan ematen diren urratsez gain, ikastetxe bakoitzeko komunitate eskolarrak, bere kokapen geografiko edo sozialarengatik jasan ditza-keen, desoreka linguistiko, sozial, psiko-fisiko, etab. konpentsatuko dituen.

* Hezkuntza Proiektuaren arabera, pedagogi berrikuntzan ematen diren urratsei erantzungo diena. Euskal Eskola Publikoa dohainik izango da.

5. Lan marko berria

Euskal Eskola Publiko Berrian, sare ezberdinetatik datozen irakasleak kon-
fluitu behar dutenez, irakaslearen kolektibo berri eta bakar bat gauzatu ahal
izateko Lan Marko berri bat eratu beharko litzatekeela deritzogu.

Honela, langile guztiak lan baldintza berdina izango lukete, eta Administra-
zioko langileak izango lirarteke.

Kolektibo bakar hau zer motatakoa izango den eztabaidatu beharko litzate-
ke eta sindikatuek ere zer esana izango lukete.

Lan Marko berri hontan, Zentroko Hezkuntza Proiektuan beharrezkoak
diren langile guztien iraunkortasuna edo estabilitatea ziurtatu behar da. Ez boron-
datearen baitan, Legedian jasota baizik. Izan ere, hori gabe, ekipo iraunkorra
amets bat besterik ez litzateke, zentroetako Hezkuntza Proiektua gauzatzeko
AUTONOMIA.

Hernani, 1992ko Ekainaren 6an

5. dokumentua

IKASTOLEN ELKARTEAK IKASTOLEI PROPOSAMENA. ARMENTIAKO AGIRIA

Eusko Jaurlaritza osatzen duten alderdi politikoek egindako Akordio Politikoak, legeak definitzen duen esparru publikoan, guk aldarrikatzen genuen Euskal Eskola Publikoa garatzeko aukerarik ez digu utzi, eta lortu dituen hobekuntzak aitortuarren ez du oinarritzko aurrerapenik suposatu geure Eskola Propioaren egituraketarako.

Euskal Hezkuntza Sistema ez Unibertsitarioa bi sareetan, (publiko eta pribatua), egituratzen duen 1/1993 Legea onartua izan ondoren, bere 7. xedapen gehigarrian, aukera ematen zaie, 10/1988 Legearen aplikapenaren eremuan dauden ikastolei, sare publiko edo pribatuan sartzeko. Honen aurrean ikastolen mugimendua, bere etorkizuna markatuko duen erabaki historiko baten aurrean aurkitzen da.

Hain erabaki garrantzitsuen aurrean, ikastolok Armentian 1993.eko maiatzaren 15ean elkarturik, honako hau adierazten dugu:

1. Iruñeako I. eta II. Batzar Nazionalak erabakiak berriro baieztatzen ditugula:

* Euskalduna eta Kalitatezko Hezkuntza Proiektuaren alde eginiko lana egiten jarraitzea.

* Geure Diseinu curricularra lantzea.

* Euskal Eskola Publiko Berriaren ideia indartzea.

* Eskolarako Lan Marko Berri baten beharra eragitea.

* Ikastolen arteko elkartasun-finantziabide sistema prestatzea.

* Ikastolen Talde Nazionalaren egituraketa gertatzea.

* Gure Eskola Mapa (planifikazioa) burutzea.

* Ahalik eta Hezkuntza Akordiorik zabalena lortzeko, harremanak sakondu eta indartzea.

* Hezkuntzakoak ez diren beste erakundeekin hasitako kolaborazioa areagotzea.

2. Korporazio lokalen aukera (1/1993 Legean 9. xedapen gehigarriaren lehenengo artikuluko 2. puntua) baieztatzen dugula, gure iritziz etorkizuneko soluziobidea izango delakoan, Eskola Publiko Berriari babes juridiko egokia emanaz. Hori dela eta proiektuarekin lanean jarraituko dugu orain lortu ez dena etorkizunecan gauzatu dezagun.

3. Urte honetako koiunturan sare pribatuan sartzen garela, betidanik izan ditugun nortasun ezaugarriak gordetzeko. Ezaugarri hoiek murgildu dute erabat ikastolen mugimendua euskal gizartean, sortzeko moduagaitik eta dituen helburu eta funtzionamentuagaitik.

4. Sare publikoan sartzea erabakitzen duten ikastolak begirunez babesten ditugula, talde bezala, aurretik aipaturiko arrazoieta oinarriturik.

5. Ikastola mugimenduak, lanean jarraituko duela, Euskal Eskola Publiko Berriaren egituraketa gauzatu arte, asmo honen alde dauden guztiekin, euskara eta euskal kulturaren garapenerako inguruan dauden ekimenak bultzatuz eta elkarlanean arituz helburuak lortu arte.

6. Etorkizunak dakartzan desfioei aurre egiteko, Ikastolen Talde Solidarioa sortzea bereziki baieztatzen dugula. Sare pribatuaren aukera egiten dutenak ardatz nagusi bihurtuko lirake eta sare publikoan sartzea aukeratuaren, Iruñeako Batzar Nazionalak helburuak eta erabakiak lantzen jarraitu nahi duen guztiari zabalik egongo ginateke.

7. Talde Solidarioa egituratzeko, gure interesetarako egokienak diren for-

mula juridiko eta antolaketa erak berehala lantzen hastea, taldearen beharrak eta bakoitzaren autonomia kontutan izanik. Baina, bitartean dauden desoreka eta behar larriei erantzuteko Euskal Herriko ikastoletan (Elkarte Autonomo, Nafarroa eta Iparraldean), une honetan daukagun eta etorkizunerako aurrakusten dugun ondasunaren erabilpen elkartua egiteko, ikasleko eta hileko———
———ptako kuota solidarioa ipintzen dugu eta eraberean RIR kontzeptu-
tik egiten diren sarrerak talderako aportazio bihurtzeko konpromisua hartzen
dugu. Taldeko egituraketa juridikoa erabat borobildu bitartean lurraldeetako
Batzorde exekutiboak fondo baterakoi hauen erabilpenerako mekanismoak
taxutzea erabakiko dute.

8. Historikoki, ikastolen mugimendua ez da eskola esparrura mugatu; bere inguruan murgildu da, erabat mugimendu herritarra izanik euskal gizarte gehien-
go handi baten konpromisuaren ondorioa izan da Nazionaltasun kontzientzia
argia izanez. Beraz partaidetza hori bultzatu eta sendotzen jarraitzea oinarrizkoa
deritzogu.

9. Irakaslegoa izan da eta da, oinarrizko zutabeetako bat ikastolen histo-
rian. Lehen izan den bezalaxe, etorkizunean ere guraso eta langileen elkarlanaren
poderioz egingo da bidea. Beraz proiektua garatzeko giza-baliabideak oinarriz-
koak izanez, lehentasuna emango zaio egonkortasun eta prestakuntzari.

10. Gaur arte ikastola bakoitzak elkarrekin ibiltzeko egin duen apostu
gogorra eta ahalegina aitortzekoak eta eskertzekoak dira. Bai guraso, langile, era-
kunde, alderdi politiko eta sindikatuen kolaborazioa bere neurrian baloratzen
dugu, eta oinarriz elkertasunean bermatzen denez etorkizuneko edozein proiektu,
behin eta berriro horren aldeko apostua berritzen dugu.

11. Gure Herriko ondasunik haundiena, giza taldea denez, horretan oina-
ritzten dugu gure eskola, herritarren ekimena ezin bestekotzat joz, gure gazteak
euskarazko hezkuntzan, kalitatezko formakuntza osatua izan dezaten, nazional-
tasun zentzuaz Herria egituratuz eta Europa eta Mundura zabalduz.

Ikastolen Elkarte

Armentian, 1993ko maiatzaren 15ean

6. dokumentua

SORTZEN-IKASBATUAZEN HEZKUNTZA SISTEMA PROPIOA. EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIA ERAIKITZEKO PROPOSAMENA

1. Hitzaurrea

Azken urteotan, euskararen normalizazioa, hezkuntzaren berrikuntza eta gurasoen parte hartzearen arloak bultzatzeko lanean aritu diren kolektibo ezberdinei esker, aurrerapausu nabarmenak eman dira eskola publikoaren barruan. Hau uka ezina izanik, oraindik zeregin handia dagoela ere ezin genezake uka.

Sortzen eta Ikasbatuaz elkarteak aspalditik ari dira lanean Euskal Eskola Publiko Berriaren alde eskola-komunitateko sektore guztiak bilduz. Orain arte, bakoitzak lurralde eremu desberdinetan (Nafarroa eta EAE) lana egin izan badu ere, helburu bera izanda, elkarlanean aritu gara bi elkarteok. Hemendik aurrera, biok Elkarte bakar batean bildurik, Sortzen-Ikasbatuazek Euskal Herri osoan Euskal Eskolaren eraikitze lanetan jo nahi du aurrera, kokatuta dagoen lekutik

abiatuta, hau da, eskola publikoaren barrutik. Elkarte berri honetan 57 ikastetxetako ordezkariak biltzen gara, 25.000 ikasle, 10.000 familitatik gora eta 1.800 bat langileren ordezkariak dugularik.

Irekitzen zaigun aro berri honetan gure proiektua Euskal Herri osoan ezagutzera eman eta ikastola-eskola publiko euskaldunen indar metaketa lortzea da gure lehen erronka. Horretarako, ikastetxe publiko euskaldunei gure proiektu eta asmoak ezagutarazteko konpromezua hartzen dugu, elkarrekin lana egiteko aukera gauzatzea helburutzat hartuz, etorkizuneko Euskal Eskolaren ereduaren zutabe izan nahi duen Euskal Eskola Publiko Berriaren helburuekin bat egiten duten ikastola eta eskola publiko euskaldun guztiekin.

Gaur egungo administrazio egiturak eragiten duen zatiketaren gainetik eman nahi ditugu gure urratsak. Hiru administrazio desberdinen araupean gauden euskal eskola publiko euskaldunak bildu eta elkarlanerako aukera emango digun egituraketa sendotu nahi dugu.

Hain zuzen ere, Euskal Eskola Publiko Berriaren bidean, Euskal Herri osoko ikastetxe publiko euskaldunak egitura berdinean bilduko dituen elkar-
tea da gure helburua.

Bestalde, Herri honen euskalduntzea eta kalitatezko heziketa lortuko badira, sare desberdinetako eskolen arteko elkarlana nahitaezkoa da. Ez sare publikotik kanpo dauden eskola euskaldun eta ikastolek soilik bideratu ahal izango dute eginkizun hori, ezta sare publikoan biltzen garen ikastola nahiz eskolek soilik bete ahal izango dugu helburu hori. Helburu honekin, Sortzen-Ikasbatuaz Elkarteak Euskal Eskolaren mugimendua indartzea xedetzat duen Euskal Herriko edozein elkarterekin elkarlanean aritzeko erabat zabalik dago. Bide honetan, sare eta sektore desberdinak bilduz lanean ari diren hainbat bilguntzan hartzen du parte, Hezkuntzaren Gizarte Gunean, Euskararen Kontseiluaren plan estrategikoan eta "Euskara eskubidea eta abantaila" kanpainen, besteak beste.

2. Sortzen-Ikasbatuaz proposatu eta garatzen ari den eskola eredia

Sortzen-Ikasbatuaz Elkarteak biltzen garen ikastola-eskola publikoak Hezkuntza Sistema Propioaren alde, berezko hezkuntza eredia ari gara garatzen, denok proiektu amankomun baten inguruan, sare publikotik Euskal Eskolaren gauzatze lanetan erreferente gisa.

Honako hauek dira Sortzen-Ikasbatuaz Elkarteak biltzen garen ikastetxeok garatzen ari garen Hezkuntza Proiektu amankomunaren ezaugarri nagusiak eta eredu hori lortzeko proposatzen ditugun ildoak:

Euskalduna: Euskara eta euskal kultura dira eskola euskaldunaren arda-

tzak, beraz, horiek sustatzeko lanean konprometitutako eskola-eredua nahi dugu, honako lan ildo hauei jarraituz:

- * Euskal Herri osoan euskararen ofizialtasuna lortu.
- * Iparralde eta Nafarroako eskualde orotan euskarak eta euskarazko hezkuntzak erabateko babes juridiko-legala izan dezatela lortu.
- * Oinarritzko Hezkuntza bukatzean ikaslearen euskara gaitasuna bermatua izan dadin lortu.
- * Euskarazko eskaintza erabatekoa ziurtatu, ikasmaita eta jakintzagai guztietan, 0-3 etapatik hasita, unibertsitatea bukatzeraino, epeak eta plan bereziak finkatuz.
- * Euskarazko hezkuntza gauzatzen duten ikastetxeak eta elkarteak indartu.
- * Eskola-komunitatearen bizitza euskaldundu, barne zein kanpo harremanetan euskararen erabilera ohikoa izan dadin behar diren oinarriak ezarriz.
- * Langileria osoa euskalduna izatea bermatu.
- * Irakasle euskaldun garatuak bermatzeko neurriak jarri.
- * Euskal ikasmaterialen hutsuneak gainditzeko plangintza eraginkorra bultzatu, beharrezkoak diren baliabideak jarri.
- * Irakaskuntzako agente ezberdinen arteko elkarlana sustatu.

Euskal Herri osoan hedatua: Egun jasaten dugun zatiketa administratiborearen gainetik, administrazio desberdinen menpe dauden ikastetxe publiko euskaldunak berezko proiektu baten inguruan bilduz.

Euskal curriculum propioa garatuko duena, izaeraz eta edukinez: Euskal Herriak bere nazio izaeran eta kultur nortasunaren erroetan oinarritutako curriculum propioa.

Publikoa eta osoki finantzatua: Kalitatezko hezkuntza herritar guztion eskubidea da eta Administrazio Publikoen betebeharrak. Benetan doakoa eta eskola-komunitateak jasan ditzakeen maila desberdinetako desorekak konpentsatuko dituen, eta, era berean, Hezkuntza Proiektuaren arabera, pedagogi berrikuntzan ematen diren urratsei erantzungo diena.

Autonomian oinarritutakoa: Euskal Eskola Publikoak, benetan berria, berritzailea eta aurrerakoia izan dadin ikastetxearen autonomian oinarritutako eredua ezinbestekoa du; ikastetxea baita Hezkuntza Sistemaren ardatza eta Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua ikastetxearen oinarri. Autonomia lortzeko honako hauek dira gure proposamenak:

1 Titulartasunari dagokionez:

- * Titulartasun publikoaren edukia berritzea.
- * Administrazio Publikoak eta Gizarte Erakundeak dira derrigorrezko agenteak; bata bestearen parean, bakoitza bere zereginekin eta dagozkien eskumenak zehaztuta.
- * Hezkuntzan zuzenki inplikaturako sektore guztiak Hezkuntza Politikaren partaide izatea.
- * Eskola-komunitateko partaideak eurei dagozkien eskumenak edukitzea, erabakietan parte hartzeko ahalmenaren errekonozimendua ziurtatuz.

2. Partaidetzari dagokionez:

- * Euskal Eskola Publikoan kudeaketa demokratikoa eta partehartzailea izatea, parekidetasun printzipioan oinarrituz.
- * Eskola-komunitateko estamendu guztiak bere ordezkariak edukitzea, komunikazioa eta elkarriketa ahalbidetzeko.
- * Eskolako partaide guztiak (guraso, irakasle, ikasle eta ez-dozente) ikastetxeak daraman heziketa-proiektuan eragin eta erabakietan parte hartzeko aukera izatea.

3. Planifikazioari dagokionez:

- * Ikastetxe bakoitzak bere proiektua garatu ahal izateko baliabideak izatea, ikastetxearen egoeratik abiatuta eta Hezkuntza Proiektuari egokituta.
- * Zentro bakoitzak bere Hezkuntza-Proiektu eta Curriculumaren barnean, ikasleak zein langilegoa euskalduntzeko neurriak jarri ahal izateko eta euskalduntzea aurrera eramateko ahalmen eta baliabideak edukitzea.

4. Langilegoari dagokionez:

- * Ikastetxearen Proiektuarekin konprometituta egongo den langilegoa izatea.
- * Langilegoaren aukeraketan parte hartu ahal izatea (beharrak, perfila,.. zehaztu).
- * Plantilen egonkortasun minimoa zehaztu eta ziurtatzea; ez borondateen baitan, legez araututa baizik.
- * Ordezkapenen sistema berritzea (adjudikazio datak, zonaldekako poltsak, ordezko “finkoak” ikastetxeetan...)

5. Kudeaketa ekonomikoari dagokionez:

* Hezkuntza-Proiektuaren garapenari dagozkion baliabide ekonomikoak ikastetxeak berak kudeatzea, beti ere Administrazio zein Hezkuntza-komunitateko kideen kontrolpean.

Hala ere, egun, eta EAEko egoeratik abiatuta (pribilegiatua, Nafarroa eta Iparraldekoarekin alderatuz gero), Funtzio Publikoaren Legeak jartzen dituen oztupoak bitarteko, Euskal Eskola Publikoaren Legea eta Ikastetxeetako Hezkuntza-Proiektuak elkarren aurka joateko apropos eginak daudela dirudi, eta hori gainditzeko ausardiarik ez dagoen bitartean alperrik ariko gara autonomiaz hitzegiten.

Anitza eta integratzailea: Ideologia eta pentsakera desberdineko hiritarrak elkarrekin lanean jarduteko aukera ematen duena, diskriminazio mota guztiak baztertuz. Honetarako, honako lan ildoetan oinarritzen gara:

* Elkarrenganako errespetuan elkarrekin lanean jarduteko aukera izatea, ideologia eta pentsakera desberdinak gaindituz.

* Neska-mutil bakoitza nor izan dadin, bere kabuz jokatzeko ikas dezan, pertsona libre, kritiko eta autonomo izatea bultzatzea.

* Ikasketa-prozesu eta erritmo desberdinak bideratu ahal izateko behar diren baliabideak eskaintzea.

* Hezkidetzan oinarritutako hezkuntza bultzatzea, neska-mutilen arteko ezberdintasunak onartuz eta estereotipoak gaindituz.

* Hezkuntza eta pedagogi arloan kalitatea eskaintzea, etengabeko formakuntza prozesuan oinarrituz.

Hezkuntza Sisteman eta hurbileneko ingurunean eragina duena: Euskal kulturaren integratua eta gure gizartearen errealitatean txertatua. Hurbileneko ingurunean eragingo duena, bertatik hartuz eta emanez, harreman estuan.

Ikastetxeen arteko elkarlana ahalbidetu eta bultzatzen duena: Bai elkartearen barruko ikastetxeen artean, baita helburu berdintsuak dituzten beste ikastetxe batzuekin, jatorrizko sareak bereizteke.

Elkartasuna eta solidaritatea bultzatzen duena: Elkartasuna eskola-komunitatearen barnean nahiz komunitate horretatik kanpo bultzatzen duena eta ELKARTASUN KUTXAren bidez Euskal Herrian behar handiena duten beste ikastola-eskola euskaldunen egoera larria ekiditen laguntzeko ahalegina egiten duena (Nafarroa eta Iparraldea).

Lan marko berri batean kokatua: Irakaskuntzan lan harremanetarako Euskal esparrua sortuz, Euskal Herrirako lan hitzarmen propioak bermatzeko ahalmena izanik.

Formakuntza plan berezia diseinatuko duena: Hezkuntza proiektu orokorriari egokitutako behar bereziei erantzungo diena.

Ezaugarri hauek Sortzen-Ikasbatuaz proiektua berezi egiten dute egungo irakaskuntza publikoan.

Euskal Hezkuntza Sistemaren eraikuntza lanean, gure proiektua duintasunez eta eraginkorki aurrera eraman ahal izateko, Euskal Eskola Publikoaren Legeak, Funtzio Publikoaren Legeak, Vacuenceren Legeak, ... sortzen dizkiguten eragozpenak gaintitzea ezinbestekoa dugu.

Hezkuntza Proiektu berezia bitarteko, Lege horiek aldatzen (sic) diren bitartean, egungo marko juridikoak ematen dituen ahalmenez baliatuz, baldintza eta neurri bereziak proposatzen ditugu.

3. Sortzen-Ikasbatuaz proposamena. Egungo egoeratik abiatuta epe motzerako neurriak

Honako hauek dira Sortzen-Ikasbatuaz Elkarteak epe motzerako proposatzen dituen neurriak, beti ere ikastetxearen autonomian oinarritutakoak (pedagogia zein kudeaketa mailan):

a) Euskal irakaskuntza publikoari orokorrean dagozkionak:

* Langilego euskalduna ziurtatzea, ikastetxearen proiektuetan oinarrituz hala eskatzen duten ikastetxe orotan.

* Langileok ikastetxeak duen Hezkuntza Proiektuari erantzun diezaion Hezkuntza Sailak beharrezko diren neurriak jartzea.

* Ordezkapenen sistema berritzea (zonaldeko poltsak, ordezkio "finkoak" ikastetxeetan...)

* Langilegoaren adjudikazio datak aldatzea, ekainaren bukaerara aurreratuz.

b) Sortzen-Ikasbatuaz proiektuaren inguruan biltzen garen ikastetxeoi dagozkigunak:

* Euskal Eskola Publiko Berriaren proiektua garatu ahal izateko baliabideak jartzea, ikastetxe bakoitzaren egoeratik abiatuz eta Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuari egokituta.

* Proiektuarekin konprometituta egongo den langilegoaren plangintzan eta aukeraketan partehartzeko gaitasuna izatea, ez pertsonak aukeratuz, ikastetxearen beharrak, lanposturen perfila,... zehaztuz baizik.

* Proiektu honetan parte hartuko duten plantilen egonkortasun minimoa ziurtatzea.

* Proiektuaren garapenerako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoen kudeaketa eramatea, beti ere, Administrazio publiko eta Hezkuntza komunitatearen kontrolpean.

c) Sortzen-Ikasbatuaz Elkarteari dagozkionak:

* Sortzen-Ikasbatuaz Elkartearen indartzea, beharrezko dituen baliabideak ziurtatuz, berezko proiektua duten Euskal Herriko ikastetxe publiko euskaldunen koordinatzaile eta lankidetzaren bultzatzaile gisa.

4. Hezkuntza sistema propioa

Eraikuntza nazionalaz etengabe hitzegiten ari den garai honetan, eraikuntza hori gauzatzeko urratu beharreko bideak irekitzen hastea beharrezkoa dugu.

Eraikuntza nazionalaren ardatzetako bat Hezkuntza dugu, ez baitago naziorik Hezkuntza Sistema propiorik gabe.

Hezkuntza Sistema propioa lortzeko marko juridiko-politiko berria eraikitzea nahitaezkoa dugu eta lan horretan jarri behar ditugu gure ahaleginak; baina marko berria lortzen dugun bitartean, gaur egungo markoan ditugun tresnak erabili behar ditugu Euskal Eskola ahalbidetzen lagunduko duen estrategia garatuz eta, gaurtik hasita, geroaren bidean jarriko gaituen eredia jorratzen hasteko.

Sortzen-Ikasbatuaz Elkartea helburu berdinak dituen edozein ikastetxe publikorentzat dago irekia.

Alor honetan, sare desberdinetako ikastetxe, elkarte eta gizarte eragileen arteko elkarlanari behar-beharrezko deritzogu.

Elkarlan honetan oinarrituz, etorkizuneko Euskal Eskolaren eraikuntzan partehartze zuzena du Sortzen-Ikasbatuaz Elkarreak; eta lan horretan arituko da, besteak beste, ezinbestekotzat dugun Hezkuntza Sistema Propioaren alde.

Euskal Eskolaren alde dagoen gizarte mugimendua ilusionatu eta martxan jarriko duten irtenbide praktikoak Gobernu(eta)tik bideratzea ezinbestekoa da, lan hori gaur egiten ez bada, soberan izango baitugu, bihar, irakaskuntzarako marko berria.

5. Euskal Eskolaren eraikuntzarako erreferenteak

Lehen aipatu bezala, Euskal Hezkuntza sistemaren eraikuntzan gaurtik hasi behar dugu bidea jorratzen, baina ez dugu zerotik hasi beharrik: aspalditik eraikuntza lanean diharduten eta berezko Hezkuntza Sistemaren oinarri sendoa izan beharko luketen hainbat erreferente dugu Euskal Herri osoan zehar.

Denok ezagutzen ditugu euskal irakaskuntzan, eredu euskalduna gauzatuz, aspalditik proiektu bereziak garatzen ari diren ikastetxeak: eskola publiko euskaldunak, ikastolak eta zenbait ikastetxe pribatu; elkarren artean antolaketa batzuk, banakako lanean beste batzuk.

Ikastetxe horien ezaugarri amankomun esanguratsuena eta, zalantzarik gabe, sare desberdinen gaineratik lotzen dituen ezaugarria, euskalduntzea da, gure herriko hizkuntza eta kultura oinarritzat hartuz Hezkuntza Proiektuak garatzerakoan. Ikastetxe hauek eta euren artean osatutako elkarteek laguntza berezia ezinbestekoa dute eredu euskalduna behar bezala garatu ahal izateko.

Sortzen-Ikasbatuaz

Euskal Herrian, 1999ko urtarrilaren 28an

BIBLIOGRAFIA

- AIERBE ETA BESTEAK (1987): *Análisis del aprendizaje del euskara en los centros de la comarca de Urretxu, Legazpia, Zumárraga*, UPV, Argitaragabea
- AIERBE, P. (1986): *Factores de la lectura en niños bilingües*, Tesi doktora, UPV
- APALATEGI BEGIRISTAIN, J. (1984): *Eskola erakuntza eta hololinguistika* (1994), Tesi doktora, Donostiako Pedagogi Fakultatean, 1994-12-13
- APPLE, M. W. (1987): *Educación y poder*, Paidós/MEC, Madrid
- ARLANTZ (1983): "Euskal Eskola Publiko Nazionalaren lehen urratsak martxan. EIPA-ren ihardunaldiak Durangon", *Argia*, 992-993, azaroa-13, 28-31
- ARLANTZ; MOLLARI, J. (1983): "Ikastola auzitan. Paulo Iztuetarekin elkarriketa: 'Arazoa ez da ikastola; nazional eta pribatuak dira'", *Argia*, 991, urria-30, 24-25
- ARREGI ETA BESTEAK (1989): "La educación en Euskadi", Hezkuntz Teoriako VIII. Batzarrean aurkeztutako txostena, Donostia
- ARRIEN, G. (1987): *Educación y escuela de barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía, 1898-1936)*, Diputación Foral de Bizkaia, Bilbao
- ASKOREN ARTEAN (1935): *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, Euskaltzaleak, Donostia
- (1979): "Premia larriko neurrien txostena. Dossier de medidas de urgencia", uztaila. Testu informatizatua
 - (1980): "Por una enseñanza pública popular y vasca", *Arnasa*, 4
 - (1983a): "Ikastoletako irakaskuntzaren garapena eta egoera", *Jakin*, 28, 6-60
 - (1983b): "Ikastolatik Eskola Publikora", *Jakin*, 28, Donostia
 - (1990): "Euskal eskola eztabaidagai", *Tantak*, 4, 9-127
 - (1992): "100 tesis para mejorar la Escuela Pública", *Cuadernos de Pedagogía*, 206, julio-agosto
- BARCELO, F. (1989): "Erreforma eta irakaslegoaren prestakuntza", *Jakin*, 53, 37-49

- BASTIDA, L. (1983): "Ikastola auzitan. Eskoletako euskararen egoera praktikan. Zuhaitziko gurasoen eredia", *Argia*, 990, urria-23, 18-19
- BASTIDA, L. (1983): "Ikastola auzitan. Floren Ostolaza Donostiako Ikastolen Elkarteko lehendakariarekin: "Bi bideek ikastolen herri mugimendua deuseztera daramate", *Argia*, 989, urria-16, 26-28
- BASTIDA, I. (1983): "Ikastola auzitan. Tasio Erkiziarekin elkarriketa: "EIKEK., Euskal Herrian bi komunitateen bidea zabaltzen du", *Argia*, 988, urria-9, 26-28
- BASURCO, F. (1989): "La normalización de la ikastola: Breve historia y estado de la cuestión de la Escuela Pública Vasca", *Historia de la Educación*, 8, Salamanca, 139-166
- BASURCO, F. (1992a): "'Escuela Pública Vasca' Lege honekin erresistentzira berriz", *Isilik*, 16, Donostia, 17-24
- (1992b): "Euskal Eskola Publikoaren kontsentsua landuz", *Larrun*, 13, 59-68
- (1993): "Euskara: Hezkuntza-sistemaren hezurdura", *BAT*, 10, 23-35
- BOSCH, F.; DIAZ, J. (1988): *La educación en España. Una perspectiva económica*, Ariel, Barcelona
- BOWLES, S.; GINTIS, H. (1983): "La educación como escenario de las contradicciones en la reproducción de la relación capital-trabajo", *Educación y Sociedad*, 2, 7-2
- CALVET, L. J. (1974): *Linguistique et colonialisme. Petit traité de glotophagie*, Payot, Paris
- CASTELLS, J. M. (1983): "La normativa sobre el euskera", *Revista Vasca de Administración Pública*, mayo-agosto, Oñate
- COBREROS, E. (1983): "Sobre las normas de la Comunidad Autónoma referentes a la política lingüística", *Revista Vasca de Administración Pública*, enero, 5, Oñate
- DAVILA, P. (1988): *Educación en el País Vasco: El Magisterio y la Enseñanza elemental (1857-1930)*, Barcelona, Tesi doktoral
- DEPARTAMENTO DE ESTUDIOS DE CAJA LABORAL POPULAR: *Economía Vasca. Informes* (urterokoak), Oyarzun
- ETXEBERRIA, F. (1985): *Bilingüismo y educación en Euskadi*, Tesi doktoral, UPV
- ETXEZARRETA, I.; GARAGORRI, X.; OSORO, I. (1984): "Elebitasuna ikastoletan: egoera eta irtenbideak", *Jakin*, 32, 37-70
- EUROSTAT (1990): *L'Europe en chiffres*, Luxenburgo
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA (1988): *Ikastola. Izaera eta egitura*, Zarautz
- EUSKALTZAINDIA/IADECO (1979): *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*, EV, Donostia

- EUSKO JAURLARITZA (1981a): *Hasiera Zikloa, Orientabideak*, 4, Argitalpen-zerbitzu nagusia, Lehendakaritza-Saila
- (1981b): *Hasierako Zikloko euskararen programakuntza. B eta D ereduak*, 6, Argitalpen-zerbitzu nagusia, Lehendakaritza-Saila
 - (1982-1990): *Irakaskuntzaren estatistikak*, Eustat, Gasteiz
 - (1983): "Euskal Ikastolen Erakundea (EIKE)", BOPV, urtarrila-24
 - (1990a): EIFE = *Euskal Irakaskuntza Faktoreen eragina*, Hezkuntz Saila, Gasteiz
 - (1990b): *Euskal irakaskuntza: 10 urte*, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzu nagusia, Gasteiz
 - (1990c): *Nazioarteko Hezkuntza ihardunalditarako 10 tesi*, Vitoria
 - (1990d): *Primer Congreso de la Escuela Pública Vasca. Ponencias Internacionales*, Vitoria
- EUSKO JAURLARITZAREN GIZARTE AZTERKETARAKO LANTALDEA (1983): "Euskararen borroka", *Jakin*, 26-27, 15-258
- FERNANDEZ ENGUITA, M.: *La escuela a examen*, Eudema, Madrid, 1990
- (1992): *Educación, formación y empleo*, Eudema, Madrid
- FERNANDEZ, I. (1994): *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*, UEU, Bilbao
- FISHMAN, J. A. (1979): *Sociología del lenguaje*, Cátedra, Madrid
- FULLAT, O. (1983): *Escuela pública. Escuela privada*, Humanitas, Barcelona
- GARCIA GARRIDO, J.L.; GARCIA, F.; VELLOSO, A.: *La educación en Europa: Reformas y perspectivas de futuro*, Cincel, Madrid, 1989
- GARMENDIA, M. K. (1981a): "Elebitasuna eta interferentziak", *Jakin*, 19-20, 65-73
- (1981b): "Elebitasunaz ohar pare bat", *Jakin*, 19-20, 35-42
 - (1984): "Euskal irakaskuntzaren historia apur bat", *Ixilik*, 4
 - (1985): *Les ikastoles en Pays Basque d'Espagne. La question du bilinguisme scolaire*, Estraburgo, Argitaragabeko Tesi doktoralak
 - (1992): *Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza politikarako Idazkari Nagusiaren agerraldia, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko irakaskunde eta herrizaingo batzordearen aurrean*, Jaurlaritzako Lehendakariaren Idazkaritza, Gasteiz
- IZTUETA, P.; BASURCO, F. (koor.): *Euskal Eskola Berria*, Hezkuntza Teoria eta Historia Saila, Elgoibar, 1993
- LAMBERT, W. (1982): "Algunas consideraciones del bilingüismo", *Revista de Occidente*, 10-11, 143-166
- LARRAÑAGA, I. (1987): "Euskal soziolinguistikaren egoera eta bide berriak", *Jakin*, 42-43, 7-28
- LASA, M. (1978): "Euskal Herriko irakaskuntza elebiduna antolatzeke oin-harrizko ideia batzu", *Jakin*, 7, 47-70
- (1981): "Ikastolen politika linguistikoaren analisi kritikoa", *Jakin*, 19-20, 22-34

- LUKAS, J. F. (1990): *Trebetasun eta errendimendu matematikoa testuinguru elebidunean*, Tesi doktoral, EHU
- MACKEY, W. F. (1976): *Bilinguisme et contact des langues*, Klincksieck, Paris
- MATEOS, S. (1999): *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza publikoa: Ikastolen publikazioa*, Tesi doktoral, Leioako Soziologi Fakultatean, 1999-03-5
- MULLER, I. (1984): "Elebitasuna Euskal Herrian: teoria eta egoera", *Jakin*, 32, 25-36
- OIHARTZABAL, L. (1987): "Euskara eta eskola: euskararen bir-hedapenean hainbat arazo", *Jakin*, 42-43, 73-83
- (1989): "Berehalako hezkuntza sistemaren birmoldaketa", *Jakin*, 3, 7-11
- OIHARTZABAL, L.; KAIFER, A. (1981): "Euskararen irakaskuntza Araban", *Jakin*, 19-20, 74-85
- OLANO, A. (1935): "Bilingüismo", in *Lucha de idiomas en Euzkadi y Europa*, Euskaltzaleak, Donostia
- OSTOLAZA, M. (1992): *La depuración del magisterio vasco en la guerra civil*, Madrid, Tesina. Gero izen honekin argitaratua: *El garrote de la depuración. Maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*, Ibaeta Pedagogía, Donostia, 1996
- (1999): *Entre religión y modernidad*, UPV, Servicio Editorial de la UPV, Bilbao
- OTANO, I. (1978): "'Escuela Pública Vasca, Adarra, Bilbao
- RODRIGUEZ, F. (1999): *Construir o destruir naciones. El sistema educativo en el País Vasco*, Besatari, Bilbao
- ROTAETXE, K. (1981): "Irakaskuntzaren sistema eta euskararen irakaskuntza", *Jakin*, 19-20, 43-55
- SANCHEZ, J. M. <Txepetx> (1981): "El espacio bilingüe: aspectos etnolingüísticos y teoría lingüística de los espacios", *Eusko Ikaskuntza*, Nafarroa
- (1987): *Un futuro para nuestro pasado: Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*, Estella-Lizarrza
- SIADeco (1978): *Bases para un futuro plan de actuación a favor de la normalización del uso del euskara*, Koldo Mitxelena artxibategian, Urria, Donostia
- (1980): *Estudio socio-lingüístico del euskara: VII: Las Ikastolas*, Argitaragabea.
- VARELA, S. (1976): *El problema regional en la Segunda República Española*, Unión Editorial, Madrid
- ZABALETA IMAZ, I. (1997): *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza (1895-1923)*, EHU, Donostia
- ZABALETA ZABALETA, P. (1986): *Euskal irakaskuntza Nafarroan. Normalizaziorako oinarriak*, Castuera, Iruñea

ZALBIDE, M. (1977): "Euskararen irakaskuntza Gipuzkoan", *Jakin*, 2, 126-134

- (1990): "Euskal eskola, asmo zahar bide berri", *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 212-260